El verbo guipuzcoano sale ganando en esta segunda edición visiblemente, merced a las hábiles correcciones que ha sufrido la obra. Era en el uso de las flexiones verbales en donde principalmente se echaban de ver los lunares que afeaban la belleza

* L. de JAUREGUI, *El Día*, 06/03/1935, 1.

literaria de *Garoa*. Hoy han desaparecido todos estos defectos de lenguaje y ha quedado la novela embellecida con su peculiar estilo, vivo y elegante, dulce y sonoro, que tan deleitosamente se pega a los oídos acostumbrados a gustar los sonidos de la melodiosa habla popular.

Todos los personajes, humildes pero representativos del agro guipuzcoano, que se mueven en *Garoa*, viven y nos son conocidos; en todas nuestras aldeas los hemos visto y tratado, según el mayor o menor relieve que les da el autor. Están caracterizados en la novela con tal fidelidad, que parecen seres animados, personas que piensan y se mueven en un mundo real y verdadero. Por esto el lector sin esfuerzo ni fatiga imaginativa puede parar su atención en las incidencias de la acción novelesca y figurarse cómo son moral y físicamente los personajes que intervienen en la misma.

El mismo acierto que en la pintura de caracteres nos muestra el autor en las descripciones de los paisajes y lugares. No son éstas en *Garoa* una mera agrupación de palabras que ninguna idea despiertan en la mente del lector, sino vivas pinturas de lugares, que el lector los ve como si estuviese materialmente en ellos. En estas dos cualidades estriba, a nuestro humilde entender, el mérito principal de esta novela. Esto es precisamente, según críticos de nota, lo que debe buscarse en una novela, porque, es en la verdad de los caracteres y de las descripciones, donde se basa el mérito esencial y el más característico de este género literario.

La acción, según estos, es lo secundario; no puede, en verdad, dejar de tener alguna, pero con poca, muy poca, le basta. La novela, es de todas las composiciones literarias la que menos necesidad tiene de acción. En *Garoa* la acción es casi nula; todo su argumento puede decirse en muy pocas palabras, y sin embargo, se lee con gusto e interés. Ello es debido a la encantadora verdad de sus descripciones, al realismo maravilloso de sus diálogos, a la variedad y viveza de sus escenas en las que quedan retratadas las costumbres, las aficiones, las virtudes y las lacras morales de nuestra familia labradora, y sobre todo, al sello de vida que llevan todos los personajes que intervienen en la acción novelesca.

Domingo de Aguirre sigue la trayectoria de Fernán Caballero y de Pereda en sus novelas de costumbres. La fidelidad y colorido en la descripción del paisaje y la vida en las escenas y personajes, que caracterizan la obra de aquellos dos grandes novelistas, halló eco en el espíritu artista de nuestro autor, y nos dejó en dos producciones maestras, en *Kresala* y *Garoa*, retratada la azarosa vida de nuestro pescador y la pintura fiel de nuestra familia labradora. Su pluma sacerdotal queda siempre elevada, como una bandera blanca, pregonando la paz, el amor a nuestras costumbres ancestrales y al idioma de la raza vasca, anatematizando los vicios y exaltando la vida patriarcal del caserío vasco, sin que jamás se manche de cieno en la descripción demasiado realista de las escenas pasionales, ni pierda su brillo con transigencias innobles.

Un libro así, de tan alto valor literario, debe agotarse rápidamente si es que hay entre nosotros un adarme de patriotismo y de gusto literario. Las excusas que para la lectura de ciertas obras literarias modernas euskéricas suelen aducirse, no caben mencionarse ante esta novela del más rancio sabor popular y del más bello decir guipuzcoano.

Es el fruto más maduro del ingenio de uno de nuestros más delicados escritores, ornamento y gloria de la clase sacerdotal vasca, que con el aroma de sus virtudes perfumó la bella villa de Zumaya, y con ardiente vasquismo engendró una obra inmortal en la literatura vasca.

ASTIBIA'TAR JON ANDONI
AITA ERRENTERI KAPUTXINOA, OLERKARI ETA IDAZLE*

Ez da izango berrogei urtetik gorako abertzalerik noski, idazle azkar honen entzuterik ez duenik. Euskal Herriaganako maitasunean nabarmentzea neketsu eta oina-zekor zitzaigun garaian, bere ahotsa jaso eta eusko bihotz lotiak esnatu nahiaz deiadarrari eman zion euskaraz eta erdarazko haren oihu kementsuak, hamaika euskotarren buru argitu zituzten eta bihotz epel berotu ere bai.

Sugarra zerion labea zen haren bihotza. Ez zitekeen bere ondoan lozorroan egon berotasunez kutsatu gabe. Jaungoikoa eta Euskadi, horra bihotz-buruan kiskaltzen zeramatzan maitasunik nagusienak. Bere bertsoak eta bere idazlanak ere, ez dira, bi maitasun horien txinpartak besterik. Bi maitasun hauexen suak erreta hil zitzaigun 1917. urtean, Tudelako Kaputxinoen ikastetxean, 34 urte zituela.

Ez zuen bidea urratu besterik artean egin; bere buru eta bihotza loretan zeuden oraindik; orduantxe igali mardulak sortzeko zorian ageri zitzaigun. Orduarte emandako olerki eta idazlanak, hutsak ziren, laster emateko ernatzen zeuzkan, haien aldean.

Asmo bikainak irakiten zerabiltzan bihotzean, langile porrokatua genuen, eta eskuan zeukan luma zorrotza eta trebea, Ederminaren ukitu goxoak bertsotan iraultzen ez zitzaigun arteraino motel azaldu; gauza ederrik frankoz euskal olerkia eta literatura osoa aberasteko sortua genuela zirudien, beraz. Baina Jaunak Beraganantz hots egin zion, eta euskal udaberriko enara Zerurantz hegatu zitzaigun. Eta enarak alde eginarekin batera, negua agertu ohi zaigun eran, gure enara olerkaria guregandik ezkututzearekin, neguko laino beltzek euskal basoa estali zuten.

Kantari hil zitzaigun enara gaxoa: betiko bizitzara begira-begira jarri zen hegatu baino lehen, eta lehenbailehen harantz jotzeko gogo bizia sortu zitzaion. Zorion-tokiaren ateetan Josu ona ikusi zuen, eta kantari esan zion:

Iriki, Jauna, atea, iriki leyua...
 Enarak ixilla du bete bere agua.
 Begira noiz datorren Zeorrek deitua;
 ta orduan, oi! eman laztan ta musua,
 ta Donoki-barrenean sari betikua.
 Enara gaxua...!

Nire ahoarentzat Aita Errenderiren olerkitxo hau duzu denetan goxoen, xamurrena ta argiena. Besteetan, olerkari xamur baino, bertso-egile trebeago ageri zaigulakoan nago. Nuñez de Arceren tankera topatzen diot bertso-egintzan eta haiek darioten su-garretan. Horrelakoak dituzu bere olerki aberkoiak, batez ere. Hona, adibidez, "Egi-Gurenda" deritzanaren hasiera:

* JAUTARKOL, *El Día*, 12/07/1935, 1.

Jeiki, euzkeldun-euzkotar guztiyak!

Egunan gaude, zabaldu begiyak.

Biotzak berotu,

gogo denak sutu...

Ortze ederretik datoz argizpiyak.

Iges egiñik gaba beltz-illunak.

Aupa euzkuak! Aupa euzkeldunak...!

Hauen artean xamurrena eta eztsuena noski, "Euzkeraren Eriyotza". Ba ote dago gure artean euskaltzalerik abestua entzun ez duenik?

Nik maite nuan kutuna

nere atsegin zoruna...

Olerki hau besterik Aita Errenderik egin ez bazigun, olerkari izena ondo irabazita izango zuen. Hain da izan ere olerki atsegina, polita ta ederki taxutua. Badu beste bat ere, irudi biziz josia, burutik oinetaraino garrez jantzia: "Lekobidenian", deritza eta garraren garraz txinpartak darizkio.

Hara bere bukaera:

Azkenez Lekobide, Basajaun ezana,

ager adi ire etxian, Lekobide Erkaba

(...) gogor, zorrozki, idekirik aba,

birautu zak irainka euzkotar billaba.

Honek emango dizu garbi aditzera, olerki osoaren garra eta tankera.

Ixkiriniri arin ta erne batzuk ere utzi zizkigun. Hona bat:

Aberriyan utzita

bere bizi diru

arrotzak Euzkadi'ra

etorri zaizkigu.

Mutillak, au bai dela

munduaren mundu:

aberastu nai baño

nayago txirotu.

Olerkari ez ezik, idazle bizia eta jakintsu azkarra genuen Aita Astibiatarra. Hizkuntza-gaietan izen handia hartzen ari zitzaigun bere bizitzako azken urteetan. Lanik batzuk, bere-bereak, beste inoren kutsu gabeak eta sakonak. *Euzkadi* aldizkaringi edo errebista ospetsuan argitara zituen eta gure arteko jakintsuenak eta zenbait atzerritar filologo edo hizkuntzazale ere, hari begira txaloka jarrarazi zituela gogoan daukagu.

Era honetako ikaskuntzetarako izugarrizko gaitasuna eta makurtasuna omen zuen, bere adiskide mamienek digutenez.

Ondo merezia zeukan bere herritarren goratarrea edo omena. Euskal Herriaren aldare-gaiean eskaini eta opaldu zituen bere buru-argitasuna, bere bihotz-sua, bere olerkari ametsak, bere itxaropen oro eta bizia bera ere. Horrelako gizonak ahaztu-ezina dira non-nahi eta beti.

Utzi ziguten zer ikasi nahiko. Errenderi Aitaren euskaltzaletasun-suaren izpiak berotu zatzatela nahi baduzu, irakur itzazu bere olerki gartsuak. Eskuratu itzazu lehen-bailehen eta ez txokoratu berehalakoan. Hausnar itzazu isilean. Jaungoikoa eta Aberria maitatzen, besterik ez bada ere, erakutsiko dizute. Ez da gutxi, noski.

ZUBIMENDI ETA LAUAXETA *

Gure bi olerkari hauen izenak ospe berriaz jantzi zaizkigu. Mintza gaitezen; bada, beren oraingo idazlanez, merezi dute eta gure aipamen txalokorra.

Zubimendiren "Zumalakarregi poematxo", huts-hutsik herriarentzat eta herriaren tankeran idatzia dago. Ez digu egileak besterik eman nahi izan; beraz, maila honetako beste idazlanak aztertu ohi diren eran, aztertu behar da hau ere. Bertsolari trebe baten eran, gure hizkuntzaren enparantzako balkoi luzean zutik jarri zaigu, eta

"Milla zortzireun ogei ta amairun
gerta zana argitzera...
Aztutze beltzan galdu ez dedin
bertsotan nua jartzera
Ormaiztegi'ko Zumala aundien
arrigarrizko izakera",

ekin digu kantari. Ez nolana ere...! Trebe eta jator, gure bertsolaririk onenaren gisan. Ez da liburutxo apain hau buruzagi handi haren edeski edo kondaira bakarrik bertsoan iraulita; baditu beste zenbait aipagarri eta dohain. Haren bizitza mamia aukeratzea, batasun hariz jostea, gaurko gure herriaren bizi nahiarekin hain zuzen eta egoki lotzea, ez da ahuntzaren gau erdiko ez tula. Bertso neurririk zailenak ere, leun eta erraz darabiltza. Egia, diptongoen konturik ez du batzuetan hartzen; baina, gure bertsolariek ere, era horretan jotzen dute bertso kantetan. Nolanahi dela, ni nor banintz, aurrerantzeko bere bertso lanetan horretan kontu izateko esango nioke. Bertsolari ezjakinei hau eskatzea, gehiegixko litzateke; baina Zubimendi olerkari mailan daukagu, eta bidezkoa ez ezik, legezkoa ere deritzat honi hauxe eskatzea.

Abesteko egin dituelako edo, ez du honetan arretarik jarri, noski. Akats hori ez baita kantari, hainbat agertzen; herriak ere, ez dio axolarik ezer ematen gai honi, bertso kontutan, behintzat. Hizketan, ohartu gabe, ederki egin ohi ditugu diptongook; eta bertsoak neurtzekoan, erdara kutsua agerian hamaika bertso egileri azaldu ohi zaie. Gure artean bertso egintzara jotzen duten zenbaitek irakurri eta ikasi ote dituzte "Ortografia del Euskera Bizkaino"n Sabin maisuak gai honetaz ematen dizkigun arau jakintsuak? Arau guzti-guztiok jarraitu edo hartu behar ditugunik, ez diot; baina, diptongoei buruz dioena, euskal bertso egintzako oinarria delakoan nago.

Dena dela, txaloak, eta txalo ugariak gero, zor zaizkio Zubimendi langileari hain poematxo biribila eta herritarra ematen digulako. Gure herrian irakurtzeko gogoia sartzeko, txit egoki eta beharrezkoak ditugu horrelako idazlanak. Gertu berriro idazteko tresnaxo hori, eta ekin zure bide horretatik, euskararen alde lan bikaina egingo duzu eta. Gainera, herriaren olerkaria, zinetakoa, zu izango zara, eta bakarrik zu, hori bezalako jaki goxoak ahoan jartzen, jarraitzen baduzu. Herria zureganatuko duzu eta euskaltzaletu.

* JAUTARKOL, *El Día*, 31/08/1935, 1; *Euzkadi*, 03/09/1935.

Hauxe da, noski, Zubimendi adiskidea, zure helburua: gure herria euskaltzaletu. Hauxe bedi zure garaipena ere, eta zure olerkari eta idazle buruko koroia dirdira hilezkorra.

Lauaxetaren olerkitxoak beste tankerakoak ditugu. Bizitza loretegian sartu eta lorez lore hegazkada urduritsuan azaltzen zaigu. Orain arteko bere olerkietan, bihotz barnean, labe gorituan, kixkaltzen zeuzkan bihozkadak eta gogo dardoak eman dizkigu. Oraingoetan kanpotik hartu ohi ditu kanta gaiak. Begietan josi zaizkion lurkoi bizitza honetako gertakariak eta ikuskizunak hartu eta jantzi arin eta politez apaindu ditu gure begien zoragarri izan zaizkigun. Lehengoetan, bere buruarekin hizketan agertzen zitzaigun; oraingoetan berriz, bere buruarekin baino, kanpoko gauzekin gehiago.

Erdarazko, Castillako romanze zaharren eran taxutuak, baditu; Jammesen erakoak ere bai. Guztiek daramate halako bizitza dardara eta eder kutsu berezi bat. Azalez gauza hutsak dirudite; baina idazlanetan edertasuna ohartzen dakitenentzat, ez inolaz ere. Beste hizkuntzetan horrelako olerki asko argitaratzen dira gaur, eta erraz ulertu ohi dira, hizkuntza haiek gai oro erabiltzen jarriak baitaude. Gurean oster, oraindik inork gure arte poesi mota hau ez du erabili; ez da bada, harrizkoa ulerkaitz xamarra izatea. Zerbait gehixeago erraz zitezkeela; ez diot ezetz: baina orduan luzegoak izan beharko zuten eta laburtasunak eman ohi dien ezta, galdu.

Jantzi arina, bertso meheak behar dituzte taxu honetako olerkiek. Bizitza izpiltxo bat, gogo dardaratxo bat, bihotz ukitutxo bat besterik ez dira gehienetan. Hargatik Jammesek, ordu arte olerkariak zerabiltzaten bertso neurriak hautsi eta neurri berrikoak asmatu zituen; hauxe bera egin digu Lauaxetak: olerti mota hau, janzki estu eta gogorretan sartzekoa ez baita. Soineko lasaia behar du eta tolestasun handikoa.

Gure hizkuntza zaharrak, era guztietako langileak behar ditu; landu gabeko soro, aberastasun gai dena dugu. Goldetu, aretu¹, alpertu², mota guztietako haziak erein. Hara, landu gabeko lurra aberaspidean jartzeko, lan beharrezkoak. Hauen antzeko lanbide neketsuetan aritu beharra daukagu, euskararen erraietatik ederlan bikainik edo igali hilezkorrik jaso nahi baditugu; baita gure hizkuntza zaharrak gure herrian, mundua mundu den arte, sendo iraun dezan ere.

Hargatik, txalagarria deritzat Lauaxetaren lana. Zubimendi bezala, hau ere, gure herri dohakabeaganako maitasun sutuak bultzatuta, lanbide minkor hauetan dabilkigu. Elerti lanetan ez liteke gaur gure artean ibil, nire ustez inor, maitasun goitar horrek sututa ezik. Ez du dirurik jasoko, ezta txalo handirik ere. Baina, Aberriak, irribarretxo goxo bat egingo dio eta hauxe izango zaio saria atsegin eta zorion bete.

Ez alde honetatik bakarrik; berez olerki politik eta eder ezta gantzutuak eskaini dizkigulako baizik, nire txalo beroak, behintzat, jaso bitza Lauaxeta olerkari argiak. Gure hizkuntzan ez ezik, edozeinetan ere, lotsarik gabe bizitzeko lain ba dira eta. Jarraitu barrengo zure txori hegalaria euskal baso isil honetara uxatzen, beren txioz eta txintaz beste txori lotiak esna ditzaten eta ederzale diren bihotzetan hegal ukitu ezti bat, dardaraz, musu maitekor baten eran, utz dezaten.

¹ Nekazaritzako tresna den areaz landu.

² Nekazaritzako tresna den alperrez landu.

EUSKO-OLERKIAK*

Beste liburu berri bat dugu esku artean: olerki-liburua, hau ere "Euskaltzaleak" argitaratutakoen bosgarren olerki-idaztitxoa dugu hauxe. Gainerako lau ahizpak bezain txukun jantzia eta ikusgarria. Zarauzko olerki-gudura iaz heldu zirenetatik haututakoak ditugu gehientxoena. Gaztelu, Erkiaga eta Onaindia olerkari gazteen bertso-saila dakar azken orrietan.

Aurrez aurrean, aurrehitzaren gisa, Aitzol langile eta jakintsuaren idazlan eder bat topatuko duzu. Ez zaitetz aurrera, irakurle, abia, lan bikain hauxe irakurri gabe: saritutako bi olerkien berri argi eta garbi hantxe ematen baitu. Ederki adierazten digu gainera, bertso horien balioa ere zenbaterainokoa den, eta nondik eta nola sortutakoak.

Zaitegi'tar Yokin, olerkari gazte bezain azkarraren "Tori nire edontzia" deritzan olerkia dugu lehenengo sariz saritutakoa. Olerki honen gaia Homerok eta Mistrak ere erabili zutela ezin ukatu; baina Zaitegi bere erara, eusko erara hartu eta tolestatu du, eta olerki berri bat, eusko usain gozoa darion olerki ederra eman digu. Irudimen biziko olerkaritzat jotzen dut nik behintzat, atzo arte ezezaguna nuen gure olerkari hau. Asmo eta gogorapenak, kolore ñabar-politez jantzen ederki daki, baita batasunkatea urrezkoz irudiak, bihozkadak eta burutapenak elkarrekin taxuz lotu eta josten ere.

Bertsoa egoki eta trebe darabil; baina bihurri xamar. Bertso gutxitan edergarri asko sartu nahi dizkigu eta olerkiaren argitasuna lausotuta uzten du zertxobait. Olerki-gaiek ez dute bertsoetan lasaiegi ere egon behar, noski, baina gutxiago estuegi. Ez estu, ez lasai, bere neurrian leudeke ongien eta ederkien. Neurriko soinekoa olerkiei egiteak, eman ohi ditu lanak. Ondo baino hobeto dio gai honi buruz Aitzolek aipatutako bere aurrehitz edo prologo ederrean: "Jo beza bertso leun, gozo, errezetara Zaitegi'k, orretarako gai dan ezkerro. Mamia sakona, goi-indarrez bete izan bedi: azala ordea, adi-erraza, leuna, irakurri utsakin irakurleak ulertu lezakena. Orduantxe gogoa poztutzen zaigu: edertasuna nekerik gabe atxitzeak lilluratzten baigaitu".

Horra, gure olerkari gazteok hartu beharko luketen bide zabala. Utz bitzate bidezidor ilunok eta Aitzolek erakusten dien bide eroso horretatik zehar jo bezate lasai, beldurrik gabe. Har bezate bertso-egintzan eredutzat edo ikasbidetzat gure Orixe jatorra: ez dira, honek eskutik daramatzala ilunpetan eroriko. Irakurri, liburu honetan duzuen bere "Gure zizak". Ez duzue hor aurkituko, irakurri hutsez, ulertuko ez duzuen deus ere. Guztia, argi-argia, eguzkiak jotzen duen ispilua bezalaxe. Hargatik, era honetako ederlanek zoratzen gaituzte, neke-pikorrik gabe, eder-kutsua nabaritzen baitiegu. Bai olerki polita hauxe! Bizitza-dardara ageri zaio burutik oinetaraino; eztitasuna dario gorputz osoaren zuloxoetatik. Azken bertsoak bakarrik uzten nau txundituta, olerkariak aipatzen digun samina ezin ulertuz: ez, hitz errazez eta bertso leunez adie-

* JAUTARKOL, *El Día*, 15/09/1935, 1.

razten ez digulako, samintasun horren zioa edo motiboa garbiago azaldu nahi izan ez digulako baizik.

Olerkitxo hau, esaera ederrez beteta dago. Belarretan zizak sortu zirela esateko, honela dio:

"Goiz-intzak parra eragin dio
belar koroï berdeari..."

Eta zizak zer diren, era polit-huts honetan adierazten digu:

"Udaurrearen parra da ziza
belar-koroïen tartean;
inguruka ola jaiotzen dira
ortzak aurraren oïean..."

Honetatik antzemango diozue, noski, besterik gabe, zein gozoa eta xamurra dugun olerki osoa.

* * *

Era honetako bertso arinak, baina zinetan politik irakurri ondoren esan lezake inork halako apaiz batek Lauaxetaren *Arrats-beran*-ez esan zuena "txorakeriak". Ateraldi honek Herrera Oria'tar Koldobika Aita jesuita idazle espainiarrak aipatzen digun beste ateraldi xeble bat ekartzen dit gogora:

Félix González Olmedoren *De la Vida* deritzan olerki-liburuari egin zion hitzurrean aipatzen du. Herrera Aita, bai omen zegoen behin hizketan buru argiko eta eskola handiko zen jaun batekin, eta hark honi laster argitaratzekoak ziren Aita Olmedoren olerkiak aipatu zizkion bezain laster, jaunak harrituta eta bene-benetan erantzun omen zion: "Bertso-liburu bat...! Baina, ez al dago bada, esana gai honetan esan liteken guztia?"

Jakina, olerki-liburuak, ez jaun honentzat, ez halako apaizarentzat, honela pentsatzen duen inorentzat, argitaratzen ez dira. Olerkiak —beste edozein erti-lan edo ederlan bezala— edertasuna nabaritzen eta miazkatzen dakitenentzako bakar-bakarrik argitaratu ohi dira. Bai baitira, beste gai askotan jakintsu izan arren, edertasun hau ohartzeko gauza ez direnak. Ez lezakete, beraz, hauek, gai honetaz iritzi zuzenik eman. Baina... "paulo majora canamus...". Jo dezagun gorago; har dezagun utzitako haria.

* * *

Mintza gaitezen iaz saritutako poematxoaz, eta beste liburu honetako olerkiez ere, zerbait behinik behin "Orio'ko Umezurtza" mamiz eta azalez, ezitia darion abaraska deritzait: hain da goxoa eta ezitia. Txikia duzue, baina ondo haragiz hornitua, ederki biribildua, eta era askotako bertso-janzki apainez dotoretua, modan-modan jantzia. Gure

artean, bertso-egintzan treberik badugu, Loidi hauxe dugu benetan maisu. Zorrilla ospetsuaren gisa, zenbait bertsoan —trenaren ibilketa aditzera ematen digutenetan, esate baterako— badirudi esaten ari zaiguna ikusi ez ezik, haren ibileraren hotsa bera ere entzunarazten digula. Erdaraz *armonía imitativa* deritzanaz bertsoak janzten ez dio oraindik gure artean eman inork. Beste olerkariok ere, ageri zaizkigu aztertzen ari garen liburuan.

Muxika'tar Emiliano olerkari zaharrak bertso txukun bezain argiak damazkigu: Ametzaga'tar Bingen gaztea berriz, bihozti eta goitar nabari da; Ormaetxea, Karmeldarra, beti bezain ezti eta garbi; Erkiaga gazteak, Urkiaga ospetsuaren mailara igotzeko hegoak dagerzkigu; Gazteluk eta Onaindiak benetako olerkarien sena eta hegazkada ageri-agerian dute...

Eta ez dizuet aipatu Zaitegiren "Eusko-Artzaiarena" izena duen poematxo. Olerkari saritutako honen izenpean, lotsarik gabe agertzeko dinakoa duzuela esatea, nahikoa dut. Bide erraz eta gabitik barrena dabilkigu poematxo honetan. Bertsoan akatsik ez zaio azaltzen, eta euskararen maratila guztien berri baduela dirudi. Atseginez irakurri dut nik behintzat.

Baduzue, beraz, olerkizaleok non zuen egarria asetu. Erosi, bada, lehenbailehen *Eusko-Olerkiak*, eta gure gaurko zenbait olerkariaren trebetasunak ezagutuko dituzue. Olerki huen ezti-tantoaz, gainera, bizitzaren behazuna, apurtxo bat behintzat, gozatzea gerta lekizueke. Ederlanek, lurretik gorantz jasoarazten baikaituzte, alditxo batean lurkoi bizitzaren garrantasuna ahaztaraziaz.

GAURKO APAIZAK EUSKARAREN ALDE*

Ez nuke inor mindu nahi, bai baina egia argi eta garbi azaldu, inoren esamesaren beldur izpirik gabe. Arana Goiriren aurreko euskal idazleak, ia guztiak, eliz gizonak ditugu, eta haren ondorengoak ere bai. Badirudi, haren euskal deadarra, apaiz belarriek besterik ez dutela entzun.

Ez diot, apaiz hutsak gabiltzala euskararen aldeko lantegietan, hau astakeria esatea litzateke eta. Hauxe diot: euskaldun karreradun eta ikasien artean, apaizak direla benetako euskaltzale ugariak. Haietako gutxi topatu ohi ditut beren artean beti euskaraz; gaur, apaiz gazteen artean batez ere, nonahi eta beti entzun ohi dut gure hizkera ezti. Beste letradunek, hauek hainbat euskara beren jardunetan eta hauek bezain agerian baterabilte, gure hizkuntza apalak ez luke aurrerapen makala egingo, noski.

Ez zait inoiz ahaztu, ikasle nintzela, Oñatiko lehenengo Eusko Ikaskuntza Batzarean, Elizalde argiari entzun niona: ez zela, alegia, euskara zabaltzeko bide egokiago eta errazagorik, euskaldun karreradunak eta aberatsak beren artean eta ageri-agerian euskara erabiltzea baino.

Izan ere, egia huts-hutsa beti halako "regis ad exemplar totus componitur orbis". Behekoak goikoei begira beti, hauek dagitena haiek ere nola egingo duten ahalegintzen. Hauxe da gizarteko gorabehera nabarmenena. Alferrik ariko gara euskararen alde idazten, eta euskal idaztiak argitaratzen, euskaldun aberatsak edo goimailatokoak eta lege-gizon, sendagile, apaiz eta gainerako letradunek geren artean euskara txokoratu eta erdarari ekiten badiogu.

Hauxe zioen Elizalde jakintsuak, 1918. urteko martxoaren 16an, Bilboko Eusko Gaztedian egin zuen hitzaldian ere, "un idioma cuyo uso estuviera casi exclusivamente limitado a las clases populares, y que comenzase de pronto a ser empleado, como habla ordinaria y corriente, por las clases cultas, por los hombres de carrera, por las gentes de distinción, recibiría por razón de este mero hecho una rehabilitación social de incalculable trascendencia. Mientras en las familias distinguidas el Euskera siga siendo la lengua que se habla a los niños hasta los diez años y a las muchachas de servicio, es inútil que pensemos en su restauración y cultura; porque este idioma seguirá siendo, cada vez más, en el sentir de nuestras clases populares, un signo de inferioridad social".

Halaxe jarraitzen du gure herrietan, zoritxarrez, euskarak. Geroztik politika-gaiean aurrerapen gogorra ohartzen dugu, baina, gure herri hizketak ez du jaso bururik. Politikari buruz askok erantzun diote Arana Goiriren eusko irrintziari, baina oso gutxi haren euskal deiari. Lehen bezain zabar eta axolakabe ageri zaizkigu aberatsak eta karreradunak beren artean euskaraz mintzatze honetan.

* * *

* JAUTARKOL, *El Día*, 11/12/1935, 1.

· Apaizak ditugula honetan jatorrenak, nion. Egiazta dezadan orain nire esana. Aspalditik badute Bizkaiko apaizek "Euskaldunei euskeraz" helburutzat duen bazkun begiko bat. "Jaungoiko-Zale" bazkun honek gure Elizaren eta euskararen alde egin dituen lan onurakorrak, nabari dira-eta, aipatu beharrik ez.

Politikako zalapartetatik alde eginak, erlijio-gaiak euskararen bitartez zabaltzeari ekin zioten apaizek, eta hamaika herritan ageri da gure hizkuntza erregina antzera, haiei eskerrak. Hau irakurrita, esan lezake norbaitek bere baitan: "Honetan apaiz euskaldunek, egin behar zutena besterik ez dute egin; beren eginkizuna horixe baita".

Egia; baina beste karreradun euskaldunak ere, euskaldun direnez eta abertzale direnez areago, euskara erabiltzea eta euskararen alde ahaleginean jokatzea behartuak daude; eta zer dagite? Nolaz ez dira euskal bazkun batean batu? Zergatik ez dute beren batzarretan, inoiz ere eta apurtxo bat behinik, euskara erabiltzen?

Orain direla zenbait hilabete, hirurogei apaiz bildu ginen batzarrean, Donostian, Gipuzkoako Jaungoiko-Zale bazkuna eraltzeko asmoz, eta gure gorabehera guztiak euskara hutsez erabili genituen. Bizkaian aspalditik dagite hango apaizek hauxe bera. Gainera, asteroko euskaldun ederra, "Ekin", argitara ohi dute. Hemengoek, gure bazkuna sortu bezain laster "Igande Orria" atera dugu.

Iaz, Bizkaikoak, Gogo Jardunak edo ejerzizioak, euskaraz egiten hasi ziren; eta aurten, haiek ez ezik, gipuzkoar apaizek ere egin ditugu. Gure hartu-eman guztietan euskara bakarrik darabilgu. Gure esku dauden arazo eta eginbehar den-denetan euskal kutsua nabari da, eta Euskadi, gure Elizarekin besarkaturik, Euskal Herri bihurtuta ikustea da, maiteki bihotz muinean daramagun eta lan eginarazten digun ametsa.

* * *

Euskal idazle gehienak gaur ere eliz gizonak ditugu. Hor, *Itun Berria*, eta *Giza Soñaren* egile hilezkorra; hor, *Iraizoz A.*, *Yosu-Kristo*, *Gure Yaunaren Bizia*ren eta *Dabit*'en salmuen euskaratzaile trebea; apaizak dituzue, *Ibargutxi*, *Manterola*, *Oyarzabal*, *Loidi*, *Jaka-Kortajarena*, *Zaitegi*, *Markiegi*, *Lekuona*, *Aitzol* eta beste hamaika eta hamaika. Badirudi euskal soroa lantzeko eginkizuna, eliz gizonena dela soil-soilik; hauen aldean, hainbestetako gutxi ari zaizkigu lantegi honetan.

Eta oraindik ere, apaizek euskarari egin dioten kaltea aipatuko digute zenbait euskaldun letradunek, inoiz euskararen alde ezertxo egin izan ez dutenek, noski. Gainerako letradunei, ala eliz gizoni zor diegu gure eskuetaraino antzinako literatura-apur bat iritsi alhal izatea? Nortzuei eskerrak ari zaigu gizentzen gure elertia gaur, bada? Hogei urtetik hona argitara zaizkigun euskal liburuei begira, eta irakurri egileen izenak; aski duzue hauxe, galde honi zuzen erantzuteko.

Euskarak idazle asko xamar izan ditu eta ditu gaur ere, baino literato benetako gutxi oso. Denetan nagusia, nire ustez, *Garoa*-ren egile *Agirre* apaiza. Jesusen *Lagundiko A.* Landeren iritiz euskal idaztirik ederrena, gure elerti osoaren pitxirik balioetsuena, orain artean behintzat. Nobela-egile ospetsu honen iritziak, horren gorai-

no jasotzen du *Garoa*. Topatuko zion zerbait edergarri, noski, haren begi ertilari edo artistak, era horretako gorapena idatziz utzi nahi izan digunean.

Beste letradunak, gaurko apaizen neurrian, euskal idazketan eta jardunetan azalduko balitzaizkiguke, ez litzateke gure jatorri-hizkuntzaren garaipena txantxetako izango. Gure ikasleen bazkunak horretara jo beharrean daude, euskara gabeko eusko kulturarik Euskal Herriari ez baitagokio.

Euskaldun karrera duten guztiak saia bitez, apaizen antzera, beren bazkunetan euskara txertatzen, eta gure herriak ere eutsiko dio bere hizkerari. Gainerantzean, politika irrintziak gorabehera, jantzi arlotzetat etsiko du, eta jende apainen hizketa dotorea janzteko irrikitzen edukiko dugu beti. Ez dezagun ahaz erromatar olerkariarena: "regis ad exemplar totus componitur orbis". Euskaldunekin, beraz, beti eta nonahi euskaraz.

BERTSOLARIA NOR ZAIGUN: XENPELAR EREDUZ*

Ez naukazue hemen nire gogoz etorrita: adiskidetasun-deiek erakarri naute, Baina, izendatu didaten gaia atsegin baitzait, pozik etorri natzaizue hitz-aspertu hauxe zuekin egitera. "Euskaltzaleak" eta "Eusko-Gaztedik" k asmo txalogarria hartu zuten BERTSOLARI-EGUNA eraltzea bururatu zitzaizenean. Beste hamaika gauzatan bezala, euskaldun onenen gisan jokatu dute honetan ere. Horientzat izan bitez jo dizkidazu txalo beroak.

Oraingoan izan ere, bertsolaria ez genuen, behar bezala aintzat hartuta; gure aurrekoek zioten itzalik ez genion agertzen, haiek jotzen zizkieten txalorik jotzen ere ez. Politika gora eta politika behera ari ginen, buru-belarri. Bitartean, berriz, gure herri-ezaugarriak argienak itzaltzen ari zitzaizkigun. Euskara, behera eta behera, heriotz-leizezulora amiltzen; gure kale-enparantzetan dantza lotuak nagusi; kanta zaharrak, ganbara-zokotan, ezpainetan erdal abestiak jaun eta jabe. Eta jakina nolaz bertsolariak ere ez txokoratu? Ez da harritzekoa.

Baina hara non, Jainkoak bihotza ukitu eta noski, jaikitzen zaizkigun, halako batean, gizon jator batzuk eta deadarka esaten diguten: "Euskaldunok, bide okerretik goaz... Goazen bidetik, oraintxe bertan, itzultzen ez bagara, gureak egin du. Laster Euskal Herria ez da izango Euskal Herri. Geurok, gure eskuz, ustekabeen, hainbeste maite dugula diogun gure Herri kuttunarentzat ez ote gara gero hilobia irekitzen ari?".

Eta hitzez ez ezik, egitez ere, bide zuzena eta egiazkoa erakusten ari zaizkigu eguneroko. Horiak asmatuko ez luketenik ez da. Oraingoan, BERTSOLARI-EGUNA asmatu ez digute, bada? Gure-gureak baititugu bertsolariak; zeharo ahaztuta baikeneuzkan.

Beste zenbait herritan ere, bai omen dira gureen taxuzkoak. Bai noski. Baina, egingo nuke gureak, edozein herritakoei bertsoan eraman baietz. Bertsolarietasuna ez da gure artean, atzo goizeko gauza. Esango nuke euskara bera bezain antzinakoa dugula. Hargatik, noski, gure aurrekoen aurrekoek hainbat maite zituzten bertsolariak: gu baino euskaldunagoak baitziren. Gaur euskaldun gehienei gure bertsolari guztiengatik ez al zaie bost axola? Joan den mende edo gizaldiaren hasieran, 1802. urtean, Billabonako enparantza zabalean, bi bertsolariaren artean izandako jarduketaren berri izango duzue noski. Txabalategi hernaniar eta amezketar Zabala bertsolari trebean arteko bertso-gudua zen. Otsailean, jendea biltzeko urte-girorik txarren-txarrenean. Entzuleak bai omen ziren lau mila. Orain hamar mila gutxiago dira, orduan lau mila baino. Erraz eta laster ibiltzeko horretan, geroztik hemen dugun aurrerapena ez da gero txantxetakoak.

* * *

Askok uste duten baino zer ikusi handiagoa dute, bada, gure bertsolariak, bai Euskal Herriari dagokionez, baita mundu guztiko herri-kulturari dagokionez ere.

* YAUREGI TAR K., *Yakintza* 17 (1935) 331-339; 18 (1935) 407-413.

Ahozko literaturaren ezaugarriak nabarmenenak, horietatik ditugu: herri ikasi gabearen, edo hobeto, eskolagabeko herriaren poesi kutsua dariotelako ez ezik, baita herri-bihotzaren tanpadak bere bertsoetan iraulitzen trebe direlako ere, aintzakotzat hartzekoak ditugu bertsolariak. Herri-errietan sortu, herri-magalean bizi, herritarrez inguratutako bertsoak asmatu eta bota kantari: nolaz, bada, herri-kutsurik haien bertsoek ez dute izango? Ez duzue inoiz bertsolari den bertsolaria bakarrik abesten topatuko; nahi eta nahiezkoa du bere inguruan herria. Eta herria ere bertsolari balitz bezalaxe adi-adi egongo zaio, azken bertsoa igartzen duela. Badaki ederki gure herriak zeintzuk diren bertso egokiak, eta zeintzuk aldrebesak antzematen, alajaina. Eta gero gure herriak kulturarik ez duela esango digute. Bazeudek mundu zabalean, horrenbesteko gauza ez diren hamaikatxo, beren buruak jakintsutat badauzkate ere.

Bertsolaria, herritar huts-hutsa dugulako, herriarekin bat eginda bizi zaigulako, gure herriaren nahi, asmo, buruhauste eta bizieraren adierazlerik jatorrena dugu. Euskal Herriaren gogo-edestia, bihotz-kondaira, haritik mataza bezalaxe, bertsolarietatik atera genezake. Ez dira, beraz, gure bertsolariak, ahuntzaren gauerdiko eztula. Bertsolariak gabe, Euskal Herria ez litzake Euskal Herri. Hain gureak ditugu bertsolariak.

Hala ere gerta liteke euskal garbizalaren batek edo, bere baitan esatea: "Eleri edo literatura guztiak benetako olerkien bidez marduldu ohi dira: baino", "Bertso berriak derizten euskara zarpail eta mordoiloaz jantzitako bertso horiek, euskara edertu eta goratu? Guztiak erre eta kiskalduko balira ere, ez luke euskarak kalterik".

Iritzi honek egiaren tankera pixkatxo bat badu, baina ez da egia borobila, nire ustez behintzat. Aitor dezagun bertso berririk gehienak —antzinakoak batez ere— euskara narratsez, erdarakada lotsagarri burutik oinetara jantzirik ageri zaizkigula. Eta norena da hobena edo errua? Euskaldun jakintsuena, bakar-bakarrik: Saiatu al gara bertsoetako dohain hori, seaskatik zekartenen buruak argitzen eta bihotzak maitasun goitarrez berotzen? Ez al ditugu, bada, geurok, ezjakintasunik gogorrenean bere hartan utzi? Nola nahi dugu, eskola dutenek bezala, bada, mintzatzea, edo haien bertsoak akatsik gabeak izatea? Halaz ere, ez dira bertso berri oro, erti-kutsurik edo arte-izpirik gabekoak: badira gatzaz josiak, bihotz-ukitu goxoz igurtziak, irrifar atseginez hornituak, irudipen-argiz jantzitakoak, baita, azal gogorpean, mami ezta dutenak ere.

* * *

Bertsolarietasunaren balioa, bat-batean asmatu eta hitz neurtuetan gogorapenak, bihotzondoak, ateraldi farregarriak eta erantzupen erneak kantari esatean dago. Ez da hori gauza hutsa; ez esan, horrek meriturik ez duela; sarigarri da horixe, nonahi eta beti.

Gainera, gure herri-ezaugarri berezi-berezia dugu, eta piztutzero eta indar-berritzero behartuak gaude, euskaldun izenik zikindu nahi ez badugu behintzat. Lotsakizun beltza litzateke guretzat, gure axolakabez euskal ohitura jator honek gure artean ihes egiteari emango balio. Ez da nonbait hori gertatuko. Bertsolari-eguna, bertsolari-pizkunde izango baita.

Baina orain arte bezala, zeharka-meharka ibili gabe, jo dezagun aldapa gora. Bertsolari trebe baten, Xenpelarren berri eman dezagun.

Joan den gizaldiko bertsolarien artean, Gipuzkoan behintzat ospatuena Xenpelar izan genuen. Haren bertsoetako berezko iturria, haren edozein gaiez eta hitz neurtu zailenez mintzatzeko erraztasun harrigarria, geroztik ere bertsolari gutxigan aurkitu izan ditugun dohain bereziak dira. Hargatik noski, Xenpelarren bertsoerik asko gipuzkoar nekazarien buruetan oraindik ere ez dira hil, eta bere izenaz halako oroipen mai-tekorraz gure agure baserriarak oroitzen dira oraindik ere.

Erreterriako Xenpelar deritzan basetxean jaio zen eta mila zortziehun eta hogeita hamabosteko, urtarilaren 13an, Oiartzungo Eliz nagusian, Erreterriakoa baino eroso-ago zeukatelako noski, Frantzisko izenaz bataiatu zuten. Abizenaz Petrirena eta Rekondo zen. Bere gurusoak oso behartsuak ziren eta Xenpelar baserria urri eta kas-karra: nondik edo handik saiatu behar. Hau dela eta, oraindik mutil koskorra zela, Oiartzungo Eula deritzan basetxean, morroi jarri zuten gizagajoa gurasoek.

Gure bertsolaria ezagutu zutenek digutenez, hamabi urtetarako barrenean zeukan iturria bertsoak zerizkiola hasi omen zitzaion. Ondo berezkoa zuen, alajaina, bertsoetarako trebetasuna! Gaztea zela, Erreterriako Ehun-ola handian —fabrika handia deritzote erreterriar jatorrek oraindik ere— ehule bezala, aritzen zen lanean. Geroago, Erretergi'tar Mari Joxeparekin ezkondu zen Madalen kalera, eta bertan bizi izan zen hil arterainoko guztian. Xenpelarrek hiru alaba izan omen zituen ezkontza honetatik.

Ez zen gure Xenpelar gorputzez, ez handi ez txiki, bai bien arteko: aurpegia, beltzarana: begiak, biziak eta bihurri samarrak: ezjakina izan arren —ez baitzekien ez idazten ez irakurtzen ere— buru argia eta gizon ernea zela, bere ateraldi azkarrek adierazten digute: gainerakoan, gizon elizkoia eta atsegina, kristau jatorra, langile bake-tsu eta trebea.

Baina Xenpelar zena, nire hitzek baino bere bertso eta ateraldiek hobeto adierazi-ko dizuete. Aipa ditzagun, bada, batzuk...

Behin batean, Patxi Bakallo izengoitiaz ezaguna zen hernaniar bertsolariak —halaxe deitzen zioten, Erreterrian jaio arren, umetandik Hernanin bizi baitzen—, eskutitz hauxe bidali zion Xenpelarri.

“Iñork baldin ba-daki
Oiartzun'go berri
eskumuiña Ardotxi
eta Xenpelar'i.
Bidatz-erdi bezela,
dago Benta-berri
dibertsio polit bat
nai genduke yarri:
gonbidatzen ditut
nai ba-dute etorri”

“Abisatuzen diet
bidatz-erdirako,
desapio ori da
Benta-berri'rako.
Baiñan baldin gogorik
ezpadute arako
lagun bat artuko det
nere guardirako.
Igual prestatuko naiz
Erreterirako”.

Horra gure Xenpelarrek bidali zion erantzun zorrotza:

“Pazko-bigarren goizean
artu nuen karta;
bestek firmatua da,
ez da zure palta.
Orain abiatzen naiz
itz ori emanta;
memori ona dezu,
etzarria palta;
gizona serbitzea
dibertsio bat da”.

“Xenpelar probatzeko
egin dute masa
gizon baten itzari
eman diot traza.
Ez Astigarraga'tik
onuntzago pasa,
bertara etorriko naiz,
egon zaitez lasa;
nai dezun ordurako
eska zazu plaza”.

Ederki adarra jo ziola, ezin ukatu. Bertso hauek, eta aipatuko ditudan gainerakoak, abestuaz, nik entzun ditudan bezala, entzunez gero, irakurrita hutsik ez duten halako dohain berezi bat dutela, aitortu beharrean nago. Xenpelarrek beti, kantari asmatu eta egiten baitzituen bertsoak.

Beste behin, Erreterrian jokaturako pilota partidu ospetsu batean, bere adiskide tabernari bati pezetatxo bat apustuan irabazi zion. Gure Xenpelarrek tabernari hori ikusten zuen guztian, zorioneko pezetatxoa aipatzen ziola-eta, zapuztu zen gure tabernari gizagaixoa eta Xenpelarrekin gertatzen zitzaiona Erretergi'tar Bixenteri adierazi zion. Honek —bertsolari trebea baitzen, gero ere ikusiko duzuen— berriro pezeta Xenpelarrek aitatzen zionean, bertso hau kanta ziezaiola esan zion:

“Peseta bat dek guztia
ik neri irabazia!
Orregatik al dabilkik
milla pantasia?
Kriantza gabe azia
molde gaiztoan ezia...
Alare y baño obeto zegok
etxe nagusia”.

Pesetatxo baten gorabeheraz bost axola ziola adierazi nahi zion tabernari harroskoak; Xenpelar arlotea, alegia, ez zela, bera bezala, etxe baten jabe.

Etxea aipatu bazion aipatu. Horra Xenpelarrendantik entzun behar izan zuena:

“Kontzientzia garbia
ote-dadukak jarria...?
Gizonarentzat onra txarra dek
lapurreria.
Zurruapatuaz erria
egin dek etxe berria.
Ez ondo bete izan ba-uken
sagardez neurria”.

Baina beste gertagai honexek Xenpelarren buru-argitasuna eta bertsoetako eten-gabeko iturria aditzera emango dizkitzue.

Behin batean, gaur herri koxkor polita dan Pasaian Antxo zeritzan bat besterik ez zen garaian, kaira joan zen gure Xenpelar Aranbarri'tar Xabier, bere koinadua, lagun zuela. Hantxe ikusmiran topo egin zuten bidean. Barre antzean kaian ikusitakoaz galde egin zioten Xenpelar eta honek ere barre-antzean, bertso hauek, beste batzuen artean, berehala asmatu eta abestu zizkien:

“Gizon bat ikusi det
irureun urtean
mariñel dabillega
ontziko soketan;
txalupak zapart'ordez
zituen anketan,
aren aitona berriz,
itxasora urketan”

“Itxasoan ai dira
arbolak aldatzen:
anka-motzak ba-daki
ederki korritzen:
itsuak ikusi du
etxea erretzen
mutua deadarka
jendia bildutzen:
gogorra egondua da
oik denak aditzen”.

Gezur-pila hauxe, hain poliki, eta bat-batean batez ere, asmatu eta esateko gauza zen gizona, ez zen motela, alajaina.

Hara beste ateraldi zorrotz bat:

Erreterriako handizkietakoa zen Sorondo jaunak, Afrikako gudara erreteriar mutil batzuk zihoazela eta, bertso txo bat botatzeko esan zion. Hara sartu zion eztenkada:

“Lengo legeak galtzera,
orain berriak jartzera
asi gerade sartzera.
Aundiak ere jun behar dute
aurretik gu giatzera...
Eztira etorki atzera
sekulan beren etxera
maizter-errentak artzera”.

Sorondo jaunari bertsook min eman ziotela ez dizuet esan beharrik. Baina behunaren mingotsa kentzeko ezti-tantoak isurtzen ere iaioa zen gure Xenpelar bertsolari bihurria. Halaxe egin zuen oraingoan behintzat. Berehala beste bertso atsegingarriago bat bota zion eta honelaxe sendatu zion lehengo eztenkadak egin zion zauria.

Burdinbidea egiten ari ziren garaian, frantziar langile asko bizi ziren Erreterrian. Ez zitzaizkion gure Xenpelarri biziro atsegin, ikusiko duzuenez. Haietako bat behin zeharo mozkortuta, ibaira erori omen zen. Antonio zeritzan erreteriar gizon zintzo batek atera zuen, Longinos bere lagunak, bertan itotzen uzteko esaten zion arren. Ger- taera honen berri Xenpelarrek izan zuen bezain laster bertso hauek bota zituen:

“Prantesaren ideak beti aldrebes; gaur lau baldin ba-ditu biar baterez. Iru txit sobra edana urak berriz beregana; Antonio'k izandu du ateratzen lana.	Oien deboziua juduen gisan; ez dute trabarikan eman elizan. Gogo gutxi an sartzeko leku txarra moskortzeko; bildur dira erorita azpian artzeko.
---	--

Lepuan korbata ta kasaka urdiña, polainak ba-dituzte arrua biña: alkandora barratua, galtzak, panak mudatuak, txapela ta relojua gutxi pagatuak.	Arakiñak daukate taya etxean prantesak pagatzeko kintzena artzean. Betor, betor egun ura pagatzeko milla duda: ba-dakite nola egin korputzaren kura”.
---	--

Lehenago aipatu dizuedan Erretegi'tar Bixente, izengoitiz Musarro, ez zen bertsolari makala. Xenpelar eta Musarro elkarri zirrikaka eta eztenkadaka maiz aritzen baziren ere, adiskide mami-mamiak izan ziren beti. Xenpelar baztangak jota zegoela, estu-estu eta zehatz-zehatz galerazirik egon arren, gau batean Xenpelarri ikustalditxo bat egitera Muxarro zintzoa, kutsatzeko beldur askorik gabe, joan zitzaiola badakit nik. Hortik atera zenbaterainoko elkar maiteak ziren.

Erreterrian bizi zen lezotar apaiz jaun baten etxera maiz joaten omen zen Muxarro eta hara behin Xenpelarrek bota zizkion bertsoak:

(Ez zen izan motela
Muxaroren erantzupena ere)

- | | |
|--|---|
| 1. “Gaztelania geroko,
ardoa berealako;
nagusiarri ejemplo txarrik
ez dio parako.
Gogoa ba-du arako,
paraje ona dalako,
eskola dezu txiekiegia
tertuliarako”. | 2. “Arrazoi txarra abian
dezu seitatik lauean;
egongo zera errespuesta,
aditu zalean...
Gauero nago galdean
ikusi nai nau aldean
zuk baiño obeto ematen det nik
aren sukaldean”. |
|--|---|

Baina bi adiskideok izan zituzten bertso borrokarik ospetsuena, lanean ari ziren ehun-olan, baziren garai hartan —orain ere bai noski— langileak beren zigarrotxoak erretzeko, fuma-tokiak zeritzaien gela berezi batzuk. Elkarren ondoan —ehuleak ziren biok— lanean aritzen ziren. Muxarro erretzaile porrokatua zen, eta fuma-tokia urruti-

samar zeukan. Baina, gertu-gertuan, bere aldamenen bertan, guztiok aberats eta behartsuak, nahi eta nahi ez joan behar izaten dugun beste gelatxo bat zeukan ordea. Eta pipakada bat ketu nahi zuenetan, fuma-tokira joan beharrean, beste lekutxo horretara joaten ikasi zuen. Baita agudo gure Xenpelar konturatu ere. Heldu zen, bada, Muxarro lasa-lasa bere kutixia bete ondorean, eta utzitako lanari eutsi zion bezain laster, zitzaion Xenpelar kantari:

1. "Aizak, y, mutil maiñontzi,
nagusiari gorantzi:
ez al-dakiken or pipa artzea
ez dela lizentzi?
Jenio txar oiek utzi
bestela ezurak autsi;
giza-legea nola bear dan
ezin erakutsi".

(Ez baina gure Muxarro ixildu.
Hara nola erantzun zion:)

(Eta Xenpelarrek berriz:)

2. "Nik ba-det giza-legea,
Prantzizko'k baiñan ohea
beste tatxarik etzait arkitzen
arlote-pobrea:
nik jenua noblea,
kortesi paregabea,
neri ezurak austeko nun dek
abilidatea."

(Eta Muxarro azkenean)

4. "Kunplitzik nere ordenak
ez dik kalteko nor denak,
bestela parra egingo ditek
begira daudenak.
Ik nun daukazkik kemenak
menderatzeko gailenak?
Ezur igarrak ausitzen dizkik
indarra duenak".

Iaioak dira, bien trebetasuna adierazteko. Hamaika barre egin omen zuten bertso-jarduketa entzuten egon ziren beste langileek. Gaur ere bertso hauek gogoan dauzkaten hamaikatxo aurkituko dituzue erreteriar jatorren artean. Ez dakit bertso hauen hotsa noraino zabaldu zen, baina, Xenpelarren bertso-rik ote zekien galdetu niola behin Altzon hirurogeita hamarretik gorako baserriar aiton buru argidun bati, eta bertso hauek kantari hasi zitzaidala bai.

Bazen Erreteriar garai hartan Loinaz'tar Joxe Erramon zeritzan gizon bat, Xoxuaren semea, izengoitiz: azkarra gizona. Irabazia non, han bere zankoa. Hartu-eman guztietan, nahiz garbi nahiz ilunetan, sudurra ederki sartzen zekiena, dirua irabazi truke. Hauxe diote behintzat ezagutu zutenek. Gaiztoa zenik ez diot gero nik. Diruzalekeria hau, umetandik omen zetorkion. Hamaika aldiz mutil koskorra zela, aitak esne hutsa saltzera bidaltzen zuenetan, txanpon batzuk bereganatzeagatik, ibaiko ur-txantxila batzuk esnari botatzen bai omen zekien. Hargatik Xenpelarrek bota zitzaion behin bertso hauek:

"Esnea saltzen zuan
urari nasiya;
etzuen karrokakin
erreko pasiya.
Mutiko abilla zala
zeukan pantasiya.
Txoruak engañatzen
orduko asiya".

Beste ateraldi erne asko eta asko izan zituen Xenpelarrek. Erreteriar Makatzaga jaunaren irarkolan edo inprentan argitaratutako *Xenpelar'en Bertsuak* deritzan liburuan irakur zenezakete. Zortzi bertso-rik behin Txikiardiko sagardotegian izan zuen jarduera trebea, beste egun batez, Iparragirre ospetsuarekin izan zuena, eta abar. Oso politikak dira, "Mutil gaztientzat" Iparragirreraren doinuaren egin zituenak, baita "Salbatore'ko Ermitan" deritzen neska zaharren kontra eginak ere. Guztiok aipatutako liburuan aurkituko dituzue erraz, bai, eta alferrikako lana deritzot hemen jartzea.

Xenpelarren azken urteetan berriro guda sortuko ote zen zurrumurrua zabaldu zen Euskal Herrian. Herritarra zen eta herriak —jende xeheak alegia— gai honetaz zeukan iritziaren berri bazuen. Jauntxo batzuk guda berritza nahi zutela ere bai. Gure herriarentzat arazo negargarri honetaz gizonki eta kementsu, handizki eta jauntxo beldurrik gabe, jokatu zuela, bertso hauek adieraziko dizute: nire hitzaldia luza ez dezadan, batzuk bakarrik —nire iritziz onenak— irakurriko dizkizuet. Entzun:

"Milla zortzireun ta
irurogeita zazpiyan
asuntua sortu da
gure probintziyan:
gerra kalte degula
nere iritziyan,
Euskal-erriyak daude
bere dezentziyan.
Guk pakia nai degu
ez gerrarik emen:
zarrak eman ziguten
giyamentu emen len:

mudantzak asi dira
egun gutxi barren
Anparatu gaitzala...!
Jaungoikoak, arren.
.....
.....
Orain ikusten dira
zenbait tuno bakar
kaltetan ijuka:
"Viva la liberta!"
Neonek galdetu det:
Gauz onek ¿zer dakar?

Gezurra esan didate amabitik amar.	anpara gaitzala Orra nik klaro esan
Elkar ikusi nai ez au mundu argala!, uste degu betiko jayuak gerala: alperrik da artzia indarraren gala. Aingeru guardakoak	nerre ditamena: umiltzia nai nuke gaizki dabilena gerrak askorentzat du ondorian pena. Pakian konpontzia litzake onena”.

Bertso hauetan gure Xenpelar igarle agertu zitzaigun. Xenpelarrek zioena egin izan bazuten guztiok, ez ziren Euskadiren gain erori ziren hainbat kalte eta zoritxar eroriko.

Hara, gudari zion gorroto bizia adierazten diguten garai hartako beste bertso kementsuok ere:

“Iya guriak egin du ba-degu zeñek agindu, ez oraindik umildu: alkarregana bildu, gerra nai duan guziya... berari kendu biziya. Ez naiz ni gerraren zale baizik pakearen alde zeñek nai duan galde berari tira dale bala bat sartu buruan: aspertuko da orduan Umildadean alkarri errespetua ekarri,	lege eder bat jarri bizi gaitezen garbi: ori deseo nuke nik ixuri gabe odolik. Gaitzak gerade umiltzen, eta pakean unitzen, ez da errez ibiltzen anayak elkar iltzen, zer dan entenditu gabe: ortan galduko gerade. Gu gera iru probintzi. lengo legerik ez utzi, oyeri firme eutsi naiz anka bana autsi: jayoko dira berriak: gu gera euskal-erriyak”.
--	--

Bertsook, olerti edo poesia askorik dutenik ez dizuet esango; baina bai orduko herriaren asmoak eta iritziak garbi eta argi azaltzen dizkigutela. Zer nola garra piztuzten zuten herriko jende xehearen bihotzetan, gertaera honexek adieraziko dizue. Xenpelarrek, bertso hauen bidez, beren asmoak aurrera eramateko kalte handia egiten zieten bazekiten batzu-batzuek. Hargatik, Jaunak gure Xenpelar lehenago bereganatu ez bazuen, larri ibili beharra zetorkion gizaixoari. Esan, bada, bertsolari jatorrek zerikusi handirik izan duten Euskal Herrian. Bertsolari bikainak beren bertsoetan indarrak ez balukete, herriaren bihotza bultzatzeko gai ez balira, ez zuten jauntxo haiek noski Xenpelar hiltzeko erabakia hartuko; ez zuen Iparragirrek ere atzerriko behazunaren edari mingotsik zanga-zanga edango, edan behar izan zuen eran.

Bai, andreak eta jaunak. Olerkari ikasiak ez ezik, bertsolari hutsak ere, trebe eta jatorrak badira, herri pizkundeari buruz, indar handia dute. Har itzazue zuen kontu

bertsolari bikain batzuk; erakutsieziaezue Jaungoikoa eta Euskal Herria benetan ezagutzen eta maitatzen, eta bi maitetasun horienugarrez bihotzak gori-gori dituztela, bidal itzazue Euskal Herriaren barrena, langileak, nekazariak, marinela eta gainerako jende xehea bildu ohi diren lekuetan eta txokoetara; ekin dezatela, orain bertsolariarik gehienek bertsoetan darabiltzaten gai zirtzilak utzirik. Euskal Herria eta Euskal Herriarekin hain loturik eta estu-estu elkaturik dauden sinismena, euskara eta gainerako gure-gureak ditugun gauza maitagarriak bertso ederretan goratzen kantari eta kantari; zergatik horiek guztiak maitatu behar dituzten euskaldun denok sutsu eta kementsu erakusten, eta orduan Pentekostes berri baten suaz Euskal Herria, iparralde-
tik hegoalderaino, su eta gar ikusiko genukeelakoan nago.

Idazten dena, bertso berri ale batzuk izan ezik, jende xeheak ez du irakurtzen; bertsolarien bertso-borrokak eta ateraldi zorrotzak berriz, txit atsegin zaizkie. Zergatik, bada, bertsolarien bidez jende ezjakinaren buru-bihotzetan Herri maitetasunaren hazi emakorra erein ez liteke? Bete bitez, bada, lehenbailehen “Euskaltzaleak” eta “Eusko-Gaztediak” gure egunetan gai honi buruz, eskuartean darabiltzaten asmoak. Orduan, zinez, Euskal-Pizkundearen izpiak musuka argitu eta berotuko dituzte Euskal Herriaren gaur arte ilun geneuzkan zoko ezkutu guztiak.

Baina nire hitzaldia bukatu baino lehen, aipa ditzadan hor-hemen dabilzaten Xenpelarrek jarritako bertso berriak deritzen bertsoak. Nik ezagutzen ditudanak hauexek dira. “Santa Barbara”renak, “Balentin Berriotxo”renak, “Azken-juiziokoak”, “Munduko arrokeriak zer sententzi ekarriko duan erakusteko jarriak” eta “Betroia”renak. Guztiak oso ezagunak direlako, eta nire hitzaldia gehiegi luza ez dadin, bertsoetatik zerbaitxo bat besterik ez dizuet irakurriko.

Hara “Azken-juizio”-koen batzuk:

“Itxasoak su, eguzki illun illargia odolazkatu, lurrak ikara eta gañera irrio danak agortu: Munduko gauza baliosoak erre ta ikatz biurtu, pekatariak umil gaitezen ba-da zerekin bildurtu.	Jesus Zerutik Josafatera aingeruekin batean, pekatarien artzai umilla ba-dator oien artean; zelai santura juango gera bire guztiak betean, gure orduko larritasuna sententziya eman artean!
---	--

Eriotzaren larritasuna, suspirioa barrendik, nai ez degula bertan il bear anparu gabe inundik: Josafateko zelai santura juango gera emendik, ez da Zeruan sartu Jesus’ek desanparatzen duanik.	Alkarren bistan emango digu sententziya bat zorrotza, gure obrak an azaldu bear; gaiztoarentzat zer lotsa! Pekatarriak altxa dezagun Jesus’engana biotza, konsideratu gugaitik nola pasa zuan eriotza”.
---	--

Baina oraindik ederragoak deritzaizkit "Munduko arrokeriak zer sententzi ekarriko duan erakusteko jarriak". Entzun batzuk:

"Eskolarikan ez daukat bañan
esango ditut egiyak
zer sententzi ekarriko duan
munduko arrokeriyak.
Elizarikan ikusi nai ez,
beti pestara begiyak,
beren buruak apaindu eta
nun dira erromeriyak...
Gaztiak nola ibiltzen diran
ba-daki bertsolariyak.

Urtian beingo konpesiyua,
geyenak gogo txarrean:
"Egunez askok ikusten gaitu,
guazen illunabarrean".
Damurik gabe prestatzen gera
sazerdotien aurrian,
txikiak esan, aundiak utzi,
irutatik bi gordian,
Beste munduan ageriko da
orrelakuak nor dian.

"Betroiarenak" derizten bertso berri ospetsuak Gipuzkoa osoan ezagun-ezagunak dira. Behin gure Xenpelar Hernanira joan omen zen eta ferian ikusmiran ibili ondoren etxera itzuli zenean, egin omen zituen bertso berri farregarri hauek. Hamaika hitzbide eta zalaparta baserriarren artean jarri omen zuten zorioneko bertso txo hauek... Horrelakoren betroiarengatik ziola, honakoren beste harengatik ziola... eta guztia gezurra izaki. Entzun batzuk:

"Ostegun jua danian
amabost Erani'n
betroiaren tratua
genduben egin.
Saltzalle Iñaziyo
erostuna Permiñ,
emeretzi eskutu
geniñon eragin.
Sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuari muziñ,
ez tu nai edozeiñ
atzetik bear ditu
zazpi medeziñ.

Bertsolariak zertako egin
bere burua justua!
Bestela pobre bizi naiz bañan
pekatuz aberastua.
Alde batera utzi dezagun
mundu ontako gustua,
edo bestela etorriko zaigu
sententzien bat estua.
Jesus'engana biur gaitezen
ez dago gutaz aztua.

Animak garbi jarri ditzagun
al ba-da kristau guziak,
eta irabazi gogor egiñaz
etsayakiko auziyak.
Pekatumikan zer datorkigun
ondo gaude ikasiyak,
gero damurik ez du izango
munduan ondo biziyak.
Orretarako lagun deigula
Jaungoikoaren graziyak".

Begi bat itsua du,
adar biyak motzak,
krisallua dirudi
aren kokotsak.
Ikaratutzen gaitu
eztularen otsak;
elizatik burlaka
ari zaizka ontzak
sano dauzka ortzak
agiñak zorrotzak,
dantzan dabil otzak
tristura biotzak
eztiyo onik egin
leku arrotzak.

Burrukan ari dela
juan zaizka adarrak,
ezin sujetaturik
bere indarrak;
talentu onak dauzka
nere betroi zarrak
lurrera botatzen du
euli baten kargak,
ganadu elbarrak
juntura igarrak,
jendiaren parrak
eztirade txarrak,
burruntziya dirudi
aren bizkarrak.

Betroi onek eztauka
auko loalia,
egunero nai ezik
arto alia:
ala ere ezin jaso
lepoko joalia,
burua makurtuta
zerbaiten galdia
orren zaldalia
ezta debaldia,
gauz onen zalia,
bizkotxo jalia,
malizi asko duben
arrantzalia.

Urtiak gallenduta
ajiak azaldu
daukanak obe zuen
erosi ezpalu;
etxetikan kanpora
ezin det bidaldu,
joka asten naiz baña
laister urrikaldu,
aragiya galdu
larrua ona du,
ezurrak onradu;
frantzesak nai badu,
labaiñ-kirtenetako
obe det saldu.

Bertso hauetaz gainera beste asko eta asko egin zituen; hemen aipatu ez dizkizuedan batzuk, alegia, "Andre gaxuen penak", "Zezenak Pasaian", "Andre txarren bentajak", eta abar. *Xenpelarren bertsoak* deritzan liburuan dituzue, bere kantatzeko doinu eta guzti.

Entzun dituzue Xenpelarren ateraldi erne batzuk, bere bertso berri batzuen batzuk ere bai, gizon motela ez zela antzemango zenioten, noski. Benetako euskaldun fededun zela igarri diozue. Olerkari jakintsu-bikaina izan ez bazen ere, bertsolarien goioienetako mailara igo zela ezin ukatuko duzue. Oraindik ez du gure herriak bere izena ahaztu; oroigai zahar-maitagarriak gorde ohi ditugun bihotzeko kutxa zokoan maiteki gordeta dauka. Merezi zuen Xenpelarrek beren herritarren aldetik horrelako aipamen oroigarritxoren bat.

Loretégian harro eta tente dauden arrosa mardul-usaintsuak ebaki eta etxe barruan apaingarrizat jarri ohi dituzue, egia; baina, mendira zoaztela, mendi-hegaleko sasipetxoan ezkutaturik topatzen duzuen loretxo apala ere, ez al duzue askotan bihotz gainean maiteki ipintzen?

Gure gorralpen, aipamen eta txalo sutsu guztiek ere, bada, ez dute jakintsuentzako, ertilarik bikaintzako, gure hizkuntza eta elertia orraztu eta edertu zizkigutenentzako, edota beren harrigarritzako egintzaz Euskal Herriaren izena goraldtu ziguten gizon ospetsuentzat bakarrik izan behar. Inork erakutsi gabe, berezko senaz eta etorriaz, beren herritarren nahiak, iritziak eta asmoak, basatxoritxoan antzera, kantari eta kantari adierazi zizkiguten beste gizon apal haiek ere, gure maite-oroigarri-ukitu bat behinik, merezi dute. Gizon apal horiek, bada, gure bertsolariak dituzue, eta horien artean, bikainenetako bat, Xenpelar.

1936

LEKUONAREN LIBURU BERRIA

*La literatura oral euskérica**

Liburu gutxi irakurri izan ditut, gaurko hau bezain atseginez. Erdaraz idatzia da baina euskal kutsua dario burutik oinetara, hargatik, bada, eta gure euskara zaharra ere elerti-gaiez erabiltzeko gauza dela egiten adierazi nahian idazki honen berri euskaraz ematea bururatu zait.

Gure elertiak eta hizkuntzak apaizei zenbat zor dieten, aitatzen nizuen nire azkeneko jardunean; horra hor, Olabide, *Giza-Soña*-ren eta *Itun-Berria*-ren idazle hilezkorra; horra, *Garoa*, Zumaiako kapelau Agirrerren euskal nobela bikainez, horra, Jauregi'tar Gabirel Aitaren lehenengo euskal *Pisia*, gaur arteraino euskaraz argitaratu zaigun jakintza-libururik sakonena; horra hor, Azkue agurgarriaren liburu-pila; eta hona hemen gure ahozko literaturaz orain arte idatzi den idaztirik osoena eta borobilena.

Gure herriaren elertiaz orain baino lehenago mintzatua dugu Lekuona jauna. Ber-garan, 1930eko irailaren 8an, Eusko Ikaskuntzak eraturako batzarrean gure poesia herritarraz ez zigun hitzaldi makala egin, alajaina.

Orduan, hitzaldi batean egoki ezin besterik egin bada, eta ukitu baizik egin ez zizkigun gaiak, oraingo liburu honetan zabalkiro azaltzen dizkigu. Euskal Herriko ahozko elerti osoa aztertzen digu oraingoan.

Ahozko elerti edo *literatura oral* delakoaren zertzeladak eta ezaugarriak damaizki-gu lehendabizi; gero gure elerti herritarrara jotzen du; honen berezitasun guztiak begien aurrean jartzen dizkigu, eta bertsolariaren mamia gure koplak zaharren eder-kutsua eta hitzik gabeko abestien dohainak agerian eta bizi-bizirik ezarri eta eman dizkigu.

Euskal Herriak literaturarik ez duela diotenek irakurri behar lukete, batez ere, idatzi hau, nabarmen agertzen baitigu hemen Lekuonak gure herri-elertiaren narotasuna. Narotasuna ez ezik, baita berezitasuna ere. Honetan ere, herri berezia ageri zaigu gure Euskal Herria.

* JAUTARKOL, *El Día*, 04/01/1936, 1.

Beste herri guztietako kanta zaharren artean, badute gure kopla zaharrek tankera berezia eta taxu aparta bat. Badugu, beraz, literatura, berezi-berezia, hizkuntza bera bezalakoxea, eta ugaria gainera. Ez liteke, bada, arrazoiz esan, euskaldunok elertirik ez dugula.

Idatzitako elertia hartzen dute nonbait zenbaitek egiazko literatura bakartzat. Horrelako usteen daudenak, ez daude zuzen; ahozko elertia ere, bene-benetako literatura baita. Ederki azaltzen digu egia hau, gure Gasteizko irakasle eta idazle Lekuonak. Jo bezate bada, idazti honetara, egia hauxe ikusi eta ikasi nahi luketenenk.

* * *

Bertsolaritasunaz mintzatu nahi natzaizue nire gaurko jardun honetan. Gai honi ekiten baitio Lekuonak berak ere, gogotsuen eta luzaroen bere liburu ederrean.

Euskaldunok orok nabaritzen dugu ederki aski bertsolaritasuna; ondo asko bada-kigu bertsolari egiazkoak, sasi-bertsolari eta traketsetatik bereizten. Izan ere, badu gure bertsolariak dohainik eta berezitasunik franko. Ez da, beraz, gauza erraza bertsolari trebe izaten.

Gure baserritarrak eta kaletar euskaldun jatorrak ere, hizketa hutsean askotan igarri ohi dute norbait bertsolari dela. Erantzupen zorrotzak eta ateraldi erneak esaten inor ohartzen dutenean, maiz esan ohi dute beren artean: "hori, inondikan ere, bertsolaria duk".

Bat-batean bertsoak botatzeko dohaina izatea, ez da nahikoa, beraz, bertsolari trebetzat inor hartzeko; honetaz gainera, oroimen edo memoria galanta eta adimen bizia eta buru argi eta zorrotza ez baditu ageri, ez du berehalakoan gure herriak bertsolari jatorizat joko.

Gure bertsolariei bertsoetan gatza eskatzen diegu, erantzuteko bizitasuna, ateraldi farregarriak eta ziri politikak eta zorrotzak bertsoetan dotore botatzen jakitea.

Honetan genuen maixu Xenpelar errenteriarra. Hargatik haren izenik ezin ahaztu du gure herri xeheak.

Ez al duzue gogoan, etxe berri bat egin zuen sagardo-saltzaile errenteriar bati behin bota zion halako bertso erne hura?

"Kontzientziya garbia
ote-dadukak jarria?

Gizonarentzat onra txarra dek lapurreriya
zurrupatuaz erriya
egin dek etxe berriya...

Ez ondo bete izan ba'uken sagardoz neurriya".

* * *

Ez da bertsolaritasuna gure lurraldean bakarrik loretutako landarea: mardul ageri izan da beste herrietan ere. Ahozko elertiaren lorea da, eta hura sortu ohi den hizkuntza guztietan, hau ere jaiotzen da.

Gaur ere, mixiolariak digutenez, zenbait Afrikako, Asiako eta Ameriketako herri-hizkuntzatan kementsu nabari omen da.

Israelko herrian bertsolaritasuna oso zabaldua zegoen: Moisek eta bere arreba Mirenek Itsas-Gorria israeldarrek mirariz igaro ostean, bertso ederretan Jaungoikoaren esku ahaltsua goraiatu zuten; Zakari apaizak, bere seme Jonen jaiotze-egun alaigarran, bat-bateko bertsoetan kantari agertu zuen bihotzean gainezka zerion poza; Simeon zaharrak, bertsoei ekin zien Jerusalemgo elizan Josu haurtxoa ikusi orduko; gure Ama Andre Marik ere, bertsoetan erantzun zion, Elizabete lehengusuaren agurrari.

Jesukristok berak ez ote zituen gero, zenbait hitzaldi eder bertsoz jantzita esan? Baietzean daude gaur eliz jakintsu asko. Hargatik, noski, herriaren ahotan hitzez hitz hain luzaroen iraun zuten.

Idatzitako elertiak uxatu du herri gehienetan bertsolaritasuna. Lehen Europa bazterretan bertsolari iaio asko sortu ohi omen zen; gaur Euskadin baizik ia ez dira inon ageri.

Utziko ote diogu guk ere, su honi itzaltzen?

Beste su bati —idatzitako literaturari— piztutzeari ekin baitiogu, gerta lekiguke guri ere zoritxar huraxe. Saia gaitezen bi suak piztutzen: bati eusteagatik, besteari ez diezaiogun ahultzen utzi. Sukaldean lanean ari arren, ez dio amonaxo erneak, suari itzaltzen uzten; enborrak elkartzen, txotxak botatzen eta auspoaz haize ematen ikusiko duzue, gainerako beste lanei erabat utzi gabe.

Ekin diezaiogun bada, guk ere idatziz elertia lantzeari eta ugaritzeari, baina era berean, gure ahozko elerti-sukaldean bertsolaritasun txingarra biziagotzen ahaleginduz.

Asmo honexekin datorkigu "Bertsolari-eguna". Lekuonaren liburu mamitsua, hauxe bera ari zaigu esaten deadarka. Bertsolari jatorrak baditugu eta hauen lana txalotzeko zain dauden hamaika euskal bihotz ere bai. Ez dauka, noski, suak berehalakoan itzaltzeko itxurarik.

GURUTZEA NEKAZARI-OHITURETAN*

Aintza handia diote gure nekazariak gurutze doneari. "Aitagure" eginaz emango diote hasiera beti nekazari jatorrak bere lan neketsuari.

Gure baserrietako ate eta leihoak gurutzez josirik aurkituko dituzue beti, eta garai honetan baita soroak ere.

Orrilaren¹ hiruan dugu dakizuenez, Gurutzearen Agerkunde eguna. Egun hau ezkerro, soro eta zelai guztietan makila batzuk trinko lurreen sartuta zutik, ikus zenitzakete.

Urruti xamarretik begiratzuz makila hutsak dirudite. Baina bertaratu zaitezte. Makil-muturra labanaz edo aizkoraz urratua eta aldenik alde zulatua eta zulotxoan batetik bestera erramu-txotx bat sartua aurkituko diozue bakoitzari. Erramu-egunean bedeinkatutako erramuarena duzue txotxa hori. Makila bakoitzak gurutzetxo bana du, beraz goiko muturrean.

Gurutzetxo horri azterketa arduratsua eginez gero berriz, beste zertxobait ere ikusiko diozue. Argizarizko tanto batzuk ez al dizkiozue topatzen? Tanto horiek zertaz eta nondik datozkion, oraintxe esango dizuet bada.

* * *

Orrileko Gurutze-santu eguna dugu. Eliz atarian jar gaitezten. Baserri urrutienetatik ere, goizean goiz aski badatoz elizarantz baserriar gizon eta emakume, zahar eta gazte.

Jairik handienetan hainbat gizaseme badago elizan. Emakume gutxiago, tratu eta esnearekin joanak baitituzue azokara eta beren esnezaleengana. Kirieleisonak abestuz apaiza eta herria eliz atarira datoz. Apaizak gurutze santua du eskuetan eta herriko soro eta zelaiak bedeinkatzen hasteko gertu dago.

Iparralderantz begira ebanjelioko zatitxo bat irakurri du eta alderdi honetako zelai-soroak bedeinkapen zerutarra eman. Hegoalderantz itzuli da gero, eta beste Berrion edo Ebanjelioko ataltxo bat irakurri ostean, alde hartako soro-zelaiak ere bedeinkatuko ditu eskuan daukan gurutze santuaz. Berdin egin du sortaldera eta sartaldera begira.

Kirieleisonak abesten jarraituz eliz barnera dihoaz berriro. Meza abestua entzungo duzue ondoren. Baina, Meza amaituta ondorenean, gauzatxo batek harrituko zaituzte. Gizon eta emakume, elizan ziren guztiak, errenkadan jarrita, sakristiara doazela ikusiko dituzue. Zoazte zerok ere bai, eta apaizaren eskutik kandela hori, mutur bana jasoko duzue.

Aste Santuko hiru egunetako Maitinetan erretzen egon ziren kandela hori edo gorri haietako puskatxoak dituzue. Gure nekazariak etxera orduko, gosari legea egin

* JAUTARKOL, *El Día*, 10/05/1936, 1.

¹ Maiatzaren.

ondoren noski, gurutzetxoak egiteari emango diote; gurutze bakoitzari, elizatik ekarritako kandela-puskatxoaren tanto batzuk botako dizkiote, eta ahal badute behintzat, gaur bertan hasiko zaizkizue zelai-soroetan gurutze horiek zutik eta trinko ezartzen.

Ez al digu ohitura polit honek gure nekazarien gurutze santuganako jaiera bizia ez ezik, gure Ama Elizaganako begirune berezia ere adierazten? Soroetan jarri nahi dituzte gurutzeak, ondo baitakite gurutzeak etsai guztien aurka duen indarra. Baina, gurutze horiek, Elizaren kutsudunak nahi lituzkete. Horra nola eliz igurtzia eman dien beren gurutzetxoei.

Beste herrietan ohitura zahar honek irauten duen, ez dakit; gurean oso antzina-koa dugula ohitura hau, eta sinesmen biziz nekazariak eusten diotela, bai. Meza aurreko elizkizuna ez da gaurko *Rituale*-tik egiten, *Liber Exorsismorum* deritzan larru zuridun antzinako liburu zahar batetik baizik. "Nunc denuo editum" dio lehenengo orrialdean, orain berriro argitaratua esan nahi du. Eta 1685garren urtekoa da azken argitarapen hau. Noiztik egiten ote da gure herrietan elizkizun hau? Zenbait herri txikitik Aste Santuan Maitinak esateari utzi zaio; apaiz bakarrak ez baitezake behar bezala elizkizun hori bete. Baina, hala ere, Gurutze santu egunean, kandela puskatxoak herritarren artean berdin banatu ohi ditu apaizak. Ez Maitinetako kandela gorriak noski, elizako beste kandela zatitxoak baizik. Horrela ere eliz kutsua damaiete beren gurutzetxoei gure baserriarrek. Eliza Amari dioten itzala jator asko agertzen digute, behintzat.

* * *

Gure nekazariak gurutzeari dioten onespina eta Elizari dioten lotsa-itzala, beste ohitura zahar honexek ere aditzera ematen digu.

Ekainean, San Juan aurretik, apaiza basetxez basetxe zelai soroen bedeinkapen berezia egiten ibili ohi da. Harrera ezin hobea egin ohi diote apaiz jaunari basetxe guztietan jaso beharko ditu apaizak eskerronez.

Honek ordainetan zer ematen diela haiei uste duzue? Elizako kandela muturrak urtuz, egin ohi duen gurutzetxo bat, sendi bakoitzari bana, eliz argizarizko gurutze txiki bana, besterik ez. Eta bai pozez jaso ohi dutela gure baserriarrek gurutzetxo hau, soroen bedeinkapena egin ondoren apaiz jaunak ematen dienean.

Gurutzetxo hau ez dute soroetan jartzen: surtan pixka bat bigundu, eta etxeko atean, edo leihoren batean, kanpotik itsatsirik utzi ohi dute.

Gaurko Euskadiko nekazariak, Euskal Herri zaharreko ohitura fededunetan bizi zaizkigu oraindik. Beren bizitza latza Gurutze santuaren babesean igaro nahi dute.

Gure aurrekoek Ernio tontorrean jarritako gurutzeak zutik dauzkagu, eta urtero-urtero baserriarren muin eta musu maitekorrak ez ezik, kaletarren agurtzak eta bihotz-besarkadak ere jaso ohi dituzte. Uzturren eta beste mendi gailurretan gurutze berriak jarri ditugu.

Kristau-ezaugarri zaigun irudi zerutarra aintzakotzat dugun bitartean, ez zaigun berehalakoan Sinesmen-sua itzaliko. Jaungoikoaren indarra den Gurutze santuak gure

Euskadi maitea etsai guztien atzaparretatik askatu eta zorientzua izateko bidean jarriko digu.

Gure auzoko herriek beren elizak erre eta kiskaltzen diharduten bitartean, gure nekazari jatorrak eta euskaldun guztiak Gurutze santua besarkatuz bizi gara eta bizi nahi dugu. Elizaren igurtzi gozoa atsegin zaigu eta eliz kutsuz jantzita ludi osoaren aurrean azaltzeak ez digu inoiz lotsarik eman, ezta emango ere.

Hain Gurutzezale eta Elizazale zaigun gure Herria ezin liteke hil inolaz ere. Arrauna zutik eskuan duela, helduko da garaipen-kaira noizbait, baserri askoren ikasbide zuzen eta eredu bizi izan dadin.

EL BERTSOLARI EN ACCIÓN*

En todas las lenguas hubo y hay poetas populares que llevan en sus versos la voz del pueblo, que saben tocar las fibras del corazón colectivo y conocen la virtud de entusiasmar a las gentes con las que conviven en comunión de raza y sentimientos, unas veces, con alusiones ingeniosas y satíricas burlas, y otras, haciendo oír con ritmo adecuado las palpitaciones íntimas del alma popular.

Entre todos los poetas populares del mundo merece ocupar nuestro bertsolari un lugar preeminente, sobre todo por sus extraordinarias dotes de poeta improvisador.

Nuestro bertsolari es el trovador rústico, muchas veces analfabeto, pero verdadero artista del verso y exponente el más adecuado de la literatura meramente oral.

La faceta más interesante de su personalidad artística destaca sin duda alguna en su prodigiosa improvisación versificadora. No es obra de estudio ni producto de prolijos trabajos de disciplina mental, sino un instinto original nacido espontáneamente en el alma del bardo popular, como la intuición brota en los genios y surge el chispazo del ingenio en las inteligencias preclaras.

Claro es, que el estudio y la cultura superior abrillantan la obra literaria del bertsolari. Ejemplos de ello tenemos ante nuestra vista, Enbeita y "Basarri", merced a una cultura literaria euskérica adquirida, han sabido unir a sus cualidades ingénitas de improvisación versificadora, quilates artísticos de dicción poética.

Pero no perdamos de vista al tratar de juzgar a nuestros bertsolaris, que no es la expresión depurada sino una parte accidental y accesoria de su obra literaria, y que el mérito esencial del bertsolarismo estriba en la ingeniosa repentización o pronta improvisación de adecuados conceptos reveladores del astro popular.

* * *

Nuestro bertsolari en el apogeo de su inspiración y en acción plena de sus facultades típicas, se halla en este librito que tengo a la vista titulado *Bertsolari-Guduak*.

Percatadas las beneméritas Sociedades "Euskaltzaleak" y "Euzko-Gaztedi" de Donostia del enorme interés psicológico de la improvisación en verso que nos ofrecen nuestros bertsolaris, idearon y pusieron en práctica el pasado año y el presente dos torneos rítmicos o públicas contiendas de bertsolaris que resultaron sumamente interesantes.

No ignoran nuestras dos entidades vasquistas que, la rehabilitación social del bertsolarismo, además del interés nacional indudable, ofrecía una característica singular en el campo literario universal de nuestra época. Es, en efecto, rarísimo el fenómeno de la improvisación, de fondo y forma, tal como la practican nuestros poetas populares en sus contiendas públicas, en la literatura universal contemporánea.

* JAUTARKOL, *El Día*, 20/06/1936, 1.

Y sin embargo, como otros valores peculiares, también nuestro típico cantor popular iba de día en día perdiendo su significación en la vida social vasca. Era menester tratar de vigorizar esta manifestación de nuestra literatura popular, hallar un medio de estimular el ingenio de nuestros trovadores y despertar en nuestro pueblo la afición a los torneos de versificación improvisada entre bertsolaris debidamente seleccionados, a fin de que, la personalidad de nuestro típico bardo popular, recobrara el prestigio a que tiene derecho por sus singulares cualidades meritorias, y recuperara la estimación social en que le tuvieron las pretéritas generaciones vascas y a que es acreedor por su significación en nuestra literatura y en la antología universal de la poesía popular.

El éxito más lisonjero coronó los patrióticos propósitos de las dos citadas entidades organizadoras del Día del Bertsolari. Fruto de ambos certámenes públicos de tan grata recordación para los que los presenciaron, y valioso exponente de las relevantes dotes improvisadoras de nuestros bertsolaris, es este libro de cien páginas que acaba de editar "Euskaltzaleak" con la pulcritud característica que sabe imprimir a todas sus publicaciones. Ocho fotograbados en los que se recogen los retratos de los bertsolaris que tomaron parte en la literaria contienda y los momentos más interesantes de aquellas memorables fiestas, avaloran sus páginas ya de por sí harto valiosas.

Los jóvenes de "Euzko-Gaztedi" supieron con afán patriótico recoger los versos que a borbotones, como de perenne manantial, iban brotando de los labios de los poetas contendientes; y la ágil pluma de Zubimendi ha acertado a describir plenamente las incidencias y sugerencias dignas de mención, que habrán de servir de sumo aprovechamiento para la futura historia del bertsolarismo.

Aitzol, en un prólogo breve pero sustancioso, nos ofrece una síntesis perfecta de la personalidad del bertsolari y nos dibuja con cuatro líneas tan recias como expresivas, la historia pretérita de nuestros trovadores.

En nuestros días, el fenómeno de la improvisación en verso no parece puede desarrollarse sino entre las capas menos cultas de la sociedad. En siglos anteriores, sin embargo, era corriente su ejercicio entre las personas de rango social y de distinguida cultura.

Era frecuente ver improvisar versos adecuados a la índole de la fiesta, familiar privada o pública del pueblo, que se celebrara, al etxejojaun de rico abolengo o a la hija del castillo más linajudo. El canto del siglo XV improvisado en presencia del cadáver del señor de Alos Torrea por su hija denominada Usoa, tiene la factura característica de las improvisaciones del bertsolari de nuestros días. También en la muerte de Milia de Lastur se nos muestra una de de sus hermanas como perfecta improvisadora y no menos, la hermana de Peru Gartzia contestando igualmente en verso a las imputaciones de aquella.

No parece aventurado decir que, en aquella época, a juzgar por los retazos literarios de este género llegados hasta nosotros, el ejercicio del bertsolarismo era considerado como algo muy noble e imprescindible en todo acontecimiento familiar o público de cierta significación.

Los Gau-hila, bautizos, bodas, hechos guerreros, todo servía de pábulo a la inspiración del bertsolari y en todas partes era recibido con honor y eran celebradas sus ingeniosas intervenciones.

A colocar en el rango que le corresponde a nuestro poeta popular dentro del marco de nuestra literatura, a dignificarle y realzarle culturalmente, vienen los Días del Bertsolari y los Bertsolari-Guduak o públicos torneos que en ellas tienen lugar.

Este libro, para los que asistieron a ellos, será un vivo recuerdo y despertador de bellas emociones, y para los que no los presenciaron, acicate que les impulse a presenciarlos en lo sucesivo.

1943-1962

LA PATRONA

LA GRAN SANTA DEL NUEVO TESTAMENTO

El relato evangélico de San Lucas sobre la conversión de la mujer pecadora, acada en casa de Simón el fariseo, en una de las escenas más bellas y bellas de la literatura religiosa.

Quizá, por una delicadeza muy explicable, no quiso el evangelista mencionarla por su propio nombre. Pero parece probable que esta pecadora arrepentida es María Magdalena, la hermana de Marta y de Lázaro, la misma que ungió por segunda vez los pies de Jesús en Betania, días antes de la Pasión, la misma que acompañó a Jesús con valor y fidelidad inquebrantables, al lado de la Virgen, en el Calvario, y le sirvió hasta al sepulcro y mezció del Señor la merced singularísima de venir bendecido antes que los apóstoles.

El espíritu desolador de pecadora que le da en el relato citado el evangelista, y la pública autoridad de su trágica conducta moral que se desprende del juicio que de ella veía formado el fariseo Simón, así como la frase de Jesús, "se le perdona sus muchos pecados", indican sin género de duda su vida escandalosa. Pero no por eso hemos de creer que llegara hasta el extremo de la degradación, ya que, dado el refinamiento social de la mujer en las paises orientales, se necesitan allí motivos de menor cuantía que entre nosotros para concebir de esta manera la vida de una mujer.

Magdalena era por aquel entonces una ciudad deliciosa, situada al pie del monte en las orillas del lago y a la entrada de la Gran Barrera de Gennesaret, célebre por su tráfico comercial y floreciente por su vida marítima y calafate. Por haber, como, nacido María en esta ciudad, y al mismo haber hablado en la misma durante bastante tiempo después a Jesús por su conducta mundana y licenciosa, recibió el sobrenombre de Magdalena.

Jesús había establecido su habitual morada en Cafarnaúm, en las orillas de Magdala. La fama de los milagros que operaba, la santidad de su vida, su celestial doctrina,

1943-1962

NUESTRA PATRONA LA GRAN SANTA DEL NUEVO TESTAMENTO*

El relato evangélico de San Lucas sobre la conversión de la mujer pecadora, acaecida en casa de Simón el fariseo, es una de las escenas más delicadas y bellas de la literatura religiosa.

Quizá, por una delicadeza muy explicable, no quiso el evangelista mencionarla por su propio nombre. Pero parece probable que esta pecadora arrepentida es María Magdalena, la hermana de Marta y de Lázaro, la misma que ungió por segunda vez los pies de Jesús en Betania, días antes de la Pasión, la misma que acompañó a Jesucristo con valor y fidelidad inquebrantables, al lado de la Virgen, en el Calvario, y le siguió hasta el sepulcro y mereció del Señor la merced singularísima de verle resucitado antes que los apóstoles.

El epíteto denigrante de pecadora que le da en el relato citado el evangelista, y la pública notoriedad de su liviana conducta moral que se desprende del juicio que de ella tenía formado el fariseo Simón, así como la frase de Jesús, "se le perdonan sus muchos pecados", indican sin género de duda su vida escandalosa. Pero no por eso hemos de creer que llegara hasta el extremo de la degradación, ya que, dado el retraimiento social de la mujer en los países orientales, se necesitan allí motivos de menor cuantía que entre nosotros para conceptuar de escandalosa la vida de una mujer.

Magdala era por aquel entonces una ciudad deliciosa, sentada al pie del monte, en las orillas del lago y a la entrada de la fértil llanura de Genesaret, célebre por su tráfico comercial y famosa por su vida muelle y relajada. Por haber, quizá, nacido María en esta ciudad, o al menos haber habitado en la misma durante bastante tiempo dándose a conocer por su conducta mundana y licenciosa, recibió el sobrenombre de Magdalena.

Jesús había establecido su habitual morada en Cafarnaún, no lejos de Magdala. La fama de los milagros estupendos, la aureola de su santidad, su celestial doctrina,

* Luis de Jáuregui, Rentería (1943) 25-26.

hubo de llegar, sin duda muy pronto, a oídos de Magdalena. Moviéndose primero por curiosidad, acuciada luego por santos deseos, acudió a oír los sermones del gran Profeta, presenciando sus milagros, admiró su bondad y escuchó por fortuna de sus labios esta regalada invitación: "Venid a mi todos los que estáis cargados, que yo os aliviaré. Mi yugo es suave y mi carga ligera".

La luz divina de la mirada del Salvador iluminó un día feliz con fulgores celestiales la oscuridad de su alma, sumida en las tinieblas del pecado, sintió la pesadumbre de sus vanidades y locuras y el rubor de la vergüenza coloreó por primera vez sus mejillas entre sollozos de arrepentimiento y ansias de rehabilitación. Aquellas llamadas de amor del divino Maestro a los pecadores, la blandura y bondad con que recibía a las almas laceradas por el dolor o torturadas por la culpa, conmovieron su corazón, triste en medio de los placeres engañosos de la vida y anhelante de luz y felicidad.

Vio en Jesús a su Salvador divino y creyó en su palabra, depositando en Él toda la confianza de su corazón destrozado y desengañado.

Dios, en sus misteriosos designios, la tenía destinada para que fuese en los tiempos venideros hasta el fin del mundo, la representación viva del arrepentimiento, la figura excelsa de la penitencia en el Nuevo Testamento.

Resuelta ya a romper con todo lo que hasta entonces deshonrosamente había amado, se decide, con absoluto desprecio del mundo, a postrarse a los pies de su Salvador, a implorar su perdón, y a consagrarse a su servicio. Entra, pues, resueltamente en la casa del fariseo. Llegase al lugar del convite y, como humilde arrepentida, se pone a los pies del Señor y comienza a bañárselos con sus lágrimas y a limpiárselos con su lozana cabellera y a besarlos y a ungirlos con el bálsamo o perfume que había traído con este fin en un vaso de alabastro.

La soberbia farisaica no comprende este gesto sublime de la pecadora y protesta interiormente ante este cuadro conmovedor de humildad y amorosa contrición. Pero hónrase la divina Sabiduría, conquistando lo que el mundo desprecia. Jesús defiende a María Magdalena. Dios exige el corazón del pecador arrepentido, porque lo único que busca en este mundo es el amor de sus criaturas, y María ha venido arrepentida a los pies de Jesús a entregar su corazón a Dios. Sus castas lágrimas, sus cabellos flotantes, sus dulces besos bañados por el llanto y cortados por hondos suspiros, su perfume derramado, como obsequio a su Salvador, no son otra cosa sino delicadezas de una piedad sincera que quiere decir: "¡Cuánto os he ofendido, Dios mío!, pero perdóname, porque os amo y quiero amaros siempre desde hoy".

Así lo entiende Jesús. Toda una vida de pecado, queda coronada de gloria con un sólo acto de perfecto amor de Dios. Cuanto más le amemos, nos dice, más nos perdonará, y cuanto Él más nos perdone, más obligados quedamos nosotros a amarle. Pero el amor que justifica, que perdona y que salva, procede de la fe. "Tú te has salvado, dice Jesús a la pecadora; vete en paz". Ha creído en la palabra y en la obra del Salvador de los hombres, y le ha amado como su Señor y Dios. A impulsos de este amor, ha roto las ligaduras vergonzosas que la tenían cautiva, y ha recobrado la libertad y la paz.

Por primera vez en su vida, se siente verdaderamente feliz. Agradecida, se consagra al servicio de su Salvador, a quien sigue con fidelidad y amor heroicamente hasta en las horas amargas de la Pasión, junto a la Cruz y hasta en la triste soledad del sepulcro.

Recibe de Jesús muestras de predilección y de condescendencia singulares, y escucha de su boca palabras que brillan en su frente, como aureola de una gloria que es el asombro de la humanidad entera. La angustia pecadora de Magdala es, a través de las edades, la gran santa del Evangelio, milagro viviente de regeneración moral, modelo de penitencia y estímulo perenne de rehabilitación para todas las almas caídas en la culpa que quieran levantarse a las alturas de una gloria inmortal.

EL BERTSOLARI "XENPELAR"*

Para muchísimos renterianos de hoy este nombre carecerá de sentido, seguramente; pero para otros muchos, sin duda, será evocador de gratos viejos recuerdos.

Estimo necesario, y más en una publicación anual destinada a resaltar glorias renterianas, suscitar la memoria de nombres que en un tiempo enaltecieron el pueblo que les vio nacer. Entre ellos merece un lugar destacado este nombre humilde "XENPELAR".

No fue un sabio, ni un gran capitán; ni siquiera un literato, escritor atildado o poeta de altos vuelos. Fue, simplemente, un bertsolari. Pero un bertsolari de unas dotes de improvisación tan sorprendentes, que quizá ninguno de sus antecesores, ni posteriores, le hayan aventajado en esta faceta de la literatura oral vasca.

La fama de su nombre se extendió en su tiempo a todo el País Vasco, y aún hoy, a cien años casi de su muerte, sobre todo en las zonas rurales de Guipúzcoa y parte de Vizcaya, se recuerda su nombre y se cantan sus versos. En muchísimas mentes ha quedado como estereotipada la famosa frase: *Bertso-Berriak, Xenpelarrek jarriak*, y su nombre pasó a las generaciones sucesivas como el tipo representativo del poeta popular, trovador y cantor.

Por eso, son dignos de elogio quienes se acuerdan de perpetuar con lápidas u otras conmemoraciones la memoria de estos hombres que así glorificaron a su pueblo natal. Quede aquí consignado mi reconocimiento de renteriano a aquellos regidores del pueblo que, el año 1931, en plenas fiestas, el día 24 de Julio, descubrieron la lápida conmemorativa que en nuestros días subsiste en la casa de la calle Magdalena, donde vivió Xenpelar, desde que se casó hasta que murió el 8 de diciembre del año 1869.

Hoy que tantas calles va abriendo nuestro ilustre Ayuntamiento, creo que no andaría descaminado si dedicara alguna de ellas a nuestro popular Xenpelar, astro de primera magnitud en el bertsolarismo vasco. Hoy que el mérito del bertsolari es reconocido en Certámenes internacionales, como el celebrado últimamente en París, ante un jurado integrado por catedráticos y profesores de la Sorbona, el dedicar a "Xenpelar" una calle en Rentería equivaldría a demostrar con hechos que no le ha olvidado su pueblo y que le estima digno de figurar entre los nombres que, de una u otra forma, enaltecieron a su pueblo natal.

El bertsolarismo es una manifestación de literatura oral, que no es exclusivo de la lengua vasca, aunque en nuestra lengua ha adquirido caracteres típicos. El bertsolari es un ser dotado de especiales cualidades de ingenio natural y de un sentido extraordinario del ritmo. Su improvisación poética se verifica siempre cantando al son de una melodía rítmica, y generalmente rodeada de un ambiente particular de público y contricantes. Es entonces cuando resaltan de modo especial el espíritu satírico, la viva inteligencia y la inspiración de nuestros vates populares, puestos en pugna, ante una

* L. de JAUREGUI, *Oarso* 1 (1958) 28.

multitud que sigue con atención sus actuaciones, haciendo resaltar con sus aplausos calurosos los pasajes más felices de la improvisada lucha.

"Xenpelar" gozó de fama extraordinaria en estas contiendas como improvisador ocurrente, rápido e ingenioso. Era solicitado en todas las fiestas populares de su tiempo, no sólo en Guipúzcoa entera, sino también en los pueblos de la montaña de Navarra y parte de Vizcaya. Así se explica que a pesar de haber fallecido a los 34 años de edad, alcanzase la popularidad enorme que alcanzó, y que algunos versos de sus actuaciones más célebres se recuerden todavía en diversas zonas populares del País, transmitidos de padres a hijos por transmisión meramente oral.

Pero merece también especial mención su producción literaria de *Bertso-Berriak*, que como los titulados "Betroi bati", en el género satírico, y "Azken-juiziyoko eguna", "Santa Barbara", etc., en el género religioso, gozan aún hoy, de justa fama entre los aficionados a la literatura popular.

No es, pues, justo que le olvidemos los renterianos.

“LORAMENDI” OLERKARIA *

Bere poesia-lanaren azterketa, bera bizi izan zen garaiari buruz-buru

Askotxo ditugu gure artean olerkarien lanak aintzakotzat hartzen ez dituztenak. Euskara bera ere ez dute aintzakotzat hartzen eta, jakina. Baina literatura ororen historia eta olerkariena, estu-estu korapilaturik aurkitu ohi ditugu, literatura guztietan zer ikusi sakona baitute olerkariak. Literatura ospetsua duten hizkuntzek, olerkariak ere ospetsuak, eta poesiaren pizkundeak, literatura osoaren piztutzea eta sendotzea berekin dakar beti eta nonahi.

Gogora ezazu, adibidez, Katalunian gertatua. Aribau olerkariak egin zuen irrintzi bizkorraren ondoren, olerkariak piztutuzen hasi ziren, eta haien atzetik, beste era askotako idazle trebeak ere bai. Geroztik dator hango literatura bizi eta ospetsua.

1859garren urtean olerki-jokoak egiten Bartzelona hasiz gero, katalan-poesia erpianean ageri zaigu, eta literatura mardul eta sendoaren jabe ditugu gaur katalandarrak.

Gure artean, Manterola ospetsuak egin zizkigun ahaleginak lan txalogarri horretan; zerbait onura euskal-literaturari erakarri zionik ezin uka genezake: behar hainbat ez noski, eta ez bere erruz eta hobenez garai hartako euskaldunen epelkeria lotsagariaren zabarkeriagatik baizik.

Geroago, *Euskal-Erriaren Alde-k* eta *Euskal-Esnalea-k* Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, urtero egin ohi zituzten olerki-sariketak, olerkari onik franko agerrazirik.

Alabaina, 1930garrenean, “Euskaltzaleak” zeritzan elkargoak eman zion euskal poesiari bultzakadarik handiena. *Euskal-Olerti-egunak* geroztik sortu zitzaizkigun, eta baita gure olerkaririk ospetsuenak agerian ipini ere. “Loramendi” horien artean, Bedoña'tar Jokin, alegia, 1932ko olerti-jaietan saritutako olerkari argia.

Bere bizitzaz zerbait

1920ko abuztuaren 4an, zazpi mutiko gipuzkoar, gehienak beren gurasoekin, Altsasuko geltokian jaitsi ziren. Goiz-goizean jeiki, beren amatoen aurpegi negartsuetan musu luze-bero bana utzi ondoren, bideari eman zioten Altsasuko tren-gelditokian, aita kaputxino bat zegoen beren zain, eta lehenengo agurrak eginaz gero, guztiok, herri horretan A. Kaputxinoek duten ikastetxera abiatu ziren.

Haien artean, hamabi urteko mutiko baserriar apala, Arana eta Ezpeleta'tar Juantxo dator. Bedoñako Mendibitsu baserrian jaioa da eta hango erreka kantarien hotsak eta sasietako birigarroen txinta eztiak kolkoan gordeta dakartza.

Ez daki erdaraz txintik ere. Haren erdarazko hasierako lanak, barregarriak omen ziren. Urte askotan eduki zituen berak maiteki gordeta oroigarritzat. Esaera hauexen

* Luis Jauregi, *Euskera* 5 (1960) 235-257.

antzekoak genituen “Asno tranquilidad comiendo hierbas”; “ratón oreja escondió”, eta abar. Jakina: euskarazko hitz-joskera erdal hitzez.

Alabaina, ikustekoak dira handik bost urtera egin ohi zituen idazlanak. Badira urtetxo batzuk eskuartearen erabili nituela eta harriturik laga ninduten. Idazle trebearen aztarna berekin zuten. Erdaraz ere literaturgile jatorra eta idazle bikaina izango genuen noski, gure Loramendi langilea.

Ez zitzaion, horratio, hari, gure arteko beste askotxori, zoritxarrez gertatu ohi zaiena, gertatu: alegia, erdara ikasi eta euskara ahaztu edo txokoratu.

Bost urte egin zituen Altsasun; gero Zangozara jo zuen nobiziadua egitera. Hementxe hasiera eman omen zion bertsoak egiteari: euskal bertso batzuk Ama Birjinari, behintzat, egin omen zizkion, gaur inon aurkitzen ez badira ere.

Filosofiako ikaskuntzak, Hondarribian bi urtez, eta urte betez Lizarran egin zituen. Hondarribian ikasleak urtero —garai hartan, behintzat—, done Bonabenturaren omenez egin ohi zuten literatur batzaldian azaldu zuen lehenengoz burua Loramendik, euskal olerkari antzean, noski. Bertso hauek 1928ko uztailean egin zituen: “Guadalupe bidean” dute izena; ezer gutxi balio zuten. Bertsolari erdi landu baten bertsoak dirudite. Baina hemen ipintzea merezi dute, gure bertsolari gazteak handik lau urtera egin zuen aurrerapen galanta ikus dezagun.

"Guadalupe tontor artara

igo nintzan egunian,

baserri txuri asko ikusi

nituben bide darian.

Zugaitzak ere lorez betiak

soro-zelayetan,

elurra egin balu bezela

erruz aurreko gabetan.

Eguzkiaren printzak alaitzen

zituben toki guztiak:

zeñen ederki diz egiten

zuten belartxo buztiak!

Oso urrutira ematen zizkan

kolore ikusgarriak

ziruditela danak zeudela

gañetik urrez jantziak.

Diamantezko koroï eder bat

ematen zuben soruak,

eta aldare argiz betiak

apaindutako basuak,

aingeru polit miragarriak

egazti edo usuak.

Gure zelayak orrela jarri

zizkigun bai Jaungoikuak!.

Oraindikan oroituzten naiz

eguzki txit indartsuak

arkaitz tartetik nola azaldu

zituben goiko lañuak,

eta gañera zabaldu ere

likurta oso gozuak.

Usai oberik ezin zeikian

eman baratz ta soruak.

Zuaitz gañetan entzuten ziran

abesti alaiagarriak,

goizetik arrats ixildu gabe

arkitzen ziran txoriak.

ta mitxeletak lorerik lore

egan zebiltzan guztiak,

t'itxas aldetik etortzen ziran

miragarritzko egaztiak.

Artalde eder oso galanta

zabaldia belardian,

bildots potxolo jaio berriak

amaren aldamenian,
mutil sendo bat txakur batekin
zaitutzen danen aurrian,
ta aiton txit zar bat bere pipakin
arbolaren itzalian.

Ondarrabi'ko Ama maitea
mendi biren tartian,
goroldioz ta untzez betia
itxura eder ederrian...

Beste aldiian ikusten dira
Bidasoa'ko ibayak,
Irun, Beobi Ondarrabia
apaintasunez jantziak.

Ondarrabi'ko mendiak beti
gogoratuko zaizkit neri,
edo bestela egon biarko
diat burutikan gaizki..."

Bertsook 1928garren urtean egin zituen. Lau urtean gure olerkari azkarrak egin zuen aurrerapena, harrigarria da gero. Izan ere, egunsentiko argi-printza mehetatik, eguerdiko argitasunerainoko aldea badago bertso hauetatik bere azken olerkietara.

Inondik ere, bertso apal hauek, gure Bedoñako olerkari gaztearen bizitzari buruz zer ikusi handikoak ditugu: horiek zirela bide euskal olerkietarako gogoia piztu baitzitaion. Hondarribian, beraz, olerkari antzo, jaio zitzaigula esan genezake. Hantxe, nonbait, itsasoari eta hango bazter xarmagarriari begira, olerkari zela bere buruari antz eman zion, eta hantxe, bere irudimen bizia irudi ederrez, kolore txanbelinez, eta bere bihotz xamurra sentipen ezti eta sakonez josi zitzaizkion lehen-lehenengoz.

Hango irakasle batzuek ere, haren gaitasuna ikusiz eta goraino igotzeko lain zela igarrit, euskal olerkietara maiteki bultzatu zuten, eta laguntzaila izan zituen. Eldua-yen'dar Tomas aita ereslari eta musikalaria trebea batez ere laguntzaila jatorra izan zuen. Ez zitzaion sekulan Bedoña gazteari ahaztu irakasle honi zion zorra. Hargatik gerora, "Aitormendi'ko Jaia" deritzan eta amaitu gabe laga zigun poematxo, hari eskaini zion, esker onez.

1928tik 1930eraino, batez ere Arrese'tar Emeteri, Jauregi eta Lizardiren euskal olerkiak irakurtzeari eman zion, garai horretan "Txindor" Arreserena eta Jauregiren *Biozkadak* argitaratu baitziren. Lizardiren *Biotz-begietan*, 1932an argitaratu zen, baina haren olerkiak nahiko ezagunak ziren orduan ere.

Garai honetako olerkietan aurrerapen gaitza ageri da: bertsoa, txukun eta jator darabil, hitz alferrik gabe. Oraindik geroko mamitasunik ez zaio ageri, baina bai irudimen bizia eta bihotzondo samurra. Lirikarako gauza zela, azaltzen digu argi asko. Hemen jarriko dizut adibidez, garai honetako olerkitxo bat, zerorrek, irakurle, epaia eman diezaiozun. Hona hemen:

¡Ardi gaxoa...!

(ERRAVI, sicut ovis, quæ perit)

Ibarrez-ibar, mendirik-mendi	Egun batean lilluratua
Artzai Onaren ondoren	utzirik ai! artalde, a
¡zeñen gozoki, zeñen zoruntsu...	aldendu nintzan arturik ala
zeñen gentzaro nenbillen!	bear ez nuen bidea,
Abesti lagun, atseginkorrak	pozka! ondoren urrundinintzan
Artzaiak zizkun abesten,	irudipenez betea,
Illargi naro, loretsuetan	luririk barna zoro ninjoan
genbiltzanean bazkatzen.	iritxi naian ohea.

¡Doakabea!... ez nekin bela	Zorigaitzoko aztar ondoren
iges urak zekarrena,	ardi guziak baturik,
itxumusturik ez nun nabaitu	estu zetorren menditik bera
sartu zidaten eztena...	txistu ta oju egiñik.
Urrin zerion bide zabala	Ibar-mendiak aztertu zitun
lenen ibilli nuena,	malko samiñez bustirik;
arantza zorrotz, otez josia	etsai beltzaren mendean larri
zorakerien azkena.	idoro nindun azkenik.

Lizunkerizko lore tartean	Il-zori artan ikustean ni
txoraturik nebillera,	egin nun txistu zolia...
ixil ixilik irten zitzaidan	nere gañetik uxatu zedin
iñar-tximista bezela	otso zital bigurria.
otso beltz, aundi, amorratua	Arin ta laster urbil zitzaidan...
erakutsirik orrela	Laztandu nindun guztia...
begi zartatsu, ao zorrotza	Ezti tantoaz osatu zidan
odol bitsa zeriola.	biotzan nuen zauria.

¡Ordu samiña!... Gogortu nintzan	Indartu nindun jardun gozoaz
Iges egin nai atzera!...	gero sorbaldan jarririk
Zaunkaka berriz nere gain beti	eraman nindun ardi tartera
otso goseti ankerra...	lartan beroak emanik...
Larri nengoen... indarrak aitu...	Eznaiz geroztik inoiz aldendu
ezin nuen jo aurrera...	Artzai Onaren esitik...
ordu berean ojuka ikusi	¡¡Ardi galduak!! ikasi Nor dan
larriri Artzai ber-bera.	Jesus Artzaia nigandik.

Loramendi (O.M.C.)

Urte bi hauetan hirurogeiren bat olerki egin omen zituen, erlijio gaikoak gehienak, guztiak Lizarran, Nafarroako Estellan, eginak. Ez zen horratio lo egon bi urte horietan. Egin zuen lan gogotik. Ia egunero olerkien bat egiten omen zuen-eta.

Idazteko erraztasuna iritsi nahi zuen, noski; hargatik aritu zen idatzi eta idatzi aspertzeke. Ahal zuen hitz neurturik ederrenetan bere buruko gogoetak isurtzen, eta bere bihotzeko sentimenak iraultzen. Olerkari ospetsua izateko, izan ere, ez baita olerkari jaiotzea aski; beste olerkari trebeen lanak aztertu eta ikastea ere, beharrezkoa da.

Esan dizut lehen, euskal olerkarietan nortzuk hartu zituen bere maisutzat eta ikasbidetzat: erdarazkoetan, berriz, Fernán Caballero eta Gabriel y Galán izan zituen, batez ere garai honetan, irakasle. Azken olerkari ospetsu honen kutsua badu bertsoetan gure Loramendik: hitz neurtu apainak, ederki biribilduak eta oparotsuak, Salamancako olerkariaren antzekoak dituzu guztiak.

1930ko abuztuan, Iruñeako Ikastetxera Teologia ikastera jo zuen. Bere libururik mamiena Biblia izan zuen, orduan eta gerora hil zitzaigun arteraino. Gainera Fray Juan de los Angeles, Verdager, Martínez Sierra eta Francis Jammes, urte horietako bere lagunak kutunenak; euskal idazleetan, berriz, lehen aipatutakoaz gainera, Lardizabal, Mendiburu eta Orixe. Azken aldian, Lizardi eta Fray Luis de León. Ikusten duzunez, ez zihon bide okerretik. Ondo baino hobeto zuzenduta zihon erpinera iristeko.

Apaz-ikaskuntzak amaitu ondoren, hitz lauz eta hitz neurtuz, idazteari ekiteko gar bizia zeukan. Euskara maite-maite zuen, eta gure hizkera gaixo hau jasotzeko irrikitzen zegoen.

Azken aldiko bere idazlanak, mamitsuak eta irudi ezti eta sentimen bizikoak ditugu. Hemen banaka batzuk ipintzea izango dugu egokiena, lehen irakurri duzun hartatik, oraingo hauetara dagoen aldea, begiz begi, ikus dezagun. Eta zerorrek, irakurle horrek, igarriko diozu, nire aipamen eta gorapenik gabe, noraino igoko zitzaigun gure idazle argi hau, Jaungoikoak beste urte mordoxka bateko bizia eman balio. Igali mardulak ematen hasi, eta helduenak emateko zela, eraman baitzigun Goiko Jaunak Beregan.

“Ona, Otoi, adiskide...!” deritzan olerki txiki polita, benetan. Xamurra, osoa, eta biribila, gure Lizardi handiaren jarioaz eta tankeraz igurtzia. Ginartsuagoa dugu Lizardi oraindik ere, baina haren idaztankeraren kutsua nabaritzen diot, nik behintzat olerkitxo honi:

¡Otoi, adiskide...!

Ill intzan Ill i ere...! Eraman induten...	Aurrera pa eta pa!... sukaldean ama
Ire itzalak ordea ni baitan dik lurmen...	min-ariaz ari da josten min-oiala...
Eta abia bai intzan	Esan, ama esan:
laño ta eurite...	nun degu aitaxo...?
beste alde ortan	Aspaldi jun baitzan,
bai al duk aterpe...?	laister da itzuliko...?
Sukarretan aittu zan Uda, jaun gorria	Sutu zaio amari malkoz aurpegia
otzikaran utzirik seme negartia...	ta alderaka ustutzen du biotz- intziria...

Lotzen du besoetan laztanka umetxoa	Geroztik iñork aitaz galdetzen badio,
ta ixillean txukatuz begi-jarioa,	belaxen eskutxoaz aurrak darantzuio
— Zer diozu , seme:	Ta aingeru batek itaz bai zidak gaur esan
non degun aitaxo...?	nigandik aldatzean noruntza jo uan...
Aitaxo...! zure	Otoi adixkide
Aberrian dago...!	otoi, nere alde...!
Ta artean txikiari eskua altxaturik	
—antxe, goyan— diotsa —bitxiz buresturik...	

Bedoña'tar Joakin A.
o. m. cap.

(Iruña'n-1931'ko XI'ean.)

Honen ostean, “Alleluia!” izenez *Zeruko Argia*-n argitaratu zuena hemen azaltzea, bidezkoa deritzat; bidezkoa soil-soilik ez baina beharrezkoa gainera, Loramendi olerkariaren olerki-balioaz jabetu nahi baduzu. Berriro esan gabe, hauxe esan beharretan naukazu: gerora aipatuko dizkizudan olerkiak ere, *Zeruko Argia* hilerokoan argitaratuak dituzula, 1931 eta 1932ko urteetan batez ere.

“Alleluia!” hauxe olerki kementsua duzu, bai mamiz eta baita azalez ere. Badu nire ustez, hitz neurtuen tankeran eta doinu ederrean, Gaspar Núñez de Arce, olerkari valladolidarraren halako antzatxo bat, eta Arrese eta Betia bizkaitarraren igurtzia ere. Nolanahi dela, irudipen aberatsa, eta bihotz gorria, adimen ernea agertzen dizkigu, behintzat, Loramendi olerkariak. Jesusek hilen artetik pizturik, kantatu zuen garaipen kanta dirudi.

Hona hemen eztiro-eztiro irakurri dezazun:

¡Alleluia!

Oztin damait ortzeak, eguzkiak urre	Ikus beza buruan, arantza orde, izpi
ta argi loreen erdi piztu naiz garaille	ta ubelune bakoitza zorion-iturri
Atsegingai dagozkit zeru ta lur-ama	Ikus beza bularra dirdian urrinka,
esku naramatela poz-biderik barna.	ene uso larriei kabia eskeinka.
Tinka begiz jo naute mimiko guriak	Ta aittu bazidan bein-bat miñez min
ta agur-pipirri dauzkat leyaka txoriak	[biotza,
Ñir-ñir dakarkit intzak jantzakia loreak	ene baitan nuen Nik bizitzaren giltza.
ta itzul-inguru dabiltz aingeru-taldeak...	Ta argiarekin batez jeiki naiz garaille
	sortitz oro detala lagun ta pozkille...
Jeiki bitez erriak amorru beltz gainka	Erraiñu-lore dago goyan gurutzea
ta amaseaz ez beste or dira lorrinka!	dularik pizkunde-lorea...
Zuzen bedi berriren onat borroera	Poztu bitez gallurrak, kanta beza beak
ta ikus beza nora dan bere gorrotoa!	ta abestien otsera betoz maitaleak!

Betoz, itzali da ta ekaitz-erasoa
ta ageri da poztari uztargi gozoa...
Ekaitzetik jayo naiz ibaika diztia,
arantzatik oi dan lez arrosa zuria.

Ezta lurtarrantzat beste poz-biderik
elordi latza zear abitzea baizik.

Malko-ttantan ezpada eztio emango
uztaiak odeiari ez muñ ta ez margo.

Kalbariotik nator urrez buresturik besoetan
udalena bezela negu gordiñetik...

Baditu beste hiru olerki motx eta polit, Verdaguerrek egin zituen antzekoak: iru-
diak beharbada ezagunak dituztela esango didazu. Eta egia da: baina hain daude eder-
ki antolatu eta taxutuak, egiazko olerkari baten lanak direla, ezin ukatuko inork.

“Antzekia”, “Usoekin Gora” eta “Erletxoak” dute izena; bat bestearen ondoren
dihozkizu:

Antzekia

Lore beian kunkurrunkun
erle gorritzak burrun-burrun:
zer ote dio, zer lioke,
lore-beraren nini-lore;
dantzatu ala barruratu,
egoak jo-ta miatzatu...,
zer ote dio, zer esango
loretxoari kukuriko?

Erle gorritzat: zer diozu
lore begian marmaritsu?

Ilargiaren kukupean
urretxindorrek udastean:
zer ote dio, zer lioke,
txiruliruka gaua beste;
sarats itzalen kulunera
ta ibai-erroten dunbotsera...,

Ez bedi, ba, beldurtu ene maitalea
laño badakus noizpait biotz-mugaldea.

Beti oi du ekaitzak irripar-lorea
ta ara Ni gogoaren eguzki betea...
Ezkutuki odeian erne ta zai nago
zenbat durun ekaitzak, ainbat urbilgo,

Ta iñoiz lortuko balitz eztanda-marruan
dir-dir nagerkioke saria eskuan.

Loramendi O.M.C.

zer ote dio, zer esango
ilargiari, aoeko?
Urretxindorra: zer diozu
ilargipean txiruliru?

Zer diotsudan, Ama, Zuri,
lore ta Ilargi zeran orri...?

Erletxo naiz, lorea zu:
zer diotsudan badakizu!
Ta illargitara karnaba lez,
zugana nago maite miñez...

Ilargia zu, ni karnaba...
bikote ederra... jakiña ba!...

Loramendi O.M.C.

Usoekin gora

Eleiz-buruan dabiltz goizetik gabera
usotxoak egaka gurutzez goi-bera.
Eguzkira zillarrak dixurite egoak
ta aizeaz jolastean esne-pipiltxoak.
¡Nork al lezazken,
elur-usoen
antzera, goyak garaitu!

!Nork, an... lurrean
loya uztean
gurutz saildua laztandu!...
Erakus zaidazute, zuek usotxoak,
erakus zaidazute zabaltzen egoak.
Ta alkarrekin udaran joaz gurutzera
negutean zerurontz aldatuko gera.

Iruñea 10-1-32, Loramendi

Onatx erletxoak

Muñorantza doa Josutxo kantari,
belarritan zintzil bi-iruna gerezi.
Mutil xalogorik!... Zeren billa ote?
Kilkerrak, marmari, agur, dagiote.
Baiño... oar!: bēko eultzaren burrunba!
Erle danak, leitsu, ager-ixkutuka...
Zer gerta zaie, ba, Joseph-en erleai?
Lore bat ikusi muñora, poz-dirdai...
Egalda zaio bat: ezarri da tentte
ezpain-marrubian, —arrosa arek uste—.
Zizta du ta, ene! odol-tanta atera
kutuan, miztuta, berriz egatu da.
Egun gutxi buru, Joseph ezti billa...
Baiño... zer da an? Jesus! Eulzeko iskanbilla!

Erle danak itsu, zoro, norabage
ninitik zerbaitek autsiko bailie.
Ta abaraska-urrean, izarño bezala,
urrin-yarloka, ñir-ñir, odol-tantta!
—Arrigarri bai au!... ta artuz abaraska
poz-ttuttuli yo du Andra Mirengana.
Baiña Andra Miren-en sen zorrotz argia!

Ikusi orduko barrendu guzia...
Josutxo deitu du; laztan dio gero
ta aberaska bera jaten eman dio...

Sagara-muñoan Josu gorde zaigu:
Onatx, Erletxoak, Lore ori miztu!

Bedoña'r Joakin An.
(O.M.C.)

Ez al derizkiozu, irakurle, Verdaguerren “Idilis y Cants Mistichs”-etan lotsakizu-
nik gabe sar litezkeela?

Jarrai dezadan bere olerkirik baliotsuenak aipatzen eta epaitzen: Aipagarri deri-
tzait, Aita San Frantzizkoren Loretxoetako gertakarietatik gaia harturik, egin zigun
òlerki bizi, poxpolina. Zozoak bere habian sugea sartzen ikusi du; zozo-kumeak han
ditu eta, hor dabil txioka zozo mindua, adarrik adar, nahigabez josirik... Baina, hara
nondik Aita Prantzizko santuak zozo-amaren pio zorrotzak adituz, habitik suge zitara
uxatzen duen. Irakur ezazu, eta bere arintasun eta guzti, atsegin izango zaizulakoan
nago.

"Maitasuna ez da maitatua"

Udazkena zan. Odol tantozko
ezti-margoa
eguzki-galdak zixurin,
Ibar-gangarrak doi-doi bekozten...
Arrats-giroa
atsegiñaren atsegin
Sartalde-goian izpi trinkoak
jolas zegiten.
Ibai-ertzetan sorgin-ardoak
ditu moxkortzen
sasi-ama ta xulufirin.
Muñoan ziarduten aspaldi poxpoliñak;
baratzean txoriak txirri-otska lertzen.
Ostendu zan euzkia, "urrezko talo ederra!"
lurriñez sagardia zuela estaltzen.
Ta amilka dator mendi-kolkotik
itur-aria:
basauntzen mama gozoa.
Untzak lanbrotuz iges dirudi
suge-lodia...
gorde-ageriz lepoa.
Ta abeska poll-poll, zurrunbillotsu,
mur-mur ta zotin,
bere betiko leloa,
Astintzen ditu sarats itunak
¡ta arindu ezin
negarka zegon xoxoa!
Txioka dabil xoxo mindua
adarrrik-adar:
zerbait zekusan sasian...;
lotan zetzala pizti zarren bat
narraska zear,
lapurki sartu kabian.
Ega motxean minduki dagi
pir-pir samiñak,
kulunka sarats-gerrian.
Irunsi naian badabiltz nunbait
pizti muskiñak...,
badakus zerbait azpian.
Maitasuna gañezka naigabea tontorka
ara or Asistarra, Goi-gotzon galdua.
Sukarretan biotza, urraturik bularra,
zauriak gori gori, ai! odolustua...
"Ene! nere Jaun Ona! —oyu aundiz ziotzan—
ene! maitasuna iñon ez da maitatua!"

Xamurtu zuten xoxo amaren
pio zorrotzak;
biozti urbil zitzaion...
"¿Zer dek negarka, xoxo anaia?
¿Jarrai mirotzak?...
Ator niganontz" —zesaion.
"¿Kabi barrindik etsai maltzurak
atera al aute?..."
—berriro galdetu zion—
Esku ertzera ¡parra!... egatuz
kiñuak tarte,
baietz, baietz!... zerantzuiñon.
"Egia diok, beraz —orrazturik ziotzan—
Ire lagun nauk, bada. ¿Noruntz dek kabia?
¡Purrust!... ega batean sasi-pean sarturik
adierazi zion nun zegon etsai.
¡Ura etsai!... So dagi aruntz
¡ta arri biurto!:
kabian suge zitala!
Ume tartean biribildurik
guzien buru,
zai zeukan kankar zabala.
Amorru biziz odol-usmoka
zegoen garaiz,
limurtuz larru azala,
"¡Suge anaia, suge anaia!
¿nola ari aiz
itotzen ume makala?"
Eldu zion lepotik, sumindurik Prantziskok,
astindu zuan zumez, urratuz eztena.
Ta irristada luzean, lerdea zeriola
eskuta zan txistuka sasiñen barrena.
Moko xabalik ume minberak
jan eske zeuden:
eldu zitzaien Prantzisko...
Ta amari batez beatz-mamiaz
eman zizkien
igortzi leun ta jan naiko.
Maitasuna gañezka, naigabea tontorka
biurto da negarrez Serapin mindua.
"Ene, nere Jaun Ona!: suge gaiztoak nunai,
!Maitasuna ez da-ta guztiz maitatua!"

Loramendi (O.M.Cap.)

Bere olerkirik onenak

Zeruko Argia-n argitaratu zituenetan, baditu hogeiren bat, onak bezala aukera litezkeenak: guztiak hemen ez nitzake ipin, baina batzuk aipatu gabe ez ditut utzi nahi. Bere irudimenaren narotasuna eta bihotzaren sentimendu joria, gutxi-asko guztietan nabari dira. Baina, nire ustez, "Illargitara" deritzan olerkian hasi zitzaigun bi dohain horiek nabarmen azaltzen. Ilargiak itsasoko olatuetan sortzen dituen argi-dantzek liluratu dute gure olerkaria, eta Maria Ama eta Birjina, ekarri diote argi-gogora. Ilargi eta itsasoaren edertasun eta sakonak piztu diote irudimen-argia eta sutu bihotz-garra, bertso erestu eta zolietan, irudi sorginez jantziz, sentipen ezti-goxoak iraultzeko. "Illargi bete, adar-urdiña, lurrun-irule, zillar-joskiña..." diotsa ilargiari: itsasoa, berriez, "garden azala, ditziz ondarra, garbi azpia, gaña leyarra..." ikusten du. Olerki hau, zinez, hitzetan aberats, irudietan islatu eta sentipenean xamur agertzen zaigu. "Pulchra ut luna" eliz esaeraren azalpen eder bat dugu.

Badu beste bat, "Guztiz Ederra" izenekoa, lehengoaren antzeko irudiz eta bihotz-sentipenez: "Tota pulchra" eliz eresiaren oihartzun ameslaria dirudi. Hau ere Lora-mendiren olerki onenetakotzat jo dezakegu.

Bietatik, "Illargitara" deritzana jarriko dizut hemen, poliki-poliki irakurriz, haus-nar dezazun:

Illargitara

Pulchra ut luna...

Nolaz diteken, nongo gertari
iges dagio adimenari...
Ta alaz ta ere,
egirik bada,
eskutu auxe
erraiñukada...
¡Sortzetik, Miren, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!
Kopet-mamia goiargiz arro,
sakona dazaut, naizenez txarro...
Zenbat dagidan
ega gorago,
ainbat, zalantzan,
dakus arago,
¡Ta ala badere, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!
Arrats-zoriak illuna dakar,
esna-eraziz ontz ta xaguxar...
Oro geldi da,

Otsik iñun ez...
Sorgin-egada
guzion gañez...
Sorgiñak berak txistua jo du
ta illargi-izarrak izeki ditu...
Izarrak lagun, illunak etsai,
itsas-ertzean nago egi zai.
Illargi bete,
adar urdiña,
lurrun-irule,
zillar-joskiña...
itsas-auspoak darakar zikor...
ta izar-erdian apurka dator.
Illargitara... oro geldi da,
marmarka-itsaso... neurritz-taupada
Pizti-txirrika
ulu eziñik...
Buru-ausika
gogait egiñik,

barren-odeiak noiz ta beltzago,
itsas-orpoan nasturik nago.

Illargi mea dagit musuka,
ugin-gezalak aitz-atzimurka...

¡Ta itsas-altzoan
musu borobil...!
¡Noruntz dijoan
aruntz darabil...!

Nondik dan ori... asege nago...
¡Uretan izan geroz geiago!

Ugin-barrenak argiz-josiak,
itsas-osiñan par illargiak.

¡Itsas-erraian
par illargiak,
gira nasian
kiñu pitxiak...!

¡Garden azala, ditziz ondarra,
garbi azpia, gaña leyarra...!

Illargiaren biko bizia,
izar txurien kiñu berria...!

Ugin-azala
urratu barik,
barren-itzala
urrez jantzirik...,
be-bean dabiltz parre ta mugiz,
legor-bustian betera biziz...

O Miren eder!, Erruge zera,
Ama ta Birjin izar antzera!

Irudi dezu
itsas-kolkoa...
¡Ta askatu degu
korapilloa...!

¡Nondik ta nolan, argitara da,
ezkutua gaur erraiñukada...!

Itsas-errota kanta-kantari,
ta izar-ugina elkar-dantzari...

Loramendi (O.M.C.)

Loramendi hitz neurtuetan iaio eta trebea bazen, hitz lauz ere jator agertu zitzaigun. *Zeruko Argia*-n hasi zitzaigun "Aletxoak" izenez lan arin-politak argitaratzen; bere bizitzaldiaren azken-aldean hasi baitzen, jarraitzeko biderik ez zion gaixoari heriotzak utzi, eta bere trebetasunaren tanto batzuk besterik ez ditugu. Halare haren idazteko erraztasun eta dotoretasuna igar ditzakegu. Hona, adibidez, nik gordeta neuzkan bi hauexek:

¡Agur tontorrak!

"Amonak esan zidan. Aintxinetako garai zarrean miragarritzko gertaerak arritu omen zuten Euskal Herria. Uso antzeko talde zuri bat ageri omen zan ipar-mugatik onuntza; itsasoz beste aldetik edo, ez jakin nondik; baña biotz-begien zoragarri omen zan. Eta geldiro-geldiro, zerbaiteren billa balebil bezela, Euskalherriaren gain bira batzuek egin ta gero, zerugoitik jetxi zitzaion odei me-zurizka batean bilduki, Aitzkorri-aldean pittinka-pittinka ixkutatu omen zan, zorioneko atsegin-itxuretan... Amonak esan zidan.

Ontatik luze aundi gabe, Orrilleko goiz-urratze batez, era berian talde uraxe berriren berriz agertu omen zan; baña lenbizikoan baño lilluragarriago bear bada. Oraingoan, bada, argi eta eder zerion. Norbait, ots-bigun eta eresi zolien erdi, ba omen zekarten... Goiz artan larrera bide zeuden artzaiñoak, makil-buruetan ukabillak tinka-

tuki, begi eta belarri zegozkien. Eta talde zuria, bitarte, ba omen zijoan, ba omen zijokan, urretxindor-sailla bezela kantari, elur-begiak bezin dirdari, usotxoak lez egari. Eta Aloña-mendira zanean, tink egin omen zuan... Amonak esan zidan.

Zer litzaken ori? Ene amonak esango: leen-aldiko agerpen ura, Zeruko Erregiñak bere egontoki billa bidalitako aingeru-taldea besterik etzan. Eta lurbira osoa astertu-ala astertu ta ere, iñon ez aurkitu, emen, gure Euskalherri maite ontan bezelako egontoki eder eta maitale zintzorik. Eta atseginka ta poztari, lur ontara jetxi zedilla iragartzera itzuli zitzaioten... Bigarrengoan, ordea, aingeru beraietaz inguraturik, Andre Maria etorri zitzaigun, euskaldunon zaintzalle eta bitarteko izatera.

Jaso euskalduna, zure begiak gure tontor-goyetara eta ikusi zenbateraño maitasuna izan digun Zeruko Amak eta nolako zaletasun eta jayeraz erantzun diogun gaurdaño euskotarrok. Begira: tontor geyenak bere Irudiz ornituak dagerz. Agur, Ama eta agur, tontorrak! **Loramendi An.**"

¡Lo ta amets!

"Negua. Zabal-zabal bere ego beltzak. Elurra goyan, pean izotza. Bero eske edo, ipar mea atei bultzaka diardu, zorioneko ¡fii...! luze-beldurtia maratil ertzetan atarez... Etxe-arpegiko tella-aoetatik zintzilika, izugarritzko izotz-txirikordak dagertzi, malco zuria tarteka dariotela... Ate aurrean bi ollo otzez kiribildu-ta... Eta barruan?..."

Barruan...! Su-bazterrean exeri-ta, Semetxoa besoetan duala, A. Birjiña josten ari da... Sutan lapikotxo bat esne poil-poilka bits arro-txuria goraka dagerkiola... Aur-abarka gañean katutxoa lo-zurrunga... Eta atea bitarte, ixil-ixil, Jose zorionsua zurgintzan...

Jesus Aurra negarrari damaio; eta A. Birjiñak, biotzean estutuz, igortzika lo pixkat egiteko dasayo, onezkero nekatur bai-dagola-ta... Eta geldi-geldi, kulun-zabunear erabiliz, lo eragiten dio aopean kantari:

Ene kutuna, lo ta lo.

Sagar ximela emango.

Mamorro beltza baletor,
burruntziaz banaiz ni nor...

Nere biotza zain dago.

Ene kutuna, lo ta lo

Nere biotza zain dago...

Ene kutuna, lo ta lo

Soñekotxoa egingo.

Zakurrak zaunga badagi,
etzaitezela, zu itzarri...

Makillarekin nik joko.

Eta Jainko txikiak, altzoan erdi gorderik, lo dagi: ¡lo eta amets...! Lo... amaren magalean. Amets... amaren bihotzean... Miren Ederra ezinez dago... Jose Z. atean kukuka... **Loramendi An.**"

Ez dut uste bi hauexek besterik argitaratu zituenik. Horrelako idazlanetarako esku berezia zuela adierazteko adina, badira, behintzat. Ipuin politik idatziko zizkigun, noski baino noskiago, gerora, bizia eta osasuna Jaunak eman balizkio.

Bi poematxo ere utzi zizkigun bukatu gabe eta zirriborroan idatzirik, orraztu eta bukatzeko asmoz: "Txinparta-eresia" eta "Aitormendiko Jaia". Azkeneko hau, aurrekoa baino landuago bai, baina bukatu gabe, biok.

Bukatuta laga zizkigunak bi ditugu: "Arrantzalien Arrats-otoitza" eta "Barruntza-leyoan". Lehenengoa, 1931an argitaratutako *Eusko-Olerkiak* zeritzan bigarren liburuan agertu zen; besteak, Hernaniko Eusko-Olerki Eguneko sari nagusia irabazi zuen.

Beste olerkirik laga ez baligu ere, bi hauexek nahikoak genituen, olerkari bedoñatarraren izenaz, euskal literaturan, euskarak dirauen artean oroitzeko.

"Arrantzalien-Arrats-otoitza" olerkari gaztetxo baten lana dela, aise sumatzen da; baina, ez lezake inork balio gutxikoa denik. Badute bertso hauek lirika-sua, eta irudi ederrik franko, eta halako adore berezi bat ere. Euskal arrantzale jatorrak eupatzeko kanta oldartsua dugu. Itsasoak eta itsasgizonak bihotz-barnean, gaztetxo zela, laga zioten zirra, bertso biribil eta erestsuetan jarri digu. Zatika-zatika eratutako poematxo izan arren, guztia lokarri bizi batez lotua ageri zaigu. Hondarribiako komentuan ikasle zela, noski, bururatu zitzaion olerki hau, geroago taxutua eta egina badago ere. Bertsoetako trebetasun harrigarria agertzen digu eta irudimen berezia, benetan. Euskal olerki gutxi, oso gutxi gero, izango ditugu, honi, irudimen-joritasunean emango dionik.

Baina, askoz ere lan osoagoa eta baliotsuagoa dugu "Barruntza-leyoan", Hernaniko Eusko-Olerki jaietan sari nagusia irabazi zuen olerkia.

Alabaina, honetaz jarduten hasi baino lehen, "Arrantzalien Arrats-otoitza"-ren ahapaldi batzuk hemen ipintzea ondo litzatekeela, deritzait, irakurleak berak nik esandakoa sendotu dezan. Ona "Vesperalia" deritzon zatia:

"Itsas-ertzean illunabarra loretzen-dager arkaitz-leyarra... Galurrik-gallur koro-antzikur, odeiaz lore, geziaz itur, oeratzen da eguzki-garra.	Mendi-txuntxurra baño arago, zeinbat jeixten dan, ainbat gorago, betarte biak, zorrotz josiak, euzki zarraren azken-izpiak arrano beltza edari dago.
--	---

Arrats gozoa. Giro epela. Itsas neurgea urre bezela... Ugin kixkurak, lenaz ziurak, orain pizkortzen gauan beldurak ixil ereinduz itzal motela.	Urruti dakust jolas betean ur-mendi sailen apar xarean kayu mordo bi... Ugiñak sarri ur-azalean borboll, jostari, negar dagite lurrar lertzean...
--	--

Arrats gozoa. Giro epela.
Itsas neurgea urre bezela.
Gañez osiña
geituz urdiña...
zillarren gainka labe irakiña
ta artega nondik lurrun txapela".

Ezin ukatu, bertso-neurri zailtsua aukeratu zuela, gogoetak eta bulkoak, argi eta garbi, azaltzeko; hargatik, nire ustez, ulertzeko hain erraza ez izatea, hortik datorkio. Aitortu beharra dugu, oster, hitz neurturik zailenak, trebeki taxutzen, mutila genuela Loramendi.

Orain "Barruntza-leyoan" azter dezagun. Goitarragoa dugu hau, lehengoaren aldean. Gaia, Jainkozko hutsa du: Maitea bere barne-muinean ikusirik, harekin dituen maitezko hartu-emanak biziki adierazi. Horretarako, mota askotako irudietara jotzen digu olerkariak bere baitan nabaritzen duen zoriona azaldu nahiean:

"Nora noake, maitasun eske, neregan baitet
ederrik oro berezko ditun Maitalea?".

Hargatik barnera biltzen da, eta barnean daukan maiteari zuzentzen dizkio egundoko bihozketara zoragarri, gogoeta eta irudi eder; bihotz-arnasa gehituz dihoakio, eta bere kanta, geroz eta zoliago eta bihotz-isurtze gozoagoz gantzutua ageri zaigu azkenaraino.

Jainko-maitasunez jositako bihotz maitemindu baten, eta era berean olerkari arnasa handiko baten olerkia dugu hauxe. Ahapaldi guztiak daude, zein baino zein irudi ederragoz josiak. Bihotz-oldarrez bizituak gainera:

"Maite dut, maite... maite, egaztiak egadak aiña;
maite... illargiak kuku-igaria gauan beste...
Maite nau, maite...; maite, dirdaiak ispillua lez;
maite... edertiak ume xaloak bezelaxe".

Bihotz-kanta da, soil-soilik, olerki eder hau. Maite-kantua, baina, goi-maitezko kanta goitarra. Jainkoa sartu zaio bihotzean, eta argiz eta lorez josirik laga dio anima:

"Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta
ene gogoak ikusi bait-du aldaketa...
Gela ontara ene maitea sar ezkerotzik
biotz-ezurak bai dute naiko loraketa".

Maite-minduak ez liezaioke bere maiteari gauza sentikorrarik esan, eta ez da anima jainkotiarrek bere Jaunari, sentipen-jario eztiagorik isuri ere.

"Nere bizia ezta nerea, berea baño.
Bera, ordea, nigan bizi zait bat egiñik.
Ta intxaur-adarrak, ez oi duten lez esnerik gabe,
nerez ez dakart jan-gai liraken zitu onik".

Lan luzea eta aspergarria litzateke, ahapaldi guztiak banaka aztertuz epaia ala iritzia ematea; ahapaldiak oro baitaude, gainezka bezala, irudi sentikoez eta maite-in-

tziri eztiz. Luzea dugu olerkia, poematxoa baitirudi, eta hasieratik azkeneraino batasunik galdu gabe, ahapalditik ahapaldira biziago eta oldartsuago ageri zaigu.

Hitz gutxitan hauxe duzu bere gai-mamia: arimazalekeria mirrinez josia bizi zizaion, eta eguzki bero ezaz makaltzen:

“Migura baizik etzan ageri adar-ertzetan;
beso zaintsuak, ezur iduri, sutarako.
Ta illundi-loan lasaiki zetzan muxar gaixtoak,
begiz jo zitun bere sustraiak kabirako”.

Hauxe zen animaren egokera kupidagarria; baina, behingo batean, ate joka sentitu zuen norbait bere barruan, eta atea irekiz, barnean sartu zuenez gero, argia, osasuna eta zoriona sortu zitzaizkion. Gero, zein baino zein ahapaldi txanbelinagotan, maitaleak ekarri dizkion ondasun eta zorientasuna kantari ari zaigu. Kanta luzea ari du, baina atsegina oso. Ez dute ahapaldiek batere aspertzen, bizi eta xarmagarriak baitira guztiak azken arte.

“Beingo batean, ate-danbada entzun deritzat,
ta atera nintzan, giltza eskuan, an nor ote...
Ta idekitzean... ura bai zala maixtar bakoitza...!
Ondasun oro eskeñi zidan biotz-orde...”

“Sar zaitetz, bada, erantzun nion, gela ontara...
Ortxen zaudeke zure gogora nai adiña”.
Ta au entzutean zuzendu zidan argi-zirra,
ene! neregan ikusi nuen loi-osiña!

Arrezkerotik, ene aularen sendotasuna!
Arrezkerotik, barren etxeko poz ta atsegin...!
Naiz laño egun zeru ta lurak, enegan beti
enegan beti euzki-urra dirdai-oztin!

Zabaldu zaizkit, noizbaitekoan, biotz-begiak;
noizbaitekoan upatu bai det maitalea.
Ta ikuste uts-utsez, bereixko balitz etxe ontatik,
bertantxe nuke zorigaitzaren zasztadea.

Beranduegi ai!, zoritxarrez, ezagutu det;
beranduegi ate-jokara naiz oartu...
Egunik-egun biotz-atean noiz idekiko
ta itxu beltz onek, muzin gaiztoan, ai! giltzatu!

Oraingo nere zentzu galduen itzarri ona!
Oraingo nere begi lausoen ikusia!
Lengo ederra, narda dakuste; narda, ordea,
emen litezken eder oroen iturria...

Emen dagotik, emen dagotik ene Maitea;
biotzak baitu sumatzen bere agerpena.
Zai dagokio, pozaren mende, noiz elduko ote
zentzu guzien zorabio ta zoramena.

Auxe biotzen egon luze ta pilpil berdiña!
Auxe ixillaren adigarrizko jardun goxo!
Arantzak sartzen balizkit ere, nere biotzak
ezten-zolotik, zorun berria gaur artuko.

Igortzi-leunka euslari dauzkat bere besoak;
bere niniak, ene begien ur-ixpillu.
Ta argi-jarioz dagizkidaten mintzo eztiak
esker berri ta biotz-jantzien edergaillu.

Arnasa batek darabil gure bular-auspoa;
taupari berak biotz-unea pilpiratzen.
Ta udalen-lorak eguratsera liraken eran,
maite-larrosa muxuan zaigu gorrixtatzen.

Maitasun-izpiz urtuki dago nere gogoia;
zenbat jaramon, ainbat biotza goriago.
Ta argi-dirdaiak lillura duan txoriñoa lez,
galda zuritan, eguzki orri begi nago”.

Eta horrela jarraitzen du Jainkoa eta arimaren arteko besarkada estuaren maitetza kantari. Arimak ez du kanpoko beste ezer irrikitzen... Bertan dauka bere Maitea, eta maitearekin dena; Bera baita zorientasun-iturri agortu-ezina. Liluraturik dago anima, eta kanta eta kanta, besterik ez dagi: bere zoriona adierazi, eta elkar maitasun hori abestu.

Baina, beldur da noizbait zorion hau galduko ote duen eta beldur-ikaraz, dio:

“Ez al dit iñoiz iges egingo Maitale onek!
Ez al dut ai! nik etxe ontatik, baztertuko!
Maite-aduak egingo al du, gu izan gaitezen,
bera neretzat ta ni osoro, beretzako!

Urtu dezala geroz geiago biotz-lausoia;
zabaldu bekit ezagueraren nini-izarra...
Ta alkar-izpien beroaz laixter urre-kuskuak
auts-antz nituzke, urrin-malutan, parra-parra.

Iñoiz ez al dit nagiak joko barren karnaba;
ez al du utziko, asita dagon, xinta mea.
Egunik-egun aittuko al zait maite-loloan,
gozatu dedin irakas dion Maitalea.

Ta abesti orren oyarzunera, pizkor genuzke
maite eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo.
Ta arratsaldeak, izpi-auritan, lekarzkiguke
maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo”.

Olerki honek jaso zuen euskal Parnasoaren gailurreraino gure Loramendi. Egin zizkigun olerkietan, hauxe goitarrena, eta IIIgarren Eusko-Olerki egunean lehenengo saria irabazi zuena.

Bere lehenengo olerkiak ikasteko saioak besterik ez ziren. Geroago, bere bitzta laburraren azken lau urteetan eginak, badira laurogei gutxienez, olerki-izena merezi dutenak, hogeiren bat benetan jator eta ederrak, horien artean bi aipatutako poematxo, “Arrantzalzen Arrats-otoitza” eta “Barruntza-leyoan”.

Bi hauek ez dute elkarren antzik; bat kanpora begira, eta bestea bere barnera begira-begira, taxutuak daude eta. Baina, biok poesia lirikoaren igali heldu eta naroak ditugu; bigarrena batez ere, euskarak diraeino, olerkizale orok, atseginez irakurriko dute, eta nire lantxo honetan aipatu dizkizudan beste olerki polit eta ezti horiek ere, euskal poesi sorta orotan, diz-diz dagikete, eta Loramendiren izena euskal olerkari ospetsuenen artean biziko da, noski baino noskiago.

Loramendiren olerkiak guztiak dituzu ozenak, irudimenez hegakorrak, eta bihotz-ukitu gozoa dagitenak, eta baita zirrara ematen dutenak ere.

Zaraya (O.M.C.) idazleak, Loramendi hil eta handik laster, *Zeruko Argia*-n idatzi zuen:

“Ez da arritzekoa, langille ta langillea aspergea, izan baidegu Loramendi. Orotan Jaungoikozale ta euskaltzale, Jaungoikoaren ta euskeraren alde lanean ari zan, izkuntza-arrobian itz eder ta egokienak aukeratzen. Norbaiti entzun diot Loramendi’rein neurritz batzuk belarriai itsatsiak gelditzen dirala, eta noizbeinka abesten asten zaizkiola. Ori bera gertatzen neri ere ta egia, euskeraren asieratik elkarren billa zebiltzan amaika mintzo uztairitu dira bai Loramendi’rein bidez... Baña, beste nonbait zuen iturburu onena. Gazte-gaztetatik ederrak subera, lur-inguruetakoz izaki bakoitzarekin zegokion izkuntzaz itz-egiten oitua, Confontaine’k bezela esan zezakean: “Izaki bakoitza mintzo zait bereziki, ta biotz ondorañokoa det”. Jaungoikoa ta Euskera aukera zitun elburutzat eta Jaungoikoak

eta euskerak biotza edergaiatz bete zioten, barruntza-leyoak zerura begira eta biotzondo begiak gure lurraldian josita, eman digu eman diguna Bedoñatar lagun berdingabeak”.

Hona hemen ere, Zarayaren iritzi honen ostean, A’tar J.k, *Eusko-Olerkiak* IIIgarren liburua hitzurrean, garai hartako olerkarien artean, Loramendiri buruz, idatzitako zerbaitzuk:

“Oker legoke orratio “Loramendi” badaezpadako olerkaritzat yoko lukena. Lenengotan, asiberria izaki, odei-gaiñetaraño igotzeko lain ez-ba-zan ere, ba zekian bere olerkiak ederki apaindu ta borobiltzen. Eta batzuk ala ere eta Eusko-Olerti-egunean, Emani’koan, sarituak bereziki, argi erakusten digu ez zala gure olerkaria mistiko-edertasun-dirdaia nabaitu, ta azaltzen nolaikoa”.

“Ez zituan, egia esan, bide-erakusle geiegi izan elertigaietan eta batez ere eusko-olertian nondik yo erakusteko. Euskaldunetan Arrese’tar Emeteri, Jauregi ta Lizardi ezagutzen zituan. Gutxi-geiago irurak eragin zioten zerbait aren gogoari, ta, alako nabarmenak ez ba dira ere, irurenak arkitu ditezke “Loramendi”ren olerkietan aztarranak”.

“Orratio, Lizardi ta Arrese’reña baño Jauregi’rein antz aundiago du neurtitz askotan, ta baita bere olerki-izaera osoan ere...”

Eta hona, hitzurre horren azken aldean, Loramendi eta Lizardi olerkari buruz zer dioten:

“Lizardi’tzaz itz-egin genuen oraintsuen. Lizardi’rein besterakoa genuen Loramendi. Aren ta onen bideak alkarren aurkakoak ez ba dira ere, oso dira banakoak. Lizardi zaintsua, gogai sakonak soil yalkitzen zituana, irudi bakan-bakan aukeratuak gorri-yator ematen zekiena, esan diteke irudimena buruaren mendean lotzen zuan gizona zala. Loramendi’k ostera, yarei darabil irudimena ta bere gazte-iturburuko etorria, ibaika dioakio neurritz oparo ozenetan”.

“Loramendi’k ere ordea nagusiro erabiltzen zuan euskera. Ez, noski, Lizardi’k bezin buruz ta sakonki, euskeraren erri-erraietan murgildua bait-zan Lizardi, baño bai erreze ta naro, gurasoen izkera ederki ikasi ta landua izaki. Aditz irabiazale baitzan, orren bidez apainki tinkotzen zituan neurtitzak, itz ugari aberatsez yantziz-eta. Bere olerti-udaberri-udaberrian igartu zaigu Loramendi, itxaropen-lore bipila. Olerki-bideak urra ta beste gabe. Aren izena, ala ere, betiko idatzia da euskal-olerti-orrietan”.

A’tar J. idazle trebearen hitz eder hauen ondoren, osa ditzadan nire hizkera traketsez, Loramendiren bizitzako azken gorabeherak.

1933ko martxoan, bi gorengo euskal olerkari, Lizardi eta Loramendi, eramane zizkigun Jaungoikoak. Biok gure literaturan hutsune laga bazuten, ez zuten euskaldunen bihotzetan ere, samintasun makala eragin, eta zirrara nolana hikoia utzi.

Loramendi, apaiz egiteko egun-egunetan, martxoaren 25ean, hil zitzaigun Donostian, bere bihotz handia edergaiez josiena zeukan garaian eta lanerako sasoirik onenean. Lizardi bezala.

Aingeru antzera hil zen, Zerura begira, baketsu, eta itxaropen biziz. Halatsu Lizardi ere, Zerura begira, eta itxaropentsu, Jaunaren nahiarekin berea batuta. Biok, euskaldun fededun, sinesmen-hitzak, hain maite beti izan zuten euskaraz esaten, hil ziren, euskaldun guztioi ikasbide eder-ederrak utziaz.

Loramendik bere amatxorentzat Meza-berri egunerako olerki ederra egina zeukan eta maiteki gordeta.

Zilegi izango al zait oroigarritzat hementxe ipintzea. Era berean, ez al zaigu olerkari bezala hobeto bera ezagutzeko egokia izango?

Hortxe daukazu, bada: atseginez irakurriko duzun uste osoan nago

¿Nor eta zer naizen...?

“Nai bat gaitu dezu
Nere aitzinean
Jazartzen zaizkidan
Etsaien aurrean.

Burua gaimelez
Igortzi didazu,
Ta nere ontzia
Bai dala gozatu!
(XXII^oren Eresia)

*Ene ama maiteari,
Meza-berri eguneko.*

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Itzali zazu, ortzea, gar-gezitze ori.
Gallurretik ondarrera su-gurdia irauli.
Lur-zale zabiltzatenok, begi biak itxi.
Jaungoizkoaz beste danak nigan auspez yautsi...

Oroen buru bainago
Jainkoa eskutan.
Nere alari etzaio
muga bat ere eman.

Ots, Andra Mari berbera
ni aiña bai ote...?
Ta Ama gozo au ezpada
nor gero litzake...?

Oi ama, oi ene ama nerea,
zer eta nor naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Ene gogora dagokit zeru-goi osoa;
ots dagiet-ta bertatik, ogi eta ardoa
ez dira ogi, ez ardo, baizik Jaungoikoa,
itxuretan beste arren, dan bezelako.

Au bai zentzuen gezurra
egi uts-xurra ustez:
me, zuriño ogi-apurra...
baiña ogirik ez!

Ontzian ere ardoa.
Begi biak: “ardo”.
Itz batzuk zaizkit naikoa.
gezurtatzeko oro...

Oi ama, oi ene ama nerea,
zer eta nor naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Mirake zintzoenik dut Goiko Jaun aundia:
dei orduko, nere eskutan, du bere aulkia...
Emen dago ogi eta ardo-antzez estalia,
sukarrez, orde, mamian maitasun-zauria...

Oi, al'baleza gizonak
nolapait gaur esan,
Jainkoaren esku onak
zenbat egin didan...!

Kanta bezaio, bai kanta
biotz onek beti!
Ekeratik orrobira
Aintza, Jauna, zuri...!

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den...!

Jaun onek egin zezaken, gogo-ta ez beste,
izar-morkak zitezela beste orrenbeste.
Egin zitzaken lurreko auts-ondarrak, urre...
Bere alaren aldean fitsik ere ez dire.

Baiño, arren, Jauna, barka, zure esku ioria nigan zearo ustu da, gain baitit neurria.	Bein, Jauna, egin banauzu gizon loi-apurrez, egin ere zaitut zu ogi, ardo ta itzez...
--	--

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki inork zer den!

Poztu zaitetze, bai ama benetan zu-poztu.
Gaztaroko lelo aiek berriz otseratu.
Jantzi gaur ezta-jantziak, erestuna sartu,
lorez ornitu leioak, txakiak urrindu...

Zure semea baida-ta, lur errege orde, Jaungoiko beraren Jauna, zeruko mai-kide.	Igo dizut aldarera. Otoi dut zugatik. Zure nai utsa bete da... Ill zaitetze pozik!
--	---

Oi ama, oi ama nerea,
nor eta zer naizen...?

Oi ama, benetan, zure semea
ez daki inork zer den!

Bedoña'tar Joakin A.

Nere idazlantxo honi bukaera emanaz, Loramendiren olerki-azterketa osatzeko, "Aitormendi'ko jaya" izenez amaitu gabe laga zigun poematxoaren ahapaldi batzuk hemen ipintzea egoki deritzait.

Hona, hasierako zatitxo bat:

"Noren Irudi ez galde neri: gizon-muxarrak ez baitazau... Sua ta garra kopeta-adarra... sugar lanbrotan egun ta gau.	Noren gorespen jaya liteken gizon-muxarrak uler ezin... Sua ta garra kopeta-adarra... gau eta egun beti berdin.
---	--

Ezti-jario galdorra dager ta Aitormendia eresti... "Aizpa zurien" lizarditxoa eztai jayetari dirudi.	Esne-pinpolika daude iturriak; masusta-lorak marmarka... ta itzul-inguru, dantzatu zale, erle urreak egaka.
---	--

Zer nai luteken
ez dut asmatzen...
ta Irudi-garrak fa-fa! gora.
Ta iturrik-itur,
uso antzikur,
badatoz "Aizpak" gar-ondora.

Ipar mea da: ega geldian
eres kixkurra darabil.
Ta izar-bidetik Irudi-goira
odei gorrizkak ditu bil.

Noren Irudi
ez galde neri:
Ibaika sua baitario,
Suzko labea
bekokipea...
goi-antza suak dakarkio

Inar darien atson-odeiak
Irudi-gaiña dastaite...
Ta "aizpa zuria", abestu-ala,
elur-zugaitz bat dakarte...

Noren opari
ez galde neri:
gizon muxarrak ez baitazau...
Txingar urtua
aren burua...
oñazkar bidez egun ta gau.

Odei-matazak oinpetzat dauzka,
zillar-txuntxurra bakaulki...
Aritz-abarra eskuan tente,
buruntza ordez... eguzki".

Nahikoak dituzu Bedoñako olerkari gaztearen irudimen sukar eta hegakorra, lehenaz gainera, ezagutzeko.

Poematxo hau, ondorengo ahapaldiaz dirudienez, Euskal Herriaren gorapen bat izango zen, noski. Ez zion heriotzak laga bukatzen.

Bere buruari Loramendi izena jarri zion, bihotza poesi lorez josia nabaritzen zuelako nonbait. Mendi osoa loretan zegoen garaian, heriotzaren izotz beltzak guztia jela-tu eta igaturik laga zuen. Zenbat eta zenbat lore eder emateko ote zegoen oraindik mendia!

Hauxe izan bedi nire azken hitza: Loramendi gai zen lirika-mailan goi-goieneko mailetara igotzeko, eta horren gazterik hil ez bazitzaigun igoko zen, eskierki. Halaz guztiz ere, utzi zizkigun olerkiek, bere garai haietako olerkaririk onenen artean jarri zuten, eta Hernaniko Olerti Jaietarako eratu zen Olerti-Guduan, 1932.go urtean, lehenengo saria irabaziz gero, berriz, Loramendi izena euskal literaturaren orrietan betiko idatzita gelditu zen, inoiz ez ahazteko.

“JAUNGOIKO-TXIKI”*

Aurrekoengandik zetorkion izengoitia. Ez dakit nondik eta nolaz asmatua eta ipinia, baina, itxurazko arrazoren bat gabe ez zen izango. Orain hirurogeita bost urte Errenterian, familia gehienek bazuten beren izengoitia. Horien artean Jaungoiko-txiki oso ezaguna genuen, eta garai batean, ezaguna bezain beldurgarri.

Aitak bere burua hil zuen zuhaitz batetik zintzilik, munduan emazte eta semea laga eta. Emazteak bizitzeko eskera jo behar izan zuen, eta semea —arteant mutil koskorra—, etxean baino areago aurkitu ohi zen kalean. Ez zuen laguntza handirik aurkitu, irri eta burla franko, bai. Harriztekoa al da, era horretan hazitako mutila, gerora, gaizkile ospetsu izateraino heltzea?

Bihurrikeria eta lapurreta txikiek, gaiztakeria handiangoetara bultzatu zuten; lotsa galdu zuen, bihotza gogortu zitzaion, eta ezertxoren axolarik gabe, edozein bidegabekeria egiteko lain jarri zen. Hala ere, Jaungoiko-txiki deitu ohi zioten. Deabru-txiki ez ote zegokion egokiago?

Labaina luze-zorrotz bat beti berekin ibili ohi zuen ezkutuan, eta ez zuen bultzagai handirik behar izaten agerian ipintzeko.

Oraindik oso gaztea zela, bere lankide batekin haserretu, eta hau edo hori esan ziola, eta besterik gabe, sabeletik sartu zion gizajoari. Harekin txantxetan aritzerik ez zegoen, noski. Errenterian guztiok ezagutzen zuten, eta beldurrez eta kontuz hitz egiten zioten.

Donostian ere, laster ezagutu zuten Jaungoiko-txiki nor zen.

Behin, sagardotegi batean zegoela, gizon bat inguratzen zaio, eta hain arlote ikusirik, burlaka eta farrez hasi zitzaion. Jaungoiko-txiki egon zen pixka batean isilik, eta bestea isiltzen ez zitzaiola ikusirik, begietatik txinpartak zerizkiola esan zion:

—Alde egin ezak hemendik, eta utzi nauk ni bakean; bestela hemen bertan garbituko haut.

— Hik... ni garbitu... arlote farregarri horrek?

Eta burlaka eta desafioka jarraitu zion; baina ez luzaroan. Ezkututik labaina atera eta inork galerazi ezin eta, bularrean sartu zion eskumuturreraino. Sagardotegiko guztiak txundituta gelditu ziren, eta beldurraren beldurrez ihes egiten laga zioten. Haren begietako dirdira bildurgarria, noski.

Errenterian atxitu zuten eta mikeleteek kartzelan sartu. Handik egun batzuetara, Ceutara eraman eta giltzapean sartu zuten.

Izan zen egun hartan Errenteriako etxe, sagardotegi eta ardotegetan makina bat istorio eta kontu; baita lasaitasun galanta ere.

Polikarponeko tabernan, horratik, ez zeuden guztiok lasai:

—Hori hemendik urte batzuetara hemen diagu berriro—, zioten elkarri. Lehen ere hamaika aldiz eraman ditek, baina, ahuntzak larrera bezala, Jaungoiko-txiki bere txokora beti.

— Ez, oraingoan Ceutan urkatuko ditek, merezi dik-eta. Orain artean, gaztetxoa zelako edo, laster askatu ohi zuten; baina, orain soldadutako garaian zegok, eta ezin ume bat dela esan; urteetako itzalean egon beharra izango dik, behintzat.

— Noizbait itzultzen baduk, galduak gaituk. Hori begiratua egin ziguk!

— Eta ahaztu al haiz bota digun desafioaz? Ez duk gero ahaztekoa...

Hiru errenteriar ziren horrela mintzatzen ari zirenak. Jaungoiko-txiki, mikeleteek kartzelara zeramatela, haien aurretik igaro zen, eta burlaka esan zioten:

—Hi... agur..! Ondo ibili ta biaje on bat egin..!—, barrea eta algara gozoa, pozez zeriota.

Jaungoiko-txiki aurrean gelditu zitzaion, eta ikaragarritzko begiratu zorrotza zuzenduaz, erantzun zien:

—Bazekiat zeintzuk zeraten... Itzultzen naizenean, hilko zaituztet banan bana.

Ez zitzaion barrez jarraitzeko gogorik gelditu.

Ceutan ere egin zuen egiteko ederra. Nondik edo handik, beste labaina luze bat, puñala esan ohi dioten horietakoren bat, eskuratu eta gorde zuen, non edo han; eta halako batean, bakarrik harrapatzen du kartzelero bat, eta lepotik helduta esaten dio:

—Ez gaituk petzal horrek gehiago joko... To..!— Eta puñala bihotzaren erdiraino sartu zion.

* Luis Jauregi, *Oarso* 5 (1962) 38-39.

¡AGUR ABERRIYA!*

Agur Aberriya. Berriz atzerrira
 bai-nua gogoa berriz puzkatuta.
 Bearkunde latzak,
 loturik almenak
 kate zerutarrez, Zu'gandik narاما.
 Euzkadi baño len Jauna daukagu-ta.

Alare naigabe zorrotzan eztena
 biyotzian daukat, gogor eta aztuna.
 Baña gaur Zu'gandik
 gorputza bakarrik
 Amatxo, dijoa.
 ¿Nork aldendu emendik, ba, nere gogoa?

Orok oroitu-azten naute ta Ama Zutaz.
 Atzerri-mendiyak, zure mendiyetaz.
 Erri-baserriyak
 ta ibarr ta zelayak
 Zure erri-baserri, ta ibar ta zelayaz.
 Orok oroitu azten bai-naute Ama Zutaz.

Cantabro-itxasuai ondarrak leunki
 miazten ba'dakust, ta jotzen gogorki
 ta asarrez arkaitzak,
 Zure itxas-ertzak
 miazten ta jotzen
 ere ari bai-dala beti naiz oroitzen.

Geyago ezpa'zaitut ere, ba, ikusten,
 len ainbat zaitut nik, Euzkadi, maitatzen.
 ¿Len ainbat?... Ez Ama,
 gure maitasuna
 beti atzerriyan geitutzen dana da:
 argigo dakust ba andik gure abenda,

eta zure edesti-biyozdun ta aztuna.
 Ikusten zaitut, bai, illun ta alarguna
 bezala, negarrez,
 ta beren ezpatez

* Jautarkol, Euzkadi 951 (1915) 1.

Zure seme berak zure biyotza austen.
 ¡A! Zarra zaude ta etzaituzte ezautzen.

¡Oi! Nik bai ba'nauka eresgin bikaña
 lurretik Zu gora jasotzeko diña
 kemen ta indarduna.
 "Ernai euzkelduna
 ta itxartu ai, arren, gure Euzkadi Ama
 iltzen daukogu-ta, utzirik uzama

guazemak lenbailen bera sendatzera
 bestela berekin gu ere illak gera"
 esanez, Euzkadi,
 gogor ta xamurrki
 egotik iparra juango nintzake
 zigor-espexkaz beñe beldurtzeke.

Bañan, zoritxarrez, nere eresgin zarrak
 abesti txikarrak besterik gaxoak
 egiten eztaki.
 Artu, ene Euzkadi,
 zaizkidazu, ba, arren, utsak izangatik
 eroiyak dira-ta nere biyotzetik.

Agur, ba, bai-nua ta, agur Ama Euzkadi,
 Zure semetxu ontaz oroitu zaiz beti.
 Agur Aberriya,
 maitasun-kabiya,
 Agur Ama Euzkadi
 Zure semetxu ontaz oroitu zaiz beti.

AMA MARIA'RI*

Lore ederrenak

¿Bañan zergatik, ainbeste arduraz ta arretaz
 Nik bildutako loreak daude igartuak?
 ¿Zergatik daude igartuak?

¿Oyek al dira, bada, pozkiro nik atzo
 or jarritako lore lirain aik, Amacho?,
 ¿Oyek al dira, Amacho?

¡Ai! ¿zenbat aldiz egunabarran, alai, choill
 Nere zelaitan, beroiek biltzen ni nabill!
 ¡Ai! ¿zenbat aldiz ni nabill!

Ta ¿ze pozikan echerontz naizen itzultzen
 Zutzat, Amatxo, dirala sor-aik oldozten^a
 ¿Zutat dirala oldozten!

¿Zergatik, bada, ainbeste arduraz ta arretaz
 Nik bildutako loreak daude igartuak?
 ¿Zergatik daude igartuak?

Olaxe niyon
 nere barruan
 nere lorechu
 lirañak,
 Zure alboan
 Ama, ikusirik
 orririk gabe
 igarrak.

Ta bat-batian
 aingerucho bat
 nere aurrian
 jarririk
 begi maitetsu
 Zeru-irribarrez
 auxe esan ziran
 xamurki:

AMA MIREN'ERI LORE EDERRENAK**

Ikurritza: orrila olik ederrena

Amatxo, ¿zergatik ote-daude igartuak
 ainbeste guraz nik bildutako loreak,
 nik bildutako loreak?

lore lirain aik, Amatxo?

¡A! Zenbat aldiz egunabarran alai
 oyek biltzen nire zelaitan naiz ibilli!
 oyek biltzen naiz ibilli!

Eta bai-pozez nintzala, Ama, etxeratzen
 Zutzat zirala sortacho ayek oldozten!
 ¿Zutat zirala oldozten!

Ama, ¿zergatik, ba, ote-daude igartuak
 ainbeste guraz nik bildutako loreak?
 ¿Zergatik daude igartuak?

ta igarrak.

Ta bat-batean
 gotzon eder bat
 nire aurrean

auxe esan zidan
 zamurki.

* Jauregi'tar Koldobika, *Irugarrengo Prantziskotarra* 30 (1915) 235; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 113 (1928) 260.
Zeruko Argian "ch"ak "tx" eta "ri"ak "f" idatzita.

** Luis Jauregi, *Euskal Erria* 78 (1918) 256.

Euskal Erriako honetan ez dira "y" dun formak agertzen: "uskeriaz", "dariote"...

^a oldozten: pensar. Era honetako oin-oharrak Jautarkolenak dira.

“¿Beñere igartzen
eztiran lore
lirain-ederrak
nai tuzu?
Ara, ba, ugari
zure biyotzan
sortzen ta aunditzen
zaizkitzu.”

Zeruratu zan
aingeruchoa,
eta ordotik
Zuretzat,
miñaren miñaz
atera difut
biyotz-barrundik
banaka.

Begira itzazu,
oraindik ere
dariyote-ba
odola.
Kupitu zaitez
nere uskeriyaz
ta artu izkidazu
bai, Ama.

“Iñoiz igartzen
ez diran lore

nai-ituzu?

gotuts goitarra

biotz-barrendik

LORE EDERENAK*

(Ume batek bere Zeru'ko Amari.)

Baña ¿noletan igartu dira nik atzo
or jaritako lore liraiñak, Amatxo.
lore liraiñak, Amatxo?

¡Amaika bideř egunabařan alaiki
nire baratzan oyeķ biltzen naiz ibiliř,
oyeķ biltzen naiz ibiliř!

¡Eta uřaturik nire esku-ořak arantzez
etxeratu naiz, Zutzat zirala-ta pozez
Zutzat zirala-ta pozez!

Bada ¿noletan igartu dira nik atzo
or jaritako lore liraiñak Amatxo,
lore liraiñak, Amatxo.?

Olaxe nion
nire artean
nire loretxo
liraiñak
Zure alboan
Ama, ikusirik
oririk gabe
ta igaraķ.

Ta bat-batean
aingerutxo bat
nire aũean
jariřik,
begi maitetsu
Zeru-iribařez
auxe esan zidan
samurķi:

O“¿Iñoiz igartzen
ez diran lore
lirain-ederak
nai-ituzu?
Ara, ba, ugari
Zure bařuan
sortzen ta aunditzen
zaizkitzu.”

Zeruratu zan
aingerutxoa:
eta geroztik
Zuretzat
miñaren miñaz
atera ditut
biotz-barendik
banaka.

Begira itzazu
oraindik ere
dariotela
odola.
Kupitu zaitez
nire uskeriaz,
ta artu izkidazu
gauř, Ama.

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 30 (1921) 69.
Aurreko lanaren aldaera da.

UME BATEK ZERUKO BERE AMARI*
UMETXO BATEK ZERUKO BERE AMARI**

Ama, zer dala-ta ote daude igartuak
ainbeste gogoz nik bildutako loreak,
nik bildutako loreak?

Oiek al dira, bada, pozkiro nik atzo
or jaritako lore liraiñak, Amatxo,
lore liraiñak, Amatxo?

A! Zenbat aldiz egunabañan alaiki
oiek biltzen naiz nere baratzen ibili
oiek biltzen naiz ibili!

Eta bai pozez nintzala, Ama, etxeratzen
Zutzat zirala sortatxo aiek pentzatzen!
Zutzat zirala pentzatzen!

Ama, zergatik, ba, ote daude igartuak
alako gogoz nik bildutako loreak?
Zergatik daude igartuak?

Olaxe nion nere artean
nere loretxo liraiñak
Zure alboan, Ama, ikusirik
oririk gabe ta igañak.

Ta bat-batean aingerutxo bat
nere aintziñan jañirik
begi maitetsu, Zeru-iribarrez
auxe esan zidan xamurki:

“Inoiz igartzen ez diran lore
liraiñ-edeñak nai-ituzu?
Ara, ba, ugari zure biotzan
sortzen ta aunditzen zaizkitzu.”

Zeruratu zan aingerutxua,
eta ordutik Zuretzat
miñaren miñaz atera dituz
biotz-bañundik, banaka.

Begira itzazu... Oraindik ere
odola dariotela...
kupitu zaitez nere uskeriaz
ta artu izkidazu, bada, Ama.

UMETXO BATEK BERE ZERUKO AMARI*

Ama, ¿zergatik ai! ote-daude igartuak
atzo or nik pozez jarritako loretxuak
lore mardul usaitxuak...?

Buruak makur, illotsik orain begira...
Nere loreak, Amatxo, oiek ote-dira?
Amatxo oiek ote dira.

¡Amaika bider goiz-goizetikan
soro ta zelai oiek biltzen naiz ibili,
oiek biltzen naiz ibili!

Eta bai pozez nintzala, Ama etxeratzen
sortatxo aiek Zutzat zirala pentsatzen
Zutzat zirala pentsatzen...!

Ama, ¿zergatik ote-daude, ba, igartuak
atzo or nik pozez jarritako loretxuak
lore mardul usaitxuak...?

Olaxe nion
nere artean
nere loretxo
liraiñak
Zure alboan,
Ama, ikusirik
buruak makur
igarrak.

Ta bat-batean
aingerutxo bat
nere aurrean
jarririk,
begi maitetsu
Zeru-iribarrez
auxe esan zidan
maiteki:

* Jautarkol, *Argia* 161 (1924) 1.

** Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 10-11.
Aurrekoen aldaera.

* Jautarkol, *Euzkadi* 4555 (1927) 4.
Aurrekoen beste aldaera bat.

"¿Inoiz igartzen
ez diran lore
lirain-ederrak
nai-ituzu?
Ara, ba, ugari
zure biotzan
sortzen ta aunditzen
zaizkitzu."

Zeruratu zan
aingerutxo:
eta nik, Amatxo
geroztik
miñaren miñaz
atera ditut
loreok biotz-
mamitik.

Tori, Zuretzat...
Begira zenbat
maite zaitudan
Amatxo...
Orain sorta bat
beste bein, Ama,
ekarko izkitzut
geiago.

ATZERRIYAN*

Zer aztuna dan Aberriyako
aize legunak ta jayotako
kabi beroan txori gasteak
ta aita laztanak utzita,
Erdal-erriko ogi lizuna
arrotz-tartean jatea.

¿Nun eta nola emen billatu
ango basetxe txuri ta alayak
belardi eder ta ibayak?
¿Nun emen ango biotz oneko
lagun-taldeak arkitu?
Alperrik ditut nere begiyak
toki gustitara urbildu
ja! nere biyotza arrotzarekin
ezin da gustiz alkartu.
Noiz legoyakin otso lapurra
arren umiak mendi-zuloan
dakazkitela alkartu da?

Ene Aberri maite-maitea
orreatikan nere biyotza
beti zugana dijoa.
Itxas-ondoan jarritzen ba'naiz
laister an dago zurekin.
Eta zurerontz nere ondolik
dijoan uin bakotzian
antxen zuretzat anei gorantzi
agur ta muxu dijoaz,
ta ikusten ba'det txoritxuen bat
mendi-gañean egoka
nere gogoko gura sutuak
ego-azpian damazka.
Artu itzazu beti, bada, Ama;
arrotz-tartetik zure semetxu
maitati batek egotzitako
agur beroak dira-ta.

* Jautarkol, Euzkadi 934 (1915) 1.

Baña Zuk naizu, Goiko Jaun Ona,
 Aberriyako aize legunak
 ta jayo nintzan kabi beroan
 bizitz maiteak utzita
 Erdalerriko ogi lizuna
 arrotz-tartean jatea.
 Biyotz-biyotzez gurtutzen det nik
 Jauna, Zure Nai Deuna.
 Zuk, bada, Jauna, nai dezunean
 arrotz-lurrean landutako
 liliak beti eman oi ditu
 lore alaitu politak.
 Ta jayotako kabiyan bezin
 ongi txoriya bizitzen oi da
 atzerritako basoan.

JOSU AURRARI ATOZ SIASKARA *

Atera zaite Josu laztana,
 atera zaite aska ortatik
 ta etorri zaite, bai, siaskara,
 gaur zuretzako nik egin ara
 maitasun eta nekeakin.

Antxe berogo egongo zera
 estalpe otz orretan baño.
 Etorri zaite, Josu laztana,
 etorri zaite, bai, neregana,
 pozez beterik gaur lenbailen.

Nere biotza, errukitzen bai-da
 zu otzez iltzen ikustean.
 ¿Ez al dakizu, ba, Josu izotzak
 eta neguko aize ta otzak
 loretxu ederra iltzen duala?

Bañan arantzak gogor-gogorak
 lore artian izan leikez
 nere siaska maite-maitean
 eta gaizkiyo nere siaskan
 egon zu, Josu, ¡ai! ziñeikez.

Baño ongi ere zuk bai-dakizu
 zenbat naigabe, zenbat neke,
 zuri poz pizkat ematiarren,
 zure seme bat izatiarren
 jasan dituten orain arte.

Ta siaskean gordeta ere
 ba-daude arantza gogorak
 jakin ezazu, Josu maitea,
 atzo biltzean nere lorea
 nai ez nuela artuko nitula
 bere tartian ere arantzak.

* Jautarkol, Euzkadi 935 (1915) 4.

Atera zaite, bada, ene Josu,
atera zaite aska ortatik,
etorri zaite, bai, siaskara,
gaur zuretzako egin ara
maitasun nekeakin.

Antxen berogo egongo zera
estalpe otz orretan baño.
Etorri zaite, Josu laztana,
etorri zaite, bai, neregana
pozez beterik gaur lenbailen.

BEGIRA NAZAZU*

Begira nazazu, ene Josu ona,
zure begietan
naizen auxe nai det, osoro ikusi-ta;
Josu, arren, beira.

Nolaz bestela, ba, zure egun latz artan
Jasango^a det, Jauna,
ortze ta ludia birrinduko ditun
begirakun ura?

Nere biotz-itxaso beti nastua,
ustelkeri-utsa
darion gorputz au, eriotzarekin
burruka gogorran
beti, ta il-zorian dabilkitan nere
gogo erkin-aula au,
garbiro nai ditut auski^b garbi ortan,
guztiz ikusi gaur,
nitzaz lotsatu eta alketu nendintzat
lotsatu ta alketu.

Ene Jauna, geigo uskeri au, arren,
ez dedilla arrotu:
arrotutzekoan baizik, orainche lez,
begira nazazu.

* Jauregi¹tar Koldobika, *Irugarrenko Prantziskotarra* 40 (1916) 316.

^a jasan: sufrir.

^b auski: ispillu.

GOLGOTAN*

"Sitio". - "Egarri naiz"

Malda arren goruntz ekiñaz
il-zorian, nekatuta...
igo naiz bañan azkenez
odol ta izerdiz bustita.

¿Nolaz, Zeuk, Jauna, ezetsi^a
apal zure oñetara
ura eske datorkitzun
bidarti^b egarritsua?

Emen naukazu, Jaun Ona:
noletan, baña, begira...
bide-arantzarren oñak
odola dariotela,

gurutze orrei eutsita
bai emen zure oñetan
utzi nazazu edaten
zure gorputz-iturritan

sustrai legorraren eran
legor auba dakardala...
Zure ura, arren, ba, ekatzu
ilko naiz-eta bestela.

Bizmen-iturri oyetan
jarri nai det nere auba
umeak aman bularran
jartzen oi duan bezela.

Alperrik nere egarri au
aitutze-arren askotan
edan det bideko ura
nastu-zikundun zulotan.

Jakite-maitasun-urez
Jauna, bai, ase nazazu
aunela nere anayok
ere dizaitzan asetu

Azkenez baña arkitu det
iturburu bat bizia
;gutziz ilko al du berak
bere urez nere egarria!

eta geyago ludiko
ur zikindu zuloetan
iñolaz, ene Jaun Ona,
ez dezantzat, arren, edan.

* Jauregi 'tar Koldobika, *Irugarrengo Prantziskotarra* 34 (1916) 267.^a ezetsi: despreciar.^b bidarti: caminante.

LOURDES'KO USO ZERUTARRARI*

¿Nolaz arkaitz orretan

ama agertu ziñan,
uso arkaitz-zale
churiya bezela?

¿Arkaitz oyek otz-otzak
ta sendo-gogorak
zirala jakin-ezik
eldu ziñan, ala?

¿Ala oik berotu ta
biguin-biguintzera,
uso arkaitz-zale
churiya bezela?

Nik bai det arkaitz bat, ba,
otza ta gogorra,
zulo bat belar charrez
josiya daukana.

Atoz, atoz uso ori,
zulo otz aunetara.
Emen be egin dezazu
kabi beroen bat.

Argi-argitu bere
illunpe gogorra:
zure eresiz alaitu
bakardegi ura:

berotu-biundu bere
otz-sendotasuna.
Atoz, Uso ori, nere
biyotz-arkaitzara.

* Jauregi 'tar Koldobika, *Irugarrengo Prantziskotarra* 32 (1916) 252.

MAITASUN-INDAĀ*

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aipamen onragarria irabazia)

Ikurritza: "Maitasun da Goikoak giza-emeeri emandako eskarrik bereziyena"

Ortze-izartsurontz, bestela legez
atzo begira nengoan
ta izar bat atzo bestetan baño
argitsuago zegoan.

Argitsuago zegoan, baña,
bere argiyak geyago
zargian^a nere biotz-gogoa
nere begi itunok baño.

¡Aren argi txit zoragarria!
¡aren dirdits maitakorrak!
Semetxo atzerrituarentzat
¡bai-dirdits osasunkorrak!

¡Zer dala-ta atzo ote-zegoan, ba,
argitsuago izar ura?

¡Zergatik maitasun-izpiak lez,
zargiten gogo-biotza?

¡Nolaz barruan nabaitzen nuan
atsegiñaren ezta?
¡Maitasunaren indar goitarra
biotz-aulen sendakia!

Nekin batean omen zegoen
izar berari begira
nitzaz oldozten^b, oi dun bezela
nere amatxo laztana.

Ama, begira, begira berriz
izar berari askotan:
bera izango da poz-atsegiña
gure naigabe neketan.

EKATZU ZURE ESKUA!*

Jauna, asarretu da
nire barreneko
itxasua;
utzi ez nazazu
itotzen, ekatzu
Zure eskua.

Odei-laño illunok
beltz ta illundu dute
ortzea arrunt,
eta itxas-ertzeko
usoak be ein-dute
iges urrun.

Orain egan dabiltz
marraska itxas-txori
ta beleak.
¡Ene! ez deiztella izan
nire puskok beren
jana-gayak.

Aize ekaitz-zalea
bai-dabil txistuka
ta arramaka:
ta nin^a aparradunak
gogorki ertzeko
aitzak joka.

Edonun^b laguntza
eske ito-zorian
dabiltzanak,
ene Jaun, dakuszkic^c
ta untzi^d ondatuak
eta illotzak.

Beira be, ur-mendietan
gora-bera nere
ontzitzua.
Utzi ez nazazu
itotzen, ekatzu
Zure eskua.

* Jauregi'tar Koldobika, *Irugarrenko Prantziskotarra* 38 (1916) 302; Jauregi'tar Luis, *Euskal Erria* 76 (1917) 309.^a zargian: argitzen ziran.^b oldoztu: pentsatu.* Jauregi-Etxenagusia'tar K., *Irugarrenko Prantziskotarra* 44 (1917) 350.^a nin: ola erderazkoa.^b edonun: nun-nai.^c dakuszkic: ikusten ditut.^d untzi: ontzi.

ESKARIA*

(Atsekabe aldi batean.)

Jauna, Zure estuntzez
lotu nazazu gaur
sendoki, Zugandik
ez nendin aldendu.

Ez, det... ez geyago
lotu ne-biotza
ain laister apurtu
ditezken estuntzez.

Estuntze xamurrez
ona biotz ori,
lotu ta josita
gura ba-det bizi,

¿zergatik lotzen aiz
ainbeste arduraz
belaxe apurtu
ditezken estuntzaz?

Bein estutu nintzan
adizkide-estuntzez
¿nork esan zirala
ausiko ain laister?

Ara or, lurrean
orain be! ausita,
nire barreneko
odolez bustiak.

Begira nazazu
Jaun Ona, kabia
lapurtu dioten
enara bezela.

¿Noruntz joko ote-du
enara gaxoak?
¿Nun jarriko ote-du
berriz be-kabia?

Giza-biotz oyek
jurruti nigandik!
Ez det nai geyago
Olako kabirik.

Zure Biotz orren
zulo alaitsuan
txokotxo bat utzi
netzat, arren, Jauna.

Eta, arren, aldendu
iñoiz ez nendintzat
Zur'aizkide-katez
lotu ne-biotza.

* Jauregi Etxenagusia'tar K., *Irugarrenko Prantziskotarra* 45 (1917) 359.

JOSU'REN BIOTZARI*

(Verdaguer'tik euzkeraldua.)

I

Eguzkiak gorritzen
difunean mendiak,
loreak
irikitzen difuzte
alaiki beti beren
lorelekak:
ludiko Eguzkia
zu zera:
eta gure biotzok,
loretxoak.

Osto ta abar-tartean
samur abesten duten
txoriak,
zillarrezk'eresgiñak^a
jotzen difuzten ega
txuridun aingeruak

Jauna, dira.
Nire gogo gaxo au
lilluratzan dezuan
Eguzkia,
nigan etzaiz il; arren;
goizean iriki dan
lorea, ba,
gauban ilko litzake
bestela.

II

Egan dijoaz usotegirontz
egan dijoaz usoak:
maite zaituzten gozo¹ sutsuak
zure ondironz^b dijoaz.
¡Nork euki leizken beren egoak
nork, oyek lez, egin egan!²
¡Ederki, ziñez, egon behar da³
beren egoen azpian!⁴

* Jauregi'tar Koldobika, *Irugarrenko Prantziskotarra* 48 (1917) 383; Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 18 (1920) 92.*Zeruko Argian* bakarrik II. zatiaren azpian dagoen ahapaldia agertzen da. Aldaera parentesi artean eta letra etzanean doa.^a eresgin: instrumento músico.^b ondi: altar.¹ *Zeruko Argian* "gogo".² *Zeruko Argian* "¡Nor jun aruntz oik lez egan".³ *Zeruko Argian* "Bai, ongi ziñez egon behar da".⁴ *Zeruko Argian* "beren egal-itzulpean...!".

JESUS'EN BIOTZARI*

("Quia dabit mihi pennas sicut columbae...")

Egan dijoaz usotegirontz,
egan dijoaz usoak,
ta Zure Biotz-barrura doaz
maite zaituzten gogoak.
Beti irikita zabal-zabalik
usotegiko leioak...
ta Zure usotxo ego mots onek!
ezin aruntz jo gaxoak...!
Ai! onek ere, Jauna ba'litu
aiek dituzten egoak...!

Orduan, ziñez, lagako luke
errekaldeko zelaia,
ta ain maite duan oraingo bere
usotegitxo alaia.

Utziko luke, ziñez alako
mirua dagon basoa,
ta pagausoak bildu oi-diran
mendiko iturritxoak.

Amaika bider Zure Usoekin
abiatu da Zugana...:
Ai! ler-eginda bela bidean
gelditu bear, au lana!

Egan dijoaz Usotegirontz
egan dijoaz Usoak...
Ai! onek ere, Jauna ba'litu
aiek dituzten egoak...

JESUS'EN BIOTZARI**

ta Zure usotxo ego motz onek

*ta aztu ere bai, ain maite duan
bere usotegiko alaia.*

mendibeko iurritxoak.

ERNIO AURREAN*

(Aurtengo indar-neurtzeetan Saria irabazia)

IKURRITZA: Parce Domine, parce populo tuo.

Entzun, Ernio, nire abestia,
entzun azturik naizen uskeria,
ziñez, ba, kaskarra
ba-naiz ta txikarra
maite det ere nire Aberria,
ta Euzko-odola biotz ta zañietan
sutegian lez, daukat su-garretan.

Zure itz ixilak ta abesti aztunak
entzun nai ditu gaur nire barruak.
Biotz au, ba, aunditu,
gogo au goritu
nire asaben itz ixil-itunak.
Zure aizeaz gogoa indartzera
Ernio, nator, ba, zure aurrera.

Atozte onuntz, bai, Aberri-miñez
zeudezten oye; poz eta atsegiñez
mendi ontako oztzak
¡bai zuen biotzak
dizkituzela sendatuko, ziñez!
Atozte, Euzkoak, Ernio-aurrera
Ama-Aberria barruez ezantzera.

¡Zenbat alditan ernai ta gordean
egon oi ziran zure arkaizpean
Euzko-gudariak,
otso gosetiak
bezela, austeko bere etorkundean
arrotz arroen lerro burnidunak
eta apurtzeko zaldi ta zaldunak!

Euzko-odolez sortu eta aunditu
ziñazten belar-loreoik, argitu
Euzkoen illuna,
ta Ama-maitasuna
beren adimen-biotza bizitu,
edestu gure asaben almena,
ta gudarien asmo ta kemena.

¡Amaika bider gure gurasoak
gorantz jasoaz ezpata ta aiztoak
zabeszkiten itzak,
Ernio-arkaitzak,
dituzute entzun, ta nortzuk Euzkoak
ziran ikusi guda zakarrean
itxasoan ta berezi-artean!

Emen, abesti ayen oyartzunak
oraindik be bai-ditula barruak
entzuten dirudi,
ta ikusten irudi
bikain-sendoak aztasuakildunak.
Birrindu dute oso arrotza
ta berriz gertu gudako biotza.

Gaurko Euzkoak ¡geran berdingeak!
¿Nun daude orain Lelo'ren semeak,
Lekobide zarrak
Lartaun ta Uso'tarrak?
¿Nun antziñeko biotzun-taldeak?
¡Il ote-da, ba, Euzko-odol bizia,
ala aitu gure mendiko burnia.

Ez, ez, oraindik ez da il Euzkotarra,
oraindik bai-du biotzean garra
bizmena gogoan
ta indarra besoan:
oraindik batzuk gure Ama zarra
erantzun degu, maite degu ziñez
ikusi arren iya illean miñez.

Atozte onuntz Euzko-gudariak,
gizon bulartsu ta agure biziak
Amatxo jasotzen,
edertzen, sendotzen
gogoz ekin oi-dezuten guziak:
atozte emengo Euzk usai gozoak
indartzen ditu Euzkotar gogoak.

* Jautarkol, *Euzkadi* 4342 (1926) 4; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 31-32.

** Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 90 (1926) 667.

Zeruko Argian eta *Biozkadaken* "F" dun idazkera erabiltzen du.

¹ *Biozkadaken* "motz".

* Luis Jauregi, *Euskal Erria* 78 (1918) 11-12.

An muru artan, uso txuria lez,
estalita iya osoro zugaitzez
dagon basetxean,
beko zelayean,
sorbalda layaz, eskutan itayez,
onuntz abesten datozen ayetan,
emengo arkaitz-zugaitz-belarretan.

¿Ez al-dezute barruan alaya
sortzen oi duan euzkotar usaya
nabaitez Euzkoak?
Gure gurasoak
bada, utzi ziguten gomutzgaya
usai ori da, guk be lengo zarren
urrats ospetsuak jarraitze-arren.

Gudari ayen ainbesteko indarrak
emakumeen naigabe-negarrak,
umezurtzen otza,
ainbeste eriotza

¿alperrik ote-ziran, Euzkotarrak?
¿Lo-eiteko guk gau ta egunean
ayen odol ta negarren gañean?

Goiko Jaun ona, arren, gure biotza
zeorrek bultza, orratza zorrotza
itxaso-barruan
aztertzen dezuan
bezela, ainbeste naigabe eriotza
alperrik gutzat izan ez deiztentzat
Zoruna bedi, ba, Ama-seezentzat.

Aski da katez, aski da negarrez
auduste txikar, naikeri kaskarrez:
jurrun biotzetik,
urrun gu-tartetik
gorroto beltzak! Maitasun-indarrez
lotu gaitzazu gaurtik euzkotarrak
izan gaizantzatz zureak bakarrak.

Gure mendien babes ta itzalean
ta Jauna, Zure Esku eta egapean
gudate-izkilluak
ñoiz gure eskuak
erabiltzeke bizi gaitezean.
Jauna, zurea da Euzko-Abenda
emayozu, ba, lenbailen gurenda.

Entzun, Ernio, nire abestia,
entzun azturik naizen uskeria.

Ernio altsua,
jaso, bai, burua
ta zaindu zintso beti Zure Erria.
Arren, izango al-da euzkelduna,
Zu lez, zintsoa, Zu lez, indarduna.

GOGALBENA*

(Nire adizkide maite-maitea zan Eltzo-Azpiazu'tar Joseba'ren
eriotz-izparra jaso ondorean egia)

IKURRITZA: "Venite ad me"

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aipamen onragarria irabazia.)

¿Egidunok ote-dira
aize zakar onek
bultza-bultzaka dakarzkin
itz-latz-itun aubek?

Aizkide-biotzarentzat
ziñez ¡bai aztunak!
Aizkide-malko-negarrez
datoz-ta buztiak.

Onesten det Zure naya
Jaun Ona, biotzez,
Zuganontz nire-begiok
jasoaz, negarrez.

Gure onez ta onuraz
guzia dagizu:
Aita lez maite gaituzu
ta Aita lez, zauritu.

Argatik Zure basora
daramatzazu, Jauna,
zugaitz gazte au, indarrez
lurretik kenduta.

Zeorrek ongi dakizu
bere enbor-adarrak
ezin zitezkeela egin
lur ontan, lerdanak.

Bere kaltez etsai asko
zebiltzala beti
ausi nairik bere enborra
aizkoraz, gogorki.

Eta ain gaztea izan-arren
ainbeste alorta
ber adarretan zeuzkala
Zeuk, Jauna, ikusita.

Goi-basora daramatzazu
indartu dedintzat,
bere adarrak, lerdanak
egin ditezentzat.

Gure onez ta onuraz
guzia dagizu.
Aita lez maite gaituzu
ta Aita lez, zauritu.

Gizon ori, gizon ori,
¡bai-txikarra aizela!
Goizean ire bizitza
argia bezela,

pizten dek, eta arratsean
itunki-itzaltzen dek.
¿Nolaz, ba, pozten aute ire
osasun ta indarrek?

Ez, ba, gaztea aizela-ta
alaitu ta poztu:
laizterka eldu zaikela
arratsa, oldoztu.

Eriotzaren ayotza
egunez ta gauez,
ire biotzaren billa
ai dek, lapurra lez.

* Luis de Jauregi, *Euskal Erria* 78 (1918) 164-165.

Gaztea auken ta indartsua
atzo ne-laguna.
Ara gaur, berriz, illotza
lurrean ituna.

Ene aizkide laztanoi,
orain ogei egun
¿nork esan egongo itzala
nigandik ain urrun?

¿Nork esan biok mendirontz
alaiki bidean
abesten, juten giñuken
arratsadeetan?

¿Nork ire azmo-oldozkunak
i-biotz aundian,
eta ire indar-iturria
ikusita, esan?

Jauna, ¿nor ez da izutuko
Zure egikunez, ba?
¿Nor ez da Zure bidean
ibilliko, Jauna?

Gaur, arren, kate gogorrez
lotu nazakezu,
bide ontatik beñere
ez nendin aldendu.

Naigo det miñaren miñaz
Zurekin il bertan,
pozan pozaz bizi baño
ludiko bidean.

Zu bakarrik izan zaitez
nire maitasuna,
Zu nire Jabe bakarra
eta nire Jauna.

Eta aunela lapurra lez,
eriotz ituna
etorri-arren, alaiki
jungo naiz Zugana.

ALARGUNAREN NEGARRAK*

Guda dala-ta besoetatik
kendu zidaten semea:
kendu zidaten, bañan ostera
¿ikusko zaitut maitea?

Gudarontz asko juten oi-dira
eta andik gutxi etorri:
guda-ekaitzok bota, oi-ditu
uda-azkenak ainbat orri.

¿Zorigaiztoko guda bai-ziñez,
alaiak iges-egin du:
uzten duana ogi-suik gabe,
semerik gabe alboan.

Obe det goian bizi alaiki
maitearekin batean
emen, bakarrik negarrez baño
oñaze-neke-illunpean.

¿Nun ote zaude, maite? Agian
lotan elurran gañean
zure amari agian deika
zauri ta illotzen tartean.

Agian... ene! bai utzi dezu
betiko ludi gaiztoa...
¿zalantza ankerroi! nigandik iges,
ez mindu nire gogoa.

¡Oi ¿Zer dala-ta, gudari oiek,
ezetsi negarr-mingotsa?
Eta ostera ¿Zer dala-ta utzi
nire barruan biotza?

GUDATEAN
ALARGUNAREN NEGAĀAK**

*Guda dala-ta besoetatik
kendu didate semea:
kendu didate, baña noiz beñiz
ikusko ote det maitea?*

*Gudarontz asko joan oi-dira
ta gutxi andik etorri
guda-ekaitzak bota, ai! oi-ditu
uda-azkenak ainbat orri.*

*Pozarik ez da nere etxe ontan,
alaiak iges-egin du:
emengo esku zana aldendurik
gaixook zer dagikegu?*

*Lengo basetxe zuri alaia
beztu ta txartu da, ziñez:
negar-dagila dirudi, bera
ez datořela-ta, miñez.*

*Or dabil motel-motel zakuřa
gure baseři-inguruan:
goseak beñiz ia jan ditu
abereak ikuluan.*

*Sasi ta lařez josirik daude
landa, zelai ta baratza:
nun-nai dakuste nere begiak
nere min beltzaren atza.*

*Udaberiko lore t' euzkiak
ezin poztu ne-biotza.
Semea il ba'zait, nere ezti-gaia
izango da eriotza.*

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 7 (1919) 113-114.

** Jautarkol, *Argia* 99 (1923) 1; Jautarkol, *Laurak Bat* (1923) 306; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 82-85.

Biozkadaken eta *Argian* "r" dun idazkera darabilte. *Laurak Baten*, aldiz, "rr" duena.

Bertso asko dira errepikatutak, baina ordena zeharo ezberdina denez jartzea erabaki dugu.

Ez da pozarik nire etxe ontan,
alaiak iges-egin du:
emengo esku zana aldendurik
gaxook ¿zer dagikegu^a?

Lengo basetxe txuri alai
beztu ta txartu da ziñez,
negarr-dagila dirudi, bera
ez datorrela-ta miñez.

Moteldu-ta an-or dabil zakurra
itun, basetxe inguruan:
ia goseak ere erail ditu
abereak, ikulluan.

Sasi ta larrez josita daude
landa, zelai ta baratza.
Nire begiak nun-nai dakuste^b
nire min beltzaren atza.

Uda berriko lore-eguzkiak
ez dute pozten biotza.
Maitea il ba-zait ne-atsegiña
izango da, eriotza.

Ene gudari gaxo-laztanoi
¿nun, nola ote zaukate?
Gudaka gaitzak egun auetan
izan dirala, dasate.

Mirotz zitalak nire kabitik
ostutako umetxo,
edan ote du zure odola
¿nun ote zauka gaxoa?

*Nun ote-zaude, maite?.. Agian
lotan elurān gañean...
Zure amari agian deika
zauri ta ilōtzen artean...*

*Agian...ene! ai! utzi dezu
betiko ludi gaiztoa...
Oroipen txañoi, nigandik iges,
ez mindu nere gogoa¹.*

*Laister bukatuko omen-da guda...
laister ba datorkit, beraz:
laister orduan poztuko nazu
zure abesti minberaz:*

*Beñiro zure begi-argiak
argituko dit gogoa.
Zuk dakarkezu kabi ontara
beñiro argi² ta beroa.*

*Mirentxu beti zure galdezka
etxean daukat negañez:
argizaia lez urtzen ari da
gaxoa maitasun-gañez.*

*Ots-dagizute landa-zelaiak,
ots-deadarka abereak:
alarguna lez beltzez jantzita,
ots-dagizu basetxeak.*

*Egia da, bai, bere beñirik
ez dedala aspalditxoan...
Baña lanaren-lanaz, betarik
etzun izango oraingoan.*

^a dagikegu: egin genezake.

^b dakuste: ikusten dute.

¹ Argian eta Laurak Baten bi ahapaldi hauen artean beste hau dago:

Bai, bizi da bai, ta biziko da.
amak laztandu artean:
Goiko Jaun onak ez du lagako
bakarik ama ilunpean.

² Argian eta Laurak Baten "ogi".

Bai, bizi da, bai ta biziko da
amak laztandu-artean
Ez da juango emen utzita
bakarrik ama illunpean.

Laister bukatuko omen da guda
laister zakusket^c bai beraz
poztuko nazu, ba, illunabarran
zure abesti minberaz.

Berriro zure begi argiak
argituko dit gogoa.
Zuk dakarkezu kabi ontara
berriz ogi ta beroa.

Mirentxu beti zure galdezka
etxean daukat negarrez,
argizaia lez, urtzen ari da
gaxoa maitasun-garrez.

Atoz, ots-dagizute zelaiak
ots deadarka abereak:
alarguna lez beltzez jantzita
ots-dagizu basetxeak.

Egia da, bai, bere beñirik
ez dedala aspalditxoan...
Baña lanaren-lanaz, betarik
etzun izango oraingoan.

Nire biotzan dakart gau-tegun
kezka gogorren ekaitza;
bere ertzak jotzen eta zatitzen
itxasoak lez, arkaitza.

Kupitu zaitez, nitzaz, Jaun ona
beira nire min zorrotza.
Senda nazazu, edo bestela
kendu zadazu biotza...

*Seme³ gudari gaxo laztanoi,
nun, nola ote-zaukate...
Gudaka gaitzak egun abetan
izan dirala dasate⁴...*

*Mirotz zitalak nere kabitik
ostutako umetxo,
edan ote du zure odola,
nun ote-zauzka, gaxoa?*

*Gau t'egun nere biotzan dakart
kezka latz aben ekaitza;
biotz gaxo au jo ta zatitzen
itsasoak lez, arkaitza.*

*Kupitu, añen, nitzaz, Jaun Ona
beira nere miñ zořotza...
Kupitu nitzaz, bestela atera
nere bañendik biotza...⁵*

^c zakusket: ikusiko zaitut.

³ Argian eta Laurak Baten "Ene".

⁴ Argian eta Laurak Baten "desate".

⁵ Biozkadaken, Argian eta Laurak Baten olerkia hemen amaitzen da.

BAKARNE*

I

Bakarne ederra bizi zan
gurasoekin alaiki
basetxean
¡Ura lako langille bat
artuko zun amaikak
bere etxean.

Igande goiz guzietan
jeisten zan bere amakin
txadonara^a,
ta jaupa^b entzun ostean
pozez bere amatxokin
mendiara.

Esan zion bein amari:
“Ama errian zeñ ongi
bizi dian.
Gu baño obeto bai beintzat:
gu beti lanean zelai
ta mendian.”

Au entzun eta aitonaren
begi legor zar aietan
¡zenbat negar!
Ama diru zalearen
ezpain gateak, osterac,
irri ta par.

II

Il zan aitona ta jun zan
errira Bakarne ederra
diru billa.
Baña amak etzun dirurik
jaso, ta gañera galdu
neskatilla.

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 2 (1919) 23; Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 888 (1980) 34.

** Jautarkol, *Argia* 83 (1922) 1.

Argiako bertsiotan "F" dunak darabiltzate.

^a txadon; eleiza.

^b jaupa; meza.

^c ostera; berriz.

BAKAÑNE**

*Bakañne gurasoekin
alai ta pozez*

*eleizara,
Meza entzun-ostean*

bizi diran

gu beti lanean etxe

gozoro, par

Bakañne edeña eñira

BETI ZUREKIN*

(Gogo-Iñarkun-ondoan egiña)

Jaunoi, entzun det
Zure abotsa^a,
biotz mingotsa
Zure itz eztiatz
poztu da.
Lenengo zalantzen^b
illuntasunak,
naikun itunak
nigandik urrun
jun dira.

Nire gogoko
barren argiak
poz-abestiak
abestu jarren!
gaur pozez:
txori-taldeak
zugaitz-gañean
alai goizean
oi dun lez.

Arrunt jun da-ta
arrats ituna^c
bai-da eguna
etorri-ta alai
nigana.
Txori osoen
poz abestiak^d
eres guziak
ba-nituzke nik
gaur Jauna...!

Bai det entzun-ta
Zure abotsa,
biotz mingotsa
Zure itz eztiatz
poztu da.
Igarlea lez,
baña, dardaraz
beldur-ikaraz
dezu utzi Zure
jopua^e.

¡Noletan ba-da,
Zure ondira^f
elduko dira
gizontxo obendi^g
zirtzilok?
Naizen argala
ongi dakizu,
bai-dakizkizu
nire gogoko
min-gaitzak

Baño gaur Zure
adiskidetzat,
Zu-semetzat
Zuk autu nazun
ezkero,
ekatzu, jarren!
biotz aundia,
ludi guzia
bere barruan
sartzeko

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 9 (1919) 145-146.

^a abots: boz.

^b zalantza: duda.

^c itun: triste.

^d abestu: kantatu.

^e jopu: morroi.

^f ondi: aldare.

^g obendi: pekatari.

Sutu nazazu
Zure su-garrez
ta Goiko indarrez
nire gogoa
indartu.

Bestela, ¿nola
ba, ludi illotza
ene biotza,
esan, euk piztu
ta azkartu.

Nire eskuan be
jarri izkillua
sendo-zindua
ta burni latza
bularran
Zure gudari
kementsua lez
etsaien kaltez
ekin dezantzat
gudakan.

Nire mingaňan
jarri eztia
Zu-biztaldia^h,
edestutzeko
gozoki:
ta Zu-gurutza
nire sorbaldan
Zukin bera dan
latza atzaltzeko
anaiei.

Artzai gaxoen
txabol kaskarrak,
basetxe zarrak
nai ditut ¡Jaunoi!
aurkestu.
ta begitatik
negarrak jausiⁱ
estuntzak^g ausi
eta biotzak
azkatu.

Ibar ta mendiz
gau ta egunez
Goiko Ogi deunez
anai gaxoak
indartzen
ibilli nai det;
nun nai beroa
eta ats gozoa
pozaren pozaz
zabaltzen.

Urtu gura det^k
biotz-gañera
ta gure etxera
jeisten asi dan
elurra;
Ta artu eskuan
artzai-makilla
ta otso-billa
ibilli mendi
ta arana...

^h zu-biztaldia: zure-bizi-aldia, bizitza.

ⁱ jausi: kendu.

^j estuntza: katea.

^k gura det: nai det.

Ta ardiak sartu
arditegian
ta goiz-aldian
larrera berriz
eraman:
ta artu lotan
gaxo dagona,
eta Artzai ona
galdu danantzat
beti izan.

Eta neoni
ez nendin galdu
Zukin gudaldu,
Zukin atsedean
det gura.
Zure Esku orrek
zaindu nazala
ta aitak bezela
zigortu nire
gorputza

Ta azkenez, Jaunoi
txadon barruan
Zure aurrean
niretzat be egin
kabi bat.
Antxe ni ere
Obenen^l kaltez
gizonen aldez
Zukin opaldu
nendintzat.

^l oben: pekatu.

IRUDIA*

Nire ibiltzan ler gaizto eginda
atzo arratsaldean
atseden artzen exeri nintzan
bide baztarrean.

Gaua eldu zan ta abiatzera
etxerontz nuala
entzun oi u ta abesti-mur-mur
nastu bat bezela.

Gizozte-sengi-talde nabarra
moltzoka nastuan,
¡gora atsegiña! oyuka nire
bidetik zijuan.

Ardo-zatoak zeramazkiten
batzuk eskuetan,
sua bestetzuk eta guziok
lorak buruetan.

Iñork bultzaka zeramazkila
zirudin, aurrerax
bere ardiak, artzai sendoak
damazkin antzera.

Lore txorta bat eskeñi zidan
gazte batek alai,
ta ne-surretan jarri esanaz
egiteko usai.

—“Ez dizkiñet nai arantza duten
lorerik iñolaz.
Ara gorririk nire biatzak
oraindik odolaz”.

Erantzun gabe bestien gana
jun zan erdi-parrez,
ta gaxo aien poza ikusirik
ni berriz, negarrez.

Etzan ikusten
bide-lurrean
nire etxeraño
lore zimel ta
odola baño.

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 3 (1919) 45.

NEKAZARI GAIXOA..!*

Lurra goldatzen ari da
nekazari gaixoa,
ta izerdiz ta negar-malkoz
lurra bustitzen dioa:
illun-illun arpegia,
illunago gogoa
Gogor sartu diote-ta
biotzean aiztoa^a.

“¡ Aida Motxa...!” dasa akulluz
zulaturik iria.
Eta biotzak dasaio:
¡“Au bai zorakeria!
¿zertako ainbeste neke?
¿zer dala-ta izerdia?”
Baña “aida iri”! dasa^b akulluz
zulaturik iria.

Nekazaria zer dezu?
¿zergatikan negarra?
Negarrak ez dio lurrai
ematen ez indarra.
Negarrak esaten digu
gizona dan txikarra,
Berak itzaltzen duela
belaxe gure garra.

Lanaren lanaz ta izerdiz
damazkigu emaitzak
Gu-kalte ez ba-datortze
izotza ta ekaitzak.
Laister aztuko zaizkitzu
oraingo zorigaitzak
Udan dakuskitzunean
gari, arto, zugaitzak.

NEKAZARI GAXOA**

Lurra goldetzen ari da
nekazari gaxoa,
ta izerdiz ta negar-tantoz!
lurra bustitzen doa:
illun-illun arpegia
illunago biotza
barruan sartuta dauka
nunbait ezten zorrotza.

Aida Gorri..! Aida Motxa..!
dio malko-tartean:
ta Goruntz begik jasota,
otoitz-dagi noizean;
geldi-geldik beserrira
beira dago bestetan...
Ai..! Bere naigabe-miña
zorrotza da benetan...

Bere soroan erne da
erein zuan artoa,
baño iñun ikusten ez det
nekazari gaxoa.
Baserrira ixilik dago,
larrez josirik lurra,
ta katea apurtu-nairik
zaunga-zaunga zakurra.

Baserritar amon batek²
esan dit gaur goizean:
“Seme zarrena il zioten
moroak gerratean...
Geroztik ez zuan onik
ez etxe t'ez lanean...
Bera ere, ai..! naigabez...
il zaigu azkenean.”³

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 5 (1919) 75.

** Jautarkol, *Euzkadi* 4553 (1927) 1; Jauregi'tar Luis, *Rentería* 11 (1928) 48; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 15-16.
Biozkadaken “f” duen grafia erabiltzen du.

¹ *Renterían* eta *Biozkadaken* “negar-malkoz”.

^a aizto: laban.

^b dasa: dasaio, dio.

² *Renterían* eta *Biozkadaken* “Bertako amonatzak”.

³ *Euzkadi*, *Rentería* eta *Biozkadaken* olerkia hemen bukatzen da.

Ta "¡aida motxa..!" dasa akulluz
zulaturik iria.

Eta biotzak dasaio:

"¡Au bai zorakeria!

¿zertako ainbeste neke?

¿zer dala-ta izerdia?"

Baña "¡aida iri!" dasa berriz
zulaturik iria.

Ta aunela ikusi oi nuen
iru egun barruan,
negarrez lurra goldatzen
an, basetxe inguruan.

Ta arriturik zer ote-zuan
nion nire buruan:

"Norbaitek aizto zorrotza
sartu dio barruan."

Ta geiago ez nun ikusi
basetxe-bazterrean

Negarrez esan zidaten:

"Gaxorik dago oean."

Zer zuan galdetu nuen.

Orduan bat-batean

Jakindu nuan guzia.

¡Seme bakarra zeukala!

¡oi! guda gogorrean.

¡ATOZKIT!*

Biotzetik-biotz, eskale gaxoa
bezelaxe dabil eskatzen beroa

Josu Maitalea,

maitasun-zalea,

gure zoriona

besterik nai ez dun gure Maite ona.

Neonek neguan ařats otz batean
leiotik ikusi nuan ate eřtzean

Bere ilē zuria

elurēz josia...

Dardaizka, baña zai

atea irikiko noiz ote zan ernai.

¡Ikusi ziñudan! Ama-zai gosiak
egon oi-diran lez kabian txoriak.

¡Ikusi ziñudan!

¿Nolaz ez bařuan

biotza samindu?

¿Noletan sartzeko, ba, Maite, ez agindu?

Eta iriki nion ¡au nere zoruna!
ta orduan jun zan etxetik iluna,

ta antxe su-alboan

itz-egin ondoan

laztandu niñuan

eta lo-artu nun Beraren kolkuan.

¡Ura lo eztia! Ura bai ařatsa!

Ludi-atsegiñak, ¡ai! diraden lokatza!

¡Ura maitasuna!

¡Ura bai zoruna!

Biotzean miña

gero uzten ez dun zorun ta atsegiña.

ATOZKIT** ATOZKIT, JESUS***

*Maitasun-eskean, eskale-antzera,
gau t'egunez dabil atetik-atera
Jesus Maitalea,*

besterik nai ez dun, gura Aita Ona.

Neonek neguko ařats otz batean

Bere ilē guzia

eduřez! josia...

*Geroztik zer dedan
ez dakit, Maitea,*

beti zai noiz joko dezuan atea...

Luř-atsegiñak, ai! diraden lokatza

* Jauregi' tar Koldobika, *Zeruko Argia* 21 (1920) 132-133.

** Jautarkol, *Argia* 185 (1924) 1.

*** Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 65-67.

1 *Biozkadaken* "elurēz".

Atozkit beñiro, atozkit, Maitea,
oroitu nitzaz ta jo nere atea.
Geroztik leioan
nago zure usmoan
an datorzenetan²
Zure irudia noiz ikusiko detan.

Atoz, emaiazu orduko ardoa
ogi eztxua⁴ ta musu beroa
Beriz besarkatu,
Zurekin ni batu,
ez nenditzat, ařen,
Zugandik aldendu ez be eriotzaren.

¿Noletan maiterik gabe udaberian⁶
bakañikan bizi txoria kabian?
¿Nola espetxean
bizi bere etxean
bezain poz gizona?
¿Ez da hau espetxea, ba, ordutik ona?

Atozkit, urtu da bideko eluñ
ta etxean ba-da naiko jan t'eguñ:
piztiak jun dira
igesi mendira:
baratzen ostera
jaio dira lorak igazko antzera

Atozkit Bestela nioni Zu-biñ
jungo naiz eskuan artuta makñ
basotik-basora
ta ibañ-betik gora
artzaia bezela
ardi galduaren biñ dabilela.

² Biozkadaken "datorzenetan".

³ Biozkadaken "emaidazu".

⁴ Biozkadaken "eztxua".

⁵ Biozkadaken "ai! lekaro".

⁶ Ahapaldi hau Zeruko Argiak besterik ez dakar.

⁷ Biozkadaken "eluñ".

Zure iduria noiz ikusiko detan.

Atoz, emadazu³ orduko ardoa

loreaz bezela
Lekaro⁵ onetan ilko naiz bestela.

Atozkit, ba, urtu da bideko eduñ⁷

Atozkit!... Bestela Zu-biñ

ezin niteke-ta bizi, Jauna, onela.

Atoz geigo ez det naiko emengo loia *Atoz! Geigo ez det naiko beko loia*
baizik izan zure jopu ta moñoa
ta saririk gabe
izan zu ni-jabe. *izan Zu ne-Jabe.*
¡Moñontza zoruna
azkatasun oso ematen dezuna! *azkatasun oro ematen dezuna!*

Eguna Zu gabe netzat da ilundia
Zu zera-ta nire begien arñia. *Zu zera-ta nere begien arñia.*
Atozkit, Maitea.
jo nire atea *Jo nere atea*
lilia bezela *Lorea bezela*
lekaro aunetan, ba, ilko naiz bestela. *Lekaro onetan ilko naiz bestela.*

BIOZKADAK*

Itsas-ertzero jun naiz
gañ egunsentian,
ondaretan inortxo
ez zegoen aldian.

Bare dago itxasoa
ixilik ondartzza
egon oi dan lez, juten
danean ekaitza.

Baña itxas-ots zakara
entzun det bat-batez
ekaitzak itxasoa
nastu ba-zuan lez.

Itxasora begiak
zuzendu nituan
ta itxasoa, lo-dagin
aũa lez, zegoan.

Soñkaldetik euzkiak
musu-zemakion
ta aize legunak laztan
maiteki zegion.

Nire biotz-baũura
begiratu nuan:
jotsok biotz-itxaso
nastukoak ziran!

Ondartzatik etxerontz
nijuala nion
jBiotzari begira
beti ba-genion...!

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 23 (1920) 157.

¡LO-GABE!*

Lo-dagi aurak bere seaska beroan,
lo artzaitxoak bere txabola zañean,
lo-dagi jaunak bere jaun-etxe erosoan,
bidaztiak lo-dagi bide-bazteñean...
jta ni lo-gabe nire oe biguñean!

Lo-dagi mur-mur dagila itxasu otzanak,
lo egaztiak amaren ego-azpian,
lo-dagi baño beltzez estalita aranak,
lore usaituak lo-dagi loreteñean...
jta nik lo-gabe emen nire oe gurian!

Ator, lo ezti ori, nire begieta,
ator maitekoñ ire besarka eztiñaz
laztan nazaken oraindik gaua dek-eta.
Ire altoan eguzkiak bere izpiñaz
esna nazala goizean bizmen beriañz.

Ire musua bai-lezaiokek ukatu
gau eztiñano dantza ta jolas bizian
ibiliñ danai, naiz ta negañez eskatu
ire laztan bat. Utzi zak bere oyian
bere bañengo kezkañz buñuka gorian.

Ez, bañon, inoiz ukatu ire laztana
eguna lan ta neketan igaro-ostean
bere begiak gauan atsege iregana
zuzentzen ditun gaxoai. Añats luzean
ba, jutziko-ote nauk logabe nire oean?

Ator egaka ba, nire oe albora
etoñ oi-dan bezela gotuts Goikoa
negañez dagon auñaren seaskatxora.
Atoñ edatu nire gain gaur ire egoa
ta amak auñari lez eman niri pa beroa.

Bai-lezake egin negañ eskale gaxoak
aterik-ate dabiñenean eskean.
jEz al-da baña, benetan zoruna loak
ganbara zañan edo bide bazteñean
bere besotan gozoki artzen dunean?

Augatik bere kabira txoritxoa lez,
ta amaren bulañ eztiñe legez auñtxoa
ire altzora etoñ oi-dek negañez
inun arkitu ezin lezaken beroa
an arki-nairik, eskale umezurtz gaxoa.

jEriotz antzoi! Eu aiz gizon-atseñena
eriotza dan lez onarentzat emaitza.
Ator, emaikek ire besotan kemena,
eguneñz jasan dezantzat giza-ekaitza.
Ator, ez izan nirekin ain biotz-gaitza.

Lo-dagi aurak bere seaska beroan,
lo artzaitxoak bere txabola zañean,
lo-dagi jaunak bere jaun-etxe erosoan,
bidaztiak lo-dagi bide-bazteñean...
jta ni lo-gabe nire oe biguñean!

Lo-dagi mur-mur dagila itxasu otzanak
lo egaztiak amaren ego-azpian,
lo-dagi baño beltzez estalita aranak
lore usaituak lo-dagi loreteñean...
jta utziko ote-nauk logabe oe gurian!

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 16 (1920) 63-64.

¿NOR DA?*

¿Nor da, aġen, esan, ene baratzai zintzoa?
nire baratzan sartzen dan lapur gaiztoa?
¿Nor da, ba, lapur gaiztoa?

Nork ausi dizkit bertako zugaitz-adaġak?
ta ostu ditu elduta zeuden sagaġak,
elduta zeuden sagaġak?

¿Nork ostu dizkit baratzan neuzkan erleak?
¿Nork zure izerdiz ernazitako loreak,
lore arantza gabeak?

¿Noletan zaunga ez dio zakuġak egin?
Lapura nunbait, ba, ote zaio atsegin,
ba, ote-zaio atsegin?

Baratzai orek, arġu izkiġlua eskuan
ta sartzen ba-da ekin lapurai buruan
ekin lapurai buruan.

¡Bere odolaz bustita jaio deiztela
lore txuri ta goġiak igaz bezela,
loreak igaz bezela!

Ta Josu'k, biotz-baratzai onak, orduan
erantzun zidan maiteki nire baġuan,
erantzun zidan baġuan.

Esnatu adġ noizpait amesle gaxoa.
Ez beste iġortxo i aiz-ta lapur gaiztoa.
¡I aiz-ta lapur gaiztoa!

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 17 (1920) 68.

AITONAREN OTOITZA*

Pipa eġetzen exeita zegon aguretxoa
Besper ondoren¹ eliz-aurean²:
dantzara doan ġloba Malen andik digaro³
ta aitonak dio bere artean:

“Ire begitan daraman, neska,
udako gaben argia,
ta ire ezpaiġetan³, basoetako
maġubiaren goġia

Udabeġiko egunabaġen
gaġak ire betaġtean...
¡Begi guziok beti ireganontz
igande-aġatsaldean!

¡Ez ba-diten, ba, ayek ikusten
nik bezela⁴, ire biotza:
¡Ire barengo beazunezko
itsaso nastu mingotza!”

Eta txapelan pipa gordeta
Jaungoikoaren⁵ etxera
bere ġlobatxo txoroan alde
negaġez otoitz-eitera.

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 36 (1921) 169; Jautarkol, *Argia* 93 (1923) 1; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 4; Jauregi'tar Luis, *Aranzazu* 11 (1931) 48.

Argian eta *Biozkadaken* “b” gabekoak (gauen) eta “y” gabekoak (oiek) daude.

¹ *Aranzazun* “ondoan”.

² *Argian* “eleiz-aurean”.

³ digaro: igaro da.

⁴ *Argian* eta *Aranzazun* “ezpaiġetan”.

⁵ *Argian*, *Biozkadaken* eta *Aranzazun* “bezela”.

⁶ *Argian* “Jaungoikuaren”.

¡ALARGUNA!*

Atozkit, semetxu, atoz amatxoren magalera.	Atozkit nire gau alegeko izartxo pozgarria:
Zu nire zoruna, ni poz-ertzia zu bai zera.	Aski da alaitzeko, noski, zu-begien dirdaria.
Aizea txistuka: leioak aztintzen kazkabaña:	Atoz, maite ori, estutu nazazu zure eskuaz:
¡Otoitz nire biotza... etxean izanik su ta gaña!	piztu iya itzali dan nire gañ au zure biotz-suaz.
Elur ta ilunpeak estali du ibaia ta mendia:	Bizitza zugandik iges-dijoakit beregantuz,
nire biotza da eluretan dagon illobia.	egoak azita, txoriak dagin lez, dagi goruntz.
¡Auxe bai gau ituna, nire biotz gauen irudia!	Zuk, seme, lotuta eutsiko diozu bai, luñean,
¡Egunik ez netzat...! Gudan il zan nire eguzkia.	ta agian kabia egingo du zure biotzean.
¡Guda! Ez dakizu, ene seme zer dan gudatea.	Bera jun-ezkeroz, zu alargunaren poz ta alaia,
Ez dakizu zer dan aitatxorik gabe gelditzea.	maite, zu bakarrik, nire naigabeen eztigaya.
Argatik dagizu-pař ta poz-irintzi jolasean.	Atoz, atoz, maite... Onela... orain pa amatxori...
Negařez, gaxo orek ezautuko dezu aunditzean.	Sutan buñia lez, jaři zait biotza goři-goři.
Seme, egizuke, ba, jolas, irintzi, pař bitařtean:	¡Au nire zuruna! Euzkia ageri da ozkarbian.
egizuke orain zure amatxoren magalean.	Baña ¡ai! ez da urtu oraindik eluřa illobian.
Agian jolasok senda lezateke nire miña.	Baña urtuko da: zure begi beltzen argi-izpiak
Atoz, egizu-pař, irintzi ta jolas ba, zorgina.	laister beren berroz eruazi ere bai an liliak.

* Jauregi tař Koldobika, Zeruko Argia 33 (1921) 118-119.

Orduan guzia, seme, izango da autxe poz ta alaia.	Baña aurtxo gaxoak negař amatxo- ren magalean,
Gau itunarik ez eta udaberiko lore usaia.	ta negařez loak artu zuan bere egal-pean.
Bañan, ene maite, ¿zergatik dagizu orain negař?	Ta luñera eldu zanean uda alai ta gozoa,
Amatxokin zaude... negařik ez egin... egizu-pař.	kabia utsa zegon... eta umezurtza zan aur gaxoa.

GAUR ETA BIAR*

Jauregi' tar Koldobika' k (bere argazkiaz)

Auxe naiz orain: gaztetasunak nire buruan
dirdits-dagi, ta kemenak su eta gar̃ bañuan
kemenak su-gar̃ bañuan.

Biztaldiaren udaran nago; nun-nai argia
nun-nai beroa dakust. ¡Udara dan pozgar̃ia!
¡Udara dan pozgar̃ia!

Ez dakust ekaitz gaitzik dakañken laño beltzarik
ortze argian euzki gar̃tsua dakust bakañik:
euzki gar̃tsua bakañik.

Alditxo baten-bañu, baña, bai-da itzaltzen sua
ta uda ondoren ere bai-datoñ beti negua;
bai-datoñ beti negua.

Bai, etoñko zait laixter-bai-laxter negu beltz-otza
eta nigan be bai-du botako edur̃ izotza.
¡Urteen edur̃ izotza!

Ta bein-edo-bein nire argazki auxe orduan
bai-det artuko, orain lez, esku dardaritsuan
nire esku dardaritsuan.

Eta maiteki esango diot nire inguruan
jolas-dagin illobai: ¡Ara, ba, auxe izan niñuan!
¡Ara, ba, auxe izan niñuan!

¡Poztuko al-da orduan, añen, nire gogoa
bai-dijuala-ta laister Aberira gaxoa,
poztuko al-da gaxoa!

* Jauregi' tar Koldobika, *Zeruko Argia* 25 (1921) 12.

LOURDES'KO USO ZERUTAÑARI*

Arkaitz zalea zera
ziñez, Usotxo ori
arkaitz ortan kabia
dezuncan jañi.

Arkaitz-zale ba-zera
entzun, ba, gaxo oni
arkaitz bat nai dizu-ta
uso, erakutsi.

Antxe ¡bai-giñakela
gu biok zorion!
Entzun, arkaitz ori, ba
Usotxo nun dagon.

Mendi-mendian dago
baso-ilun zokoan
eguzkiak gutxitan
jo oi-duan zuloan.

Pizti zakañ batzuek
bakañik mendira
noizean-bein oñoika
etoñi oi dira.

Udan eguzki gutxi,
neguan eluñ, ta
uda-negu otz, bertan
izanik eguñ.

Ta alare belar̃ txareñ
dago oso josia.
¡Au arkaitza Zuk bertan
jartzeko kabia!

Atoz mendi-mendiko
arkaitz ilunera,
Zure begien argiz
berau argitzera.

Uda-negu otz-dagin
aitzera atoz, Uso.
Zukin eluñetan be
izango da bero.

Ta jañi bertan ere
ituñi bizia
ito dezantzan nire
biotz-egaria.

Atoz, atoz, lenbaitlen,
zulo otz onetara:
atozkit, Uso, nire
biotz arkaitzera.

* Jauregi' tar Koldobika, *Zeruko Argia* 31 (1921) 83.

Titulu bereko beste olerki bat dagoen arren (1916), olerkiak zeharo desberdinak dira.

MAITASUN-INDAĀRA *

(Nire amari)

Bart aġatsean izaġetara,
ama, begira nengoan,
ta izaġ bat atzo bestetan baġo
aġgitsuago zegoan.

¡Aren aġgi txit zoragaġia!
¡Aren dirdits maitakoġak!
Uġuti dagon semearentzat
¡bai-dirdits osasunkoġak!

¿Zergatik atzo, ba, ote-zegon,
aġgitsuago izaġtxoa?
¿Zergatik aruntz begiratuta¹
pozten zan nere gogoa?

¿Nolaz baġuan nabaitzen nuan
atseġiġaren ezta?
Maitasunaren indaġ goitaġa,
biotz-aulen sendakia!

Orain jakin det, izaġai beira
bart ni nengoan bezela,
nitaz² oldozten^a izaġ berari,
ama, begira zeundela.

Ama, begira, begira beġiz³
izaġ berari askotan:
bera izango da poz-atseġiġa
gure naigabe-neketan⁴.

* Jaureġi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 27 (1921) 28; Jaureġi'tar L, *Jaungoiko Zale* 274 (1926) 64; *Biozkadak* (1929) 19-20.

** Jautarkol, *Argia* 82 (1922) 1.

Titulu bereko beste olerki bat dagoen arren (1916), olerkiak zeharo desberdinak dira.

¹ *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "Zer dela ta atzo aruntz begira".

² *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "nitaz".

^a oldoztu: pentsatu.

³ *Jaungoiko Zalen* "Izaġ berari, Ama, begira".

⁴ *Biozkadaken* ahapaldi osoa aldatzen da:

Izaġ berari, arra, begira
naigabez, zauden gauetan...
bera izango da gure ezti-gaia
bion naigabe neketan.

MAITASUN-INDAĀRA **

(Nere amatxo laztanari)

Bart aġatzean izaġetara,

Aren dirdits maitekoġak!

Zergatik atzo, ote-zegon ba,

nitaz oroitzen, izaġ berari,

ASTRITZA OROIPENA *

Ama maite bat ikusi nuan lengoan
samur laztantzen bere semetxo kuġuna.
Ama, zaġa zan baġan aġpegi gozoan
igaġtzen ziran lengo indaġ-edeġtasuna.

Negaġez zegon eskatzen bere altzoan
zeukan semeai laguntza ta maitasuna.
¡Ama gaxoa! Egaka bere alboan
an-oġ zebilen pozez eriotz ituna.

Ta bat-batean seme txaġaren eskuan
aizto^a zuria dirdizka ¡ai! ekusi nuan,
eta ama zaġa azken-asnasetan luġean.

Miġaren miġaz mindu zan nire gogoa:
ta ura ikusirik esan nun nire artean:
"Ola nire Amai saġtu zioten aiztoa."

* Jaureġi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 26 (1921) 17.

^a aizto: kutzilo.

UMEZURTZA*

I

Umezurtza atez-ate
dabil eskean...
ildegira^a lotara
doa gabea...!

Eluġa mara-mara
goiko mendian,
eluġa mara-mara
egun guzian.

Artzayak artaldea
sartu etxean,
goyan txabola utzirik
eluġ-tartean.

Sutondoan otoizka
dago amona,
ezpañan pipa zaġa
duela, aitona.

Otzez dardaraz doaz
mezara andreak
otzez daġ-daġ lanera
doaz gazteak.

Ta umezurtza atez-ate
dabil eskean...
ta ildegira lotara
doa gabea...!

Etxe-txoko berorik
ez omen du nai;
kanposantuan nayago
otzez ta ernai.

UMEZURTZA**

I

*kanposantura lota
doa gauean...!*

otzez dardar lanera

*Kanposantura lota
doa gauean...!*

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 35 (1921) 145; Jauregi'tar Koldobika, *Argia* 78 (1922) 1.

Argian "y" gabeko formak daude: "artzaiaik".

** Jautarkol, *Euzkadi* 4720 (1927) 2; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 49-50.

^a ildegi: kanposanto.

Gau oro¹ ĩlobi baten
gurutz-alboan,
norbaitekin izketa
ezti-gozoan.

Gurutz oġen besotan
nai loak aġtu,
t'eguzkiak musuka
bertan esnatu.

II

— Ez datoġ umezurtza
geigo eskera,
gure eritikan jun da
nunbait bestera.

Örtzale^b. ĩnun ote-da
eskaletxu ura?

— Mutiko umezurtza
jun da² Zerura.

Antxe, bere amaren³
obi-gaġean

ĩlotzik arkitu det
eluġ-tartean.

Ta antxe lurperatu det
aman obian,
berak beti egon nai
zuan tokian...

III

Örtzalea atxuġakin
etxera doa
bere artean dio
ĳMutil gaxoa!

Gauero ĩlobi baten

Begira, jun egonen aldera

II

— Ez datoġ umezurtza

geigo eskera,

gure eritikan jun da

nunbait bestera.

Zulogillea, ĳnun da

eskaletxu ura?

— Mutiko umezurtza

jun da² Zerura.

An, bere amatxoren

obi-gaġean

ĩlotzik arkitu det

eluġ-tartean.

Ta antxe lurperatu det

aman obian,

berak beti egon nai

zuan tokian...

III

Sorbaldan atxuġakin
erian-bera
dator zulogillea
etxe-aldera:

¹ *Argian* "Gau oro".

^b örtzale: enterradore.

² *Argian* "zan".

³ *Argian* "An, bere amatxoren".

Ez du elurān otzak
mutiġa il ziñez,
berotasunez il da
maitasun-miñez...!”

Eriān zabaldu da
izpar^c ituna⁵
Gurasoak diote:
“¡Seme zoruna...!”

*Kantari ta txistuka
dator bidean,
bañan saritan dio
bere artean:*

¡Mutil gaxoa...! Ez du⁴
elurak il, ez:
berotasunez il da,
maitasun-miñez.

berġ gaiztoa...

Seme zintzoa...!

⁴ Zeruko Argian eta *Argian* ez da ahapaldi hau agertzen.

^c izpar: berri.

⁵ Argian “il-berġ iluna”.

ZURE GUDARIAK*

(Josu-Biotzaren Jaureskunde (entronazio) nagusian jaupalgaietxe
(seminario) batean irakurria.)

Etoġi zaigu gure Bakalduna^a.
Portu zaitezte: Bera da zoruna^b.
Aulentzat, indaġa,
otzantzat, gaġa,
gaxoarentzat anai ta laguna.
Poztu bai, zuek gidari lerdenok,
gudan sartzeko pozez zaudetenok.

Guda irintzia entzun da mendian
ta alkarġu dira baseġi ta urian
gaizkile lapuġak...
gure etsai andurak^c
Jaunaren kaltez goġoto bizian.
Bañan ez izan belduġik gogoan,
bai daukagu-ta Bakalduna alboan.

¿Zer dagiteke gu kaltez gaxoak?
¿Zer dagiteke^d, ba, beren besoak
ezpata zoġotzaz,
suz ta eriotzaz
gukin gudatzen ba-du Jaungoikoak?
Poztu, ba, zuek gidari lerdenok
gudan sartzeko pozez zaudetenok.

Atozte onuntz Jaunaren auġera
gogoġ ekiten emen ikustera
Indarġu eskuak
ta artuta izkuġuak^e
ekin guziok Jaunakin batera,
ekin zabaltzen auġera bidea
izan dedintzat ludia Berea.

Ara etsaiak ikaratu dira.
Begira zuen ezpaten dirdira
ikusi ta, igesi
mendi aġi-esi^f
muru ta baso utzi ta ilundira.
Poztu, mutiġak, eldu da ekaitza:
poztu gurea da-eta garaitza.

Begira zenbat dagozten zuen zai
negaġ ta negaġ ots-egiten Jaunari:
negaġok txukatu,
estuntzak askatu
etsaien kaltez jaġi oro ernai
Gudako neke ta atsekabe gaitzak
zuentzat bitez betiro emaitzak.

Loiolataġen odola gaġetan
daramazute biotz ta zañetan:
ezpata eskuan
indaġa besuan
¿zertaz, ba, belduġ gudaka latzetan?
Guda gaitza da gure etoġkizuna:
begira nor dan gure Bakalduna.

Bakaldun ori, beira gudariok
gudari-burniz Zeoġek jantziok.
Emaiezu indaġa,
indaġ Zerutaġa
izan deiztentzat Zure maitatiok.
¡Arki ditzala, aġen, guda-ostean
gure gorpuak Bere ikurġinpean!

* Jaureġi tar Koldobika, *Zeruko Argia* 32 (1921) 97.

^a bakaldun: errege.

^b zorun: zorian.

^c andur: zital.

^d dagiteke: egin lezateke.

^e izkullu: arma.

^f aġi-esi: muralla.

^g ikurġina: bandera.

ARTZAI-NESKA *

I

Eguzkia ba-doa
mendi-tartera:
mendi goyak goritzen
ta iluna, bera...

Dilin-dala artaldea
ibartik gora...
Atzetikan artzayak
eta artzaiñora.

Oñ datoz artzai-nausi
ta moñoitxo.

Nagusia galdezka
mutilai doa:

—“¿T'ez al-dek basetxe bat
bertan ikusi...?”

—“¿Ura bai basetxea,
ziñez, nagusi!...”

Ibayaren alboan
dago an beran,
ura edaten dagon
ardian eran.

Ango baratz, sagardi,
baso ta luřak,
ango bei ta idiak
t'eize-zakurak...!

—“Ta ez al-dek ikusi
antxe lařean
artzai-neska eder bat
bildots-arřean?”

ARTZAI-NESKA **

I

Eguzkia ba-doa
mendi-tartera:
mendi goyak goritzen
ta iluna, bera...

Dilin-dala artaldea
ibartik gora...
Atzetikan artzayak
eta artzaiñora.

Oñ datoz artzai-nausi
ta moñoitxo.

Nagusia galdezka
mutilai doa:

—“T'ez al-dek baseñi bat
bertan ikusi...?”

—“Ura bai-baseñia,
ziñez, nagusi!...”

Ibayaren alboan
dago an be-bëran,
ura edaten dagon
ardian eran.

Ango baratz, sagardi,
baso ta luřak,
ango bei ta idiak
t'eize-zakurak...!

—“T'ez ote-dek ikusi
ardi-tartean?”

* Jautarkol, *Argia* 81 (1922) 1; Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 56 (1923) 124; Jauregi'tar Koldobika, *La Baskonia* 1212 (1927) 376.

La Baskonian “rr”-dun formak daude.

** Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 51-52.

Biozkadaken “y” gabeko formak daude: “goiak”.

¹ *Zeruko Argian* “txakurak”.

Artzai-mutil guziok
nai arengana...
baña bera batentzat²
izan jau lana!

—Artzai-neska edera
ikusi nuan...
Artzai beltzez jantziak
bere inguruan...³

Itzok entzunda ixilik
moñoi zintzoa;
mara-mara darío
negar-malkoa.

Bera ...zuriz jantzita
an. atarian...

Antxe ilotzik, zeraldó
zuri-zurian...!

Aingeru-aurpegia
eta iribařez...
Artzaiak inguruan
beriz, negařez.

II

Basetxe edeřera arin
doa nausia...
¿Nork itxi biotzean
daukan zauria?⁴

² *Zeruko Argian* eta *La Baskonian* “niretzat”.

³ *Argian* ez daude ondorengo hiru ahapaldiak.

⁴ *Argian* ez dago hurrengo ahapaldia.

Auxe zeru artako
izar argia,
auxe neretzako dan
ezti-ontzia.

Laister nere eřegiña
izango dana,
nere biotz bařengo
kutun laztana...³

Gero zotinka dio:
“Ene nausia...!”
itzali da ango zure
izar argia.

Neonek atzo bertan
ikusi nuan...
Artzai beltzez jantziak
bere inguruan.

Aingeru-arpegia
eta iri-pařez...
Artzaiak inguruan
beriz, negařez...³

II

Baseñira ariñ-ariñ

Dilin-dala artaldea
ibartik gora...
atzetik ilun moñoi
eta artzañora.

Eguzkia sartu da
mendi-ostean... *mendi-tartean;*
Odei eta mendiak
odol-antzean...

ARTZAIARENA*

- | | |
|---|--|
| Ator, aiskide, ator nigonontz, mendira:
ator txoria joan oi-dan lez, kabira. | Sarri eldu dek mendira zorun-txoria
utzirik Zeru goi-goiko bere kabia. |
| Zumardi itzaltzu baten an zeukat txabola
eskuz neonek eraldutako kaiola. | Ator eorrek ikusiko dek agian
egan, artzaiak jolas dagiten aldian. |
| ¡Kaiola! Baña kaiola burni gabea
txoriarentzat oi dan bezela ortzea ^a . | Maiz jarriko dek gure txabolan aurrean
bere egal zuri-azpian sartu gaitean. |
| Ator mendian urtu dek-eta elurra
ta udaberria elduta poztu dek lurra. | Ator, mendira, niganontz, ba, ator, mutilla
ara or zaukat iretzat artzai makilla. |
| Txabol-aurrean abes-zegitek ^b txoriak
ta josi dituk lore bikañez mendiak. | Txabolan naiko esne ta talo beroa,
nai aña ardiki, gazta, ogia ta ardoa. |
| Urrunka asi dek bere kabian usoa
ta abesten eper, urretxindor ta zozoa. | Gertu iturria mur-mur-dagila dijoo
garbi ta otza elurra bera lakoa. |
| Ator, ba, bizi nai ba-dek azke ta lasai
Goiko Jaunaren bakarrik bildur eta alai. | Artzaiak egin dizketek txistu berriak:
ire zai artzai, artzañora eta ardiak. |
| ¿Bai ote-dakit zer dan barrengo alai?
¿Nun or nabaitu loretxu orren usaia? | Arratsaldetan jemengo irrintzi t'eresak!
Emen beteko dituk ire uste ta ametsak. |
| Agian sarri ezpain gañetan bai parra
ta biotz-barru-barruan berriz negarra. | Ator, ba, artzaia, lenbailen, ator mendira
ator txoria joan oi dan lez kabira. |
| Emen kerizpe atsegingarri onetan
arkituko dek, mutil, zoruna ^c benetan. | Artzaia aiz i-ta, odolez artzai jatorra:
ez dek iretzat erriko zulo malkorra. |

* Jauregi¹tar K., *Euzkadi 3068* (1922) 1; Jauregi¹tar K., *Zeruko Argia* 45 (1922) 138.
Zeruko Argian "f" dun idazkera agertzen da.

^a ortze: zeru, firmamento.

^b abes egin: abestu, kantatu.

^c zorun: zoriondasun.

ARTZAITXOA*

Menditik datoř artzaitxo
nagar ta negar gizaxoa:
bildots ta ardiak bitarġean
mendian pozik jolasean.
Muřotan urtu da eluřa,
t'eguzki-jantziz jantzi luřa,
bazterak lorez josi dira,
guztiok igo nai mendira...
Eta negarġez artzaitxo
menditik datoř gizaxoa!...
Ezin eguzki arġi leunak
arġitu biotz-leiza iřunak!!!!

¿Zer du gaxoak, zer ote du?
¿Ardi maitea nunbait galdu?
¿Ala bat-batez ardokian²
otsoa sartu bart, agian?

Euzkiakin bat-batera
bi artzaintxoen txabolera
bi aingerutxo zuri-gorġi
egun sentian gaur etorġi,
ta gaxo zegon artzaitxuak
ikuři ditu aingeruak,
eta alkarġekin bi itz eġinaz
iruok egan atseġinaz
ez nunbait, ai! ludia
aingeruentzat egokia!

II

Menditik datoř artzaitxo
nagar ta negar gizaxoa...
Bere laguna bitarġean
aingeruekin jolasean!

* Jautarkol, *Argia* 85 (1922) 1; Jaureġi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 42 (1922) 86; Jaureġi'tar Koldobika, *La Baskonia* 1222 (1927) 540.

La Baskonian "rr" dun formak daude.

** Jaureġi'tar Luis, *Jaungoiko Zale* 281 (1926) 142; Jaureġi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 38-39.

Jaungoiko Zalen "y" dun hitzak daude: "goyan".

¹ *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* ez daude azken bi lerro hauek.

² *Zeruko Argian* "artegian".

ARTZAITXOA**

mendian goian jolasean.

zelaiak lorez josi dira,

menditik-bera ¿nolaz doa?

Ara... Euzkiakin bat-batera

egunabařan gaur etorġi,

*ta iruok egan-eginġez
igo Zerura atseġinġez.
Ez izan nunbait ludia*

II

Bestea, berġiz, artean,

ELKANO'RI*

Agur eta aintza, Elkano, zuri
gizon bularġtsu ta arġia!
Zure kemena goraldtu nairik
piztu da Euskal-erġia.
Ludi osoa zuri agurġka
daukazu auzpez jařia
¿Ontzitzo baten buřuka gaitzan
garaitu dezu ludia!

Amets arġi bat zugan piztu zan
bein tximistaren antzera
t'ontzitzo baten amesti ta arġo
ekiņaz beti auřera,
kate gogorġez lotu zeunan
lenengoz ludia bera.
Geroztik auspez ludiak dio:
"Zu ni bařo geigo zera".

* Jautarkol, *Argia* 73 (1922) 4.

ENARAK*

Egan dijoaz txio ta txio enarak mendi-aldera, ekaitz-auřetik etoři oi-dan odei beltzaren antzera.	Gořotoa bai mendi osoan su-gařetan gořotoa... ;Ta mendi-goian gurutz batean zintzilik beren Jainkoa...!
Baseři kaxkař ta uri aberats gaņetik igaro dira ta eři guziak ariturikan txori beltz aiei begira.	Ara enarak txio ta txio... Ořa etoři mendira... Gurutz-albora txio ta txio Jaunagana eldu dira...
¿Noruntz dijoaz? ¿Zergatik ain goiz iges-dagite gaxoak beren maitasun-kabitan otzez dar-dar utzita umetxoak?	Eriotz beltza zearka egan gurutzen-gaņean ernai, Jaunarengana etořitzeko Jaunaren baimenaren zai...
¿Nork uxa ditu gure auřtxoen pozgaři ziran txoriak? ¿Ez al-zituan, ba, uxatzen beti gugandik negu gořiak?	Jaunak deadař aundi bat dagi ta makuřtu du burua... deadař dagi luřak ta lotsez itzali da euzki-sua.
Aguř, ba, txori ego beltz, aguř gure ametsen irudi. ;Ai! gaurko zuen txio samiņak biotz-negara dirudi...	Ixil-ixilik menditik-bera enarak egan dijoaz arantza bana daramatela bakoitzak bere mokoaz...
Baņa aiek beti txio ta txio laixterka egan auřera, Jerusalen'go alboan dagon menditxo baten gaņera.	Ixil-ixilik Gurutz albotik datoz Gogo maitaleak... ;Jaunai kenduta, zenbat arantza dakařzkiten ;ai! gordeak...!
Baņa ¿zer da gaur mendi-gain ortan? ¿Zer dira irĩntzi ta ojuok? ¿Gořoto-itxaso nastuaren ots t'ekaitzan txistu t'õruok...?	;Nork euki leizken bere egoak! Nork izan beren biotza, beren eztiatz eztitutzeko Jaunan naigabe mingotza...!

* Jauregi'tar K., *Zeruko Argia* 40 (1922) 57.

ESKALE BAT ARTZAI

Apaiz egin nintzan egunean.

Eskale bat nintzan ni aspaldi batean;
aterik-ate ibili oi nintzan eskean
eguzkiaren suaz kiskalduta udaran,
negu gořian otzez dardaraz ganbaran.

Ilbeltzako gau baten, eluřa¹ ari zala²
basoan galdu nintzan bildots bat bezala³.
Ezurařaño sartzen zitzaidan izotza
aragian oi-dan lez ezpata zořotza.
İlun-İLun guzia, zuri-zuri luřa
ta uřuti basatxean zaungaka txakuřa.
Ikara biotzean, aragian otza,
gora ta bera egan bertan⁴ eriotza...
Txori beltz arengandik ni igesi auřera
baņa ;ai! nere gain beti egan gora-bera.
¿Nolaz andik uxatu gau-txori beltz ura?
Biotzak esan zidan: begira Zerura.
Nere begiak aruntz zuzendu nituan
ta auspez eluř-gaņean otoitz-egin nuan,
ta antxe il-zorian otzez otoizka negola
ikusi nun artzayen ařizko⁶ txabola.
Txoria kabian lez, sarturik bařuan
loak bere altzoan bela artu niřuan.
Ta ametsetan igaro nuan gau osoa:
gau artako ametsa ;bai amets gozoa!

Laře eder bat nekusan mendi egalpean
eta artalde ugaria or-emen lařean.

Nun-nai artzai-txabolak goyan eta beran
arkume jayoberi zuritxoan eran.
Udaran goiz-aldean guziok lařera,
bazkal-ondoan beřiz basoko itzalpera
t'etzanda lo-kuluska egin-ondorean
dilin-dala aterperontz İlunabařean.
Beti txabola-auřean artzařorak ernai:
otsoarekin nunbait buřukan egin nai.
Amatxok maite duan lez bere semea
artzayok maite dute beren artaldea.
Lařetan⁷ galtzen ba-da bildots ala ardia,
aren biřa an da laister artzai-nagusia:
ta an dabil mendiz-mendi arkitu artean
ta arkiturik musuka dakař bizkařean.
Orduan jai-dagite mendian artzayak
t'entzun oi-dira an txistu ta abesti alayak.
Besotan dabilkite laztanka gaxoa
jaten damayotela esne ta taloa.
Ayen maitasun onek txoratu niřun⁸
ta oyekin bizitzea an erabaki nuan,
ta artzai-nagusia negař neriola
eskatu nion antxe neretzat txabola;
ba-neukela ortako⁹ biotzean gařa
t'otsoa birintzeko besotan indařa.
Nagusia au entzunda poz-poztu zan ziņez,
t'erantzun zidan artzai danai ots-egiņez:
Ba'degu gaurtik beste artzai¹⁰ bat, mutiřak:
;agur-dagiogun, ba, jasoaz makiřak!

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 38 (1922) 26; Jauregi'tar Koldobika, *Euskal-Esnalea* 241 (1924) 4-6; Jauregi'tar L., *Jaungoiko Zale* 270 (1926) 6-7; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 95-98.İzenburuan ere aldaketak ditu olerki honek: *Euskal-Esnalea*, *ESKALEA ARTZAI*; *Jaungoiko Zale* eta *Biozkadak*, *ESKALEA*.*Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "y" gabeko formak daude: "goian".¹ *Jaungoiko Zalen* "eduřa".² *Euskal-Esnalean* eta *Biozkadaken* "zela".³ *Euskal-Esnalean* eta *Jaungoiko Zalen* "bezela".⁴ *Jaungoiko zalen* "bertan" beharrean, "antxen".⁵ *Euskal-Esnalean* ondoko bi lerroak ez dira azaltzen; eta *Jaungoiko Zalen* lerro hau da agertzen ez dena.⁶ *Euskal-Esnalean*, *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "ařizai-ařizko".⁷ *Euskal-Esnalean* eta *Jaungoiko Zalen* "Mendian".⁸ *Euskal-Esnalean*, *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "niřuan".⁹ *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "ortako" beharrean, "ta nere".¹⁰ *Euskal-Esnalean*, *Jaungoiko Zalen* eta *Biozkadaken* "lagun".

Gero kendu zizkidan eskale jazkiak
ta jantzi nitun artzai-soñeko garbiak.
Belaxe beste artzai mutiñen ondoan
asi nintzan poz-pozik nere artzaingoan.
Emen ¡ai! bukatu zan ner'amets¹¹ gozoa
t'elur-tartean esna nintzan gixajoa.
Orduantxe eguzkia piztu zan mendian
ta itzaltzen¹² asi ziran izañak ortzian.
Geroztik urte asko, Jauna, igaro dira,
ta itzali etzait zure begien dirdira.
Gaur ziñez egin nazu Zur'artzai-mutiñā

t'eman didazu zure artzayen makīā,
jantzi didazu artzai-soñeko txukuna
ta biotzean piztu artzai maitasuna.
Baña ¡ai! etorriko da belaxe negua
ta il lezake elurak gaur piztu dezun sua¹³.
Jauna, zure asnasez jañi su-gāretan
su ori beti¹⁴ nere biotz zañetan,
elur-tartean galdu dan arkumetxoa
bizkortu dedin nere kolkoan gaxoa.
Zuk lez maite dezadan nere artaldea
artzai on bat egizu lengo eskalea.

¹¹ Euskal-Esnalean "nere amets".

¹² Euskal-Esnalean "itzaltzen"; Jaungoiko Zalen "t'itzaltzen".

¹³ Euskal-Esnalean ez daude azken bi lerro hauek.

¹⁴ Euskal-Esnalean "maitasun ori"; Jaungoiko Zalen "beti su ori".

GURE ERIA*

Basetxe zuri
alayak an-or
muño ta ibař zabaleran,
an-or lařean
etzanda dauden
arñkume zurien eran;

mendi goi-goyan
laño-tarñean
arñzko artzai-txabola,
ta mendi-zear
su-gurdi beltza
ke ta gařa dariola;

etxe pila bat
alkařen gainka
eleiz nagusi-ondoan
umeak egon
oi-diran eran
bere amaren alboan;

nun-nai jauregi
eta tximini
luzedun ola lantsuak
ta tximiniak
baño gorago
gure eleiz-zařen buruak;

T'eriok zaintzen
artzayak bere
artaldetxoa bezela,
mendi sendoak
beren tontořaz
ortzea jotzen dutela.

* Jautarkol, *Argia* 80 (1922) 1; Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 41 (1922) 79; Jauregi'tar Koldobika, *Euskadi* 4373 (1926) 1; Jauregi'tar Luis, *Jaungoiko-zale* 287 (1926) 224; Jauregi'tar Luis, *Aranzazu* 72 (1927) 147; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 18.

Euskadin "rr" eta "ll" dun formak darabiltzate.

Euskadin, *Jaungoiko Zalen*, *Aranzazun* eta *Biozkadaken* "y" gabeko formak daude: "artzaikiak".

ILLOBI ELURTSUAK!*

I

Ildegi^a-aurretik
igaro nintzan
egun elurtsu-illun
baten, Ilbeltzan.

Txistuka sorbaldan,
zuela atxurra
orduante eldu zan
ortzalle zarra.

Biok sartu giñan
izketan barrura:
oldoztun^b ta itun ni
ta parrez ura.

Zuri-zuri zeuden
ardi illea lez
illobi guziak
izotz-elurrez.

Eta esan nuan
nire artean:
¡bai zuri ta garbi
ziñez gañean!.

Ortzaleangana^c
urbildu nintzan:
illobi-arri bat
kentzen ari zan.

Eta esan zidan
kendu-ostean:
¡Bai ustel ta zikin
ziñez barruan!

II

Iltegitik-berontz,
etxerakoan
ardotegi baten
ate ondoan,

agure ille zuri
erdi mozkor bat
birauka^d ikusirik,
ildegariat

nire irudimena^e
egaka jun zan
ta illobi-elurraz
oroitu nintzan.

Ta esan ere bai
nire artean:
¡Bai zuri ta garbi
buru gañean!
¡Bai ustel ta zikin
biotz barñean!

* Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 3115 (1922) 1; Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 47 (1922) 167.
Zeruko Argian "I" dun eta "II" dun idazkera agertzen da.

^a ildegi: iltoki, kanposantu.

^b oldoztu: pentsatu.

^c ortzalle: enterradore.

^d birauka: maldizioka.

^e irudimen: imaginazio.

BIDEAN*

— Eritik netořela
gaur ařatsaldean
Lartzabal'ko Eřaimun
gogoř atxurēan
ekiten ikusi det
izeřdi patzetan.

Bai-mutil langilea,
amatxo, benetan!

— Bai, neska, alaxen den, ta?...

— Ama, ezeřtxo ez.

Eřaimun, esan diot,

bide-eřtzetik pařez:

aguř!... Ekiten da, e?...

— Ta beařko ekin:

bañan... guzia utsa uken

ezkonduta irekin...

Ta udaberian, kabi beři bat
sortu zan Lartzabalean:
geroztik ez da gure mutiřa
nekatu iñoiz atxurēan.

* Jautarkol, *Argia* 94 (1923) 1.

GUDA-ONDOREN*

Atozkit, semetxu, atoz amatxoren magalera, zu nere zoruna ¹ , nere poz-eztia zu bai-zera.	Jolasok agian senda lezakete nere miña. Atoz, egizu par, irintzi ta jolas ba, soñgiña.
Aizea txistuka; leyoak astintzen kazkabaña; otz nere biotza... etxean izanik su ta gaña.	Atoz, nere añats ilunetako izar pozgaña: poztutzeko aski det zure begien diridaria.
Elur ta ilunpeak estali du ibaia ta mendia: nere biotza, eluretan dagon ilobia.	Atoz, maite ori, estutu nazazu zure eskuaz, piztu iya itzali dan nere gar au zure biotz-suaz.
¡Oren gau iluna! ¡Nere biotz-gauen irudia! Egunik ez netzat...¡Gudan il zan nere eguzkia!	Zugandik bizitza ai! iges dijoakit beraganuntz, egoak azita, txoriak dagin lez, dagi goruntz.
¡Guda! Ez dakizu, ene seme, zer dan gudatea. Ez dakizu zer dan aitaxorik gabe gelditzea.	Seme, zuk lotuta eutsiko diozu bai, luñean; ta agian kabia egingo du zure biotzean.
Arganatik dagizu par ta poz-irintzi jolasean: ezautuko dezu, gaxo oñek, negarez asitzean.	Bera jun ezkeroz zu alargunaren poz ta alaya, maite, zu bakarrik, nire naigabeen ezti-gaya.
Jolas, irintzi, par, seme, egikezu, ba, bitartean: egizuke orain zure amatxoren magalean.	Atoz, ba, atoz, maite... Onela...Orain pa amatxori... Sutan buñia lez, jari zait biotza gori-gori.

* Jauregi tar Koldobika, *Euskal Esmalea* 239 (1923) 206-208; Jauregi tar Luis, *Biozkadak* (1929) 76-79.
Biozkadaken "y" gabeko formak darabiltzate: "leioak".

¹ *Biozkadaken* "zoriona".

¡Au nere zoruna! Eguzkia ageitu ozkarbian.	Bañan, ene maite ¿zergatik dagizu orain negar...?
Bañan, ¡ai! ez da urtu oraindik eluñ ilobian.	Amatxokin zaude...Ez negarik egin... Egizu par.
Bañan urtuko da: zure begi oyen arñi-izpiak laister beren beroz ernazi ere bai an liliak.	Baña aurtxo gaxoak negar amatxoren magalean. Ta negarez loak artu zuan bere egal-pean.
Guzia orduan izango da, seme, poz ta alaya. Gau ilunarik ez, eta udaberiko lore-usaya.	Ta luñera eldu zanean uda alai ta gozoa, kabia utsik zegon...eta umezuñtza zan aur gaxoa.

**ITXAS BASTEĒEAN¹
BIZITZA TA ERIOTZA ***

Eguzkia iya ilean
itsasoai musuka...
Ilunabaña...
Aitzak itsas-ertzean
aztindutzen, oñuka
itsas zakaña...

Txistuka eldu dira
arai biziz beteta
itsas-ontziak...
¡Ori poza! Begira
kayan dantzan ume ta
gazte guztiak.

Kai bertatik orduan
luñin-ontzi aroa
oztez⁴ beteta,
txistuka, ilun zijuan,
amets beltz bat lakoa,
Ameriketa.

Negarez kai-aldera
zuzendurik begiak
ontzi-gañean...
Baña ontzia aufera...
Deadañka guziak
itsas-ertzean.

ITXAS² ERTZEAN **

Illunabarra...
Eguzkia iya ilean
itsasoai musuka...³

astindutzen, oñuka

gazte guziak.

ostez⁵ beteta

Amerike'ta.

* Jauregi'tar K., *Euskal-Esnalea* 233 (1923) 86-88; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929)44-45.

** Jautarkol, *Euzkadit* 3373 (1923) 6; Jautarkol, *Zeruko Argia* 57 (1923) 133; Jauregi'tar L., *Renteria* 6 (1923) 20; Jauregi'tar L., *Jaungoiko Zale* 273 (1926) 46-47; Jauregi'tar L., *Renteria* 10 (1927) 17.

Euzkadin eta *Renterian* (1923) "ri" dun eta "Il" dun idazkera agertzen da.

Jaungoiko Zalen eta *Renterian* (1927) "y" gabeko formak daude: "kaican"; eta lege bera jarraituz: "gauetz".

¹ *Biozkadaken* "basteñean".

² *Renterian* (1923) "itsas" darabil.

³ *Jaungoiko Zalen* eta *Renterian* (1927) lehen hiru lerro hauek *Euskal-Esnaleakoak* bezalakoak dira.

⁴ *Biozkadaken* "jendez".

⁵ *Renterian* (1923) "oztez"; *Jaungoiko Zalen* eta *Renterian* (1927) "jendez".

Ara, ontzi aroa
sartu da su ta gañez
itsas nasian...
Ettxera andre gaxoa
kai aldetik, negarez
bide guzian.

Bestetzuk bitartean
kayan t'ontzian alai
dantzan t'ojuka...
Eguzkia iya ilean
gori-gori itsasoai
azken-musuka

¡Ori bai bizitzaren
antza samiña...!
¡Bizitzari musuka
eriotz miña...!⁷

Biotzaren kayean
atsegiñ-ontzitxo
sartzen danean,
itxaropen aroa
kayatik añatzean⁸
igesi doa...

Zalekeri ametsez
beterik doa...
¡Uñutira ta gabez...
Ontzi gaxoa!

Biotzaren kayean
gero iskanbiñ
gogoñ irten danean
atsegiñ-biñ...

Ta bitartean, beriz,
¡egi zoñotza!
bizitzari musuka
¡ai! eriotza...

*kayan ta ontzian*⁶

kayatik arratsean

Zalekeri ta ametsez

⁶ *Renterian* "kayan t'ontzian alai".

⁷ *Euzkadin* azken bi lerro hauek errepikatu egiten ditu.

⁸ *Biozkadaken* "añatsean".

UMEA TA LORETXOA*

Erederiko "Gazte-Elkarteari"

Loretxo bat bein ikusi nuan
elurtaitean basoan:
burua makuñ, otzez dardaraz
erukañi zegoan.

Aitu ta nere asnas beroaz
berotu nuan gaxoa,
eta neguko loretegian
eman nion luñ gozoa.

Goiz-goizetikan joan oi nintzan
loretxo ura zaintzera,
ardiak bildotx¹ jaioberia
zaindu oi-duan antzera.

Beste loretxo anai artean
azi zan mañdul ta alaya
ta inguruetan zabaldu zuan
bere edertasun ta usaya.

Udan euzkiak musuka soñtu
zituan lore guziak,
mendi-zelaitan izoztu zitun
bat-batez negu goriak.

Bañan ez nere loretegian
sañtu negu-buru zuri,
ta uda-beñian bezelaxe an
lorak usaitsu ta guri.

Gero neonek baratz- luñera
banaka aldatu nituan
ta ura neonek eman oi-nien
euzkia sañtu orduan.

Uda-beñiko eguzkiaren
musu maitetsu-beroaz
ederñtu ziran eta² barataz
bete zan usai gozoaz.

T'elurtaitean basoan nik beñi
jaso nuan lore erkina
izan zan gero nere baratzan
lore danen eregiña...

Udara jun da gure artean,
igesi doaz txoriak,
nere baratzan izoztu dira
lore eder ayek guziak.

Baña, neguko loretegiko³
loretxo ayei, begira:
loretxu oyeak, lore eder ayen
seme alabatxuk dira.

Ez deritzazu, amaika umentzat
"Gazte-Elkartea" izan dela
elur-tarteke lorearentzat
loretegia bezela...?

AITONAK BERE ILOBATXUARI* AITONAK BERE ILOBATXUARI**¹

Menditik bera erira zoaz...
Gaxoa!

Egan egin nai utzirik kabi
beroa!

Egan egin nai t'oraindik motzak
egoak...

Azeko poza txorien etsai
gaiztoak!

Atoz, Garbiñe, atoz, niganontz,
lantzana;

exeri emen t'entzun aitonan
esana.

Erira zoaz... Maitasun-biña
agian?

Etzera danen eregiña, ba,
mendian?

Udaberiko lore mañdula
nun dago?

jatoriko luñ gozoan baño
pozago?

Gaztea zera, ez dezu ikusi
ludia

sapelatz beltzez, suge ta piztiz
josia.

Egan ba-zoaz, sapelatza antxe
gañean,

t'oñez ba-zoaz, sugeak bide-
ertzean.

Ziñez gogora dala ba-dakit,
maitea,

bañengo amets jaioberriok
iltzea.

Bañan zuk azten baituzu zure
bulañez,

laister mendira, nigana zera
nigarrez.

Zelako poza txorien etsai

jaiotiko luñ gozoan baño

nigarrez.

* Jautarkol, *Argia* 97 (1923) 1; Jautarkol, *Zeruko Argia* 49 (1923) 12.

¹ *Zeruko Argian* "bildots".

² *Zeruko Argian* "ta".

³ *Zeruko Argian* "loretokiko".

* Jautarkol, *Argia* 152 (1924) 1.

** Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 28-30; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 275 (1968) 2.

¹ *Zeruko Argian* "illobatxoari".

¿Iñoiz ez dezu, Garbiñe, ikusi
kaian
itsas-ontzia sartzen ekaitza-
ostean?
Alaxe dator biotza ekaitz-
ondoan,
miñez josirik, pozarik gabe
gogoan.

¿Zer da atsegiña? Ordu bateko
eguna.
¿Ta zoritxara? Negu-gau luze
t' iluna.
Ta edertasuna zer da, Garbiñe
maitea?
Egun bi diraun udaberiko
lorea.

Ora egia, naiz izan egi
minkora:
autsa ta kea, gero eriotz
gogoña...
Garbiñe, ori da gure
bizia...
Zeorek laister esango dezu:
Egia!...

Orain ez, gero zure ametsok
bañuan,
zoritxar aize beltzak itzali
orduán.
Amets-tartetik dakusalako
guzia,
orain zuretzat dana zorion
t' argia.

Zoaz, ba, zoaz sartu zaiz eñi
aundian:
zorion izan, zurea ez dan
kabian.
Zoaz, bai, sartu pozez itsaso
nastuan...
Baña kaierontz ekin, ai! ekaitz
orduán...

² Zeruko Argian "t'argia".

³ Zeruko Argian "itsaso".

Ori, Garbiñe, da gure

*ta argia*²

*Zoaz, bai, sartu pozez itsaso*³

AMA GAXOA!*

Itxas-bañura euzki gaitsua sartzen dijooa...
Dirdiska beriz sutan bezela dago itxasoa.

Kaiera dakañ bultzaka aizeak aiz-ontzitxoa,
kaiera beira negañez bertan ama gaxoa...

Añatsak bere janzki beltz-beltzez jantzi du luña,
orañdik ere mendi goi-goian dirdiska eluña.

Magal beroan ñoltzik dauka alabatxoa
zuriz jantzi ta, lili-tartean. Ama gaxoa...!

Ontzi-mutiñak beltzez ta bere aũean,
zapi aundi bat beltz-beltza beriz ontzi-gañean...

Itsas-ertzean ixil-ixilik ñlen eñia,
añizko gurutz baten azpian bere ññ-obia...

Ara ññargiak maiteki dirdits dagi itsasoan:
andre bat dago beltzez jantzia, an, itsas-ondoan...

Ara, ba-datoñ ñlen eñira, ai! ama alarguna:
ara, añkitu du ber'alabaren obi kuñuna!

Obi-gañean negañez dago ama gaxoa...
... Aingeruekin jolasan dabil alabatxoa...

* Jauregi'tar Luis, Zeruko Argia 62 (1924) 215.

ZORIONAK!*

(Eguari-egunean)

Artu, irakuñle, oroigaritzat
 nere loretxo zimela,
 bere bidean bidazkariak
 artu oi-duan bezela.

Artu ta gorde, ařen ez bota
 bideko lokats-tartera:
 eramán, ařen, zeofek kontuz
 landatzeko zere etxera.

Artu beñipein ta uretan jañi
 gaur bertan ontzi batean,
 ta usai gozoaz poztuko zaitu
 gauñ beintzat zure etxean.

Biañ, igartzen danean bota
 leyotik baratz aldera...
 atzo jaiota, gauñ il diraden
 loretxuekin batera.

Artu, irakuñle, artu, ba, pozez,
 nere poz-aguñ goría...
 Oñ su-gařetan dijoakizu
 nere biotz-su bizia...

* Jauregi'tař Luis, *Zeruko Argia* 61 (1924) 194.**IL-OBİ BATERAKO***

Negañ-malkoak legortzen dira,
 igartu, beřiz loreak:
 otoitz beroak atsegin zaizkit...
 otoitz bat, ene maiteak.

Reina, oh Reina desde Lezoř es el amor de los amores,
 es la estrella que me guía de la noche en el vivir.
 Amigo... ¿Cuándo me muera, no me entenes en tu gloria.
 De aquella Cruz a la sombra, sólo quiero yo dormir.

* Jauregi-Etxenagusia'tař L., *Zeruko Argia* 83 (1925) 559.

ZERGATIK...?*

Bere ezpañetan Jaunak jarri zun
marrubi mardul-mardulenaren
gorria.

t'algara alaia ta iribar gozo
beti zerion iturri bizi
bizia.

Bere bi begi urdiñ aietan
Andaluziko ortze urdiñaren
urdiña...

ta Murillo'ren aingerutxoen
antzera berriz, bere arpegi
zorgiña...

Zergatik bere biotz-barruan
inpernu beltzak jarri ote-du
ain beazun beltz-zikiña...?

ZERGATIK...?*

Bere ezpañetan jañi zun Jaunak

algara alaia ta iribar gozo

sorgiña

* Jautarkol, *Rentería* 8 (1925) 45.

** Jautarkol, *Zeruko Argia* 82 (1925) 538; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 22.
Zeruko Argian eta *Biozkadaken* "F" dun idazkera darabilte.

AL SANTO CRISTO DE LEZO*

Cuando entre luces de plata y entre arreboles de aurora,
mi razón abría el cáliz, cual sus pétalos la flor,
a tus plantas, donde el eco del Amor eterno mora,
los silbidos amorosos escuché del Buen Pastor.

Joven ya, cuando las nubes precursoras de tormenta
cerníanse al horizonte, cual bestias en rebelión,
Tú, mi brazo sostenías en la pelea sangrienta,
Tú curabas mis heridas con las mieles del perdón.

¡Cruz de juventud eterna, de los siglos el misterio...!
¡Eres triste y das consuelo y eres muerte y das amor!
Eres débil y los pueblos se someten a su imperio,
y resistes, como roca, de las olas el furor.

Reina, oh Cristo desde Lezo! Sé el amor de los amores,
sé la estrella que nos guíe de la noche en el vivir.
Amigos...; Cuando me muera, no me enterréis entre flores...
De aquesta Cruz a la sombra, sólo quiero yo dormir.

* Luis de Jauregui, *Rentería* 9 (1926) 56.

ANTZEKIA*

Nere biotz-bañuan, baratzatxo bat daukat
zitori bat bertan:
zitori^a au nik beste lore ederrenak baño
maitego benetan.

Añosa zuri-gorri jaioberiak ere
ba-dauzkat baratzen:
ementxe lore ezarik ez degu izango, noski,
datořen Maiatzan.

Jaunak bekigu garaiz, orain-arte bezela,
euri t'eguzkia,
guzien zoragari, ziñetan izan dedin,
nere zitoria.

Usotegi bat ere, aspalditik ba-daukat
nere baratzean:
bertan Uso zuri bat, beste usorik ez det nai,
nere biotzean.

Uso onentzako nai det, usotegi osoa,
baratza guzia,
t'onentzako bakañik, ainbeste maite dedan
nere zitoria.

Ez zaite, ai! bertandik iñoiz, iñoiz aldendu,
ene Uso maitea:
gaurtik beti izan zaitez, Zu bakañik bertako
Jaun eta Jabea.

Usoa uxatu nairik, baratza-alboan dabil
gau t'egun etsaia:
ez daki berak nunbait, aingeru bat detela
bere baratzaia.

Ene baratzai ona! Eskutatik ez utzi
ezpata zoñotza;
zitoria ta Usoa galdu baño, naigo det,
naigo eriotza.

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 93 (1926) 718; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 61-62.

^a zitori: azucena.

ARALAR*

(Napañoa'ko "Euskeraren adiskideak" deritzaion bazkunari)

Bizitz-bideko autsez t'odolez josirik datoñ
olerkaria zugana:
Artu, ba, pozez, biotz-negañez ¡ai! bustitako
bere muñ eta laztana.

Negañez zaude... Biotz-muñean nabaitu dizut
oñazearen eztena,
ta ara, ba-natoñ zurekin negañ egin naiean
Euskal-Eritik bañena.

¡Ai! Zaude ixilik... Ba-dakit-eta zeñgatik negañ
dagiten zure begiak;
gure mendien espak aditzen, umetandikan
ba-daki olerkariak.

Ba-dakit nik noiz agur-dagitzun pozez urturik
zuri Ernio altsuak,
ta noiz negañez biok zaudezten laño beltz-pean
lotsaz sartuta buruak.

Bai, zaude ixilik... Nik euskaldunei esango diet
zure naigabe zoñotza,
t'orñuan noski euskaldun onak adituko du
zure deadañ mingotza.

¡Euskal-semeak...! ¡Entzun gaur añen, entzun ta aditu
añetaz nere beñsoak...!
¡Gure Aralañ negañez dago... ta aingeru Migel
lotsaz bildurik egoak...!

¡Zenbat oroipen alai eta ilun piztu oi-diran
emen, biotz bañeanean...!
Euskal-Eriko Edesti dana bizirik dago
orañdik zure gañean.

Orañdik ere dirñdits-dagite belañ-gañean
Goñi'ren malko gañtsuak;
orañdik ere entzun oi-dira guda-muñilen
irintzi ta asnas-estuak...

Ta... ¡Nor ote-da eririk-erñ, basotik-baso
Aralar-mendi-burura,
bide osoan negañ ta negañ antxe datořen
atso agurñari ura.

* Jauregi'tar K., *Euskal-Esnalea* 271 (1926) 132-134; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 103 (1927) 106-107; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 68-71.

Alařuna lez beltzez jantzia, makil sendoa
bere esku dařdaritsuan...
Doi-doez dabil... bařa almen-gařa, sutegian lez
pizturik dauka bařuan.

Bere auřetik, otso-antzeko Baso-jaun beltza
bide osoan alaka...
Bere alboan, eluř antzeko ega luzedun
Maitagařiak egaka.

Eřegiņa da... ;Bařa ez dauka koroı edeřik
bere buruan gaxoak...
Ba-zeukan, bařa... Kendu diote, ta iņořk bestek ez,
;ai! ;bere seme gaıztoak...!

Oraindik ere bere semeok, beren eřitik
bota nai dute gaxoa...
Ta aien igesi, bere jauregi danak utzita,
mendi-goıeta dijoa.

Auzpez Migel'en auřean dago goruntz jasoaz
negařez bere begiak...
Geroztik daude, Migel naigabez, negařez beřiz
Euskal-Eřiko mendiak.

“Ama Euskera, ene kutuna, —dio Migel'ek—
txukatu zure negařa...
Zoaz eřira, t'euskaldun onak adituko du
gauřko nere deadařa.

Zoaz eřira... Jaunak biotzez maite zaitu-ta,
maite du-ta zure Eria:
beřiro zoaz semeengana, ni izango naiz-ta
gauřtik zure Zaindaria”.

Aguř eta¹ aguř Napařoa'ko anai maiteak:
zuentzat nere txaloak;
Auřera... ekin, anaiak batzen ta Ama onari
txukatzen negař malkoak.

Eřirik-eři anai guziok batu t'eraman
Euskeraren magalera.
Ez utzi Ama maitasun-biřa aterik-ate,
eskale baten² antzera.

;Euskal-semeak. Guziok batu, t'eutsi Euskeraı
gaxoa il bařo lenago.
;Jainkoak nai du...! Ta Aingeru Migel ezpatarekin
gure bazteřean dago.

¹ Zeruko Argian eta Biozkadaken “ta”.

² Zeruko Argian eta Biozkadaken “batean”.

ASIS'KO ESKALEA*

Eskale bat zan: eskale baten antzera bizi
eřirik-eři eskean;
t'eskale gaxo baten eran il, bere semetsu
eskale gaxo-tartean.

Bařa, maitasun-usai gozoa beti darion
eskalearen izena,
urtetik-urte argitsuago, eguzkia lez,
ludi guzian bařena...!

Nolaz, ba, mundu aztukoř ori ezin aztu da
Asis'ko Eskaletxoaz?
Noletan urte t'eunikiak junda, asetzen ez da
bere izen-usai gozoaz?

Mundu guziak zutik jařita txalotzen zaitun,
ene Prantzisko mamia,
nola ixilik gauř, egon ziteken ain maite zaitun
euskaldun olerkaria?

Zure oinpean mundua ařtuta, gurutz gogořan
josi zinduan Jainkoak...
Argatik zaude, Jesus'en eran beařtsuen-zai,
betik zabalik besoak.

Maitasun-ezaz ia il-zorian zegoan, ai! Zuk
ain maite zendun mundua:
eta il ez zedin, Jaunak gařetan jaři zizuan
biotz-bařenean sua.

Argatik beti zure alboan goritzen ziran
izotz antzeko biotzak;
argatik beti zure auřean lore biuřtu
oi-ziran arantz zořotzak.

Gabetasuna zan zure emazte maitagařia
izakiak, zur'anaiak;
neke t'oņaze gaitzenak ere, zuretzat beti
atsegiņezko eztaiak.

Zure alboan, lore pořitak pozez dardaraz,
kantari, beřiz, txoriak...
Zu bařo anai maiteagorik, ez dute ezautu
izař, iřlari t'euzkiak.

Zu bařo gizon maitagařirik, munduak berak
ez du ezautu bat bařo:
maitasun-mařan, igo zera zu gizona emen
igo liteken garařo.

Argatik ez da zure izenaren dirdits bizia
gizalditan itzaliko:
Kristo'rekin Zu bat egin ziřan, ta zure izena
Kristo'kin dago betiko.

Kristo gurutzan dakusdanean, Zu ere bekin
ikusten zaitut baturik.
Biok, ai! bizi nere bařuan, nere biotza
maitasun-gařez uřturik.

Zure neke ta naigabe gaitzez, gurutz-albora
ekaři zendun gizona;
orain otoitzez egizu ori, jakin dezan beıř
an dagola zoriona.

Ařen, begira, begi maitetsuz mundu eroai...
Kupitu Euskal-Eřiaz...
Eror-zorian dagon Elizai, eutsi gaur ere
zure maitasun biziak.

Zuk eta Jaunak maite dezuten euskera ere
ara oř, doi-doi gaxoa...
Gaxoen lagun ai! zeran ořek, beraren alde
ageřtu zure besoa.

Aita Prantzisko!, begira azkenez maitasun biziz
zure olerkariari:
Zuk lez, eriotz anai maitea laztandu dezan
Zerura beira kantari.

* Jauregi'tar Luis, Zeruko Argia 95 (1926) 769-770; Jauregi'tar Luis, Biozkadak (1929) 33-35.

BERGARA'KO JESUS GURUTZETUARI*

Atoz, Beġara'ra, atoz,
euskaldun zintzoa,
zugatik ia ilean
ara oġ Jainkoa...
Atoz, gurutz -albora
negaġez gaxoa...

Besoak zabal-zabal
zure zai, begira:
bere lau zauri oiek
zuretzako dira...
Ia itzali da bere
begien diġdira...
il baġo len ĵai Jesus!
beira zure Eġira.

Jesus, Zugandik uġun
ĵai! ibili gera,
kabitik iges-dagin
txorian antzera...
Orain Zugana gatoz
Zure gurutzera...
Gure maitasun-kabi
beroa Zu zera.

Oñazez¹, ĵai! josirik
gurutz latz oġetan,
ta alare Aitarekin
gure alde izketan...
Iñork ez gaitu, Zuk lez,
maite ain benetan...
Gure biotzok goġde
Zure zaurietan.

Zugan bakaġik dago
zorion-eztia
Zu zera-ta Zeruko
zorun-ituria...
Zugandik uġun, beġiz,
itxaso nasia...
Asetu Zuk, ĵai! gure
Zorun-egaria.

* Jauregi' tar L., *Euskal-Esnalea* 274 (1926) 199; Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 9; Jauregi' tar L., *Ariz-Ondo* 2 (1976) 87.
Ariz-Ondon ahapaldiak beste ordena honetan agertzen dira: 1, 2, 4, 3, 5.

¹ *Biozkadaken* eta *Ariz-Ondon* "oinazez".

BIOZKADAK*

Loreteġian sartu nintzan bein
udabeġi-goiz batean,
ta aġosa goġi mardul-bat¹
zegoan lore-taġtean...
Intza-tantozko koroġi edeġa.
diġdizka buru-gaġean...
Aġo ta tente, zoragaġia
eġegin baten antzean.

Eġegin baten antzean zegoan
aġosa mardul aġo,
nere beatzez ebaki nuan
ta il zan negaġez gaxoa.
Usaitu nuan asetu-aġte
bere usaiaren gozoa,
ta zubi-goitik ibai-gaġera
bota nuan loretxoa.

Etxe-aldera pozez nijoan
bitaġtean,
odol-ituri bero bat neukan
biotzean²...

Oġa, oġ bizitz-lorateġiko
baratzean
gerta oi-dana, poz-atseġiġen
ondorean:
oñaze-ituri ta arantz zoġotzak
biotzean.

* Jauregi' tar Luis, *Renteria* 9 (1926) 43; Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 89 (1926) 651; Jautarkol, *Euzkadi* 4578 (1927) 1;
Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 80-81.

Euzkadin "n" dun grafia erabiltzen du.

Titulu bereko beste okerki bat dagoen arren (1920), olerkiak zeharo desberdinak dira.

¹ *Zeruko Argian*, *Euzkadin* eta *Biozkadaken* "mardul-mardul bat".

² *Biozkadaken* "beatzean".

IĪETA-ERESIA*

Ia negařez igotzen nintzan kanposantura lenago: orain biĳera txoroak baĳo, kanposantua naiago.	ĳAdiskideak...! ez egin negař nere iĳobi bazteřean; exeri ⁴ t'egon ixil-ixilik nekin izketa luzean.
Bakařdadaea orain naiago dantza ta iskanbiĳa ¹ baĳo: argatik pozez ařatsaldero noa kanposanturaĳo.	Ařizko gurutz aundi bat baizik ez nere gaĳean jaři; eta lorerik zeren eskutan aruntz netzat ez ekaři.
Ba-dakit orain nola ari iĳlekin ixil-ixilik ² izketan: ořa zeřgatik gizonagoa len baĳo naizen benetan ³ .	Baĳan, ez kendu gurutz-alboan jaioko dan untzořia ta ez uxatu gurutz-gaĳean kantari dagon txoria...
ĳAdiskideak...! Ez egin negař iltzen naizen egunean: ĳzeřgatik negař, gau gaitza jun-da euzkia piztu danean?	Nere iĳobiko gurutz ařizkoa esnatu-ařte zaindu nere loa.
Biotzez ta aoz otoitz beroak egan bidali Zerura... T'esan: Gauř il da Euskal-Eřiko olerkari gaxo ura.	

* Jauregi'tař K., *Euskal-Esnalea* 275 (1926) 210-211; Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 4556 (1927) 4; Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 102 (1927) 90; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 88-89. *Euzkadin* "r" dun eta "l" dun idazkera agertzen da.

¹ *Zeruko Argian* "izkanbiĳa".

² *Zeruko Argian* eta *Biozkadaken* "isil-ixilik".

³ *Zeruko Argian* "denetan".

⁴ *Biozkadaken* "eseri".

ITSASALDEAN*

I	I
Itsas-bařura eguzki ¹ gařtsua sartzera doa... Dirřiska, beřiz, sutan bezela dago itxasoa ² . Ařatsak bere estalki beltzez ařtu du luřa... Oraindik ere mendi-goi-goian dirdits eluřa.	bere iĳobia, lore goři ta zitori zuriz dana josia. Ementxe datza neskatil garbi maite-maitea; lokatz-artean iĳoiz zikindu ez zan lorea, Zeruan dago... Ez egin negař, irakuřlea.
Kalera dakař bultzaka aizeak aiz-ontzitxoa... Bertan negařez kalera beira ama gaxoa. Magal beroan iĳotzik dauka alabatxoa zuriz-jantzita lore-tařtean... Ama gaxoa! Ontzi-muĳiak beltzez jantzita Bere ³ auřean: zapi aundi bat beltz-beltza, beřiz, ontzi-gaĳean.	III Ara, iĳlargaik maiteki dirdits dagi itsasoan... Begira an, andre beltzez jantzi bat itsas-ondoan. Ara... Ba-datoř kanposantura ama alarguna... ai! arkitu du ber'alabaren obi kutuna. Obi-gaĳean negařez dago... ĳZergatik negař? Zeru urdiĳean begira dirdits ořenbeste izař.
II Itsas-eřtzean ixil-ixiĳik iĳlen-eřia: ařizko gurutz baten azpian	Ama gaxoa, zure negařok alpeřik dira: ara Iziartxo, aingeruekin izař-tařtetik zuri begira...

* Jauregi'tar L., *Jaungoiko Zale* 278 (1926) 110; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 36-37.

¹ *Biozkadaken* "euzki".

² *Biozkadaken* "itsasoa".

³ *Biozkadaken* "bere".

MALENTXU*

I

Malentxu ederra alaiki
gurasoekin bizi zan
basetxean.
Ura lako langille bat
artuko zuten amaikak
bere etxean.

Igande ta goizetan¹
bere amakin jeisten zan
eleizara,
ta meza entzun-ondoren
pozez bere amatxokin
mendiara.

Baña beñ amari dio:
"Ama, errian zein ongi
bizi dian;
gu baño obeto bai noski...
Gu beti lanean zelai
ta mendian".

Au entzun-eta aitonaren
begi legor zar aietan
zenbat negar...!
Ama diru-zalearen
ezpain gazteak ostera
irri ta parr.

II

Il zan aitona ta jun zan
errira Malen ederra
diru-billa.
Baña amak etzun dirurik
jaso, ta gañera galdu
neskatilla.

* Jauregi'tar Luis, *Euzkadi* 4322 (1926) 1; Jauregi'tar Koldobika, *Jaungoiko Zale* 283 (1926) 171; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 40-41; Jauregi'tar Koldobika, *Euzko Deya* 111 (1942) 9.

Jaungoiko Zalen eta *Biozkadaken* "r" dun idazkera darabilte.

¹ *Biozkadaken* "igande ta jai goizetan".

NERE ERESIA*

Umetandikan
nekin daramat
eresitxo bat
biotzean:
udazkeneko
iluntze baten
nabaitu nuan
bañeanean.

Itzez jantzita
azaldu nairik
ekin det baña...
alperikan.
Nere bañendik
irten nai ez du
an bizi nai du,
bakañik an.

Antxe bakañik
abestu nai du
nere bañengo
eresiak:
netzat bakañik
izango diran
itzik gabeko
olerkiak.

Olerkariak
betzat bakañik
goñdeta dauzkan
olerkiak:
abestu nai ta
itzez abestu
ezin dituan¹
abestiak.

Eresi ori
zer dan neonek
ezin esan det
bertsoetan;
bakañik esan
agian leike
aingerutxoen
izkuntzetan.

Itxaropenak
bezela goruntz
egan nai luken
nai samiña;
biotzak beti
musuka bekin
euki nai luken
atsegiña.

Nere bañuan
berez sortuta
jaio dan lore
usaiduna;
nekin bizi ta
nekin ilko dan
amets alai
eta iluna.

Udaberiko
egunabañan
antzeko argi
gogozkoa,
ta iluna, negu
goñieneko
gau edurtsuen
antzekoa.

* Jautarkol, *Argia* 253 (1926) 1; Jautarkol, *Zeruko Argia* 87 (1926) 619; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 5-7; Jautarkol, *Euzkadi* 5076 (1929) 4.

Euzkadin "rr" dun eta "ll" dun grafia darabilte. Gainera, hauek dira agertzen diren ahapaldiak: 1 (lau lerro), 2, 5 (hiru lerro), 10.

¹ *Biozkadaken* "zituen".

Ezerk asetzen
ez dun alako
bañengo gose
zerukoña;
irudimenak
laztandu nai ta
ezin dun amets
iñezkoña.

Edeñtasunak
biotz bañuan
soñzen oi-duan
egaña...
orixe da, ba,
ta askoz geiago
nere bañengo
eresia.

Ez zaitez, añen,
iñoiz ixildu,
ene eresitxo
euskalduna,
orain bezela
beti izan zaitez
netzat eztia
ta laguna.

Zu izango zaitut
bizitz-gauean
maitasunezko
iñargia;
nere biotza
izango zaitzu
seaska bero
ta iñobia.

Biok, ba, ixilik
poz-naigabeak
esan ditzagun
bat-batera...
Nere biotza
iltzen danean
zu ere bertan
ilko zera.

¿NOLETAN...?*

¿Noletan pozez nere aurretik
igaro zera,
zuriz jantzita, mendi-usotxo
baten antzera?
¿Nolaz zuk pozez daramakezu,
ene! ziñetan,
zitori^a-sorta zuri-edeña
zure eskuetan?
Zitori-sorta zure eskuetan...!
Lotsagabea,
nere aurretik, añen, laisterka
pasa zaitea...

* Jauregi 'tar L., *Zeruko Argia* 92 (1926) 696; Jautarkol, *Euzkadi* 4549 (1927) 1; Jauregi 'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 8.
Euzkadin "tr" dun grafia darabilte.

Euzkadin eta *Biozkadaken* LOTSAGABEA...! da titulua.

^a zitori: azucena.

ODA A RENTERÍA *

Del Ebro recostado sobre la umbrosa orilla,
 déjame que te cante con notas de Castilla
 un cántico de amor.

Cual canta el peregrino que, lejos de sus lares,
 sobre sus hombros lleva la cruz de sus pesares,
 su canto de dolor.

Quisiera entre mis versos, como entre bellas hojas,
 ofrendarte el racimo mejor de entrambas Riojas,
 cual símbolo de amor.

Quisiera, como un sello de amor, dejar impreso
 en tu frente de nácar un vivo y casto beso
 de juvenil ardor...

Rentería, la bella, la del trabajo austero,
 donde la paz se asienta, la de virtud venero,
 la cuna de mi hogar.

Los trazos de tu imagen que llevo en dulce calma
 grabados desde niño muy dentro de mi alma,
 ¿quién los podrá borrar?

Nadie. Porque de lejos pareces más amante,
 aún más bella y más madre, más digna de que cante
 las trovas de mi amor.

Aquellas que en mí nacen sin que sepa yo mismo,
 como nace ignorada del fondo de un abismo
 la bella y triste flor.

Trabaja: que el trabajo, que es fuente de grandeza,
 aumentará con creces tu singular belleza,
 fecundará tu ser.

Trabaja, sí; más ora. Que lleguen a mi antena
 murmullos de plegarias, rumores de colmena,
 no gritos de placer.

Que reine en tus hogares la paz, hija del cielo,
 y en tu trabajo rudo encuentres el consuelo
 ante el sagrado altar.

* Luis de Jauregui, *Rentería* 9 (1926) 43; Luis de Jauregui, *Rentería* (1953) 14-15.

Que sigas por la senda de tu Creencia santa,
 junto a la Madre que héroes en su pecho amamanta
 y nos enseña a amar.

No olvides esa lengua, que fundida en un beso
 de amor, en tus entrañas te dejaron impreso
 tus padres al marchar.

La lengua de tus padres será el firme sagrario
 que guarde siempre pura en sacro relicario
 la esencia de tu ser.

No quieras con tus manos labrar tu propia tumba...
 Las flores ¡ay! del muro, si el muro¹ se derrumba,
 vendrán a fenecer.

Mira sobre ese muro, el ángel del destino,
 con su brillante espada, mostrándote el camino,
 marca tu porvenir.

¡Anima, sí, en tu pecho la luz de la esperanza!...
 ¿Del astro de tu gloria no ves en lontananza
 el rútilo lucir?

Niño era, y al mirarte, sentíme ya poeta;
 por eso en torno tuyo mi alma vuela inquieta,
 tu imagen llevo en mí.

Por eso, cuando duermes, tu blando sueño velo,
 y mientras tú trabajas, cantar mis trovas suelo
 pensando siempre en tí.

Cuán bella y soberana en sueños te contemplo,
 en torno de tus hijos, sentada junto al templo,
 cual rosa en un pensil...

Por la llanura extiendes tu manto de topacio,
 y del trabajo próspero resuena en el espacio
 la música febril.

Madre de hijos valientes, de tus entrañas brota,
 aun hoy, la audacia indómita de tu indomable flota
 en Trípoli y Orán.

Por eso, mientras lata la vida en tus entrañas,
 serás fecunda madre de empresas y de hazañas
 que honor en tí serán.

¹ *Rentería* (1953) "mundo".

POZ-AGURRA*

(Nere amari bere egunean)

Artu, amatxo, artu gauñ pozez
nere, poz-aguñ gorria:
bertan su ta gañ dijoazkizu
nere biotz-su bizia.

Txikitandikan zugandik urun,
an-emen, Jaunak narama;
baña gauñ nere biotza igesi
zuganontz doakit, ama.

Artu, zeoñek zere asnasez
piztu zidazun biotza:
bere su oñek urtuko al-du
ai! zure urtien izotza.

* Rentería 9 (1926) 43; Rentería 10 (1927) 17; Jautarkol, *Euzkadi* 4573 (1927) 1; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 21.¹ *Euzkadin* "rr" dun grafia darabilte.**AIZKOÏ'REN OÑETAN***

Nere bidean itxaropena lagun dedala
eldu naiz zure oñeta,
amets alaiaz nere burua, biotza, beñiz,
eresi gogoz beteta.

Aspaldi ontan beso-zabalik ne-zai zeundela
ba-dakit ziñez, Aizkoï:
bañan bideak ilunak daude, eta bakarik
ezin ninteken etoñi.

Ilundu dira Euskaleñiko bide guziak...
ez degu goian euzkirik:
auts-pean¹ dago biotz-su-gara, ta itxaropena
ez degu beste añirik.

Alaitu zaitez, ene biotza, t'ekin kantari
guziok lotan daudela,
oñar afoak eñnai ta tente gauan eñdian
ekin oi-duan bezela.

Gaucan gaude, ta agian iñoñk, iñoñk ez ditu
entzungo nere beñsoak...
;Ez ote-ditu noizpait egunak zabalduko, ba,
guganontz bere besoak?

Baña ilunpean, ;ai! bizitzeko jañi ba-gaitu
Jaun onak Euskaleñian,
entzun zuk beintzat, añen, Aizkoï, t'euki goñdeta
zure biotzan eñdian.

Euki oñ beste gure asaben kondaira zañak
dauzkatzun kutxa oñetan;
t'orduan ziñez nere bertsoak biziko dira
zu bizi zeran urtetan.

;Zurekin bizi...! ;Oleñkarian biotzarentzat
au bai atsegin ezta!
;Ai al ba'neza nere izen ilkoñ onekin batu
zure izen altsu-bizia!

* Jauregi'tar L., *Euskal-Esnalea* 282 (1927) 125-128; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 57-60.¹ *Biozkadaken* "auts-bean".

Bañan ¡ai! ezin... Laister bertso ta beñtsolaria
bota dituzte il obira...
t'orđuan emen izan naizenik, ¿zenbat euskaldun,
zenbat oroituko dira...?

Bañan, Aizkoñi, ez du ajolik: izan zu beti
Euskalerien zaindari,
t'euskal-odola nere zañetan bizi-arñean
ekingo dizut kantari.

Zu zera eta gure ipui zañen goñdelaria
euskal-oituren txokoa,
eta negařez igesi doan gure Amaren
maitasun-estalpetxoa.

Zu zera atsegin poz darioten Maitagañien
pakezko gorde-lekua;
zure basotik atera oi-da txistu t'oruka
gure Basojaun altsua.

¿Noñk daki, zuk lez, noiz eta nundik etoñi ziran
onuntz Aitor'en semeak?
¿Noñk, zuk bezela, Euskaleriko asele ta ipui
Iñoiz idatzi gabeak?

Orñxe zeunden zu año ta trinko, Eñomatañak
emen sañtu nai zutela,
orain zauden lez, eluñ-koroiaz koroaturik
Euskal-Eñege bezela.

Zure eñaietan daude idatzirik Lekobide ta
Lelo'ren egintza-otsak:
zuk dakizkitzu Jaun Zuria'ren guda-mutiñen
birau, irintzi ta aiotsak.

Zure begiak negař samiñez ikusi zuten
Zara'ren doñorkeria;
t'Oñaz-Ganboen anai-arñeko goñoto beltza
t'odol-ixurtze² goñia...

Zure buruan daude dirdiska gure Eñiaren
egun alai ta mingotzak:
argatik ainbat maite zaituzte Ama maitedun
olerkarien biotzak.

² Biozkadaken "isurtze".

Arñgatik zure asnas bizkoñaz pizten da emen
auts-pean dagon kemena,
ta argitu oi-da biotz ilunan, orñtzañgi baten
euskaldun-itxaropena.

Euskaleriko orñtze ilunean sortu bai-zaigu
izañtxo baten dirdira...
izañ-kiñuok ¿egun-uñatze alaitsu baten
igarkizunak al-dira?

Zeruan dagon zure buruak dakike, ziñez,
euskaldun-etorkizuna...
Esan, Aizkoñi: ¿euskerarentzat Euskalerian
noiz piztuko da eguna?

¡Egun arñgia...! Mendi-ostean uñun ¡ai! uñun
dakusdan amets xamuña...
Arñtu, bai, arñtu jaiño baño len, biotz-biotzez
gauñ damatzudan aguña.

¡Ai! baña noizpait beren semeak ilko balute
Euskera beren etxean,
lotsaren lotsaz sañtu, Aizkoñi, sañtu betiko
zure burua luñpean...
¡Euskal-mendiak...! Ez, ez egon zutik Ama il duten
eñi gaiztoen auñean...

AMONATXOA ESKEAN*

I

Erriko elizaren ate-ondoan
 amonatxo bat dago egun osoan.
 Buruan zapi beltza ta ille zuria,
 begitan... itzalita bizitzargia.
 Esku dardaritsuaz beti eskean,
 baña otoitza beti bere ezpañean,
 otoitza ta iri-parra bere ezpañetan,
 Jainko-maitetasuna biotz-zañetan.

Berak esanda dakit bere bizia:
 bizitza illuna, odei beltzez josia.
 Zazpi semedun ama errukaltsua...
 berrogei urte eskean, ta ogei itsua.
 Alaz ere otoitza bere ezpañetan.
 Jainko-maitetasuna biotz-zañetan.
 Senarra gaiztoa ta seme moskorrak¹:
 biotzean negarra, etxean zorrak.

Geroztik ezin aztu amonatxoa
 geroztik ezin uka limosnatxoa,
 geroztik dakit zenbat gure Jainkoak,
 maite ditun eskale onen gogoak,
 geroztik dakit nola beazun-pean
 ezitia arkitu neiken nai dedanean.

* Jautarkol, *Euzkadi* 4649 (1927) 3; Jauregi Etxenagusia'tar L., *Zeruko Argia* 1-2 (1954) 5.

** Jauregi'tar Luis, *Renteria* 11 (1928) 48; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 13-14.

¹ *Zeruko Argian* "I" dun grafia.

² *Zeruko Argian* "mozkorrak".

AMONATXOA ESKEAN**

otoiz-luzean...

*Senarra gaiztoa ta seme moskorrak:
 biotzean negarra, etxean zorrak.
 Alaz ere otoitza bere ezpañetan.
 Jainko-maitetasuna biotz-zañetan.*

II

Erritik urrun ixil-ixillik
 Kanposantua...
 antxe aztuta, txoko batean
 amona itsua...
 Zurezko gurutz txiki bat baño
 gaixoak ez du:
 ara negarrez oraindik iñor
 ez zaio² eldu.
 Ai...! Eguzkia mendi-tartetik
 sartu danean
 ikusi oi-da noizpait³ auzpezka
 obi-gañean
 gizonezko bat, Zerurontz beira
 otoitz-luzean...

auzpez jarrita, Zerurontz beira,

² *Zeruko Argian* "etzaio".

³ *Zeruko Argian* "noizbait".

AUÏTXO BATEK MARIA'RI*

¿Lore zalea zera
ene Amatxo...?
Oña, bada, zureztat
iru sortatxo:
Iru sortatxo txuri,
goñi ta ori...
Zureztat bildu ditut...
Amatxo, tori

Zureztat oiek biltzen
zelaitik-zelai
ibili naiz gaur, Ama
pozez eta alai:
t'ederenak artuta
nator Zugana...
Beroikin artu nere
muiñ ta lazтана.

Loretxu oiek ortxen
zuri begira
beti egon, ta pozez
ortxe ilko dira...
Loretxo bat nai nuke
izan nik ere,
ez eiteko Zugandik
alde beñere.

Gaizto asko omen dira
bazter oietan...
Beti maiteko zaitut
nik, bai, benetan;
Zurekin bizi beti
beti Zu maite...
Nere Ama kutuna
beti izan zaite.
Aitu, ba, Zutat gaurtik
nere biotza,
Zutat nere bizi-tza
et'eriotza.

AUÏTXO BATEK MARIA'RI**

*Gaurtik, Ama, zureztat
nere bizi-tza,
Zutat nere biotza
et'eriotza*

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 101 (1927) 68; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 17 (1955) 21.
Zeruko Argian (1955) "tr" dun eta "ll" dun idazkera agertzen da.

** Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 42-43.

BAI ERRI GAXOA...!*

Castilla-aldetik Euskal-Errira
natorren guzian,
naigabe illun bat sortzen zait beti
biotzan erdian.

Ai! gure Euskera t'oitura zarrak
igesi dijoaz...

Bildur naiz laister ez ote geran
aztuko Jainkoaz.

Geok, Euskera t'oitura zarrok
uxatzen ai-gera
txori lapurrak garitik uxa
oi-diran antzera.

Baña ¿zergatik!? Zergatik ote,
ene Jaungoikoa?

¿Noletan ote-nai degu galdu
gure izen zintzoa?

Euskal-Erria Euskerik gabe...

bai Erri gaxoa...!

Masti orritsu ederra baña...

matsik gabekoa.

Loretegia il eta agortu

dan iturritxoa...

* Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 4617 (1927) 1; Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 107 (1927) 167; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 17; Jauregi'tar Koldobika, *Laurak Bat* 21 (1930) 5.

Zeruko Argian eta *Biozkadaren* "f" dun eta "j" dun idazkera agertzen da.

¹ *Laurak Baren* "zergaitik".

¡BERTSO GAXOAK...!*

Udazkeneko aize zakarrak Bizi nerekin nere kolkoan
 zugaitz-ostoa, ori ta igarrak, amets alaien kabi beroan,
 lurreratzen ditunean, elurra ari dan artean...
 naigabe baten arantz zorrotza, Nork esan, zuek egunen baten,
 beazunezko tanto mingotza piztuko berriz ote ez zeraten
 nabaitzen det biotzean. biotz au iltzen danean?

¿or eta emen, ai! banatuak Nere ametsen argi-dirdira
 dabiltzan nere bertso gaxoak, diran bertsoak, ilko ba'lira
 laister eroriko ote-dira, danok batean nerekin,
 osto ori ta igar oien antzera ene biotza, ez du ajola...
 eriotzaren zulo-leizera bertso berriei bizitz-odola
 ai! ta illobiko illundira? ematen, orain lez, ekin.

Bidezkarriak lore zimela Zure barrengo poz-naigabeak,
 artu ta gorde oi-dun bezela burrukak, naiak, amets ta usteak
 oroigarritzat bidean, berriz irauli bertsoan...
 ¿ez ote ditu nere bertsoak, ¡Gure ategin ta poz bizia,
 biotz-bideko lore gaxoak, gure barrendik seme berria
 iñork gordetzen etxean? jaio ta arturik besotan!

¡Bertso gaxoak! egun-sentian Orixe dira nere bertsoak:
 jaio ta laister arrats-aldian nere barrengo seme gaxoak,
 ilko diran loretoak...! nere biotza zatiak;
 ¡Bertso gaxoak! ustekabean Zeru-bidean doan biotzak
 kabirik gabe t'elur gañean diozkan otoitz, burruka-aiotsak,
 jaio diraden usoak...! negar, asmo, t'eskariak.

Argi-unetan nere gogoak, Artu ta gorde, adiskidea,
 sortu zinduzten ne semetxoak, bidezkarriak bide-lorea
 ¡atozte danak nigana!: gorde oi duan bezela:
 irten ziñazten etxe onetan agian zure biotz-barruan
 ba dago oraindik, bazter oietan mardulduko da, gaur zure eskuan
 ez dagon muiñ ta laztana. daukazun sorta zimela.

* Jauregi'tar L., *Euzkadi* 4615 (1927) 5; Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 104 (1927) 117; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 1-3; Jauregi'tar Luis, *Argiaren Egutegiak* 13 (1934) 42-43; *Oarso* 9 (1971) 10.
 Oarso bi ahapaldi hauek besterik ez dakartza.
 Biozkadaken, *Zeruko Argian* eta *Argiaren Egutegiaren* "f" dun eta "t" dun grafia darabilte.

JAUNARTZE AURREAN*

Negar ta negar daukat
 biotza barruan:
 Zerurontz igo nai ta
 egan ezin juan.

¿Bañan, ene biotza,
 negarrez noletan?
 ¿Ez al-dago or, ba, Jesus
 maitasun-garretan?

Or dago Jainkoaren
 maitasun-su-garra:
 ortxe Jaun Altxuaren
 esku ta indarra.

Zoaz, ta jan Indarra
 Maitetasuna jan:
 gero ekin Zerurontz
 ekin pozez egan.

Atoz, ba, Jesus, nerekin batu,
 nigandik, Jesus gozoa:
 nere biotzan, barru-barruan,
 egizu Zutzat
 betiko kabi beroa...
 Orduan ziñez indartuko zait
 indarrrik gabe
 negarrez dagon gogoa,
 orduan ziñez baretuko da
 orruka dagon
 nere barrengo itxasoa.

* Jautarkol, *Euzkadi* 4673 (1927) 1; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 103.

Biozkadaken JAUNARTU AURREAN izenburupean lehen lau ahapaldiak besterik ez datoz. Argitalpen honetan "f" dun eta "t" dun grafia darabilte.

LORETI*

Lokatz zikiñez josirik zegon bidetik
zikindu gabe nai zun igaro Loreti*k.
Lokatz-gañean an-or ariak ba dira,
“noan poliki lokatz ta ariai begira”
esan, ta arturik bere eskuetan makila,
abiatu zan zoriontasunan bila.

Amets gezuā... ¡Zeru bidea, ai! utzita
noruntz dijoa zerutar uso polita...!
Egak izan-ta ¿zergatik egan ez egin?
Lokatz bide au ¿noletan zaio atsegin?

Ator gugana...! —entzuten nun bide-ertzetik...
Ator...! zioten— bideko lokatz-tartetik.

Erantzun gabe, alde egin nuan mendira,
ta antxe egon nintzan pozez Zerurontz begira.
An ere laister jakin genduan beña:
“Etxean dago Loreti loiez josia”.

Ara menditik orduan nere biotzak
zuzendu zizkan itz ezti baña zoñotzak:

Agur, ene ilobatxo
Loreti maite;
ziñez zorionsua
beti izan zaite.

Zorionik —dionu—
emen ez dago:
ez unan, ai! esaten
ori lenago.

Zorionik ez zegon
lokatz-bidean.
¿Ba-dakin nun zegonan?
An, gurutzean.

LORETI*

noan poliki lokatz ta ariai begira
abiatu zan zoriondasunan bila.

Jaunak agertu zigun
bide oñetan,
ez munduak uste dun
atsegiñetan.

Ire burua ukatu
ta gurutza artu,
Jesus'ekin piztu, ta
Zeruan sartu.

¿Zoriontsu izan nai den...?
Ora bidea:
beste biderik ez den,
ene maitea.

Egizko zoriona
an, Goiko ura...
Ene ilobatxu ona,
ene Loreti,
gaurtik Zerura
begira beti.

Jaunak azaldu zigun

begira beti
gaurtik Zerura.

* Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 108 (1927) 180; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 86-87.

** Jauregi'tar L., *Argiaren Egutegiak* 7 (1928) 55.

NERE AURTIXOA*

I

Seaskatxo polit bat
ba-det nere etxean,
ta Aurtxo Jesus eder bat
seaska-gañean.

Beti Zerurontz beira
ditu begitxoak,
goruntz jasota beti
bere besotxoak.

Pozezko iripartxo bat
beti ezpaiñetan;
bere ointxo zuriak
beti jolasetan.

Oñetan muiñ-eginda
jun oi-naiz etxetik:
muiñ berogoik ez da irten
nere biotzetik.

Etxera bezin laister,
seaskara noa:
ta Aurtxoantzat lenengo
nere muiñ beroa.

Betzat oerakoan
muiñ azkenekoa
jeiki orduko, beriz
betzat lenengoa...

II

Atzo negařez arkitu nuan
bere seaskan Aurtxo...
Negar-zotinka¹ egon zitzaidan
egun osoan gaxoa.

¿Zer dezu, Jesus, nion negařez,
nork egin dizu pupua..?
Ez egin negar... ¡Esan, ai! ařen,
zerk zaukan² naigabetua...

Begi maitetsuz begira niñun,
t'erantzun zidan negařez:
"Nere Mexico kendu didate
nere albotik indařez..."

Beriz nerekin ikusi-arte,
noletan egon ni pařez...
Otoitz, Kristauak, otoitz ta negar...
Otoitz, danok biotz-gařez..."

* Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 97 (1927) 2; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 63-64.

¹ *Biozkadaken* "zotinga".

² *Biozkadaken* "zauzka".

OSTIRAL GURENA*

Egan dijoaz txio ta txio

Enarak mendi aldera

Ekaitz aurretik etorri oi dan

Odei beltzaren antzera.

Jaunak deadar aundi bat dagi

Ta makurtu du burua

Deadar dagi luřak ta lotsez

Itzali da euzki sua.

Ixil ixilik menditik bera

Enarak egan dijoaz

Arantza bana deramatela

Bakoitzak bere mokoaz.

* Jauregi'tar K., *Zeruko Argia* 100 (1927) 56-57.

SEMEAREN NAYA*

(Nire amari bere urtebetetze egunean)

Ama, odei-tartetik
 ilargi itunak
 bialtzen ditu bere
 izpi legunak,
 ta itxaso barearen
 gain urdinean
 dirdits-egiten dute
 leyar^a gañean
 eguzkiak bezela.
 ¡Oi! itxasoan
 gogor ari diranen
 biotz gogoan
 ¡a ze maitasun-poza!
 ¡a ze kemena!
 ilargi-izkitxu aubek
 sartzen dutena!
 Gau ilunean gogor
 ludi-itxasoan
 ari zeraden oñen
 biotz-gogoan,
 sortuko al-ditu gaur
 poz eta indaræk
 neuritz^b aubetan dirdits
 dagin maitasun garrak.

* Jauregi'tar Koldobika, *Zeruko Argia* 100 (1927) 55.^a leyar: kristal.^b neuritz: bertso.**A LA MEMORIA DEL HISTORIADOR RENTERIANO
 DON JUAN IGNACIO DE GAMÓN, PBRO.***

"Gamón es digno de que no le olviden los renterianos..."

Carmelo de Echegaray.

Eras guerrero sin fusil ni espada
 que en noble lucha y en viril porfía,
 no tuviste otra gloria más preciada,
 que en defensa vivir de Rentería.

Tu pluma siempre montaraz y bella,
 ardió en fervores del amor terruño;
 tuvo el lucir de rutilante estrella
 y del atleta viril el recio puño.

A veces, con fervores de poeta,
 brota en tu prosa soñadora idea:
 "Entre todos los pueblos Orereta,
 es la reina gentil del Urumea".

¿Qué importa que, cegado del cariño,
 de la verdad histórica se aparte,
 si entonces es, cuando su amor de niño,
 las galas muestra que le presta el arte?

¿Qué importa, si el amor su pluma guía,
 si en generoso ardor su pecho late,
 si es su patria, su patria Rentería
 la que le impulsa y mueve en el combate?

Tú, nos muestras los hijos inmortales,
 de este viejo solar sublime gloria,
 que supieron crear nuestros anales
 en las gestas gloriosas de la Historia.

Sacerdote ejemplar, sagaz cronista,
 tu nombre el tiempo relegó al olvido...
 Mas, no: que mientras Rentería exista,
 tu nombre vivirá con ella unido.

Con ella vivirá, como la yedra
 vive abrazada con roqueño muro:
 y tu nombre será grato conjuro
 que escrito vivirá en labrada piedra,
 de tu recuerdo fiel puerto seguro.

* Luis de Jauregui, *Rentería* 11 (1928) 54.

AINGERUTXOAK*

— Esan, amatxo: ¿zer da aingerua?

¿Nun daude aingerutxoak?...

galdetzen dio alargunari

besotan daukan aurtxoak.

Malko gozoaz estali dira

amaren begi urdiñak,

bere biotzan esnatu dira

oroipen maite-samiñak.

Besarkatzen du bere aurtxo

estu-estu biotzean,

t'erantzun dio musu bero bat

luzaro eman-ostean.

—¿Aingerutxo zer dan diozu...?

Enetxu, ori galdera...!

Aingerutxo, ene kutuna,

aingerutxo... zu zera.

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 118 (1928) 340; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 92; Jauregi'tar Luis, *Realidad* 35 (1932) 15; Jauregi'tar Koldobika, *Oarso* 10 (1972) 51.

AMATXO-BATI*

Amatxo batek ikusten ba-du bere alaba

kale-kalean mutiñen batei elduta,

mañubiaren goñiz musua goñitzen zaio

ber'alabaren lizunkeriz añituta.

Bañan musika jotzen danean ikusten ba-du

bere alaba mutil batekin lotuta,

amari bere biotz xamuña beratzen zaio

atsegiñezko pozaren pozaz urtuta.

Irakurlea, edo amatxok bururik ez du,

edo ni nago añunt benetan eroa:

bizkar-gañean burua dezun irakurlea,

askatu zazu zeoñek korapiñoa.

* Jauregi, *Zeruko Argia* 119 (1928) 356; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 91.

ATOZ JESUS ONA*

Atoz Jesus ona

Zure egañiz gera;

gure zoriona

Zu bakañik zera.

Maitasunik gabe

Urteak mingotzak;

Bere jaun ta jabe

Nai zaitu biotzak.

Maitasun ezia

Zure Maitasuna,

bizitza beñia

ematen diguna.

Erleak loretik

egin dute ezia;

Zure Biotzetik

nik bizitz beñia.

Jauna, atozkit bela,

Zure Ura ekañiz:

maitasun-egañiz

ilko naiz bestela.

* Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 114 (1928) 280-281. Kanta da.

EUTSI ESIARI*

Nere adiskide Etxegarai' tar Bonifazio jaunari

Nere añizko mendi-txabola bareneraño

eldu zan zure irintzia:

pakezko irintzi, dei maitetsua, euskaldun-biotz
on baten oyu bizia.

Ai nik al ba-nu zure dei ori nere asnasez

bertso auetan indartu,

t'odol biurtu, t'euskaldun danon biotz-bañuan
gaña dariola sartu...!

Euskal-semeak...! Euskerik gabe nola liteke,
noletan Euskal-Eria?

¿Zertako degu gure basoko zugaitz-gañean
txoririk ez dun kabia?

¿Ez al-da izkuntza geren aitonak joan baño len

eman ziguten musua,

ta aiekin beti alkartu eta lotutzen gaitun

maitasun-laztan estua?

Geren aitonak ta gure Eria maite ditugu

¿nolaz, ba, maite ez euskera...?

Gerok, gure eskuz ustekabeen gure iñobia

ai! egiten ari gera.

Euskera iñ-eta, gure izatea ta izen garbia

eroiko dira-iñundira,

añizko esi-gañeko lorak, añek lur jota,

lorak be, lur jota dira.

Euskaldun danok, alkar artuta, eutsi daiogun
esiari eroi baño len...

Euskaltzaleak...! Jun atez-ate euskaldun danoi

beren biotzak eskatzen;

ta egin dezagun danon biotzez biotz aundi bat,

euskal-biotz bat lenbailen...

Ta alare esia eroitzen ba-da, bere azpian

danok pozez il gaitezen.

* Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 109 (1928) 196; Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 53-54.

GUSTAVO ADOLFO BECQUER'I*

(Bere "RIMAS" liburua irakuri-ondoren)

Eguzkiraño ega-eiteko ega sendoaz
etori ziñan luñera,
mendi-buruko arkaitz-gañean kabia daukan
añanoaren antzera.

Bañan, ai! goian egan-ein baño, naigo izan zendun
lozez-lore ementxe beran,
loretagian loretik-lore an-or dabiñen
mitxirika baten eran.

Argatik zure bertsoak, Becquer, mitxiirikaren
egoen antzeko dira:
polit-ariñak, bañan, ai! autsa, mitxiirikaren
ego-antsaren dirdira.

Argatik zure bertsoak biotza usteltzen!
Campoamor'en antzera:
zure bertsoak, loreak dira, ta arenak beriz,
lore-tarteko sugera.

Zoritxañaren beazun-miña edan zendun
maitasunaren besotan:
ta zure miña, zure negařak, biotz osoa
irauli zendun bertsotan.

Ta zure egoak, ego ariñak, ere zenitun
maitasunaren gařetan,
t'egan-eiteko kemenik ez-ta, etorri² ziñan
bideko lokatz-tartetan.

Antxen negařez egin zenitun oraindik ere
negařez dauden bertsoak:
argatik ainbat atsegin zaizkit, ta irakurtzean
ixurtzen ditut malakoak.

Bide zuzena galduta askotan ibili ziñan
zorionaren usmoan,
bañan ez zendun zorionaren asnas gozorik
nabaitu zure ondoan...
Goiko Jaun onak orain eukiko al-zaitu, Becquer,
zorionaren kolkoan...!

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 117 (1928) 330; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 74-75.¹ *Biozkadaken* "Bañan ez dute zure bertsoak biotza usteltzen".² *Biozkadaken* "erori".

IZIARTXO'RI*

Uso polita, euskal-mendiko
usotxo zuri-garbia...
¿Noletan ai! or, mirotz-artean
jari zenduan kabia?

Negařez zaude...! ¿Ez or arkitu
uste zendun zorionik?
Mirotzak ez du usoarentzat
maitasun-laztan gozorik.

Autsi lenbaitlen kezkaz t'õñazez
lotzen zaituzten kateak;
Utzi betiko zorigaiztoan
artu zenitun bideak.

Atoz, mirotzak lotan daudela,
atoz, laisterka¹ mendira,
oraindik ere beroa dagon
zure baseri-kabira.

Ituritxoan antxe dauzkatzu
zure zai, beste usoak,
Zuzen zerurontz egan-eiteko
zabal-zabalik egoak.

* Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 119 (1928) 361; Jauregi'tar Luis, *La Baskonia* 1301 (1929) 74; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 90.*La Baskonian* "n" dun idazkera darabilte.¹ *Biozkadaken* eta *La Baskonian* "laisterka".

UDABEĪIA*

Negu-lozoġotik
esnatu da luġa:
mendi-egaletan
urtu da eluġa.

Jolasean dabiltz
bildotsak soroan:
asi da kukua
kantari basoan.

Otza ba-dijoa
etxetik igesi:
piztu dira udare,
sagar ta gerezi.

Beste luġaldetik
eldu da txoria:
lorez eta abestiz
josi da mendia.

Lanean soroan
kantari gazteak:
eguzkitan alai
amona-agureak.

Baseġi auġean
jolas dagi auġak
pozez zaunga dagi
alboan zakuġak.

Bizitzak musuka
piztu du lur iġa:
Maitaleak, poztu...!
eldu da Oġiġa.

Udabeġia, udabeġia,
ama emakoi kutuna!
Isuri guban zure bularen
esne sendakor leguna.

Mendi-gaġetik ikusi zaitut
etortzen gure artera,
uġai gozozko janzki zuriaz,
eġegin baten antzera.

Zelaitik-zelai ibiġi zera
loraz jositzen zelaia,
ta ibar ta mendi, nun-nai zabaltzen
zure janzkien usaia.

Zure etoġera nabaitu dute
seaskatxotan aurtxoak,
ta sutondoan otzez dardaraz
zeuden agure ta atsoak.

Zure etoġeraz, kabia eiteko
txoriak alkartu dira:
agurka zuri, txaloka daude
gazteak zuri begiġa¹.

Agur eta agur, udabeġia
ongi etoġi gugana:
ez, aġen, guri ukatu gaurtik
zure musu ta laztana.

Isuri guban zure eġaietan
dakartzun emaitz biziġa;
izan zu gure sukaldetako
zorioneko euzkia.

Izan aurtxoen zoragaġia,
agureentzat, bizitza,
gazteentzako, maitasunezko
iġlariaren dirditsa.

Zure besarkaz berotu, aġen,
gure Eriaren biotza:
urtu, oraindik bular gaġean
ai! daukan neguko izotza.

* Jauregi'tar L., *Zeruko Argia* 114 (1928) 279; Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 93-94; *Anaitasuna* 72 (1950) 2. *Anaitasun* lehen zazpi ahapaldiak besterik ez daude. Gainera "rr" dun eta "ll" dun idazkera darabilte.

¹ *Biozkadaken* eta *Anaitasun* ez da ahapaldi hau azaltzen.

ALAI TA PAKEAN*

Otsabio'ren egalean,
Eliz-Nagusi bazteġean,
muġotxo baten gain-gaġean,
baseġi aundi-zar batean...
bizi naiz alai ta pakean.

Zakur zintzo bat ate-ertzean,
zelai poġitak ner'auġean,
baso itzaltsuak bazteġean
t'oitura zaġren babesean
bizi naiz alai ta pakean.

Euskera beti ezaġean,
osasun ona gorputzean,
zer jana beti sukaldean
ta maitasuna biotzean
bizi naiz alai ta pakean.

Bizi bitez or kale-etxean
beren kutixi txar naiean
iskalbġia ta ots-artean
jauntxo-nausien bilduġean:

nai emen, muġo-gain-gaġean,
Eliz-Nagusi bazteġean,
jaun ta artzai nere artaldean...
bizi naiz alai ta pakean.

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 106; Jauregi'tar Luis, *Aranazua* 557 (1977) 361A. *Aranazua* "rr" dun eta "ll" dun idazkera darabilte.

ASIS'TAR PRANTZISKO AITARI*

Abesti batentzako itzak

¡Aintza ta gorapena
Prantzisko Aitari!
¡Aintza Kristo'n irudi
bizi-gartsuari,
gurutzean Kristo'kin
gurutzetuari...!

Zuregana gatoz gaur
Aita biotz-bera,
otzez dardaraz dauden
usoen antzera,
(elufetan bai dago
mundu-zabalera),
zure biotz-gartsuan
kabia jartzera.

Il-zorian ai! otzez
zegoan mundua:
bañan eman zenion
laztan bat estua,
eta piztu zenion
biotzean sua...
Piztu ai! gugan ere
maitasun gartsua!

Kristo'kin gurutzean
egiz ziñan batu:
argatik illezkoña
Prantzisko zera zu,
ta zure izen-dirdira
ez liteke itzaldu...
¡Aita! euskal-erian
bizi ta garaitu.

BIZITZ-MENDITAÑA*

Ebro-ibaiaren
ertzean nago
nere mastian etzanda
ezker-aldean
Haro ospetsua
eskuira, berriz, Miranda.

Artaldetxo bat
an-or etzanda
ausnartzen nere ondoan:
ibaitik aruntz
su-gurdi beltza
bide zurian alboan

Ebrotik onuntz
eri txiki bat
muñotxo baten gañean,
bere etxe zañak
alkaeren gainka,
eleizaren bazteñean.

Antxe bizi naiz
paketsu ta alai
baseñaren antzera,
nere etxetikan
eleizatxora,
mendi-goitik ibañera.

Masti gazte bat,
ibai ertzean
ba-det neonek jañia,
mendian beste
zar bat ere bai
mats beltzez dana josia.

Etxe-alboan
baratzatxo bat,
baratzatxoan txabola,
uda-añatsalde
beroenetan
maite oi-dedan kaiola.

Arzulo baten
upel bat ardo
otza, eluñ lakoan,
ta mandioan
garagar, gari,
lur-sagar eta lastoa.

Artzaia naiz ni
ta artzaintzan nabil
orain hiru bat urtean;
lareun bat ardi,
bildots, arkume
ba-ditut nere mendean.

Ardi galduak
bilatzen ekin,
sendatu gaxo diranak,
gaiztoenak jo,
goiz-goizetikan
eraman lañera danak;

Sakote zaña
zintzilik artu,
eskuan beriz makiña,
ta ibartik zear,
mendian gora
ekin otsoaren biña;

Añatsaldean
exeri lasai
mendiko zelai epelan,
edo ardiei
begira, egin
nere mastian zenbait lan;

Bestetan, beriz,
poz-naigabeak
bertsotan bañendik bota,
ala bat-batez
ardi motelak
esnatu txistua jota...

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 104-105.* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 23-27.

Au bai bizitza
atseginkora!...
Bakartasun paketsua!...
Bakartasuna,
zu zera Goiko
zorionaren kutsua!

Nolaz geienak
naiago dute
zu baño guda naspiña?
Zugandik urun
nola dabilta,
gaxook zorion-bila?

Emendik jun zan,
or bean dago
gizon gaizkile-anduñā;
pake izateko
guk aski degu
Jaunai diogun belduña.

Txiro baña alai,
naikerik gabe,
beti Zerura begira...
Atoz, nerekin,
zorion-zale,
atoz, gaur nekin mendira.

Emen poz-ertziz
beteko zaitzu
miñez daukazun biotza;
mendi onetan
urtuko zaitzu
bañuan dezun izotza.

Emen beñiro
maiteko dezu
ia aztu zaitzun Jainkoa
t'entzungo dezu
poza darion
Aita Onaren mintzoa.

Jaun Onak bekit
urte askotan
nere bizitz menditara;
ez da neretzat
or beko griñen
naikeri-itsaso zakaña.

EPERRAK KANTATZEN DU*

“Eperrak kantatzen du
Goizean intzetan:
Etzaitezela fio
Gizonen itzetan”; eta¹
“¿Lore zalea zera,
ene amatxo?
Orra, bada, zuretzat
iru sortatxo txuri,
gorria ta ori...
Zuretzat bildu ditut...
Amatxo, tori”.

(“Biozkadak” liburutik ateratako bertsoak).

* Jauregi 'tar Luis, *Euzkadi* 5292 (1929) 5.

¹ Hemendik aurrera “Aurtxo batek Maria'ni” lanaren zatia da.

EĒRENDERI, NERE JAIOTĒRIARI*

EĒrenteria, nere aurtzaro zorioneko seaska kutun-beroa: nere baĒrendik biotza igeska gaur zuregana pozez urturik dijoa.	Ekin lanean. BaĒan otoiĒtez lana igurtzita, bidali zuzen Zerura... Izan betiro Eliz-Amaren zaitzale zintzo ³ , fededun euskaldun ura.
Pozez urturik bertsoz jantzita egan dijoa zuri agur-egitera: posaren pozaz ¹ bidezkarria jaiotĒrira itzuli oi-dan antzera.	AĒren, ez aztu, maitasun-musu baten antzera, irafita bekokian, guraso zaĒrak utzi zizuten beren izkuntzaz beren eriotz-aldian.
Aspaldi ontan, osto igar baten antzera, Jaunak Zugandik urun narama: baĒa ni zutaz aztu baĒo len, bere semeaz aztuko litzake ama.	Izkuntza ori zurea da-ta, zure koroiko pitxi bikaĒa dezu-ta: zure obenez bera iltzen ba-da, betiko dezu zure izen ona galduta.
AurĒa nintzala, zuri begira, oartu nitun bertsoetako gogoak: argatik beti, lotan zaudela, kanta oi ditut zu zaintzen, nere bertsoak.	Ara, an, aĒrizko esi-gaĒean ego-zabalik zur' aingeru zaintzaĒa, andik ezpata dirdiratsuz adi-erazten jo bear dezun bidea.
Umetandikan biotz-erdian irafita antxe daramat zure irudia, nekin jaio ta nekin ilko dan oroigai kutun, irudi ilĒzkor-garbia.	Eri maitea...! Piztu, ba, piztu zure baĒuan itxaropenaren sua... ĒEz ote-dezu, antxen ⁴ uruti ekusten zure izar onaren kiĒua...?
Atoz, begira nigan dirdiraz dagoan zure irudi eder-sorgiĒa ² , ama langĒle beti gaztea, pitxi polita, Oiarso'ko eregiĒa.	AurĒera beti...! Matxin, Isasti, Zabalbide ta Ugarte'n ama lerdena... Oraindik ez da zugan agortu Tripoli eta Oran'go zure kemena:
Lanean ekin. Zure eraĒetan bizmen beriak jaĒriko dizkitzu lanak, ta zure sabel zaĒetik, beriz jaioko dira seme ospetsu laztanak.	oraindik ba-du seme argiak egin-azteko zure sabelak almena... Izan, ba, laister Gipuzkoa'ko koroĒ-gaĒeko pitxi dirdiratsuen.

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 46-48; Jauregi'tar Luis, *Renteria* 12 (1929) 19.
Renterian EĒRENDERI, NERE JAIOTĒRIARI da titulua.

¹ *Renterian* "pozez".

² *Renterian* "eder-zorgina".

³ *Renterian* "zintzo".

⁴ *Renterian* "antxe".

GAZTE ASKORENTZAT*

Askok, ai! askok esan oi-dute
"Gazte geran bitartean
egan-dagigun, mitxiĒrikak lez
atsegin-lore-tartean,
ta zartzaroan, joango gera
negareĒ Jaunarengana,
ta azken-orduan emango digu
bere pakezko laztana".

BaĒan, ai! asko deabruaren
musua artuta il-oi dira
ta berarekin besarkatuta
betiko sartu iĒundira.

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 102.

LA PROCESIÓN DE SANTA MARÍA MAGDALENA*

Ya la sacan de su ermita; ya los fornidos gizones
 en sus hombros triunfalmente la pasean entre sonos
 musicales majestuosos de júbilo y de oración.
 Es la santa penitente con sus ojos empañados
 por el llanto que da vida que perdonó sus pecados,
 es la imagen dulce y bella de la santa contrición.

La multitud con sus ojos a su paso en ella fijos
 la saluda con plegarias, y ella entre tanto a sus hijos
 va mostrándoles la enseña redentora de la cruz,
 esa cruz que se levanta con sus brazos siempre abiertos
 como signo de consuelo del dolor en los desiertos,
 o en los mares de la vida como reguero de luz.

Tú, que bebiste del cáliz de mundanales orgías,
 dile al pueblo que te quiere si en tus locas alegrías
 encontraste miel de dichas o agujijones de dolor.
 Dile; santa penitente, si en la cruz en que amorosa
 fijas tus ojos llorosos, tan solo feliz reposa
 la paloma mensajera del placer y del amor...

Ya cesaron los clarines, ya está en su trono de flores
 y en las naves majestuosas ya resuenan sus loores
 entre el órgano, los cantos, el incienso y la oración.
 Pueblo mío, no la olvides entre el bullicio profano;
 al diviertete recuerda que tu Patrona en su mano
 tiene la cruz en que cifra su valiosa protección.

LEGORTEA*

Ba-datoz baseñitarak
 gizon sendo ta andre zañak
 goiz-goizean elizara.
 Bete da eliz txikia.
 Ezkilaren ots bizia
 zabaldu da emen ta ara.

Aldare nausi-auñean
 asi da oititz luzean
 apaiz jauna belauñiko.
 Erria oitizka dago:
 "Ez gera, Jauna, geiago
 Zure kaltez ibiñiko".

Asi da prozezioa...
 Gurutzea aurretik doa
 ta San Ixidro ondoretik:
 banaka mutil ta aitonak,
 erdian eleiz-gizonak,
 andreak beriz atzetik.

Buruak makur gizonak,
 erdi-negarez amonak,
 oitizka apaiza kantari:
 "Entzun gaur gure eskaria...
 Añen, bear dun euria
 bidali Zure erriari..."

Ba-doa bide zañean...¹
 Sartu ziran ermitean
 eta ixilik Meza asi zan...
 Beriz, eskari beroaz
 bide zañetik ba-doa
 ta sartu dira eleizan.

LEGORTEA**

andre ta neskak atzetik.

* Luis de Jauregui, *Rentería* 12 (1929) 9; Luis de Jauregui, *Oarso* 9 (1971) 39.

¹ Jauregi tar Luis, *Zeruko Argia* 130 (1929) 164; Jautarkol, *Rentería* 13 (1930) 21; Jautarkol, *Bertsolariya* 44 (1932) 277. *Renterían* eta *Bertsolariyan* "rr" dun grafia agertzen da.

** Jauregi tar Luis, *Eusko Olerkiak* 4 (1933) 147-149; Jauregi tar Koldobika, *Yakintza* 7 (1934) 18. *Eusko Olerkiak* en hasierako "j" k "y" idazten ditu: "yauna".

¹ Ahapaldi hau *Yakintzak* besterik ez dakar.

Ba-doaz baseñitañak
gizon sendo ta andre zañak
baseñieta lanera:
pozik ta alai dijuaz
itxaropenaren suaz
ume zintzoen antzera.

*elizatik baseñira:
ilun eta alai dijuaz
lur legoñari begira.*

Ta utsik ta ixilik eleiza²
geldi zanean, apeiña
aldare nausi-auñean.
auzpez luñ ean jañiaz,
maitetasun-gar biziaz
gelditu zan otoitzean:

"Jauna, uñutitik etoñi dira
batean otoitz-eitera,
ta ayen otoitza entzute-añen
erdian Zu egon zera.
Ikusi zaitut antxen erdian

Ikusi zaitut emen gurekin

Artzai onaren antzera.
Itxaropena Zugan jañita
itzuli dira etxera.
Aldendu, bada, Zure zigoña,
txikien Jaun biozbera,
ta atoz lenbailen gure soroen
egañi au asetzera".

Itxaropena Zugan jañirik

MATER DOLOROSA*

Ama biotz-kementsu
naigabetsua
zutik, negañez dago
gurutz-alboan...
Etsaiak¹ deadarka
bere ondoan...
Ilun ta ikaraz dar-dar
dago mundua.

Semeari geiago,
ai! ez begira!
bere begi ederañak
itzali dira:
ez, ai! bere kolkoan
jañi burua,
itzali da-ta bere
bañengo sua.

Ilunpean sartu da
lotsez euzkia,
negañez daude izañak
goiko ilunpetan,
odei-pean negañez
dago ilargia,
ta aingeruak negañez
Zeru-goietan.

Ez, ai! bere ezpañetan
jañi zureak,
zimeldurik dauzka-ta
ezpañiñ-loreak
ez laztandu geiago
gorputz-ilotza
geitu ez dedin zure
miñ latz-zoñotza.

Zerutik-bera jetxi,
aingerutxoak,
ta uñezko ontzirik eder
ederenetan...
bildu gure Amaren
negar-malkoak,
muiñ-egin, eta jaso
Zeru-kutxetan.

Neri begira orain,
Ama maitea,
ni bai naiz orain, Ama,
zure semea.
Nere kolkoan jañi
zure burua,
piztu dedin nerean
maitasun-sua.

Andre biotz-kementsu²,
Ama samiña
itxaso antzekoa
da zure miña:
zazpi ezpata zoñotz
biotz-muñean,
ta alare zutik zaude
gurutz-auñean.

Zure ezpañiak ezari
nere ezpañetan,
gurutzea maitatu
dezan benetan:
Ama, laztandu nere
korputz ergela
beti maite zaitzan nik
Ama bezela³.

* Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 99-101; Jauregi' tar Koldobika, *Euzko Deya* 105 (1942) 11.

Euzko Deyan "rr" dun eta "ll" dun grafia agertzen da.

¹ *Euzko Deyan* "Etsaia".

² *Euzko Deyan* "kementzu".

³ *Euzko Deyan* "Nere Ama bezela".

² Ahapaldi hau *Yakintzak* besterik ez dakar.

NERE LAGUN-ZAR BATERI*

Nitzaz osoro aztuta zaude...!
Ba-dakit benetan:
ez dit ajolik, t'ez nau ořexek
aritzen ziřnetan.

Aurtzarotikan izango¹ giřan
aizkide kutunak;
gazte giřala lotu ginduan
alkar-maitasunak...

Ta uskeri batez, lagun-zar, orain
gizonak gerala,
nigandik zure biotza aldendu
umeak bezala...!

Ai! maitatzeko alkar ezautu
bear da lenago:
erleak, lorak ezautu-ezik,
eztirik ez dago.

Ez dezu nunbait ezautu nere
bařuan dagona...
Agur, lagun-zar...! Nigandik-urrun
izan zoriona.

Ateetan daukat beste lagun bat,
benetan laguna,
munduan norbait kutunik ba-da,
bera, bai kutuna...!

Indartuko nau goizero Bere
Aragi t'Odolaz,
t'ez gaur, ez biar, iřoiz aztuko
nitzaz ez da iřolaz.

Bařa nigana beriz ba-zatoz
maitasun-eskean...
beso-zabalik emen naukazu
Jesus'en aurean.
Gořotorikan ez da jaiotzen
apaiz-biotzean.

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 72-73; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 121 (1929) 4.

¹ *Zeruko Argian* "izandu".

OSTIRAL SANTU*

Egan dijoaz txio ta txio
enarak mendi-aldera,
ekaitz aurretik erori oi-dan
odei beltzaren antzera.

Jaunak deadar aundi bat dagi
ta makurtu du burua...
deadar-dagi luřak, ta lotsaz
itzali da euzki-sua...

Ixil-ixilik menditik bera
enarak egan dijoaz,
arantza bana daramatela
bakoitzak bere mokoaz...

Ixil-ixilik Gurutz-albotik
datoz biotz maitaleak...
Jaunai kenduta ĵenbat arantza
dakarzkiten! ai! gordeak!

ĵNork euki leizken beren egoak!
ĵNork izan beren biotza,
beren ezti az eztatutzeko
Jaunan naigabe mingotza...!

* Jauregi'tar Luis, *Biozkadak* (1929) 12; Jauregi'tar Luis, *La Cruz* 80 (1930) 2.

SPES UNICA *

Kalbario'ko menditik bera jende-taldea	Gazte nintzala, nere alboan griña piztiak,
ixil-ixilik dijoa...	oñuka nituenetan,
Goian, negařez lau emakume ta gurutzea...	zeuk, zeuk bakarrik eusten niñuzun, indar beñiak
Bertan ñlotzik Jainkoa	pizturik nere zañetan, ta zeuk sendatu ekaitz-ondoren
Zugaitz donea, Maitasunaren iges-lekua,	nere zauriak barkamen-ur-eztietan.
Altsuaren garaipena...!	
Zugan zintzilik ñlotzik dagon Frutu santua	T'olio santuz igurtzitako nere eskuetan,
bizitza da, ta kementa.	Zu, gaur, nere poz bakara: Zu, gaur neretzat magal beroa, t'ezbeařetan,
Zu bai-benetan gizaldientzat Ezkutukia ¹ ,	ezti-kutxa zerutařa.
Zugaitz betiro ezea...!	
Samiña zera..., ta biotzentzat zera ezta:	Zugaitz donea..! Sendoro sartu zure sustraia
aula... ta indařez betea;	nere biotz-bařenean:
ñlotza zera... ta animarentzat zera bizia,	eriotz-arte neretzat izan izar alaia
zorion-poza ta ustea.	bizitz-aldiko gauean: izan, ařen, Zu, nere poza ta nere ezti-gaia
Aura nintzala, zure oñetan jartzen niñuan	eriotz-ordu latzean, ta nere azken-begiratu
nere amatxo santuak:	eta azken-naia
ortxe lenengoz, zure oñetan entzun nituan	artu zure magalean.
Artzai Onaren txistuak.	

* Jauregi' tar Luis, *Biozkadak* (1929) 55-56; Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 123 (1929) 36.¹ *Zeruko Argian* "eskutukia".XI'GAŘEN PIO AITA SANTUARI*
APAIZ EGIN ZANEKO BERE 50'GAŘEN URTEAN

Zure Euskal-Eriaren izenean, Aita,
euskal-olerkaria dator zur'oñeta:
ez dator bildurturik, bai pozez beteta,
Eřirik kristauena gure Eřia baita.

Ama Euskal-Eriak esan dit gaur: "Zuaz
nere Aitarengana, zuaz, olerkari,
eta nere biotz au bertsoan sartuaz
belauniko jařita eskeñi Berari."

Aita, ezautzen dezu ziñez gure Eřia,
zure koroiko pitxi edeřena da-ta:
gizaldiak ez dute aren arpegia
iñoiz ikusi lotsaz fedea lagata.

Fedea laga baiño nayo eriotza,
esan du beti ařo Euskaldun Eriak:
argatik dauzka beti argitsu begiak,
indartsuak besoak, gaztea biotza.

Argatik oraindio aren sabel zařak
ba-du seme indartsuak sortzeko bizmena:
Zeořek ba-dakizu batzuen izena,
ba-dakizkitzu aien egintza goitařak.

Entzun, Aita donea, gaur nere bertsoak
kaxkar-ximelak baña benetan zintzoak.
Artu euskal semeen zorion-aguřa,
txikia baña ziñez bero ta samuřa.

Zurekin bizi nai du beti euskaldunak
bere siñismen eta oitura zařetan:
baña bizia guri, ai! kendu naietan
gure artean dabiltz etsai indardunak.

Agertu gure alde, Aita, zure eskua
ez dedin il betiko zure Eři maitea.
Ekaitzak estaltzean iñenez zerua,
gure argi alaia beti izan zaitea,
galdu iñoiz ez dezagun Zeruko bidea.

* Jauregi' tar Luis, *Jaungoiko Zale* 363 (1929) 398-399; Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 133 (1930) 7.

ARTZAI ONA TA BILDOTSAK*

(Tolosa'ko EUKARISTI-BATZARĒA'n esandako olerkia).

Bildots zuriak, artzairik gabe, ¿noruntz dijoaz goizean, beren ardiak ain goiz utzi ta txabola epel-maitean?	T' Artzai Onaren kolko-gañean jañirik beren buruak, lo egin dute, txorik kabian bezela, bildotsatuak.
Zintzilik dago zugaitzetatik oraindikan goiz-lanbroa... Oraindik ez da loretan urtu goizeko intzaren malkoa...	Artzai Onaren bildotsatxoan lo gozoaren gozoa...! Zorioneko laztan ta musu, t'ogi eztsitu ta ardoa...!
Ogi-tartean ezkutaturik ari da txistuka Artzaia... Bildotsak ere nabaitu dute artzai-janzkien usaia.	Ardo antzeko Odol bizia, Aragia dan, ogia, Maitetasuna eta Indaia diran, edari eta jakia.
Zorioneko bildots zuriak...! Benetan bai Artzai Ona...! Zorion-gosez zegon bildotsak arkitu du zoriona.	Bildots gaxoak...! Etori beriz Artzaiangana goizean: zuen zai dago, beso-zabalik, gordeta ogi-tartean. Etori, ba, maiz indardutera Artzai Onaren lañean.
Besarka gogoz laztandu ditu Artzaiak bere bildotsak, ta alai ta pozez urturik daude bildots zurien biotzak.	

* Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 142 (1930) 148.

BAĒREN-IZKETA*

BAĒREN-IZKETA**

Ez jun, ene biotza,
baratzera
alako loretxoa
usaitzera:
pozoidun intza dauka,
ta ilko zera.

Mendi-tontor artara
gaur, biotza,
ez igo, an baitago¹
gaur mirotza:
Ez igo, gaur an dezu
eriotza.

Ez jun uxotxoekin
Garieta²,
eiztaria an baidezu³
gaur gordeta⁴,
ez jun, aĒen, biotza,
ogieta⁵.

Ez jun errekatxora
edatera
zure egarri
asetzera:
ur-ertzean egarriz,
ilko zera.

antxe dezu zure zai

Ez jun usotxoekin

*aspaldian zu il-naiez
dabil-eta.*

*Ez jun zure egaĒia
asetzera
ango bide-ondoko
ibaiera:*

* Jautarkol, *Euzkadi* 5589 (1930) 5; Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 149 (1931) 69.*Zeruko Argian* "f" dun eta "t" dun grafia erabiltzen du.** Jauregi' tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 4 (1933) 142-143; Jauregi' tar Koldobika, *Yakintza* 2 (1933) 9; Luis de Jauregi, *Renteria* 24 (1946) 23; Jauregi' tar Koldobika, *Euzko Gogoa* 7-8 (1952) 4.*Eusko Olerkiaken* hasierako "j" k "y" idazten ditu: "yun".*Renterian* "r" dun eta "l" dun, "y" dun idazkera: "naye".*Euzko Gogoan* BARNE-IZKETA izenburupean agertzen da, eta "rr" dun eta "ll" dun grafia erabiltzen du.¹ *Zeruko Argian* "bai dago".² *Zeruko Argian* "garietan".³ *Zeruko Argian* "eiztaria antxe dezu".⁴ *Zeruko Argian* "gordeketa".⁵ *Zeruko Argian* "ze-kaltetan".

Zoaz, ene biotza
alderera,
lore zuri-gorriok
usaitzera
ezti-tantoz ezpañak
bustitzera.

Zoaz, Tabor mendira,
eguzkia
ikustera elurrez
gaur jantzia:
zoaz, antxe dezu gaur
zuk bizia.

Jun uso zuriekin
ogieta:
eiztaria antxe dezu
zai, gordeta:
zoaz eiztariaren
besoeta.

Zorion-iturria
zoaz, maite,
nai anbat ur edatez
ase zaite:
edan, ez zaitu ur orrek
ilko maite.

Zoaz, ostera, laister
ezti-tantoz ezpañak
bustitzera,
aragi dan ogiaz
indartzera.

Zoaz, an ikusiko

elur-soñeko biziz
estalia:
antxen babes alai,
kai ezta.

Uso garbiak aruntz
garieta,
t'eiztaria, ogitan

uso oro pozez, aren⁶

Uso oiekin, biotza,
ega zaite,
jan ta jan gari ori,
ase-arte...
Eiztariak ez zaitu
ilko, maite.

⁶ Euzko Gogoan "orok, alai, aren besoeta".

DABIT'EN CXXXVI*GARREN
ERESIA

("Urrundik ikusten dut, ikusten mendia..." bezela abesteko.)

Babilonis'ko ibaien ertzetan exeita
sarri egoten giñan naigabez josita:
t'oroitu bezin laister zuteaz, gure Sion,
negarrari guziok ematen genion.

Gure ereskiñak antxen ibaien ertzetan
zintzilik genituan jarri saratsetan,
gure eresiak, arren, asteko kantatzen
jauntxoak bai ziguten sarritan eskatzen.

Gure jauntxo gaiztoak, gure etsai zekenok,
gure Erritik indarrez kendu ginduztenok
zetozkigun arrengaz sarri ziotela:
"Eresien bat kanta, Sion'en bezela".

Jaunaren eresiak Sion'en antzean
abestu guk, ai! emen, atzerri-lurrean...!
Ez, ez... ¿Gu zutaz aztu, zutaz, Jerusalem?
Legortu gure eskuia bekigu Jaunak len.

Jerusalem, gu zutaz aztuko ba'giña,
noizpait gure pozen poza izango ez ba'ziña...
aosapaian gure mingañak josirik
arren, gelditu bitez betiko itsatsirik.

Oroitu, Jauna, gure Erria su ta garrez
birrindu zuten etsai zital Edom'darrez:
"Oñarrietaraño ondatu ta naztu",
zioten egun artaz, Jauna, arren, ez aztu.

Babilonis gaxoa, gutzat ain gogorra...!
Laister gañean dezu jaunaren zigorra.
Zuk egin dizkiguzun txarkeriak aña
izan bedi zure gain datorren ordaña.

Zorionsua bedi zure semetxoak,
amaren magalean lo dauden aurtxoak,
indarrez artu eta joka arkaitz-gañean
lertuko dituen egunen batean...!

DABIT'EN CXXXVI**GAÑEN
ERESIA

Oroitu zaite, Jauna, Eria su-gañez
birrindu zigun etsai zital Edom'darrez:

Zuk egin dizkiguzun txarkeriak aña

* Jautarkol, Euzkadi 5543 (1930) 4.

** Jauregi'tar Luis, Zeruko Argia 143 (1930) 171; Jauregi'tar Luis, Zeruko Argia 147 (1931) 40-41.

Zeruko Argian (1931) lehen bi ahapaldiak besterik ez datoz.

Zeruko Argian (1930) (1931) "r" dun idazkera.

ELDU DIRA ALABAK...*

(Euskerari emakumeak egin zioten maite-agurraren ondoren esandako olerkia.)

Besoak zabal-zabal, amaren antzera,
 Besoak zabal-zabal, amaren antzera,
 aspalditik zegoan zuen zai Euskera...
 Baña arantza zorrotz bat zeukan biotzean
 atsegiñezko oroigai-xortaren artean.

“Maitasun lore-xortak eskutan artuta
 ba-datozkit umetxo, gizon ta mutillak.
 Baña ¿zergatik ote naukate aztuta
 euskal-odola duten andre-neskatillak?”

Gauero ortxe zion euskera minduak
 urrezko eia gauero negarrez bustiaz...
 Poztu...! Txukatu dira gaur bere malkuak,
 biotza argitu zaio zorion-izpiaz.

Jantzi beltza kenduta, jantzi du txuria,
 ta irriparra gaur lertzen zaio ezpañetan...
 Poz-irrintzika ari da: Ernio-mendia...
 Poza piztu da berriz Aitor'en zañetan.

Zuen omen-agurrok, maitasuna dira,
 Pizkunde eguzkiaren zorion-dirdira...
 Otzez, maitasun-ezaz, ez da ilko Euskera,
 eldu bai-dira alabak amari eustera.

* Jautarkol, *Euzkadi* 5532 (1930) 1.**GURUTZEAREN OÑETAN***

Nere gau illunetan izar eztikorra,
 bakardanean nere aizkide jatorra,
 bizitzaren iturri agortzen ez dana,
 maitasun-illargia, gurutze laztana.

Arrokeriz nijoan ta ametsez betea,
 itsuaren antzera, galduta bidea,
 griñak amorraturik zaungaka barruan,
 legorra, galtzuztarren antzekoa, auan.

Orrelaxe nebillen naigabez ta larri,
 zorion-iturriko uraren egarri.
 Baña nere bidean, eguzkitan udan
 ia illean negola, topatu ziñudan.

Geroztik egarririk ez daukat auan,
 griñak loturik dauzkat ixilik barruan,
 zure oñetan daurkit zorion-eztia,
 ortxe nere zaurien sendagai bizia.

Ortxen ixuri oi det oben-beazuna,
 t'egiten nazu zure anai ta kutuna.
 Orain ba-dakit nundik natorren ta nora
 jo bear dedan negar-erri-betik-gora.

Nere biotz aularen babesa ta kaia,
 nere itxaropenaren pozezko sustraia,
 ortxen edaten zure odol-tantotxoak
 bizi ta il nai du zure loretxo gaxoak.

* Jautarkol, *Euzkadi* 5435 (1930) 1; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 137 (1930) 70.
Zeruko Argian "f" dun eta "f" dun grafia darabilte.

NERE OLERKIAK*

(Nere adiskide IPURTARGI'ri)

“Tristeak dira zure bertsoak benetan,
 Gaztea zeralarik, ¿tristuraz noletan?”
 Aizkide, ez dira itunak nere olerkiak:
 alaiak dira baña tristuraz josiak.
 Egizko bizitzaren pakezko dirdira,
 nere bertsoak ori besterik ez dira,
 Egizko bizitz ori alaia da ziñez,
 alaia, baña nun-nai josia samiñez.
 Bizitza bide bat da, Zeruko bidea,
 argatikan da alaia bizitza, aizkidea.
 Itxaropen-euzkiak argitzen gaitu ta,
 bidean goaz pozez biotzak urtuta.
 Gurutza daramagu sorbalda-gañean,
 baña zorion-lorak ba-daude bidean.
 Zerua jartzen dute askok emen beran
 atsegiñ-printz oietan, abereen eran,
 ta “nun beren gogoak, an beren zankoak”,
 ez dira aientzat nere olerki gaxoak.
 Aizkide, ez dira ilunak nere olerkiak,
 alaiak dira baña, tristuraz josiak.

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 134 (1930) 20.**PIZKUNDE-EGUZKIA***

Egun-argitze alaitsu baten dirdits goriaz
 goñitu ziran mendiak:
 argi legunez argitu ziran ilunez zeuden
 Euskaleriko bidiak.

Eusko-semeak, argi ta sutsu, alkañen leian
 zebiltzan goruntz naiean:
 euskal-biotzan txertatutako mendu gazteak
 ernetzen zeuden artean.

Poz-egunaren itxaropenez, biotzak sutan
 zeuzkaten eusko-mendiak:
 egun-sentiai agur-egiten kantari zeuden
 euskaldun olerkariak.

Baña Aizkori'tik zear bat-batez sartu zan egan
 eusko-erien bařena
 egazti beltz bat, eusk-odoletan goñitu nairik
 mokoan zeukan eztena.

Ilundu ziran Euskaleriko bideak beriz,
 lañotu egunabařa...
 Negařez ta antsiz, lotsaz dardaraz beriz jaři-zan
 Gernika'ko zugaitz zařa.

Mendira igesi laisterka asi zan negar-zotinka
 Ama Euskera gaxua...
 Zapi zar-beltzez estali zuten Maitagařiak
 beren urezko burua.

Gau luze batek zabaldu zuan estalki beltza
 Eusko-erien gařera,
 ta, jaun ta jabe, txistu t'oruka, Baso jaun gaitza
 zebiñen menditik-bera.

Baña bein nere mendi-bordako leio-zarřetik
 zerurontz beira negola,
 izar beři bat ikusi nuan, ta su beřiaz
 piztu zitzaidan odola.

* Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 1 (1930) 134-143.
 Lan honek ondoan gaztelaniazko itzulpena du.

Ta izartxoaren eraietatik janzki zuridun
andre eder bat agertu zan,
laño bañendik ilargiaren ziñar-izpiak
agertu oi-diran eran.

Ego-aizeak azkatutako ure-mataza
zirudin aren illeak:
aren arpegi ta soñekoak, egunsentiko
argi-izpi sotil ta meak.

Ez zan ametsa... Murumendi¹ko arkaitz-zuloan
bizi dan Maitagaña:
Basojaunaren etsai garaile, gure ipuiñ zañen
gordailu ta zaindaria.

Bera jeixten da lotan dagoan aingeruaren
seaska bero-aldera,
ta auñai musu bat, sutsu, eman ta esaten dio:
“Olerkari izango zera”.

Berak ikuñu eztiz igurtzi oi-du euskaldun
olerkari bekokia,
t'erein biotzan, olerki-lore mardul-lirañak
sortzen dituan, azia.

Berak lotutzen ditu maitale-biotz garbiak,
ta aldentzen biotz gaiztoak:
berak basoan zaindu oi-ditu nekazariak,
artzai ta ikazkiñ zintsoak.

Ez zan ametsa... Gauaren magal beltzean beñiz
jaioko zala euzkia,
olerkariak gaztigatzera pozez zetoñen
Murumendi¹ko Andria.

Oña euzkiak iluna uratu, t'egunabaña
Euskalerian agertu...
¡Olerkariak, ganbara-zoko auts-pean zeuden
zuen ereskiñak artu!

¡Ta abestu zoli, lotan daudenak esnatu-arte...!
Jaioda egun-sentia...
Zuen olerki gartsuaz piztu euskal-ortzean
laister eguardi-euzkia.

SAADI'CO AÑOSAK*

Marceline Desbordes-Valmore

Arrosak nai nizkitzun
ekarri goizian:
baña magal itxian
ainbat nekarzkian,
ezin euki izan ditut
lotuta gerrian.

Azkatu da lokera.
Arrosak, aizean
nastuta, eroi dira
itxaso-gañean.

Berriz ez etortzeko
urak daramazki:
gorri jarri dan uñak^a
su-garra dirudi.

Oraindik arratzean
usaiez josia
dago nere soñean
daukadan janzkia...
Usaitu nigan usai
gomutagarria^b.

* Jautarkol, *Rentería* 13 (1930) 21.

^a uñ: olatu.

^b gomutagarri: oroigarri.

TXANTXANGORRIA*

(Aitzol, Orixe, Lauaxeta ta Lizardi'ri)

Udazkena zan. Basoa illotzik bezela zegoan.	<i>Txio</i> ta <i>txio</i> jarraituko du txantxangorritxoak:
Osto orri-igarren artean artzai- —txabola basoan.	urretxindorren kanta sorgiñik ezin du gaxoak.
Artzai-txabolan txantxangorri bat bizi zan pakean.	Arranoaren egorik ez du egiteko egan:
biotz-barrengo poz-naigabeak kantari goizean.	Euskal-Erria esna-azitzea ez dago beregan.
Ixil-ixilik zegon basoa, bakarrik txoria:	¡Urtxindorren eztarria ta arrano egoak
inork etzuan entzuten aren kanta bioztia.	ba leuzka zuek maite dezuten basatxoritxoak...!
Elurra ari zun ta ia ixildu zan basatxoritxo.	Orduan noski, ez litzake ilko Euskaldun Erria:
Zuen txaloak entzun ta orain ¡bai pozez gaxoa!	zutik jarrita entzungo luke aren eresia.
Il-arte ekingo dio eresi zarrari,	Baña, aizkideak, ez naigabetu: ba-dator eguna.
t'euskal basoa esnatuko du goizetan kantari.	Laister jaioko da olerkari ziñez euskalduna.
Zugaitz batetik-bestera <i>txio</i> udaberrian,	Bitartean ni, orain bezela, Altzo'ko basotan
udaran <i>txio</i> errekaldeko sasi amestian.	arituko naiz poz-naigabeak ixurtzen bertsoan.

* Jautarkol, *Euzkadi* 5370 (1930) 5; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 136 (1930) 54. *Zeruko Argian* "F" dun eta "I" dun idazkera darabilte.

UDAZKEN-ERESIA*

KIZKITZA jaunari eskarronez

Ixil-ixilik dago basoa, illotzik bezela...	Argia zera ta itxaropena da zure laguna.
Ego-aldetik murmurka dator aizetxo epela...	Itxaropenik gabe bizitza bai bizitza illuna!..
Osto bat ere ez, kabi bat ere ez zugaitz-adarretan...	Euzkirik gabe, laño tartean dagoan basoa,
Txori bat ere ez kantari beko errekaxoetan.	leize-zuloan negarrez dagon umezurtz gaxoa.
Euzki epelak ia uxatu du goizeko lañoa...	Sasi-jakintzaz arrotutako jakintsu gaiztoak
Zugaitzetatik dario oraindik goiz-lanbro-malkoa...	gure artean ere ba-dabiltz zabalik besoak.
Osto ori-igarrak negarrez dabiltz batetik bestera,	Euskal-Erria ez artu oien laztan gezurtia,
aterpetxo bat arkitu nairik, eskaleen antzera.	bestela zukan agortuko da bizitza-iturria...
Udaberriai bizitza alaia darion bezela,	Ixil-ixilik dago basoa, illotzik bezela...
udarazkenak berekin dakar eriotz-itzala.	Dilin-din-dalan artaldetxo atzetik duela,
Il-antza dauka, ez dago illotzik benetan mendia:	artzai-mutilla txistuka dator alaiki mendira...
bere erraietan gordeta dauka bizitza-iturria.	Euskaldun onak oraindik ere benetan ba-dira.
Eriotzaren sabel ustelan bizitza antxe dago:	Udazkenaren ondoren Euskal-udaberria
betiko bizi al izateko il bear lenago.	¿ez ote digu Jaunak emango?... ¿Ametsa... guzia...?
Zorioneko Fedea, bizi nere biotzean:	Auzpez jarrita Jaunarengana jasorik besoak,
zu gabe ¿zerk ni poztu nazake ¹ eriotz-aurrean?	ixil-ixilik otoitz luzean dirudi basoak.

* Jautarkol, *Euzkadi* 5384 (1930) 5; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 139 (1930) 102.

Zeruko Argian "F" dun eta "I" dun idazkera erabili du.

¹ *Zeruko Argian* "nezake".

AZKENEKO OSTOA *

Théophile Gautier

Baso erdoitu-soñlean
 zugaitz baten adarean
 osto bat baizik ez da gelditu,
 ostotxo bat ez besterik
 eta txori bat bakañik.

Maitasuntxo bat bakañik
 kantari dut bañuan nik,
 bañan udazken-aize zakañak
 oñuka ez du lagatzen
 ¡ai! aren kanta entzuten.

Txoriak iges-egin du
 aizeak ostoa uxatu,
 maitasuntxo beriz itzali
 negu beltzaren izotzez...
 Txoritxo, eldu zaitez
 zugaitza beriz orlegitzean,
 eldu zaitez abestera
 nere ilobian gañera.

GAUEKO OTOITZA *

(Bařena'tar Arantzazu'ri)

Eguzkia sartu zan Aizkori-ostean,
 dirdiz-dagite izarak kiñuka ortzean,
 ilargi-izpi sorgiñez jantzi da mendia
 ta itzali da ezkil-ots, otoitz-dei ezta.

Baseliza zařaren babes maitetsuan,
 lar ta untza darioten lau ormen bařuan,
 kanposantutxo bat lo, daukat bazterean.
 Ernio aũez-aũez, Txindoki atzean.

Goruntz-dagi luřaren arnasa-luřiañak,
 jolas mur-murka aitzetxo epel-atsegiñak.
 Bakardadeak artu nau bere altzoan
 ta ixiltasuna daukat musuka ondoan.

Noiziz-bein urũtiko bei-txokor-oñuak,
 kirkir-kanta txoliña, ontzaen uluak,
 an beko baseřiko zakur-zaunga-otsa...
 Beste otsik ez, eta pakean biotza.

Gaua kantari dago bere eresi ixilã,
 etoria da otoiz-eske gau-etzkiã
 ta gurutzea Uztuře'n, ilargi dirdira
 dariola, otoitz-zai dago onuntz begira.

Noan, ba, otoitzaren jauregi-atera
 nere eskua luzatuz, eskale antzera.
 Ene biotza sartu jauregi-bařura
 ta aren leio-zulotik, begira Zerura.

¡Izar oien goi-goyan zaukadan Jaun ona,
 nere begi-eguzki, biotz-zoriona...!
 Nere guda-zauriok, dirdiz edeřetan
 laister biurtu bitez Zure besoetan.

Aiñ urũndik zakusdan Zeru-Aberia,
 nere amets urdiñen ezti-jauregia...!
 Erbeste ilunagan dagon gudari gaxoak
 agur-dagitzu urduri zabalduz besoak.

Nere ontzia dabil ekaitzen artean:
 sartuko al zait zure kai atsegiñean.
 Nere gaurko arantza-kuru au, or goian
 biurtu bekit laister uřezko koroian.

GAUEKO OTOITZA **

*Noiziz-bein urũneko bei-txokor-oñuak,**¡Izar oien goi-goyan zaukadan Jaun ona,**Nere guda-zauriok, pitxi edeřetan
biurtu bitez laister Zure besoetan.**Urũtitik zakusdan Zeru-Aberia,**Nere gaurko arantza-kuru au, or goian
biurtu bekit laister uřezko koroian.** Jautarkol, *Irugarrengo Prantziskotarra* 211 (1931) 22.* Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 2 (1931) 112-119.** Jautarkol, *Zeruko Argia* 155 (1931) 171-172.*Zeruko Argian* "y"dun idazkera: "ibayaren".

Itxorapen donea, erbeste-eguzkia,
negara, poz biurtzen didan goi-argia...!
Zure musuz arantzak, lore itzultzen dira;
Zukin eriotza da, zorion-dirdira.

Zure eskutan il dana, ez dago ilda ziñez:
etzanda lotan dago, lotan atsegiñez.
Gurutz-gañetik zaintzen aren lozofoa
kantari an du ernai zure txoriñoa.

Zuk sortzen dezu nigan poz-iturburua
ta urez josi ituria griñak agortua:
zure arnasik gabe ez da biotzean
lore mardulik sortzen arantzen artean.

Gizona, zu gabe, da luñ-gañeko orbela
ta ildako iturburuen iturri mospela
ta atzeri-lurmalkařan, galduta bidea,
noruntz doan ez dakin itsu eskalea...

Arkaitz-gañean zutik zauden gurutzea...!
Argitu zuk, ba, nere bizitza-bidea.
Zugan artzeko gure naigabe-malkoak
Uztuře'n zakust noski zabalik besoak.

Zure oñetan dauden erien Euzkia...!
Guzien gaiñ ixuri zorion-etzia.
Izan biotz aularen babesa ta kaia,
nere itxaropenaren pozezko sustraya.

Izan gau ilunetan izar eztiķora,
bakardadean, gure aizkide jatořa,
bizitzaren iturri agortzen ez dana,
maitasun-ilargia, maitale laztana.

Ařokeiz josia ta ametsez betea,
itsuaeren antzera, galduta bidea
dabilenari, ortik esaiozu nora
jo bear duan negar-eri-betik-gora.

Bizitza uztaripean naigabez ta laři,
zorion iturriķo uraren egaři
dabiltzanentzat, izan ezti-iturburua,
izan beren zaurien sendagai osua...

Sartu da odei-pean ilargi betea,
ez dakust Uztuře'ko gurutze donea...
Lañoa, uso-odei bat lez, egaka basora
dator beko ibaiaren egaletik gora.

Ixil-ixilik lotan dago ilen eria...
Lañopean bildurik dago mendia...
Izartxoak bakarik daude ernai ortzean
gizon lotien ordez otoitza luzean...

*gurutz-gañean zaintzen aren lozofoa
kantari antxen ernai zure txoriñoa.*

Gizona da, zu gabe, luñ-gañeko orbela

Argitu, ařen, nere bizitza-bidea.

*Izan biotz aularen babesa ta kaya,
nere itxaropenaren pozezko sustraya.*

MAITASUN-KONDAIRATXOA*

Zure maitasun-kondairatxoa
agertu didazu...
Nolaz gaur arte barruan lertzen,
Mari, euki dezu?

Kezkatxo baten dirdira illuna
somatzen nizuan:
ikasi gaurtik kezkak izurtzen¹
amaren kolkuan.

Zu bezelaxe gaztea izan naiz,
zu bezela, lirain,
ta bizitzaren arrizku gaitzak
ba-dakizkit orain.

Argatik orain ez naiz arritzen
gertatu zaizunaz:
min det, lenako kondairatxo ori
zuri ez entzunaz.

Aingerutxo bat ziñan, Maritxu:
egan zijoazen:
griña txar batek moztu zizkitzun
egoak bein baten.

Orduan amets baten argiak
zoratu zinduan,
ta untza bezela, itsatsi zitzaizun
biotzan barruan.

Untza gerora, burnizko kate
biurtu zanean,
eriotz otza sentitu zendun
biotzan muiñean.

Izutu ziñan... t'eriotzaren
izotzaren iges
ibilli ziñan, kate gogorra
puskatu eziñez.

Doakabea ziñala zure
negarrok diote...
Urre-kaiola, kabia baiño
berogo bai-ote?

Maitatzen ez, ta maite zendula
zenion gezurrez.
SANSON zapaldu zenezaken, ta
alako bildurrez...!

Atsegiñaren ontzian ez zan
zuretzat ezirik:
ta alare, nola zeuden katea
puskatu eziñik?

Ez dakizula zeorrek ere,
negarrez diozu.
Ez egin negar... Ez al-dezu, ba,
kaiola puskatu?

Bide-illunean Goi-argi-izpiak
laztandu zinduten²,
ta alde egin zendun, leizean beera³
erori baiño len.

Ez egin negar... Zure bidean
ibiltzen ikasi:
maitasun-kate gezurrezkoetik
garaiz eiñ igesi.

* Jauregi' tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 2 (1931) 106-111; Luis de Jauregi, *Renteria* 24 (1946) 24. Jautarkol. *Euzko Gogoa* 5-6 (1952) 5.

¹ *Renterian* "ixurtzen".

² *Renterian* "ziñuten".

³ *Renterian* "geigo".

Ez egin negar... Eman eskerrak
Jaunari, Maritxu,
l'otoitz-egiñaz, gaurko asmotan
jarraitu kementsu⁴.

Orrela Jaunak jarriko dizu
egunen baten
uztarri-lagun maitasuntsua
begien aurrean.

Eta Goi-argiz ezautzen dezun
zure ezkon-laguna,
izango zaizu maitasun-kabi
ta uztarri laguna.

⁴ *Eusko Gogoan* azken bi ahapaldi hauen ordena alderantzizkoa da.

MAITE DAMU*

Ontzi bat sartu zan kayean negola
ke beltza zerurontz arro zeriola:
nigaño zekarzkin ego-aizetxoak
ango poz-eresi ta atsegin-santsoak.

"Atoz, adiskide, atoz guregana
gurekin dakargu atsegin-laztana",
zioten, niganontz zabalduz besoak,
zerurontz josirik alaiki saltoka.

Zorion-egarriz sartu nintzan bertan
oyu ta irrintzika, eroaren eran.
Itxaso-barrena jo zuan ontziak...
Ur-azalan dirdiz zegin eguzkiak.

Kayetik eskuak luzatuz nigana
zutik an zeunden Zu, Maite laztana,
begi negartsuaz, amaren antzean,
begira... ontzia gorde zan artean.

Gero ba-dakizu gerta zitzaidana:
ekaitza sortu zan, galdu nuan dana:
txima legor gabe ol baten gañean,
il-zorian sartu niñuzun kayean.

Kendu zeñizkidan soñeko bustiak
ta jantzi, zeorrek berotuz, berriak:
ezarri niñuzun zure magalian
musu bat emanaz nere bekokian.

Maitasun-ardoaz berotu niñuzun,
maite ziñudala nik zin-egin nizun
t'ez nintzaizula iñoiz poz-zorion miñez
berriz aldenduko, esan nizun ziñez.

MAITE DAMU**

*ango poz-eresi ta atsegin-santsoak
nigaño zekarzkin ego-aizetxoak.*

*Zorion-egarriz bertan sartu nintzan
oyu ta irrintzika, eroaren gisan.*

begira... ontzia ezkutara artean.

Ba-dakizu gero gerta zitzaidana:

Maitasun-ardoaz ber-piztu niñuzun,

* Jautarkol, *Euzkadi* 5874 (1931) 5; Jautarkol, *Zeruko Argia* 157 (1932) 11.
Zeruko Argian "r" dun eta "t" dun idazkera darabilte.

** Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 3 (1932) 25-27.
Eusko Olerkiaren "r" dun, "t" dun eta "y" gabeko idazkera darabilte.

¿Noruntz jo Zu utzita, Maitale laztana,
gizonik ederren, begi beltzerana?
Ezti-iturri dira zure ezpain gorriak,
ortzia dirudi zure bekokiak.

Maitale guzien laztan oro baño
zure musutxo bat askoz det nayago:
izotz biur zaizkit besteen musuak,
biotza berotu zurearen suak.

Zure zigorraz jo nere biotz-aitza,
biguindu, loya lez, t'eman zure antza,
damu-malko-iturri begiok biurtu,
nere bioztxoa Zuregan urtu.

BASERIRA ITZULPENA *

Ari zabal onetantxen eseri ninduzun
burua ametsez josirik, kezkaz biotza iñun.
Ametz aien egaria etzait asetu iñun.
Zorigaiztoan emendik noizpait alde egin nun.

Udaberiko goiza zan. Maite-musu gartsuz
euzkiak ernai zun luña, lorak nun-nai piztuz.
Txoriak kabi egiten alkar urumatuz,
zilipurdika belartzan umek beiak zaituz.

Bizitza-sua piztu zan nere aragian,
egari il-eziña sortu biotz-muiñ-erdian,
dei eztsitu bat entzun nun, ixil, belarrian,
ta utzirik baseri zaña, sar nintzan erian.

Jo nun, oyalak zabalduz, bizitza-itsas gaitzan
sartu lagun alaiekin atsegiñ-ondartzan
ta, loraz inguraturik, bizitz-oturuntzan
ardoze ta maite-eztiaz moskor-moskor nintzan.

Alare beti egari ta goibel biotza,
ezti-txurutaren uren, barnean mingotza,
beti ta nun-nai aurrean, eriotz zofotza,
ta laga nuan baseri zañaren oroitza.

BASERRIRA ITZULPENA **

Udaberiko goiza zan.
Maite-musu gartsuz
euzkiak ernai zun lurra,
lorak nun-nai piztuz.
Txoriak kabi egiten
alkar urumatuz,
zilipurdika belartzan
umek beiak zaituz.

Bizitza-sua piztu zan
nere aragian,
egari il-eziña sortu
biotz-muiñ-erdian,
dei eztsitu bat entzun nun,
ixil, belarrian,
ta utzirik baseri zarra,
sar nintzan errian.

Jo nun bizitza-itza-soan,
ametsez josia...
Bañan, iñun etzait ase
biotz-egarria.
Nun-nai aurrean euki det
izar bat argia,
laga nun baserriaren
oroipen bizia.

* Jautarkol, *Euzkadi* 6259 (1932) 8; Jautarkol, *Zeruko Argia* 170 (1933) 21-22.

** Jauregi 'tar Luis, *Egan* 2 (1950) 13-15.

Bi bertsiok osorik jarri ditugu.

¡Ene baserri-oroipen bultzakor ta argia!
Ik uratu diak nere biotz-ĩlunpia.
Ik bultza ta zetořek gaur kaiera ontzia
beti-betiko utzirik itxaso nasia.

Jaiki ta noan... Laister det begien aũean...
Ara antxe... Baso-alboan, muño-bizkařean...
Zuri-zuria, patxaran belartza-gaũean,
zabal-zabal ataria, elizaren eran.

Agur, ene sor-lekua, euskal-lur donea,
nere aurtzaroko kutxa oroi-gaiz betea,
nere aitonen aitonen iłobi maitea,
nere odol-iturburu kutsurik gabea...

Nere eusko-odolaren deiak entzunda, ba-nator
maitasun-kabi bero bat
nere besoaz eustera orma oiei gogor,
gaurtik il-arte izatera baseritar jator.

Bai, gaurtik zuretzat nere besoen indara,
nere buruko ametsak, biotzeko gařa,
begietako malkoak, ezpail-irriparra...
Gaurtik zure bizitza da, nere nai bakařa.

*Jaiki ta noan... Laister det
begien aurrean...
Ara antxe... Baso-alboan,
muño-bizkarrean...
Zuri-zuria, patxaran
belartza-gaũean,
zabal-zabal ataria,
elizan antzean.*

*Agur, ene sor-lekua,
euskal-lur donea,
nere aurtzaroko kutxa
oroi-gaiz betea,
nere aitonen aitonen
illobi maitea,
nere odol-iturburu
kutsurik gabea...*

*Nere eusko-odolaren
deiak entzunda, ba-nator
maitasun-kabi bero bat
ezarritzera or,
nere besoaz eustera
orma oiei gogor,
gaurtik il-arte izatera
baseritar jator.*

*Bai, gaurtik zuretzat
nere besoen indarra,
nere buruko ametsak,
biotzeko garra,
begietako malkoak,
ezpail-irriparra...
Gaurtik zure bizitza da,
nere nai bakarra.*

Su aundi bat piztu nai det sukalde otzean,
aingerutxoak ezari seaska-utsunean,
mentu sendoak txertatu sagasti zařean,
zorion-euzkia sortu baserri ilunean.

Aitonen oroi-gai kutxa nai det aberastu,
aien izerdi zintzoa nereakin nastu,
aien ta nere bizitza maite-katez batu,
baserri zařean kabi beria eratu.

Poztu, baserri, gaur-arte maite-kabi utsa...!
Poztu, gaurtik bukatu da zure alarguntza...!
Poztu, ene gurasoak...! Begira onuntza...!
Jainkoak entzun du zuen eskari-otoitza.

*Su aundi bat piztu nai det
sukalde otzean,
aingerutxoak ezarri
seaska-utsunean,
mentu sendoak txertatu
sagasti zarrean,
zorion-euzkia sortu
baserri illunean.*

*Aitonen oroi-gai kutxa
nai det aberastu,
aien izerdi zintzoa
nereakin nastu,
aien ta nere bizitza
maite-katez batu,
baserri zarrean kabi
berria eratu.*

*Poztu, baserri, gaur-arte
maite-kabi utsa...!
Poztu, gaurtik bukatu da
zure alarguntza...!
Poztu, ene gurasoak...!
Begira onuntza...!
Jainkoak entzun du zuen
eskari-otoitza.*

EKAITZ-OSTEAN*

(Garmendia'tar J. M. adiskidiari)

Napartar zintzo, eusko-odol bero,
aiskide laztana:
nere kolkotik bertso ok gaur iges
doazkit zugana.

Zure oroitza-beroz, egakin
zaizkit barnen sortu:
argatik jaio ta bezin laister
zuganontz egatu.

Zure gelako leyaña moko
jotzen dutenean,
leyoa iriki ta agurka, musuz
artu magalean.

Naigabe baten semeak dira,
ekaitzan sortuak:
argatik beltzak dituzte egoak,
begi negartsuak.

Zuk ere, Mikel, ekaitz-ostean
egin zendun negar.
Orain, biotz on! orain, jo txalo!
orain... egizu par!

Bai, egizu par... Ekaitz beltz orek
ez du il Napañoa.
Atseden artzen gelditu zaigu
bidean gajoa.

Ezin jun baitzan asnas-estuan,
izerdi-patzetan...
Etzan egin da, gora ariñago
igotzeko ustetan.

Argatik, Mikel, nere bertsuok
begi negartsutan
itxaropen ta maite-aguñ
daramate sutan.

Beren txinta aulak poz lezaizuke
biotz-ñunpea,
begien suzko nir-nirak urtu
zure naigabea.

Napartar leyal oron etxetan
sartu nai lukete
ta txinta alayez ta agur zoliaz
gela ixilak bete.

Ta abestuz, esan: Anai kutunak,
biotz on! napañak...!
Gudara beriz...! Gertu izkiñak...!
Piztu beso-indañak...!

Ez da il Jatsu ta Loyola'taren
odol kementsua...
Gaur ez da azkatu eusko-anayen
besarka estua.

EUZKO IKURRIÑARI*

(Ene adixkide Montzon'dar Telesforo abertzale osoari, biotzez)

Odolezko zelai bat, euzko-odol zelaia...
Gañean, elurrezko gurutze alaia,
ta itxaropen-gurutza, dirdiz dariola,
beso luzez laztantzen elur ta odola.

Sabiñ'ek sortu zindun maitasun-laztanez
ta Abenda-biotzean landatu ametsez.
Aberriak muiñ beroz besarkatu zindun
ta or bere irudia bizik utzi zigun.

Etzera alderdi baten ikurriñ ilkoia
ezta ere Erri baten elburu lurkoia.
Zu, gure Abendaren goiburua illezkorra,
bere bi maitasunen dirdira jatorra.

Zu zera Aberriaren itxaropen-izar,
euzkoen poz-sustraia ta azkatasun-izar.
Argatik euzko-odola daramazu soñan
ta Abendaren gogoa bizirik odolan.

Amaren sei alabak zu jaio baño len
alkarrekin burruka gorrian zebiltzen.
Orain, alkarren leian Ama jaso naiez
zure itzal-babesean, guda-mutillak lez.

Il-zorian zegoan Euskalerra zarra
ta amets lillurakorrez lotan euzkotarra...
Sabiñ'ek entzun zuan azken-asnas-otsa
ta Aberri-aldarean utzi zun biotza.

Sabiñ il zan: lore bat jaio zan obian
ta izar eder-berri bat piztu zan ortzian.
Euskalerra zarrean, Euzkadi bizia
Europa'ko zeruan, aberri berria.

Zu zera Aberri orren bizitza-irrintzia
Euzkadi biziaren egi-eguzkia.
Ludi-zear ba-doaz zure irrintzi deiak
ta urratzen ari dira zure izpiz odeiak.

Arin zugana dator euzko-gaztedia,
mutil kementsu eta neskatil garbia.
Laister zu besarkatzen euzko oron biotzak.
Beti garaitu oi-du egiaren otsak.

Arin ba-dator gure garaipen-eguna,
zure bi maitasunen aginte zoruna...
Orra su ta garretan pizkunde-eguzkia
bere musuz kixkaltzen uri ta mendia.

Atozte Ikurrinpera, euzkotar anaiak
Amatzat sorterrria dezuten leialak!
Amaren maitasunak utsik ba'garama,
guziok bat-eginda ots-diogun: Ama...!

Gero ixur ditzagun, aurtxoan antzean¹
anai-kasketa oro, Ama magalean,
ta anai-besarka-beroz laztandu gaitean
alkarrerri muin-emanaz ikurrinpean.

Gero ixuri ditzagun aurtxoan antzean
Euzkadi izango zaigu Ama t'erregiña.
Bere urren-erregin, seme danon jabe
atzerriko izkuntzarik t'oiturarik gabe.

Azke ta euzkotar-uts, mendi babesean
basoaren mur-mur t'orruen artean,
baserri zuri eta olaen epean...
"Jaungoikoa ta Lagi-Zarra'ren mendean".

* Jautarkol, *Euzkadi* 6090 (1932) 5.* Jautarkol, *Euzkadi* 5989 (1932) 10; Jautarkol, *Euzkadi* 7131 (1935) 10.
Euzkadin (1935) "r" dun eta "j" dun grafia darabilte.¹ *Euzkadin* (1932) azken hiru ahapaldi hauek irakurtezinak dira.

GURE BURUZAGI*

Agirre'tar Joseba Andoni jaunari

Gipuzkoak mats-mentua
Gexo-mastin
Zeure mordoan galanta
Jaunak ba damaizu ur-tanta!

Mats-mordo aietz ardoa
igusu beltz ta beroa
Aberri-maitasun-miñez
moskortu gaitezen siñez.

Ez diguzu oraindikan
eman matza besterikan
ta mats au janaz eroak
jarri gaituzu euzkoak.

Betor mats onen ardoa
laister Euskadi osoa
erotu dedin benetaz
Jainko ta Aberrimiñetaz.

Ortarako artu dezu
gurutz astuna kementsu,
Euskadi doa zurekin...
Jainko ta Aberri-miñetaz.

Ortarako artu dezu
gurutz astuna kementsu,
Euskadi doa zurekin...
Aurrera, Agirre, jo... Ekin.

Zeorrek duzun indarrez
ta damaisuguken garrez,
gurenda-mendi-gañera
askenez elduko gera.

Neketsua da bidea,
baña asmoa, bai denea
¿Ez al dezu gidaria
gudarien Jaun aundia?

Bildurra uxatuz gogotik
darraisugu ondo-ondotik:
burrukan iltzen ba'zera,
zukin gu ere ilko gera.

¿Ez al da obe eriotza
gure Amaren biotza
ikus baño azkenetan
jauntxo beltzen eskuetan?

Euskadi, amets-seaska,
uste eztizu aberaska,
gure maitasun-kabia,
lenago, Ama, il zaitia.

Bai, zure izen garbi ori
bestu baño len, erori
Ama, illobiko illundira...
Semek zukin ilko dira.

Bañan ez, etzera ilko zu:
erraietan bai dauzkazu
loretan itxaropena
ta sutan bizitza-almena.

Itxaropen lore ori
biurtzen danean gori,
odol berria garretan
piztuko zaitzu zañetan.

Orduantxe zure errayak
seme ozpetsu-tantayak
egingo bai dituela
antsin-antsiñan bezela!

Jaso Zerurontz, euskoak,
otoitz-irrintziz besoak...!
Guda-irrintzi oiek aitu...!
Gudara Amak deitzen gaitu..

Jarri, Dabit'en antzean,
Agirre, gure aurrean...
Olios gure Erriak zu,
buruzagi igurtzi zaitu.

JESUS GURUTZETUARI*

Besoak zabal-zabal
zure zai, begira:
bere lau zauri oiek
zuretako dira...
Ia itzali da bere
begien dirdira...
Il baño len ¡jai Jesus!
beira zure Erira.

Jesus, Zugandik urun
¡jai! ibili gera,
kabitik iges-dagin
txorian antzera...
Orain Zugana gatoz
Zure gurutzera...
Gure maitasun-kabi
beroa Zu-zera.

Oñazez, ¡jai! josirik
gurutz latz oretan
ta alare Aitarekin
gure alde izketan...
Iñork ez gaitu, Zuk lez,
maite ain benetan...
Gure biotzak gorde
Zure zaurietan.

Zugan bakarrik dago
zorian-eztia,
Zu zera-ta Zeruko
zorun-iturria...
Zugandik urun beriz,
itxaso nasia...
Asetu Zuk, ¡jai! gure
Zorun-egafia.

* Jautarkol, *Euskadi* 5922 (1932) 5.* Jauregi'tar Luis, *La Cruz* 186 (1932) 6.

LOYOLA*

Olerkaria gaur, Loyola-Jauregi,
lotsez ta naigabez datorkik itunki:
txio negartsua kolkoan dikela
kabi puskatura enara bezela.

¡Jauregi edera, kabi uts mospela!
Ortzi urdiña len, gaur zeru goibela!
Gudari kementsuz len aiñ ornitua
etsai-mendean gaur agon gaztelua!

Ixiltasun beltzez gelak estaliak,
sukalde zabalán iñeti itzaliak,
itxita leioak, t'ormáen bárena,
surangilla-antzean, gora untza lerdena.

Negárez dirudik Urola pizkoña,
ik beriz umezurtz, Azpeiti jatoña,
txundituta lotsez Izañaitz-buruá,
naigabez josirik Euzkadi osua.

Zure gaztelua oñela dagola
¿nolaz zaude geldik, Iñaki Loyola?
Nolaz ez dituzu bildu gudariak
ta apurtu su ta gar etsaien esiak?

Ez ba'dezu laister artzen gaztelua,
itzali zaitzula kemenaren sua,
bilduñez zaudela, galdua, lur jota,
dioteke etsaiak lepoa jasota.

Etsai zital oñek, esan nai dekena,
zabaldú ludian ire garaipena;
egin iri ta par: ospatu gurenda.
Esan guk il degu Loyolar abenda.

Gaztelu doneko ari-orma zaroñk,
ezetsi etsaien arandi kaxkarok.
Iñaki lo dago, guda-ametsetan lo,
leiza-auñean lotan dagon legoi-antzo.

Atertu artean erasoen jasa,
Loyola legoia, egizu lo lasa:
zure loa gutzat garaipen-ikuña,
etsaienzat keska, t'ondamen-bilduña.

Orain egizu lo, ta atsedén-ostean
jari zaite zutik gaztelu auñean:
buruá eragin t'egizu oñuka,
ta igesi jungo da etsaia birauka.

Itxoin ixil-ixil, Loyola-jauregi,
itxaropen sua berpiztu, Euzkadi,
Biotz on! Loyolar Iñaki-semeak,
zabal dira laister gaztelu atreak.

AGINTARIEN BAIMENAREKIN*

Tolosa'ko Euzko-Gaztediak eraturako olerki-txapelketan lenen saritua izan dan olerkia

Agintarien baimenarekin
Agate deune izenean
euzkal-oitura zañai jañaituz
gatorkizu gaur eskean.

Zure auñera, jauna, ez gakar
zu mindutzeko asmoak:
eup anaikoña, opa xamuñak
baitira gure bertsoak.

Puñstaz zure biotz-atea
guri gaur itxi baño len,
etxeko leyo zulotik beinik
begira gaitzazu, añen.

Iñargi bete ta izar panpoxak
eder-zaizkigu ortzean:
zure emazte ta seme-alabak
ederago balkoyean.

Zeru oñetan zu baizerade
euzki lañorik gabea,
gure biotzak alaitutzerá
bertan zu ager zaitea.

Zeru paketsu ortan ez bedi
iñoiz ekaitzarik sortu:
zuen arteko poz-ituriá
iñoiz ez bedi agortu.

Agate deunak ixuri beza
zuen gain goiko eztiá,
ta irauli beza ustu-arteraño
zorionaren ontziá.

Zorion-opa pien ordañez,
eskupeko bat, mesedez:
Euzkel-ikastol ta langiñentzat,
jauna, gureztat ezer ez.

Artzai jatoñak maite du ziñez
bere mendiko txabola:
euzkeldun onak maitego dute
auñen euzkel-ikastola.

Zuk ere euzkera maite baidezu,
emaiguzu, ba, laguntza,
Tolosa'n laister galendu dedin
gure aitonen izkuntza.

Gose diraden langiñe batzuk
ba-ditugu gure etxean,
oyentzat ere eskupeko bat,
Jainkoaren izenean.

Eskeñik asko, ta aguñ, anayak,
zuekin bedi Jainkoa:
bekizute emen pake donean,
goyan zorion osoa.

* Jautarkol, *Ekin* 26 (1932) 1; Jautarkol, *Euzkadi* 6119 (1932) 5; Jautarkol, *La Cruz* 199 (1932) 4-5.
Euzkadin "y" dun formak erabiltzen ditu: "etsayak".

* Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 6287 (1933) 8.

ATOR, MAITEÑO*

Maiteño bat ba-nun benetan maitea
aragi gabeko neskutz maitalea,
edertasunaren irudi sorgiña,
amets urdin baten izpi atsegiña.

Aren maite-musu, laztan emankorak,
gotzon-besarkak lez, garbi, eztikorak.
Begiok etzuten ikusten aurrean,
bai orde biotzak igartzen barnean.

Eresiz orduan josten zan gogo,
euzkia sortzean oi danez basoa:
musu zemakidan goi-izpiak muñetan
ta asten zan eztiki biotza kantetan.

Aragi-jantzia erantziz begiak
jantzi oi-zituzten gogo-uts-janzkiak
t'eder-miñak jota zerurontz begira
ortzean zekusten Jaun-Goiko-dirdira.

Bizitza beña zekusten luñean
dirdiraz izaki oroen gañean.
Orduan soña au bai urduri ta miñez
gogoak ziona mintzatu eziñez...!

Orduan, txorien txintaka sotiñak,
lore ta zugaitzen izketa-aldi ixilak,
ibaien mur-murak, itxas-uirñ-oñak...
bai zitula ziñez aditzen gogoak...!

Basoko orbelaren eres negartia,
ortze ta luñaren añats-abestia,
euskeraren deiak, mendien negañak,
Aberñ-amaren bizitz-deadañak...

* Jautarkol, *Zeruko Argia* 169 (1933) 4; Jauregi'tar K., *Euzkadi* 6466 (1933) 8; Jauregi'tar Koldo, *Tierra Vasca* 201 (1933) 2.

Tierra Vascan "rr" dun eta "ll" dun grafia darabilte.

Euzkadin Maiteño bat ba-nun izenburua du.

Tierra Vascan Naigabe sakon ta ixil-une luxe-ostean izenburua du.

Orduan zituan entzuten gogoak¹
ta goruntz jotzen zun zabalduz egoak:
t'eztiki begiai negar-zeriela,
kantari asten zan nere ereskin aula.²

Ixilik dago³ gaur nere ereskin zaña,
len eresiak lez, dario⁴ negaña,
kabi-bazteñean zaurituta miñez
ixil-ixil dagon urtxindoña lez.

Esna adi ta gertu, nere ereskin kutun,
nere poz-naigabe-alditako lagun.
Abestu, txoriak ekaitz-ondorean
umetxoei deika kanta oi-dun eran.

Txistuka bañuan ari zan aizea
ixildu ta sortu baizaiguk pakea:
kanta ezin ukan naigabe latz ura,
otoitz biurtuta jun baidek Zerura.

Ator, ba, Maiteño, neskutz zerutaña,
amets zoragañi, edertasun-gaña...
Ne-bizitza i gabe, bai ixil-mospela!
udaberñi gabe basoa bezela.

¿Zergatik nigandik iges ebilenan?
Ni ire bila beñiz, eroaren gisan,
iretzaz galdezka bide-bazteñetan
t'egañiz urtutzen maitasun-gañetan.

Ba-ator ixil-ixil maitearengana...
Oartu diñat bart ire muiñ laztana.
Biotzak ba-zekin urbil agonala,
nabaitzen din ire janzkien itzala.

¿Zertaz ago bildur? Orain lengoa naun
ta irekin il-arte nai diñat nik iraun.
Ator, ta ire atsaz loretu biotza,
besarkaz ta musuz urtu gogo-izotza.

Zuspertuz zañetan poesi-sukaña,
piztu ilezkor guraz nere ereskin zaña,
askatuta geroz ere Aberñiak
gogoan ditzadan nere abestiak.

¹ *Euzkadin* eta *Tierra Vascan* "Entzuten zituan orduan gogoak".

² *Euzkadin* eta *Tierra Vascan* "kantari hasten zan ereskin motela".

³ *Euzkadin* eta *Tierra Vascan* "ago".

⁴ *Euzkadin* eta *Tierra Vascan* "dario".

DEUN AGATE'REN ESKALE*

Tolosa'ko E. G.'k eraturako olerki-txapelketan bigarren saritua izan zan olerkia

Eup, euzkaldunak, aguñ, anayak...! Gora Tolosa argitsua...! Añera zintzoz entzun ta jaso gure maitasun-oyua.	Ez da euzkaldun izenaren gai gure eskola maite ez duna: euzko-odolaren ukatzale da eta sasi-euzkalduna.
Maitasun-oyu, eup anaiakoñ baitira gure bertsoak: ez gakañ zuen añera iñolaz iñor mintzeko asmoak.	Ziñez euzkaldun zeratenok, ba, emaiguzute laguntza, Tolosa ñ laister galendu dedin gure aitonen izkuntza.
Aberiaren koplari gera, Santa Ageda'ren eskale, euzkel-ikastol, langiñe-alde gabiltza kalerik-kale.	Gure langiñe beartsuentzat ere ba-gabiltz eskean, lanik ezaren atzapañ beltza sartu baizaiagu etxean.
Ziñez atsegin zaizute txori kantariaren kayola: atsegiñago umez josirik noski euzkel-ikastola.	¿Beren erian gure anayei goseak iltzen guk, ba, utzi? Euzkotañ izen garbirik ordun ez genduke egiz merezi.
Euzkera degu gure mintzo-ta biotz-barneko zantzoa, Aberiaren oñari bizi t'euzko endaren gogoa.	Sartu sakelan eskua eta... eskupeko bat, mesedez; euzkel-ikastol ta langiñentzat jaunak, guretzat ezer ez.
Gure umetxoen ikastola da euzkeraren mintegia, or sortzen dira mentu sendoak t'euzkaldun-baso berria.	Eskarik asko, ta agur guzioi... Zuekin bedi Jainkoa. Bekizute emen yake donea, goyan zorion osoa.

* Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 6289 (1933) 8.

EÑENDERI'KO MADALEN DEUNAREN ELIZATXOAN*

Eliza txiki ta ixila, oroigai eztiñ kutxa, malko samiñen ontzia, gure asabak, esku zabalez, maitasun-pitxiz josia.	Esan, Madalen edeña, grñen atsegin-ondartzan eztirik ote dagoan, t'oñaze-ezteniñ arki al-leiken Josu'ren oñen ondoan.
Anai-gudate luzean gure aitonen babesa, otoitz-leku paketsua, maitasun-deiez, eskari gartsuz, malko beroz gantzutua.	Esan, gizarte-algarak ez al-diran geienetan naigabearen txantxoak, t'ez ote diran zorion-ibai, oben-nekezko malkoak.
Begi eder-negartsuaz beti maiteki begira eskuan dun gurutzari, aldare-erdian dago Madalen bide-erakusle, zaindari.	Zure biotzaren kaian sartu oi-ziran ontziak zekarzkizuten emaitzak, ¿zorionaren luñña al-ziran, ala amets-gezur-agintzak?.
Maite-damu zindoaren zurezko irudi bizia, lore il, Euzkiak piztua; suzko ondartzatik itzal-kabira jo zun uso zauritua.	Zure españetan lertzen dan iripar lore-goriak, zure bekoki barean dirdiz-dagiten Zeru-izpi oiek, diote izketa ixilean.
Maite-miñez zauritua kabirik-kabi zebiltzan abestuz txinta eroak... Josu-begien maite-txinpartak ere zizkitzun egoak.	Zorionekoak, ziñez, oben-kaiako kateak apurtuta, zuk bezela, malko-itxasora jotzen dutenak, ontzi-zai, Josu dutela...!
Ere zizkitzun egoak, erori ziñan luñera, ustu zenduan negañez bañengo pozoi ustela eta bete zindun Zeru-gañez.	

* Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 4 (1933) 139-141; Jauregi'tar Koldobika, *Yakintza* 1 (1933) 28; Jauregi'tar Koldobika, *Oarso* 21 (1986) 42.

*Eusko Olerkiak*en hasierako "j" k "y" idazten ditu: "Yosu".

Oarso "rr" dun eta "ll" dun idazkera darabilte.

GONZAGA'TAR LUIS DONEARI*

Ertak. Itoliko semea Loiola'ko izara
aragizko aingeru, uso zerutara
entzun gure otoiiza Luis Gonzaga'tara.
Aren, artu gaitzazu zure babesean
munduko itxas gaiztoan ito ez gaitean,
luzatu zure eskua ekaitza danean
sartu gure ontzia lenbailen kaiean
lenbailen kaiean...
ito ez gaitean.

Batek: Jesu'en gurutzea daukazu eskuan
lore usaitu txurien xortaren ondoan.
Sartu gurutze ori gure biotzetan,
landatu lore oyeke gure ezur muñetan.
Maiz igurtzi gaitzazu Kristoren odolaz
ez ditezen loreok il zugan inñolaz.

* Jauregi'tar K., *Gure Mutilak* 51 (1933) 24.

ZURE OROIZ*

(Lizardi, olerkari ta adiskide zanari, maitez ta naigabez)

Irtan biotz-kabitik, bertso negartiak,
bertan ito baño len negar-ituriak.
Udaberia-aureko enara gaixoak
il-obi baztefean nega'rez jayoak...!

Zure oroitz, Lizardi, ta zuri begira
sortu zaizkit, ta zutzaz baka'rikan dira.
Il-obian zurekin bizi nai lukete...
Emayezu txoko bat, zu esnatu arte.

Biotz-oiuak dira eta adizkide-oroitza,
olerkari-agura eta apaiz-otoitza.
Baña ileta eresi miñena, gordeta
daukat barnean, itzez ezin esan-eta.

Ba? dakizu biotz-min sakonak, bertsoan,
olerkariak ezin abestu askotan.
Oyek ere entzuteko, baña gaur zera gai
poesi-itxas-erdian baizaitugu alai.

Entzun-ba, nere baitan, min-eresi ituna
biotza negar-malkoz abesten dizuna.
Au nere biotzaren utsune samiña...!
Au bai naigabearen min etsi-eziña...!

Nere biotzak ainbat zinduala maite,
adizkide, neronek ere ez nuan uste.
Gogo barnekoa izan gure maitakuntza,
eriotzak azkatu ezin dun eztuntza.

Aldiak itzaliko ez dun maite-sua,
geroak sendotzen dun besarka estua.
Ixil-unetan biok mintzatu gaitean,
alkar poztuaz orain eztizko otoizean.

Gero ortxe nauzu laister zabalik besoak:
olerkariak zartzuz ez gera iltzekoak.
Ez egin, bada negar, ene biotz-bera,
sinisimenik ez duten gaxoen antzera.

Emazte maitalea, txukatu malkoak:
ez dira negargari Zeruko gogoak,
Semetxoak, begira goruntz a'ratsean...
Antxen dago aitatzko Zeru ederean.

Zarautz eta Tolosa, Euzkadi osoa...
Goruntz jaso biotzak ta alaitu gogoa:
lagun bat geyago gaur guk jaunaren aurean,
bultzagai bat Euzkadi'k zorion bidean.

Euskera gaixo o'rek bai, zuk egizu negar:
lurean auzpez egon atsekabez dar-dar.
Txindor bikañagorik beriz gizalditan
Jaunak ez du sortuko zure basoetan.

Bere ereskiña au dago nega'rez txokoan.
Nork ote du artuko maiteki altzoan
ta kantarazi berriz abesti samiñak,
biotzondo sakonak t'eres atsegiñak?

Ixildu da betiko edeskin bikaña,
euzko-mendietako txindor-atsegiña...
jaunak eman zigun ta Jaunak kendu digu,
Naigabez zure naya, Jauna, gurtzen degu.

* Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Olerkiak* 4 (1933) 144-146; Jauregi'tar K., *Euzkadi* 6342 (1933) 8; *Tierra Vasca* 201 (1933) 8; Jauregi'tar Koldobika, *Yakintza* 3 (1933) 185-186.

*Eusko Olerkiak*en hasierako "j" k "y" idazten ditu: "yaoiak".

Tierra Vascan "rr" dun eta "ll" dun idazkera darabilte. Izenburua ZURE OROITZ da.

ILTZEN NAIZEN EGUNEAN*

Adiskideak! Ez egin negar iltzen naizen egunean.
 Zergatik negar gau gaitza jun ta euzkia piztu danean?
 Arizko gurutz aundi bat baizik ez nere gañean jañi.
 Eta lorerik zere eskulan aruntz netzat ez ekari.
 Bañan ez kendu gurutz' alboan jayoko dan untz' oria.
 Ta ez uxatu gurutz gañean kantari dagon txoria.

* Yauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 191 (1934) 368-369. Kanta da.

¿NORUNTZ JO...?*

¿Noruntz jo Zu utzita Maitale laztana
 Gizonik ederen begi beltzerana?
 Ezti ituri zaizkit zure ezpafiñ goñiak
 Ortzia dirudi zure bekokiak.
 Maitale guztien laztan oro baño
 Zure musutxo bat askoz det naiago
 Izotz biur zaizkit bestien musuak
 Biotza berotu zurearen suak.
 Zure zigoñaz jo nere biotz aitzia
 Biguindu loia lez t' eman zure antza
 Damu malco ituri begiok biurtu
 Nere bioztzoa Zureagan urtu.

* Luis Yauregi, *Zeruko Argia* 187 (1934) 304-306. Kanta da.

AMONATXO ESKALEAK ESAN DIT...*

Amonatxo eskaleak
esan dit gaur goizean:
"Seme bi, gazteak, ditut
nekin biok etxean:
batek paubrikan lan-dagi
lau egunez astean,
bestea, lanikan gabe
alperkeriz kalean."
Ta, negar-malko bat utziz
mantal beltz-egalean;
"Bestela bizi oi-giñan
gure gazte-denboran.
Orduan, euskaldun zanak
ba-zun lana erian:
Paubrikan amabi orduz
oi-genduan lanean,
pestatxo bat irabaziz,
besteik ez, egunean:
Ta pozik bizi oi-giñan
danok pake ederean...
Orduko alkartasunik
ezta gaur gu-artean.

Pertza bat bear ba'nuan
arkitzen nun auzoan,
ta auzoak eltzea nai zun
arki oi zun nerean.
Obe genduke gaur noski,
orduko irabazian
orduko erara bizi
Euskal-Eri maitean...!
Orduko maitetasuna
euskaldun biotzetan,
alkar-lagundu-nai ura
eri eta auzoetan,
ez luke euskaldunak ordun
asi bear eskean."
Limosnatxoa sartu zun
mantal-patrika aundian,
luřetikan artu zuan
otar zařa eskuan,
ta aterki zuloz josia
jařirik galtzarbean,
eskale amonatxoa
jun zan bere bidean.

* Jautarkol, *Euzkadi* 7141 (1935) 12.

BELEN'EN*

Ama Birgiņa Jesus Aurtxoa
dula belaunetan,
estalpearen aũean dago
Aũari festetan.

Belaun-gañean zutik jartzen du
exeita aldietan,
musuka, beřiz, jango duela
dirudi bestetan.

Aingerutxoak aiei begira
kantari inguruan,
ta Aita Jainkoa guzia ikusten
poz-pozez Zeruan.

Mendi-alderontz aien aũetik
artzaiak dijoaz,
ta igarotzean, agur! diote,
makilak jasoaz.

Belen'go umeak estalpetxora
danok nai etori...
Etxe prankotan jaři dituzte
naiko ixtiřu gori.

Amonatxoak eguzkia artzen
etxe-atarian
beste konturik ez darabilte
oraingo aldian.

— "Ikusi al-den goi-estalpeko
Aur jaiio beřia?
Euzkia bařo argigoa den
aren arpegia.

Ez diřat uste pobre batzuen
semetxoa danik:
eregezkoen aũa denala
egingo niken nik".

* Jautarkol, *Zeruko Argia* 193 (1935) 12.** Jautarkol, *Euzko Gogoia* 5-6 (1952) 4; Jautarkol, *Euzko Gogoia* 7-8 (1952) 2. Jauregi'tar Luis, *Izaskun* 73 (1953) 6.
Euzko Gogoian eta *Izaskunen* "rr" dun eta "ll" dun grafia.

BELEN'EN**

Belaun-gañean tente jartzen du

*Belen'go umeak estalpetxora
danok nai etori...
Etxe prankotan jaři dituzte
naiko ixtiřu gori.*

*Amonatxoak eguzkia artzen
etxe-atarian
beste konturik ez darabilte
oraingo aldian.*

*— "Ikusi al-den goi-estalpeko
Aur jaiio beřia?
Euzkia bařo argigoa den
aren arpegia.*

*Ez diřat uste pobre batzuen
semetxoa danik:
eregezkoen aũa denala
egingo niken nik".*

— "Erregiñaren arpegia din
Andre Mari'k ere...
Nola utzi ote genizkiñan guk
ostaturik gabe?"

Jesus Aurtxoa loak artu du
Amaren besotan...
Aingerutxoak ixildu dira
egon dedin lotan.

Zeru-iriparra erdi-lertuan
dauka ezpañetan...
Oi, amets-dagi... Norekin ote
dago ametsetan?

Jesus, egizu, egizu amets
maitale zaitudala,
aurtxo txikiak
amatxo bezala...!

*Orain guziok nai dizkiñagu!¹
artu gure etxean:
alkate jaunak ere artuko
lizkiken berean".*

jarrai dezan lotan.

*Gurutze-antzo zabaldu ditu
orain besotxoak...
Gurutzeakin amets al dagi
Jesus'en gogoak?
Kalbario'ko ametsa, noski,
gogoan Aurtxoak.*

BELEN-JETSEMANI*

Jesus jaio zanean
Belen-estalpean,
Belen'go ume pila an zan
urengo goizean.

Aien poz-atsegiña
esatekoa ezta:
Aurtxoai pa-eman nai,
danok ein nai festa.

Amaren magalean
Aurtxoa iripañez:
pozaren pozaz Amak
biotza negañez.

Umeak beren naia
agertu naiean
kantari asten dira
estalpe-aurean:

"Eperak ari dira
basoan kantetan,
Mesias jaio dala
estalpe onetan.

Zeruan ari dira
izañak abesten:
gure Jauna agertu da
Juda'ko Belen'en.

Mendirontz igo dira
kantari artzaiak:
Zeruak eta luñak
gauñ dituzte eztaiak

Andrea, utzi zaiguzu
juten Aurangana,
festatxo bat egiten
ematen pa bana."

Pozez zabaldu zitun
Aurak besotxoak
ta Amak erantzun zien:
Atozte, enetxoak...!

Umeak banan-banan
Jesus'engana duaz:
Jose an zegon zutik
pozez zoratuaz.

Bat-batean Aurtxoa
negañez asi zan:
Mari ta Jose'n lanak
ixil-eziñikan...!

Ez negarik, kuñuna...
Nun dezu pupua...
baña ark negar, biotzan
jaririk eskua.

Naigabez ta ariturik
zeuden Jose ta Ama:
Amak ostegun santuz
ulertu zun dana.

Ostegun santuz, gauaz,
baratza donean
Judas gaiztoak musu
eman zuanean.

Judas mutiko zala
osaben etxean
Belen'en bizi baizan
Jesus jaiotzean.

Belen'go umetxoekin
jun zan estalpera
Aurtxo jaioberiai
musu ematera.

¹ Euzko Gogoan (7-8) eta Izaskunen ez dago ahalpaldi hau..

* Jauregi'ar Koldobika, Euzkadi 6963 (1935) 12.

Banaka Jesus'ganontz
umeak zetozten:
Auñ pozez ointxoak
t'eskua dantzaten.

Baña Judas umea
urbildu zitzaion:
deadar-negarari
Auñak eman zion.

Onek eman dio min,
zioten umiak,
Judas'i zuzendurik
asafez begiak.

Bañan Maria'k zion:
semetxo, zer dezu?
orek bestek bezela
eman dizu musu.

Negar añek ba-zuan
zerbait añgari:
Ama Mari'k ondotoxo
ai, zion igari.

Belen'go gertaera au
bizitza guzian
gordeta euki zuan
biotzan erdian.

Ostegun santu-gauan
ulertu zun dana:
Auñak gogoan noski
gaurko muin-laztana.

KATALIN*

I

Begi erneak ditu Katalin edeñak,
begi erneak eta erneko biotza:
kantari asi dira basoan epeñak,
neskaren belarrian maite-kanta-otsa.

Amari esan dio bakar sukaldean:
Oregi'ko Patxiku zegon gaur sorooan.
Bakarikan ni joan ituri-bidean,
laxta utzita etoñiz jari zait alboan.

Oregi'n nai nuke, ba, beritu kabia,
— esan dit —, poztu dedin txori kantatiaz.
Ortako zugan daukat ustea jaria:
baitetz esan zaidazu beñepein begiaz.

Suak gañra dario sukalde zañean:
Katalin'en musuak su-gañra dirudi,
ta iripartxo ezti bat ama-ezpaññetan,
itxaropen lora lez, lertutzen da ageri.

II

Prañle bizar luze bat eldu da eñira:
eñi osoa dabil Mixio donean.
Jaun-Goikoaren itzak azi indartsu dira
biotz-luñak apalki jaso oi ditunean.

Katalin'ek ez du nai eñomerira juan,
senargaiaren itzak orain zaizkio min,
Jesus ona baitauka musuka bañuan
maitale au besterik etzaiotsegin.

Argi aundi bat zaio piztu biotzean,
ega indartsuak sortu zaizkio gogoan,
ta indarka goruntz-dagi egada luzean
kabia jari nairik Jesus'en alboan.

Itxaropen-lorea malkoen beroaz
amari igartu zaio ezpaññen gañean
alare fede biziz esan dio: Zoaz,
izan zorionsua Jaunaren etxean.

III

Usotegi bat dago menditxo gañean,
uso zuri-zuriak urumaz bañuan:
euskal-uso beñia gaur sartu denean,
pozez uso guziak aren inguruan.

Pozaren pozaz negar-dagi usotxoak,
arkitu baitu opa zuan aterpea.
Oregi basetxean mutil gizajoak
negar, ezin-azturik Katalin maitea.

* Jautarkol, Euzkadi 7138 (1935) 12.

MAITE-OPARI*

Zer dek, ene biotza, legorti eta ixil?
Ire-kanta iturria betiko ote dek il? &

Olerkari nauk ire abestiei esker:
ik kanta, nik idatzi: etzekit beste ezer. &

Argatik i ixilikan, bertsoak ere ez nik.
Nola kanta iturriak iturburua ilik?

Ez dagit aspaldian irintzirik pozez,
naigabe-deadirik, maite-deirik ere ez.

Ametz urdin sorgiñen kabi bero itzan len:
iregandik eorrek dituk gaur uxatzen.

Ilargiaren musu legunik ez dek nai,
ta aietik ez dek jartzen izañen izketai.

Eluñeko ilobian sartu dek burua¹,
orela itzaldu nairik ire eresi-sua.

Zearo itzali al-zaik kantu-sutegia?
Udaberik ez al-dik piztu gar beria?

Txoriekin ez al-aiz asiko kantari,
bizitza berri baten txindor olerkari? &

Eusko odola maiteki ari zaiguk deika:
Euskera ta Aberia olerkari eska. &

Jaiki akit, biotza, zabalduz egoak:
ire asnasez sutu berri bertsuak.

Ez nazak utzi, gazte ta ametsez beteta:
kantik asko oraindik bañun dituk-eta.

Bañun somatzen diat eresi-murmuña,
txori kantari-kabi antzeko susmuña.

Abestu, ba, biotza, ta aztu ire bañena...
Bertsuak nik maiteenak, otoitzan uñena.

Oraindik ez zaidak, ba, zorion auxe ken...
Jañai dezadan bertsoz ire kantak janzen. &

Biok maite-musuka laztandu gaitezen,
nere bertsoak, bion semeak ditezen. &

* Jauregi'tar Koldobika, *El Día* (1935) 5; Jauregi'tar Koldobika, *Ekin* 152 (1935) 3; Jauregi'tar Koldobika, *Euzkadi* 7000 (1935) 12; Jauregi'tar Koldobika, *Yakintza* 16 (1935) 257-259; Jauregi'tar Luis, *Arnas* 1 (1959) 57-58; Jauregi'tar Koldobika, *Eguna* 177 (1987) 25; Jauregi'tar Koldobika, *Oarso* 31 (1996) 160-161.

Arnasen “++” marka duten ahapaldiak agertzen dira.

Egunan “&” marka duten ahapaldiak agertzen dira. Gainera bertso hau “zuka” idatzia dago, eta “h”ak ditu.

¹ *Ekinen* ez dago ahapaldi hau.

Leengo semeen tankera soiñan ditekenak:
nara azal ta margo, ta ire goi-kemenak.

Gukin biziko dituk, gu bion pozgarri,
aiei beti begira ta musuka sarri. &

Gu ilta aiek ere gurekin ilko dituk, noski:
ta zer? Guraso izanaz poz gaitezen beti.

Biziko ote ez al-dituk, luzaroan, gu ilta,
gure ilobi-gurutzan, untza lez, josita?

Ez ote dizkik iñork artuko etxean,
umexurtz, maite-egari, geldi diranean?

Ixo, ixo, biotza... Ez asi negarez!
Olerkariak goruntz jo bear dik garez.

Entzungo gure kantik iñork ez dikela...?
Alare kanta, gaez txindorak bezela.

Ixo, ixo, biotza... Negarik ez egin...!
Erein zagun guk beintzat, ta lanean ekin.

Zer diok, alare ilko dekela Euskera,
t'otzez, maitasun-ezaz, eskale antzera...? &++

Ori gertatzen ba'da, Zeruko Jaun ona,
Euzkadi'ri ukatu bere zoriona. &++

Bizi bedi negarez moñontza estuan,
eri aske tartean lotsez ta izkutuan. &

Askatasun-euzkirik ez dezala ikusi,
bere izkuntza il-ondoren, ez du-ta merezi. &++

Alare, ene biotza, jañaitu kantari
Jeremias antzean, Euskaleriari. ++

Jaingo t' Euzkadi' rentzat gure maite-gara,
gure asmo, ametsak ta gure negara.

Artu, ene Jaun-Goiko, ene², Aberia,
olerkari ta seme-maitezko oparia.

Maite-opari ontan, naizen osoa doa:
ne-biotz lorontziko lore-xortatxoa...
Zure begien izpiz, ene Jaun-Goikoa,
loratuko al zait maiz lorontzi gaixoa,
bere usaiez poz dedin Aberi-gogoa,
Euskal-Eri biurtuz, Euzkadi osoa.

² *Yakintzan* eta *Oarson* “artu”.

OLERKARI BATI*

(Lauaxeta'ri *Arrats Beran* irakurri ostean)

I

Oroituko zera, noski... Udaberi egun batez,
bidean alkar topatuz, lotu giñan maite-katez.

Parnaso-bidean gora, neke-izerditan nihoan;
eldu nintzan pagadira, t' eseri ituri ondoan.

Laister an ziñan zu ere, gazte ta ametsez betea,
eskuan zenekafela garaipenaren lorea.

Olerkarien koroia jari zizuten buruan,
ta txaloz sartu ziñen¹ euskal-Parnaso-baŕuan.

Geroz etzaizu zimeldu zure garaipen-lorea:
geroztik dirdiratsugo zure koroian uŕea.

Eder-miñez gaxotuta jo zendun urduri egan,
zure miña senda-nairik galuŕetako aizetan.

Murgildu zenitun egak euzkiaren goi-argitan
t'eres sorgin izkutuak gauai oztu kolkotikan.

Zure kantaz baso zaŕa dar-dar jari zan orduan;
txorik esna, ta asi² ziran kantari zure inguruan.

Maitez zauritutako uso uŕumakoŕen samiñez
sartu ziñan bizitzaren baratzean beriz miñez.

Ta maitasun-bide-ertzean eseri ziñan egaŕiz,
ta ikus zenitun maiteak ase-eziñaren min lariz.

Maitaleen lore-barnean ikus zendun ar zikiña
ta uŕezko maite-edontzian nasturik ezti t'ozpiña.

Zure maitale kutuna etzenduan arkitu iñun;
Eder-iturietaño ega ziñan biotz-iñun.

Zure biotz-irudia zendun irari kantetan,
bizitza-zatiak bertan lagaz bizik, odoletan.

* Jautarkol, *Euzkadi* 7075 (1935) 12; Jauregi'tar Koldobika, *Argiaren Egutegiak* 15 (1936) 61-64. Jauregi'tar Koldobika, *Oleriti* 3-4 (1962) 42-44.

¹ Oleritin "ri" dun eta "li" dun grafia darabilte.

² Oleritin "zinduten".

³ Oleritin "ari".

II

Gaur jostaŕu ta urduritsu, mitxirikaren^a antzera,
bizitza loretegian, olerkari, sartu zera.

Loraen alkar-izketak entzun dituzu aŕetaz:
biotza gantzutu dezu aŕatsaren malkoetan.

Loretegiako esian aŕats-beran eseriaz,
ikusi dezu igarotzen giza-gurdia kirinkaz.

Ardo-zatoak eskutan, poz-irintziak airean,
odol-tanto, lore-igaŕak gurdi-atzetik bidean.

Zure barnetik kanpora jo dezu gaur, olerkari,
bertso arin-jostaŕutan gizarte-eresak kantari.

Lurak bere beatz leunez ikutu ditu biotza,
ta irauli bertsotara zuk, lurkoi poza ta mingotza.

Begitan josi zaizkitzun lurkoi-bizitza-argazkiak
kolkotik irten dituzu biurtuz kanta biziak.

Beren ega ñabar-meetan dakarte³ bizi-dardara,
kabi-ertzean ama-zai txorikumeak antzera.

Eder-izpien dirdira dute luma nabaŕean,
euzki-izpiena aŕats-beran, odeiak duten antzean.

III

Olerkari, zure kankak sartu utsez nere gelara,
utzi dute usai gozozko alako ikuŕu-dardara.

Izkutuzko ots ezitxo bat entzuten diet kolkoan,
ta azi mardulak ikusten dizkiet egal⁴ beroan.

Gutxik nabaitu⁵ dute zure lanaren sakona;
gutxigok egingo die zor zaien abegi ona.

Aiskide, ez dio ajolik: zure kankak uxa gora...
Zure kolkoko txoriak bialdu euskal-basora.

Nik bezela, aiskide batzuk, irikiz gela-leioa,
emango baidietegu aterpetxo bat goxo.

Egoetan daramaten azia noizpait luŕean
ez ete da ernaituko eluŕa urtutzen danean?

Txoriño egalariok, ekin txioka basoan,
t'egal-ikuŕu goxo bat utzi dardaraz gogoan.

^a mitxirika: pinpilinpauxa, tximeleta.

³ *Argiaren Egutegiaren* "dagerte".

⁴ Oleritin "ega".

⁵ *Argiaren Egutegiaren* "nabaituko".

PEKATU-ZELAITIK*

Yesus, pekatu-zelaitik
zauriz t'odolez yosirik,
ba-nator beriz Zugana,
Yaun erukior laztana.

Lore politik usaitzen,
mitxiarik gora uxatzen,
masusta beltzak yan ta yan,
nebilen alai yolasan.

Belartzan ixil sugeak,
egan miru ta beleak...
Zauriz yosita azkenetan
utzi niñuten belartzan.

Zutzaz oroituaz ordun
biotzez dei-egin nizun
t'entzun nun Zure txistua,
Zure maitasun-oiua.

Aldendu ziran sugeak
ta iges yun miru-beleak.
Nekez yeiki, ta erenka
abiatu, Zuri deika.

Txistu ta txistu Zu beriz,
nun zeunden adieraziz.
Emen naukazu negaiez,
sutan damutasun-gaiez.

Sendagile biozbera,
Maitale erukitsu zera...
Ez, ba, aseretu... Barkatu...
Nere zauriok sendatu.

Ergela naiz, kaxkariña...
Ez maite-musu diña.
Aur biuri ezikaitza
mezi det Zure esku latza.

Senar maitale antzera,
nekin gaur-arte izan zera
lartan gozoz t'ezti-musuz
nere biotza uñumatuz.

Nik, Zugandik iges alai...
Zu, beriz, nere zai.
Nolaz nauzu ainbat maite?
Ain gaiztoa ni, noiz arte?

Beñe ez nedin Zugandik yun,
nedin Zure maite kutun,
Zure gurutzean lotu
nazazu gaur estu-estu.

* Jauregi'tar Koldobika, *Yakintza* 13 (1935) 21.

SABIN'EN ILLOBI ONDOAN*

Maite-miñez il zan...! Besarka estuan
maitea gartsuki besarkatu zuan...
Maite-besoetan il zan maitalea,
eguzki galdatan oi danez lorea.

Ildegi txikian, itxas-bazteñean
maitale-gorputza datza lo donean.
Txoriñoen txintak, lore usaidunak
ta itxas-murmuña aren betiko lagunak.

Maite-opa beroz josirik biotza,
eskuetan lorak, aoan otoitza
udara-afatsalde argitsu batean
luzaro egon naiz il-obi-auñean.

Negar-malkorik ez: ez da au negar-toki.
Emen, zin bizkoñak ta asmoak egoki.
Aintza-zuri, Sabin, maitale laztana,
Abenda laztanduz, maitez il ziñana...!

Zure besarka bai emankor-zoruna
Aberri beria sortarazi zuna!
Geroztik euzkoak umezurtz ez gera;
ba-degu Euzkadi, Ama biozbera.

Nere gaztaroko goiz alai batean
arkitu ziñudan nijoan bidean.
Argi beñi batek jo niñun buruan,
maitasun beñiak ikutu bañuan.

Barnean ixilik neukan ereskiña
abesten asi zan kantu atsegiña.
Ots-egin zidaten "Olerkari zera",
ta jo nuan egan mendi-tontoñera.

Entzun nituen gure mendien uluak.
Euskeraren antsi ta Aberri-oyuak,
ta, esnatu nairik euskaldun lotiak,
abestu nituan kanta negartiak.

Nigan dirdiz-dagin olerti-argia.
Sabin, zugandik det nigana jetxia.
Argatik nun beti onuntza gogoia,
lur oni eman nai musu bat beroia.

Au nere barneko pozaren bizia...!
Ez aut aztuko iñoiz, ene lur maitea,
ire kutsu-usaia zaramakit auan
ta oroigai-sua gañetan goguan.

Ez aiz gizon baten il-obi ustela:
euzko gogoaren seaska epela.
Emen aziko dek gure Aberria
ta altxako dek noizpait kemenez josia.

Bitartean, Sabin, egizu lo lasai
euzko-gurendaren egun aundien zai,
Aberri-seaska dan zure il-obia,
ordun, Abendaren aldare nausia.

Apal bizi eta il, apal zaude lotan.
Bañan Aberriak, arturik besotan,
goralduko zaitu bere egun aundian
euzkoen aitari dagokion eran.

Eta ik, Sukarieta, lirain ta txikia
euzko-erietan eri onetsia!
Zaitu, ire eraietan daukaken altxoña.
Aberri-seaska, Sabin ilezkoña.

* Jautarkol, *Euzkadi* 7150 (1935) 24.

UDARA ARRATSALDEZ...*

I

BASO BIDEAN

Noan basora
artuz makila:
dezadan gora
kanta-gai bila...

Zaunga ta oi
nere zakuñak...
Nekin yun nai du
gaizto-maltzuñak.

Atorkit lagun,
ta ibili zintzo.
Aska dezagun...
Onen poz-salto...!
Guazen geldiro...

Gurdi-bide zar-estua,
—baso-eme biuria—,
oro maitez gantzutua,
pake ta ixilez yantzia...!

Tristuraz ago betea
alboan erekatxoa,
—ire lagun-zar maitea—,
ikusiz iltzen gaixoa.

Ematen diot, ba, itzala,
baita luzatzen eskua,
baiña, lorea bezala,
laister ilko zaik gaixua.

Orain beste laguntxoak
datorzkit basotik beera,
—zozo ta karnabatxoak—,
ire tristura arintzera...

* Yautarkol, *Yakintza* 20 (1936) 87-89.

II

BASOAN

Emen ago erne ta zai,
ene zakur, lagun prestu,
isats-tente, begi-alai,
maingain-luze ta asnas-estu.

Ez akit yari oiñetan;
utzi nazak bakar orain;
egik yolas belartza artan,
nere baitan bildu nadin.

Au ixila ta pakea!
Asnasez dago basoa;
abañetan aize meea;
kunkuñun kunka garoa.

Bizitza-luriñ eztiak
estaltzen nau usai gozoz.
Besteik ez dakus begiak:
bizitza bere indar osoz.

Aurdun dagon ama indartsu
arto-soroak dirudi:
euzkiak damaio musu
eta ark poz-algara dagi.

Dirdira biziz yantzita
ageri zait belardia,
ta, lo euzkitan etzanta,
lur landu-beñi goría.

Estaltzen mendi ta ibaia
dator laiño mee-argia...
Ote da euzki-negaña,
ala artsalde-poz-iria?

Yanzki zuriaz yantzia
zelaia orain da ageri:
andre-gai ezkon-beña
eliz-ateetan, dirudi.

Laiñoaren muin ezti-
esnatu da lur goña...
Eriotzari igesiaz
doa izkutatzen euzkia.

Noizean-bein, su bizia
dariola, odeietan
agertzen du arpegia,
laiñoa urtuz, garaile eran.

Eriotzak bere ezpataz
euzkia ote zauritu?
Odeiak, beintza, odolaz,
gori-gori yañi ditu.

Artsaldea dago il-zori...
Tristuraz yañi da luña,
lo daude baso ta mendi...
Nere alboan zakuña
isatsa astinduz biziki
etxeruntz nairik urduri...

III

ETXERUNTZ

Belar-onduz yosia,
menditik-beera,
gurdi kirinkaria
doa etxera.

Txistuka kanta alaia
duela aoan,
lerden ta geldi itzaia
gurdi-ondoan.

ANGELUS dan-dan yotzen
kanpan-toñean...
Luñin gozoa botzen
sopa maiean.

ANAI-AGURRA*

(Nere anai Modesto ta Begoñi beren ezkontzako egunean, 1947-III-17'an)

Bizitzaren olatu
ta aizeak bultzata,
atzerri-lur oietan
Jaunak ala naita,
topa ziñaten biok
egun on batean,
ta lotu zerate gaur
ustarri batean¹.

Itxaropen gozoko
eztia darion
euzko kabi berri bat²
sortu da Mexico'n.
Sinismen suaz bero³
dezala Jainkoak
zabaldurik maiteki
gañean egoak.

Eztillargi beteak
bere izpi legunez
luzaroan argitu
beza gau t'egunez:
t'euskal txori alaiak
barruan sortuaz
alaitu dezatela
kanta ta soñuaz.

Au da nere agurra,
nere oparia...
Egan doakizute
bertsoaz jantzia.
Apaiz-bendizioa
da, ta anai-agurra,
Zeruko intza gozo ta
besarka xamurra.

* Jautarkol, *Euzko Gogoa* 1-2 (1952) 10; Jauregi' tar Luis, *Zeruko Argia* 14 (1955) 166.

Zeruko Argian "y" dun formak darabiltzate: "oyetan".

¹ *Zeruko Argian* "maitean".

² *Zeruko Argian* "Kabi bero-goxo bat".

³ *Zeruko Argian* "gartu".

ANAI-ARTEKO GUDATE-ONDOREAN*

Itxas-ontzi-zatiak
ekaitz-ondorean
olatuen jostallu
oi-diran antzean,
gelditu da Euzkadi,
utsik eta autsia,
munduko itxas nastuan
errukigarria.

Anai kementsuenak
il zaizkigun gudan,
urrun dauzkagu asko,
bestetzuk kartzelan...
Zenbat beren etxetik
artuta gauean
ilda laga dituzte
bide-bazterrean...!

Nun-nai bekozko illuna,
nunai ezezpina,
jauntxoen esku gure
dirua ta azkena,
biotzean bildurra,
nun-nai gorrotoak,
ezpainen itz txarrak,
begitan malkoak...!

Jauna, Goiko Jaun ona,
erruki zakigu!
Zigor au zure eskuak,
maitez, eman digu.
Entzun, ba, zure semeen
eskari beroak...!
Zure Erri kutunari
zabaldu besoak...!

Gogora zaite, beti
gure Euskal-Erriak
zuganontz jasoz euki
ditula begiak.
Beti aitortu zaitu
gizarte-aurrean...
Beste Jaunik ez du izan
gudan ta pakean.

Gugana itzuli zure
begi maitetsuak,
t'errukitsu barkatu
gure pekatuak.
Gorrotoak itzali,
txukatu malkuak,
batu euskaldun oro
zure babesean,
euskeraren besotan,
Euzkadia maitean...!

* Jautarkol, *Euzko Gogoia* 1-2 (1952) 10.

ANAI-ARTEKO GUDATEAN*

Guda-irrintziak
entzuten dira...
Piztu da gerra samiña...
Nun-nai negarra,
odol-ixurtze,
ta alkar ikusi-eziña.

Itxas arroa
orruka dago,
dardaraz euzko mendiak,
basoak illun,
eta negarrez
euskal baserri txuriak.

Euskal-Erria,
Euzkadi maite,
egin negarrez deadar!
Semeok alkar
iltzen ikusiz
egizu, bai, gogoz negar...!

Ama gaxoa...!
Noiz seme danok
maiteko zaitugu ziñez?
Noiz arte bizi
bearko dezu
semeengatikan miñez?.

Oi! Gorrotozko
ekaitz onetan
ilko ote zera betiko?
Ala burua
koroiz jantzita
dirdiraz, dezu jaikiko?

* Jautarkol, *Euzko Gogoia* 1-2 (1952) 9.

IZAR ZAARRAK*

Jauna daramaiot aitonatxoari.
Zuaitz-adarretan txoriak kantari,
eguzki-goiz-printzaz musuka mendia...
Goian, baso-ondoan, basetxe zuria.

Argiak eskuan, belaunak lurrean,
gizon-andreak zai ezkaratz-barnean.
Exerita aitona oi zurian gelan,
elurretan tente lore zuri-eran.

Gaixoa begiak ñir-ñir zai zegoan.
Bizitza-dardara berria kolkoan
piztu zaio ikusiz gelan Jaun lastana,
ta arriturik dio: "Jainkoa nigana...!"

"Jesus neregana...!" maitez ta apal dio,
ta negar gozoa mara-mar dario...

Jesus ta aitona besarka ezta...!
Aitona-begien irripar-argia...!

"Zerura, Zerura...", dio bat-batean
eskuak luzatuz, egatu-naiean.

Ta amaren altzoan eztiki aurtxoak
lo artzen dun gisan, eriotza loak
artu zun aitona Jesus-besoetan
irripar ezti bat utziz ezpañetan.

Amets legun baten irriparra aon,
gurutza estutuz eskuak kolkoan,
ta begi itzaliak Zerurontz begira,
egan egin zigun Betiko Argira.

Agur, aitona apal, euskal-kristau zaarra,
Fede-zuaitzaren gerriko adarra,
otoitzean xamur, gogorra lanean,
ta Abendaren izar-dirdira etxean...!

Ai! Gure izar zaarren dirdira xamurra
itzalduz, illuntzen ari zaigun lurra...!

Jauna, gure etxetan
piztu izar berriak:
zaar aien kiñuko
ta aik bezin argiak...

* Jautarkol, *Euzko Gogoà* 7-8 (1952) 1.

NEGU-AURREAN*

Ixil ixillik dago mendia,
illotzik bezela...

Ego-aldetik murmurka dator
aizetxo epela...

Osto bat ere ez, kabi bat ere ez
zugaitz adarretan...

Txori bat ere ez kantari beko
errekatoetan.

Euzki epelak ia uxatu du
goizeko lañoa:
zugaitzetatik dario oraindik
goiz-lanbro-malkoa...

Osto ori, igarrak, negarrez dabiltz
batetik bestera,
aterpetxo bat arkitu nairik,
eskaleen antzera.

Ixillik daude mendi-bideak,
illotzik bezela...

Dilin-din-dalan artaldetxoa
atzetik duela,

oraintxe dator artzai-mutilla
txistuka mendira,
ta bide zarroko bizitz-dardaraz
dardaratu dira.

Mendia ere bizitz-dirdiraz
jantzi da unetxoan...

Bide ta mendi, ixillak gero
ar ditu altzoan.

Bakartasuna, pake ta ixilla
soro-zelaietan:
tristura-kutsu ezin ezan bat
dir-diz belarretan...

Euzkiak berak tristura-izpiatz
alaitzen du lurra...

Goruntz dario bizi naiaren
irrintzi murmurra.

Ta belauniko goruntz jasorik
billutsik besoak,
ixil-ixillik otoi-tz-luzean
dirudi basoak...!

* Jautarkol, *Euzko Gogoà* 5-6 (1952) 4.

PEDRO'RI BEGIRA ZION...*

Oi, Jesus'en begi eder eta argiak,
Jainkozko dirdiraz, errukiz beteak!...!
Beira nazazute, Pedro'ri bezela,
Biotza au, ai! otzez ilko zait bestela.

Neri ere errukiz ta maitez begira
Ta begiok malkoz urratuko dira,
Eta maite-damuz arpegitik bera
Ixuriko zaizkit, Pedro'ren antzera.

Oi, nere Jesus'en begi maitetsuak,
Sua darioten izpi doatsuak...!
Zulatu ta sutu nere biotz otza,
Betiko urtuaz pekatuzko izotza.

Kementsu ta zintzo, Pedro'ren antzean,
Jarraitu nai zaitut gurutze-bidean;
Ark bezala askotan ba'zaitut ukatu,
Gaurtik, ta betiko, nai zaitut maitatu.

Zure etsaien aurka, burruka gaitzean
Zugatik bizitza nik eman artean,
Beira nazazute Jesus'en begiak,
Maitasun-dirdiraz, errukiz josiak...!

* Jautarkol, *Euzko Gogoa* 1 (1952) 11; Jautarkol, *Euzko Gogoa* 7 (1952) 5; Jautarkol, *Olerki* 2 (1960) 207.
Euzko Gogoa 7 (1952) ahapaldi bakoitza zortzi lerrotan banatuta dago.

¹ Olerkin "josiak".

AMA SORTZEZ GARBIARI*

(1954'an Zarautz'en Frantziskotar Olerki-Batzaldian saritua.)
(Bostgarren saria irabazi zun olerki onek)

Irrintzi bat entzun da euskal errietan:
dei-maitekor bizi¹ bat, ezta benetan:
"Euskal-olerkariak, esnatu ta jeiki
ta abestu gure Ama Sortzez Garbia'ri.

Ta autsez josia, erdoi zikiñez jantzita,
oroigai zarren kutxa-gañean lagata,
aspaldi neukan nere lira euskalduna,
dardaraz ta urrumaka jarri zait kutuna.

Ta ara, ba-batorkizu olerkari zarra...
Ez bertsotan biltzera zure min-negarra,
zure Sortze Garbiak zoraturik, Ama,
amesti ta maitale Zuganontz darama.

Maria...! Jainkoaren amets atsegiña,
laño gabeko Zeru argitsu ta urdiña,
Jaunaren loretegi mardul ta usaitsua,
Zorion-bizileku, babes paketsua...

Jaun-Goikoak bere eskuz, artetsu, maiteki
argi illezkorrez egin zindun bere irudi.
Ama eta Birjiña...! Zeruko Erregin...!
Jaunak ederragorik besteik ezin egin.

Argatik zera Jaun-Goikoaren
argi-dirdira bizia,
Goiko Jaun orren bikaintasunen
ispillu beti garbia.

Aita Jainkoak sortzen du Seme,
Bera bezin Jaungoikoa:
Jaungoiko orrexen Ama. Zu zera,
beraz, Jainko-antzekoa.

Jaun-Goikoaren urrengo mallan
zaitugu Zu, Zu bakarrik:
Zeru-lurretan, beraz, eztago,
Zu baño ederragorik.

* Jautarkol, *Aranzazu* 34 (1954) 388-389; Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 25 (1956) 18-19.

¹ *Zeruko Argian* hitz hau ez dago.

Mundu ontako edertasunak
zure aurrean zer dira?

Zure edertasun-errañutxo bat,
zure arpegi-dirdira.

Sortzetik Jaunak eman zizkitzun²
doaiak aupatzen ziñez
ari zaizkitzu olerkariak
kantari maitasun-miñez.

Or dabilzkitzu gizaldietan
gizonak alkarren leian
Zure irudiak sortu ta sortu
ol, burni, arri, oialan.

Gure Eleiza Amak goratu zaitu
Jainko-urrengo mallaño:
ta alere eztago ezautzerik Zu
Zerura jun arteraño.

Gure Amatxo Sortzez Garbia,
beti eder ta donea,
Zugan daukagu pekatariok
gure itxaropen ta ustea...!

Zuri begira, pake gozo bat
sortzen zait biotzean,
ta argi eztizko Zeru alai bat
jartzen zait begi-aurrean.

Orduan nere bildur ta kezka
itzaltzen zaizkit bat-batez,
ta zoraturik gelditu oi naiz,
aurra amaren besotan lez.

Ta ain garbia Zu, ain ederra Zu,
ikusten zaitudanean,
lotsaz josirik laztantzen zaitut
garbigoa izan naiean.

Oi, Ama errukitsu, gozo ta laztana...!
Erakarri nazazu beti Zuregana.
Maite-kate estuenaz, Zukin lotu nauzu,
laga etzaitadan nik, iñoiz, Amatxo, Zu.

² Zeruko Argian "zizkitzun".

BI UMETXO*

Ume batek: Jantzi zuri-urdiñez,

Erregiñ antzera,
orra or gure Ama,
Ama biozbera.

Besteak: Eskuak tolestuta
biotzan gañean,
Zerurontz beira dago,
otoitz luzean.

Lenengoak: Euzkia bera baño,
eder ta argiagoa,
ederra bezin ona,
gure Amatxoa...!

Bigarrenak: Pekatarien Ama,
Zeruko atea,
gure biotzen poza,
ta atsegiñ betea.

Lenengoak: Gaixoentzat Bera da
osasun alaia,
biotz naigabetuen
babesa ta kaia.

Bigarrenak: Goitik begi errukiz
daukagu begira,
danoi deitzen maiteki
Zeruko Glorira.

Biak batean: Luzatu zure eskua,
luzatu gugana,
Zeruratu gaitzazu,
Amatxo laztana...!

* Jauregi' tar Luis, Zeruko Argia 10 (1954) 100.

ZERUKO NERE AMARI*

(Tentaldi estu batean egindakoa)

Ene Amatxo, nere Zeruko Amatxo...! Berriz Zugana nator naigabez ta gaxo.	semearen zai zaude beti errukitsu. Nabaitzen zaitut, Amatxo, nere alboan... Aur bat bezela, artu nazazu besoan. Estu nazazu Zure kolko maitetsuan: erre nazazu Zure Biotzaren suan. Ta Zure eskutik ez nazazu beñere utzi: aurtxo txikia bezela, zaitu, Ama, ni. Bestela, etsai beltzak ilko nau betiko, ta, Ama maitea, betiko zaitut galduko. Orixe baño, iltzea nai det nayago... Mundu ontatik eraman, ba, ni lenago... Zure besotan, Amatxo...!
Etsai gaiztoak puskau didate biotza: nere alboan ikusit det eriotza.	
Ots-egin dizut: Amatxo errukitsua...! Eta maiteki luza didazu eskua.	
Zaurietatik odola dariodala natorkizu, ai! gutziz aul eta makala.	
Tristura beltzen erdian daukat anima... Zoritxar ontan noruntz joko nuan, ba, Ama?	
Ama zera-ta, Amaren biotza dezu:	

* Jauregi'tar Luis, *Zeruko Argia* 11 (1954) 120; Jautarkol, *Olerit* 3 (1961) 264-266. *Olerit*in NERE ZERUKO AMARI (Ariisku batean).

IZASKUNGO ANDRE MARIAREN GORAMENAK*

Izaskun'dik irriparez
guganotz begira zaude
Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Uzturre'ko egalean
udaberri goiz batean
artzaitxo garbi bateri
aspaldi ziñan ageri
Gerostikan ortxe zaude
Tolosar biotzen jabe.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Arropadi'tik gauean
argi ta kanta tartean
aingerutxoak ekarri
ta Izaskun'en zuten jarri.
Ordutikan irriparez
Tolosara begira zaude.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Tolosa zure oñetan
sortu, azi ta indartu zan
Argatik dauka zañetan
sinismen-sua garretan
ta arpegian itsasia
zure begien argia.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Len, sutegi ta oletan
soro, mendi, sukaldetan
otoitz biurtua lana
igotzen zan Zuregana
ta zure atsegiñ-poza
izan zan beti Tolosa.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Zazpi gizaldi luzetan
egun alai, gau beltzetan
izan zaitugu eguzki
poz-illargi ta izar ezti
Iñoiz ez gaituzu laga
beti izan zaitugu Ama

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Zure seme leial-sutsu
Tolosa beti izan zaitzu
ta Izaskun'go jarlekua
—zure Erregiñ gaztelua
izan zuan beti ametz
Itxaropen eta babes.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Izaskun-eleizatxoa
maitasun kabi beroa
zaude zutik ta ate-zabal
zaude beti babes ta itzal
biotz alaien irripar
naigabetuen poz-izar.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaitte.

Tolosa berriak ere
zarrak ainbat zaitu maite
argatik zizun buruan
—egun aundi— ospatsuan
urrezko koroia jarri
maitasun-ezagungarri.

* Luis Jauregui, *Izaskun* 127 (1957) 6.

Kanta da; urte honetan bertan orri askeetan eta pergamino modukoetan argitaratu zen.

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaite.

Tolosa ta ingurutako
errien Ama betiko
ta Zaindari ta Erregiñ
Eleizak baizaitu egiñ
danoi begira irriparez
sutu gure maite-garrez

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaite.

Zure Zaindaritzapean
kristau jator ta pakean
bizi nai degu Ama,
gero zurekiñ betiko
bizi gaitezen Zeruan
bizitza zorionsuan

Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaite.

Izaskun'dik irriparez
guganotz begira zaude
Zeruko Amatxo maite
gutzaz errukitu zaite.

XENPELAR BERTSOLARIARI*

Orereta zarraren lurretan sortua,
bertsolari-arteana guztiz ospatsua...!
Gaurko Errenderia, ez da Orereta,
baña, oroigai-kutxa zarrean gordeta
daukagu oraindik maitez zure izena,
mendi-lora eder-usaitsu-lerdena.

¿Nola mendi-goian
sortzen dan iturri
agortu-eziña?
Ala Xenpelar'ek
bertsoen etorri,
bertsotako griña...

¿Nola baso-txori
zuaitz-adarretan
asten da kantari?
Ala zan Xenpelar
sortzez bertsolari.

Etzun ikasi eskolarikan,
ezjakin arlote bat zan:
bere izen ona ¿nolaz bizi da
oraindik euskal-oroitzan?

Jakintsu eta buruzagien
izen argiak il dira:
¿nolaz ari da biziagotzen,
Xenpelar, zure dirdira?

Erriarekin bat egin ziñan...
Aren biotzeko naiak,
iritzi, asmo, gogo biziak
zure bertsotako gaiak.

Argatik, Euskal-Erria'rekin
bat egiñik bizi zera,
zuaitz zarraren gerrian untzak
iraun oi dun antzera.

Orereta zarraren
lurretan sortua,
bertsolari guztian,
ziñez, ospatzua...!

Gure euskera zarraren
kimu sendotsua...
Zaitetz Euskerarekin
beti goratua...!

* Jauregi'tar Luis, *Oarso* 1 (1958) 53.

MIKEL ETA MARI PILLARE'RI BEREN EZKONTZA-EGUNEAN*

Gure Mikel ta Mari Pillare
 batu zaizkigu maiteki
 t'euskal-basoko zuaitz zarrean
 ipiñi digute kabi.
 Bertan sortuko al ditu Jaunak
 euskal-txoriak ugari,
 gure Erri onek jarraitu dezan
 izaten euskaldun-erri.

Naiko lanakin irauten digu
 ai, gure Euskera gaxoak,
 ez dutelako aintzat artu nai
 gaurko euskal-gurasoak.
 Zuek, gazteok, arren zabaldu
 zaizkiotzute besoak...
 Burua goruntz jaso dezala
 nai baitu gure Jainkoak.

Masti orritsu ederra, baña
 batere mats gabekoa...
 Euskerik gabe, ori litzake
 gure Euskalerrri gaxoa.
 Baño, noletan galdu nai degu
 gure euskal-izan zintzoa?
 Goiko Jaun ona, Euskeran alde
 agertu zure besoa.

Eztillargi on bete-beteak,
 —au nere azken-bertsoa—,
 izpi legunera argi dezala
 il-arte zuen gogoa...
 Ixuri beza zuen gaiñ Jaunak
 zerutar intza gozoa...
 ona, ba, nere maite-opari,
 zorion-agur beroa...

* Jautarkol, 1959/07/02, Eskuizkribua.

ANIMA SALBATU*

Anima salbatzea! Au bai zoriona...!
 Nere biotza au oso asetzen dun ona...!
 Jaungoikoa ikusiaz, Aren jabe egiñaz
 maite-besarka gozoz beti atsegiñaz...!

Auxe iristea bedi nere eginkizuna,
 auxe iristeko gaurtik gaua ta eguna...
 Zertako izango ditut poza ta dirua
 arkitzen ba'naiz noizpait betiko galdua?

Gaurtik auxe izango da nere egin-bearra,
 nere amets bultzakor, nere lan bakarra:
 Anima salbatu nai det... Au det erabaki:
 lan ontan galdu-arren esku ta begi.

Jesus Salbatzaillea,
 ene Jesus ona!
 Ote det iritsiko
 Goiko Zoriona?
 Emen, Jauna, zigortu
 nere pekatuak,
 gero laztan nazaten
 beti zure eskuak.

* Jautarkol, Olerri 2 (1960) 77-78.

ERIoTZA*

Eriotza, bizitzaren
Maixu jakintsua,
munduko Nagusi zarra,
Errege altsua...!

Begirunez kenduaz gaur
burutik txapela,
ezautzen ta agurtzen zaitut
nere Jaun bezela.

Zure segaren dirdirak
argitzen du lurra,
biotz guzitan piztuaz
kezka ta bildurra.

Jaungoikoaren urren Zu
munduko Jabea,
batzuntzat Jauntxo gogorra,
besteentzat maitea.

Goiko Jaunaren morroia,
besterik ez zera:
Berak agintzean zatoz,
lapurran antzera.

Jesus maitea, nigana
etortzen danean,
ikusi zaitzadala, arren,
Zu, aldamenean.

Ez det merezi, Jaun ona,
nik mesede ori:
nere biotza osoa,
ordez, Jesus, tori.

Niganako zure Erruki
aundia, benetan,
Zure aintzaz, gorapenez
beti Zeruetan,
kanta dezaizudan, Jesus,
maite-bertsoetan.

* Jautarkol, *Oleri* 2 (1960) 207-208.

GAURTIK BESTEA*

Zein ona zeran, Jesus maitea,
ni berriz zeñen gaiztoa...!
Noletan etzait lotsaren lotsaz
sutzen arpegi osoa?

Belaunikatu, gurutzea artu
maiteki nere eskuetan,
maite-laztanez besarkaturik
esaten dizut ziñetan:

Ona emen ni, Jesus,
gaurtik bestea
izango zaitzun zure
seme maitea.
Biotz-biotzez gaurtik
beti Zu maite.
zure argitan bizi
gaurtik il arte...
Nere maite bakarra,
ai! Zu izan zaite.

* Jautarkol, *Oleri* 2 (1960) 140.

INPERNUA*

Su ta garrezko itxasua,
Zuzentasunak piztua...!
Nire begien aurretik
etzak iges egin gaurtik.
Egon adi deadarka
nere griña txarren aurka.

Aizen bezin bildurgarri
gogoratu nai aut sarri.
Izan adi, bat, inpernua,
beti netzat akuillua,
Zerurako bide estutik
beti ibilli nadin gaurtik.

Zuri eskerrak, Jesus maitea,
ez nago gaur inpernua...
Noletan berriz jarri niteke
orrelako arriskuan?
Il naiago det erori baiño,
Jesus, berriz pekatuan.

Berak gogoratzen ditu,
lepusoan amara.

Jesus maitea, nire
gogoratu danean,
guzen zentzualdi, arren,
Zu, aldaresean.

Ex dist morezi, Juan ton,
nik niereko orri,
nere biestres nire,
urdez, Jesus, ton.

Negaratu zure Erruki
amilla, bezelam,
Zure aintza, gogoratzen,
beti Zeruetan,
Vaina de zureuden, Jesus,
maite berriaren.

* Jautarkol, Oleri 2 (1960) 18.

NEGARREZ*

Zergaitik, Jesus, nere begiak
ez dute negar egiten?
Maite-damuzko bi iturri bizi
nolaz etzaizkit biurtzen?

Negar-malkoaz busti nai nuke
zure gurutze santua,
Zuri bizigo azaldutzeko
nere maitasun-damua.

Egin zak negar, ene biotza,
negar egin zak naigabez,
eta bete itzak begiak ere
malko ta bero saminez.

Zuk, arren, Jesus, negar-malkuok
maite-oparizat artu,
ta zure erruki aundi-aundiaz
nere okerrak barkatu.

Zure gogoratu dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren

Zure gogoratu dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren

Zure gogoratu dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren

Zure gogoratu dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren
gogoratzen dituzten
maite berriaren

* Jautarkol, Oleri 2 (1960) 141.

ZUREA NAIZ*

Loiola'ko orma zarren babes paketsuan,
entzun, ene biotza, Jaunak zer nai duan.
Berak itz egingo dik ixil ta pakean...
Erantzun ik umilki otoitza luzean.

Lotu naikeri zarrak, laga amets eroak,
goruntz begiak jaso, zabaldu egoak.

Zurea naiz, bai, Jauna, osoro Zurea,
Nere Aita zera Zu, ni Zure semea.
Zu goraldtu ta agurtu, Zu-mendean bizi:
munduan au egiñaz Zerua irabazi.

Au eginkizun santu, au lan atsegiña!
Zurekin beti bizi, Zukin bat egiña...!
Nola ibilli naiz noizpait egi au aztuta
nere Zorioneko bidea galduta...!

Putzu zikin loietan edan nuan ura,
lur-gauza zirtzilletan jarri det ardura:
Eroa izan naiz, Jauna, zoro ta gaiztoa,
Zurea utzita egin det nere gogoa.

Ez geiago, ez, Jauna, Zurea naiz-eta.
Egi au, biotza, artu t'euki zak gordeta.

* Jautarkol, *Olerti* 2 (1960) 77.

BETI ZURE ERRI*

(Euskal-kanta Andre Maria'ri)

Kanta-nai bizi batek, Amatxo laztana,
bultzaka, maitekiro nakarki Zugana...

Zuri begira jaio, ta il zure oiñetan:
ne-bertsuok ez dute gaur nai besterikan.

Entzun, ba, nere kanta, maite-oparia,
euskal-kanta ta ametsa, otoitz ta istoria...

Euskal-Erri ta Zure maite-lokarria
urrezko doñu zarrez bertsotan josia.

Ezpañetan lerturik irripar eztiak
zakust Euskal-Erri'rontz zuzenduz begiak...

Zergatik ain eztiki, Amatxo kutuna?
Nolatan maite dezu ainbat euskalduna?

Euskal-Erri zarraren bekoki garbian,
—gurutza artu zunean Bataio-iturrian
maite-musu sutsu bat utzi zendun, Ama,
ta irarrita geroztik dirdizka darama.

Bere Erregin ta Amatzat ar zindun betiko,
maite-miñez zitzaizun jarri belauniko,
zin-egiñaz laztandu zinduan negarrez
malko-iturria lertuz maitasun-indarrez.

Zenbat gizaldi geroz igaro ote-dira?
Zenbat erri ustelduz erori illobira?
Euskal-Erria zutik, kementsu, lerdena
beti sutsu aitortzen Goiko Sinismena.

Zure maite-musuaz Bataioan, Ama,
jantzi zun soñekoa osorik darama.
Iñoiz ez du laidotu, ez du iñoiz urratu...
Orrengatik Zuk ote beti ain maitatu?

Eman zizun besarkaz lotu zan Zurekin.
Zure izena goraltzen ordutik du ekin.
Zu beste Erregiñik nai ez du izan lurean,
Ama kutunagorik etzun biotzean.

* Jautarkol, *Olerti* 3 (1961) 11-13.

Zurekin zoraturik, maite-miñez joa,
zure irudiz josi zun bere lur osoa...
Zutzat otoitz beronak sukalde-txokotan,
egaka zure izena kanta-zar-egotan...

Artzaia ba-zijoan ibarretik gora...
Artaldean urduri an-or artzaiñora...
Eskuetan txapela, baseliza-aurrean,
"Agur Maria" zuan beti ezpaiñean.

Auspoai eragiñaz errementaria...
txinpartak zeriola eskuan burnia
joka-joka malluaz izerdi patsetan
ta "Agur Maria" zuan beti ezpaiñetan.

Itxas-ertzeko muiño-gañean eliza...
Otoitz-mur-mur zerion eultza bete giza.
Arrantzaleak ziran otoitza beroan:
zuri arrenka zeuden, itxasorakoan.

Pelotari trebeak joku asarrean...
Erri ta auzo begira eta apaiza aurrean.
Eguardiko ezkillen dan-dan paketsua...
Erri ta apaizak otoitz, geldituz jokua.

Txistu-soñu alaia erri-enparantzan...
Eskuak goruntz jasoz mutil-neskak dantzan.
Torrean amezkillak... "Angelus"-otoitza.
Enparantzan ixil zan txistuaren otsa.

Zure loretegi zan Euskal-Erri zaarra:
baiña, lore tartean gauez azi txarra
erein, ta igesi jun zan beiñ etsai maltzurra,
ta anai-gorroto-larrez josi zigun lurra.

Anai-odolez gorri zan gure mendia,
etxe ta baso sutan, negarrez erria,
ta arantza gaiñean Zu, Goi-pakezko izarra,
agertu zitzaiguzun, uxatzen negarra.

Golde ta lai biurtuz ezpata zorrotzak,
berriro lana zuan igurtzi otoitzak:
ta zure irripar-izpiz, Amatxo xamurra,
argitu zendun berriz euskaldunen lurra.

Ta Itziar-Begoña'tik itxas-zabalera
begira jarri ziñan illargi-antzera...
Zorion-argiz josi zendun itxasua
ta itxas-gizonei maitez luzatu eskua.

Eztibalitz-Izaskun ta Arrate'tik, berriz,
nekazari zintzoei begira errukiz,
maite-zapiz txukatuz izerdi-tantoak,
intza gozoz eztituz zelai ta soroak.

Zu, zorion-eguzki, goiz-izar ezta,
igesleku ta babes, ta Ama maitatia...!
Nolaz olerkariak irauli bertsoan
antziña artan ziñana Euskal-lur osoan?

Maitez Euskal-Erri'rontz zuzenduz begiak
ikusten zaitu, Ama, gaur olerkariak.
Bai, guk ere zaitugu Ama t'Erregiña,
Zu, gaur, euskal-biotzen poza ta atsegiña.

Argatik gure Erriak, zure maite-garrez,
zure irudiak jantzi ditu urre-zillarrez,
ta Aloña'n jarri dizu Erregin-jauregi
gugan agin dezazun gizaldiz-gizaldi.

Ortxen dezu betiko zure jarlekua,
gure sinismenaren babes-gaztelua,
euskal-biotz guzien maite-lokarria,
gure bizi naiaren oiua ta irrintzia.

Zugan ipintzen degu gure uste osoa,
zatzakigu Zu, beti, Amatxo gozoa...
Etsai zitalez gaude estuki esituak...
Arren, luza guganontz, Ama, zure eskuak.

Itxas, ola, sorotik lanaren soñua
Zuganontz igo bedi otoitz biurtua:
eleiz paketsu bitez gure etxe guziak,
dirdiz bezate gugan zure begi-izpiak.

Europa-zabalean Erririk zaarrena,
bedi zure lorontzi usaitsu-maiteena.
Euskaldunen Amatxo beti ager zadi,
izan dedin betiko Zukin Euskal-Erri.

Ta aztuko balitz Zutaz noizpait gure Erria,
ez itzul beregandik Zure arpegia:
zure negar-malkoak ber gaiñ ixuri,
lotsaz eroi ditezen mendi, baso ta uri.

Ez bedi zutik egon, beiñ zure musua
bekokian artu zun Erri gaiztotua,
maite-miñez betiko laztandu zinduna,
musuz igurtzi zindun zure Erri kutuna.

OROIGAI AZTU-EZIÑA*

Anota'ko erritxoan,
alai ta tente muñoan,
Ateaga basetxea,
oroigai zarrez betea.

Ezta jauregi, gaztelu,
ala aberats bizileku,
bai kristau-etxe langille,
ate-zabal maitatzalle.

Urteak etorri ta juan,
bizirik daukat barruan,
oroigai aztu-eziña,
maite-irudi atsegiña.

Jaun onak nere bidean
—bizitza-gau illunean—
piztu zun izar argia,
Ateaga baserria.

Izerditan, estu larri,
aterpe baten egarri,
itxaropenez betea,
jo nuan bere atea.

Etxeko jaun eta andreak,
—maitez, errukiz beteak—
semetxo baten antzean
sartu niñuten etxean.

Ateaga, zabal, maite,
nolaz aztu nik il-arte...?
Ua atsedean, babes toki,
itzal gozo, maite-kabi...!

Aiek egun, egun aundi,
zortzi egun maitagarri
oro maitez igurtziak,
baiña, bildurrez josiak!

Urbil, sua ta ekaitza,
—asarre-gorroto gaitza—
nere kaia ta aterpea,
Ateaga basetxea.

Nere oroigai kutuna,
aztu ezin dan laguna...!
Bertsoz jantzia pakean,
bizi adi milla urtean,
eusker a bizi artean...

* Jautarkol, *Karmel* 3 (1961) 73.

ZAINDARI MADALEN DOATSUARI*

Urteroko prozesioan, 1961

Gizon lerdan ta indartsuak
ermitatik aterata
daramate bizkarrean...
Soñu t'otoitzak, alaitasuna
Errenteri-biotzean.

Kale ta leioetatik
begiak zuzendu dira
poz-ametsez beregana,
biotzak, berriz, dardara goxoz,
diote agur lastana.

Begi eder-negartsuak
gurutzeari begira,
—maite-damuzko, irudi—,
geldiro dator kalean zear
Madalen gure zaindaria.

Madalen zoriotsua,
esan zure erriari
zoriona nun dagoan,
pekatu-zelai loretsuetan,
ala Jesus'en ondoan.

Zure biotzaren kaian
sartu oi ziran ontziak
zekarzkizuten emaitzak,
egizko doai pozgarri ziran,
ala gezur ta amets utsak?

beje ala amidez.

hitz, eta abiti...! Geruntz, hietaz,
atxikusun-mendira...!
Geruzen urru, ta argie junduta,
Bizitza berria...

* Jautarkol, *Oarso* 4 (1961) 7.

Zorionaren egarriz
maite-miñez zaurituta
zabalduz biotz-egoak,
egan zebiltzan, ezin asetuz,
zure naikeri eroak.

Jesus'en begiratuak,
—maite-txinparta biziak—,
erre zizkitzun egoak,
t'eroni ziñan aren oñetan
ixuriz damu-malkoak.

An ustu zendun negarrez
barneko beazun txarra,
t'edan zorion-eztia,
ta izar ta aingeruz piztu zitzaizun
bizitza-bide berria.

Kementsu jarrai zenion
Jesus'i gurutzeraño
maitez t'errukiz urtuta,
ta zure izena Jesus'enakin,
orra, betiko lotuta.

Gure Jaunaren aurrean
zaitugu zaindaria maite,
gure bitarteko altsu...
Lagundu, arren, izan gaitezen
Jesus'en maitale sutu.

Jesus, zure argia,
ta zure nerokoa lagur onakia
izan gaitzen errotia.

Damuzko pekatsuek
ez deuz itziz Zuk zureti,
maje-dantza biots medikak
bizi dituztena.

Oñi, ba, zeren, pekatsi ai
begarrez zure oñetan...

Quarta, zurea jende nai dula
gaitzen zure oñetan.

* Jautarkol, *Oarso* 4 (1961) 7.

BARNE-MINTZOAK*

I

Jauna, ona emen ni, eskale t'erromes,
zure itzaren egarriz, munduaren iges...
Loyola'ko orma zaarren itzal babesean,
gela aundi ta ixil baten bakartasunean.

Burnizko oe gogor bat, maia, jarleku bi,
gurutze ta irudiak ezker ta eskubi.
Zeruko pake ontan murgil adi, biotz,
t'entzun Jaunak zer dion ezti edo zorrotz.

Berak itz-egingo dik, ixil ta pakean...
Erantzun ik umilki otoitza luzean.
Bakartegian ago, mundutikan urrun,
ta ixiltasuna atorkik adiskide kutun.

Lotu naikeri zaarrak, laga amets eroak,
Goruntz begiak jaso, zabaldu egoak...

II

"Ni nauzu zure Egille,
Neu zure Jabea,
zure azken bakarra,
Zorion betea."

Onela mintzatu zait Jauna illunarrean
biotzeko ateak itxi nitunean.

Esnatu zan anima, jo zun Jaunagana,
eman zion negarrez maite-muiñ laztana,
t'eroaren antzera, pozez eta miñez
esaten zion beiñ ta milla bider ziñez:

"Zurea naiz, bai, Jauna, osoro zurea...
Zu zaitut nere aita, neu zure semea.
Zu goraldtu ta agurtu, Zu-mendean bizi:
munduan au egiñaz, Zerua irabazi.

Au egingizun goitar, au lan atsegiña...!
Zurekin beti bizi, Zukin bat-egiña...!
Nola ibilli naiz, noizpait, egi au aztuta,
nere Zorioneko bidea galduta...!

Putzu zikiñ loietan edan nuan ura,
lur-gauza zirtzillean jarri det ardura.
Esker txarreko izan naiz, zoro ta gaiztoa,
zurea utzita egin det nere gogoa...

Iñoiz ez det nai geigo Zugandik alde egiñ...
Zu baizaitut betiko nere poz ta atsegiñ.

III

Goizean goizik eleiz-dorrean
kanpai-ots ozena...
Entzun, biotza, menditik deika
Aitarik onena.

Artu makilla, ta aldapa-gora
gallurrera ekin...
Amets goitarrez, bizitz berriaz
piztu Kristo'rekin.

Jantzi berria, soñeko zaarra
bota bide-ertzera...
Nolatan abil or arrastaka,
sugetzar antzera?

Nolaz bizi aiz katez lotuta
or beko illunpean?
Ara, an, euzkia ta azkatasuna
goiko tontorrean.

Bizitza uts ori bizi izateko
egin au Jainkoak?
Orretarako jarri al dizkik
animan egoak?

Izaki oro malladi dituk,
ez lokarri-kate.
Danok, maitasun-mendira igotzen
lagunduko aute.

Ta ik besarkatu egin oi dituk
maite-laztan miñez...
Zorionez ez-baña, zoro txar ori,
bete aiz samiñez.

Jaiki, eta abil...! Goruntz, biotza,
maitasun-mendira...!
Gurutzea artu, ta argiz jantzita,
Bizitza berrira...!

IV

Argi nazazu Goi-argiz,
ene Jaun ta Egillea,
ikusi dezadan egiz
nere biotz-barrunpea...

Jauna, aitortzen dizut lotsez...
Ez naiz ni zure begitan,
animaz eta gorputzez,
zauri ustel bat baizikan.

Zauriak, zornea antzera,
dariot gaiztakeria,
ta aurtzarotik gaur-artera,
pekatuz nago josia.

Argatik nator bildurti,
naigabez zure aurrera...
Izazu nitaz erruki,
ene Aita biotz-bera...!

Nolaz barkapen-ustea
etzait piztuko barnean,
ikusiz zure Semea
beso-zabal gurutzean.

Zeiñ ona zeran, Jesus maitea,
ni, ostera, bai gaiztoa!
Nolaz gaur-arte, ba, izan natzaizu
ainbat eskergaiztokoa...!

Zergatik ote nere begiak
etzaizkit negarrez urtzen!
Maite-damuzko bi iturri bizi
nolaz etzaizkit biurtzen...!

Arren, itzuli nigana maitez,
Jesus, zure arpegia,
ta izan nerekin lapur onakin
izan zendun errukia.

Damututako pekataririk
ez dezu iñoiz Zuk ezetsi,
maite-damuzko biotz malkoak
beti dituzu onetsi.

Ona, ba, emen, pekatari au
negarrez zure oñetan...
Gaurtik zurea izan nai dula
esaten dizu ziñetan.

* Jautarkol, Olerri 1-2 (1962) 14-22.

V¹

Inpernua... Inpernu...
Su-garrezko
itsasua,
Jaunaren Zuzentasunak
asarrez piztua...!

Ago beti
nere begien aurrean
bildurgarri...
Egon adi
deadarka
nere griña txarren aurka

Izan akit
akullu-eztena,
ire bildurrez, ar dezan
bizitza-bidean,
biotzak, bide zuzena.

Jesus, arren,
ez nedilla berriz jarri
alako arriskueta...
Naiago nuke, ziñetan,
eriotza,
—erio mingotza—,
berriz sartu baño
pekatu-bideetan.

Or nijuan
itsututa
bidea galduta...
Zukin topo egin nuan...
An baizeuden Zu nere zai,
beso biak zabaldua,
estutu ninduzun alai
kolko maitetsuan,
ta argatik ez nintzan
erori inpernuan.

Ene Jesus, etzait aztu
iñoiz egun ura...
Geroztik, Zerura
begira bizi natzaizu
eskerronez, maite-miñez
ta inpernu-bildurrik gabe...
Bañan, alaz ere,
inpernua... inpernua...
izan akit akullua.
Egon adi
bildurgarri
nere begien aurrean,
deadarka
nere griña txarren aurka.

¹ "Inpernua" (1960) olerkiaren antzekoa da.

VI²

Eriotza, bizitzaren
maisu jakintsua,
munduko nagusi zaarra,
errege altsua...!

Begirunez kenduaz gaur
burutik txapela,
umilki agurtzen zaitut
nere jaun bezela.

Zure segaren dirdirak
argitzen du lurra,
biotz guzitan piztuaz
kezka ta bildurra.

Jaungoikoaren urren zu
munduko jabea,
batzuntzat jauntxo gogorra,
bestentzat maitea.

Goiko Jaunaren morroia,
besterik etzera:
Arek agintzean zatoz,
lapurran antzera.

Nigana, arren, ez etorri
lapurran antzean,
zatozkit, ama bezela,
ixil ta pakean.

Zu ere, Jesus, etorri
berakin batean,
ta ikusi zaitzadala, arren,
Zu, aldamenean.

Lasaitu nere biotza
ordu larri artan,
gurutzeari maiteki
dezaiodan laztan.

Ta, arren, ots-egin zaidazu
maitezko abotsez,
ardi txiki gaxoari,
artzaia oi dunez.

Irtengo altzait anima
pozik zuregana
zure altzoan artzeko
maitezko laztana.

² "Eriotza" (1960) olerkiaren antzekoa da.

VII

Ba-dator, ba-dator
an, seme galdua...
Oñutsik, zikiña,
janzkia urratua.

Begi ta arpegian
dakarzki dizdizka
obenen arrazto,
lotsaren gorrizka.

Aita, beso-zabal,
etxe-atarian,
besarka ta musuz
josirik naiean.

Ene Salbatzalle
Jesus atsegiña,
izazu nerekin
kupida berdiña...!

Zure errukiaren
bearrean nago...
Ez naiz aldenduko
Zugandik geiago.

Baña, seme-izena
galdu baitet sarri,
nigan zure eskuak
laztanki ez jarri.

Jaurti nazazuke
morroien artera,
zure artaldeak
aiekin zaitzera.

Zure morroi nai det
ordaiñikan gabe;
ez det nai geiago
bizi nere jabe.

Zure mende eztian,
beti zure etxean,
zure esku onaren
babes ta itzalpean...!

VIII³

Oi, Jesus'en begi
eder ta argiak,
Jainkozko dirdiraz,
errukiz josiak...!
Beira nazazute
Pedro'ri bezela,
biotza au, ai! otzez
ilko zait bestela.
Neri ere errukiz
ta maitez begira,
ta begiok malkoz
urratuko dira,
eta maite-damuz
arpegitik beira
ixuriko zaizkit
Pedro'ren antzera.

Oi nere Jesus'en
begi maitetsuak,
sua darioten
izpi doatsuak...!
Sutu ta zulatu
nere biotz otza,
betiko urtuaz
pekatuzko izotza.

Kementsu ta zintzo
Pedro'ren antzean,
jarraitu nai zaitut
gurutze-bidean,
ta, ark bezela askotan
baizaitut ukatu,
gaurtik, ta betiko,
nai zaitut maitatu.

Pedro'k bezelaxe
nai zinduket maite,
Zugatik bizia
pozik eman arte.
Ortarako, bada,
begira nazazu,
nere Maite bakar
izan zaitezen Zu.

Beira nazazute,
Jesus'en begiak,
maitasun-dirdiraz,
errukiz josiak...!

3. "Pedro'ri begira zion" (1952) olerkiaren antzekoa da.

**JESUS'LAGUNDIKO AITA MIGEL ODRIEZOLA'RI
BERE MEZA-BERRI EGUNEAN***

Ona emen lengoko
zuen parrokoa...
Burua zurituta,
argal ta zahartua...
Bertsolari zaizute
biurtu gaxua...
Entzun gaur sortu zaion
bertso maitetsua.

Aurtzarotik Migeltxo
mutiko prestua,
serioa ta azkarra,
ona, paketsua...
Jesuita izateko
zirudin sortua,
amets ori baizuan
barnean sortua.

Berari laguntzeko
gertu zeukan aita,
Jabier'en sei urtez
ederki kostata...
Aitak Seminaioan
begiak jarrita...
Bañan, Migeltxok beti:
ez,ez... Jesuita.

Orra or jesuita
ta apaiza egiña...
bañan aita bezela
zera ogikiña...
Aitak labean dagi
ogia biguiña,
ta aldare gañean zuk,
Ogi atsegiña.

Jesus bera zeruko
ogi biurtua,
bere indarrez iritxi
dezagun Zerua.
¡Bejondeizula, Migel!
¡Zorion sutsua!
Izan Jesus'en lagun
¡trebe ta santua!

Orra, zuen semea,
Juxta, Joxe Mari,
Jainkoak goiko maillan
betiko du jarri.
¡Poztu, eman eskerrak!
Goiko Jaun onari...
Bera bedi ordaiñez
zuen poz ta sari.

* Jautarkol, *Zeruko Argia* 180 (1966) 6.

BIDEZ-BIDE*

I

Zergatik asi da olerkari zarra,
—zarra ta eria—, berriro kantari?
Nolaz sartu zaio bertsotako garra?
Bakardade ixillak eraginda, noski...
Alaxen umeak dagi deadarra
oartzen dunean amaren bearra.

Nere bakardadean
ots-dagizut, Jauna,
Zu baizaitut nere poz,
nere zoriona.

Bizitzako aldapan
beeraka nijoa...
An beeko sakon artan
dakust erioa.

Bildurrez eta kezkaz
josi zait biotza:
badatorkit ixilka
laister eriotza...

Zertaz nere bildurra,
ene Jesus maite,
Zuregana juteko
bera baizait ate?

Mariñelak ez al-du
itsaso nastuan,
kaia ikusiaz poza
nabaitzen barruan?

Nere ontzia urbiltzen
ari zait kaiera...
Antxe zaude nere zai,
Aita biozbera.

Nolaz etzait piztutzen
Zu ikusteko gura?
Zertaz ez tet lenbailen
igo nai Zerura?

Amets lurkoi zoroak
lillurutzen naute,
ta aztu oi zait Zuk, Jesus,
zenbat nauzun maite.

Oroiz zaitzez lokatzez
naizela egiña,
ta argatikan bildurti,
aldakor ta ariña.

Piztu nere barnean
Zure maite-miña,
sortu nigan lurreko
gauz oron samiña.

Argitu nere biotz-muñean
itxaropen-su-dirdira,
eta bideko illunpe beltzak
argi biurtuko dira.

Autsiko zaizkit lurrera lotzen
nauten lokarri eroak,
eta biotzak luzako ditu
lasai Zugarontz egoak.

Eta kaiera aurreratzean
nere ontzitxo gaxua,
esango dizut: Jesus maitea,
luza zaidazu eskua!

* Jautarkol, *Karmel* (1983) 53-56.

II

Bizitzako bide-ertzean
exeri naiz nekatuta...
Zertaz ibilli ta ibilli
biotza ametsez urtuta?

Pakearen egarri naiz,
atsedenez nai det ase,
gero berriro ibilli
Jaungoikoa arkitu arte.

Bideko lorak lagata,
txori-kantak ez entzunik,
lañopean t'eguzkitan
Jainko-aztarna usmatu rik.

Noizpait arkituko al-det
nere zorion osoa
ikusten baitet urruti
bere dirdira gozoa...!

III

Bide zarrean geldiro nabil
udazken-illunabarrean...
Ezker-eskubi daude sorokak
aurdun dan amaren eran.

Alai dabilta nekazariak
gurdi kurrinkalariak
ama lurraren emaitz elduak
etxerutzen alegiñaz.

Umeak, berriz, zilipurdika
beiak zaitzen zelaian...
Lurretik goruntz usai gozokoa
lurriña, intzentzu eran.

Odei gorriska tartean doa
euzkia sartzen mendian...
Jainko-errañu antzeko zerbait
nabaitzen det inguruan...!

JAUTARKOLEN LANAK

EUSKARAZ

HITZ NEURTUZ

- 1915, "Agur Aberriya!", *Euzkadi* 951 (1915) 1.
"Ama Maria'ri. Lore ederrenak", *Irugarren Prantziskotarra* 30 (1915) 235 [*Zeruko Argia* 113 (1928) 260]; "Ama Miren'eri lore ederrenak", *Euskal Erria* 78 (1918) 256; "Lore ederrenak", *Zeruko Argia* 30 (1921) 69; "Ume batek zeruko bere amari", *Argia* 161 (1924) 1; *Biozkadak* (1929) 10-11; "Umetxo batek bere Zeruko Amari", *Euzkadi* 4555 (1927) 4].
"Atzerriyan", *Euzkadi* 934 (1915) 1.
"Josu aurrari. Atoz siaskara", *Euzkadi* 935 (1915) 4.
- 1916, "Begira nazazu", *Irugarren Prantziskotarra* 40 (1916) 316.
"Golgotan", *Irugarren Prantziskotarra* 34 (1916) 267.
"Lourdes'ko Uso Zerutarrari", *Irugarren Prantziskotarra* 32 (1916) 252.
"Maitasun-indarra. (Nire amari)", *Irugarren Prantziskotarra* 38 (1916) 302 [*Euskal Erria* 76 (1917) 309].
- 1917, "Ekatzu zure eskua", *Irugarren Prantziskotarra* 44 (1917) 350.
"Eskaria", *Irugarren Prantziskotarra* 45 (1917) 359.
"Josu'ren Biotzari", *Irugarren Prantziskotarra* 48 (1917) 383 ["Josu-biotzari", *Zeruko Argia* 18 (1920) 92; "Jesus'en Biotzari" *Zeruko Argia* 90 (1926) 667; *Euzkadi* 4342 (1926) 4; *Biozkadak* (1929) 31-32].
- 1918, "Ernio aurrean", *Euskal Erria* 78 (1918) 11-12.
"Gogalbena", *Euskal Erria* 78 (1918) 164-165.
- 1919, "Alargunaren negarrak", *Zeruko Argia* 7 (1919) 113-114 ["Gudatean. Alargunaren negarrak", *Argia* 99 (1923) 1; *Lurak-bat* (1923) 306; *Biozkadak* (1929) 82-85].
"Bakarne", *Zeruko Argia* 2 (1919) 23 [*Argia* 83 (1922) 1; *Zeruko Argia* 888 (1980) 34].
"Beti zurekin", *Zeruko Argia* 9 (1919) 145-146 [*Argia* 360 (1928) 1].
"Irudia", *Zeruko Argia* 3 (1919) 45 [*Euzkadi* 15 (1927) 1].
"Nekazari gaixoa", *Zeruko Argia* 5 (1919) 75 [*Euzkadi* 4553 (1927) 1; *Renteria* 11 (1928) 48; *Biozkadak* (1929) 15-16].

- 1920, "Atozkit", *Zeruko Argia* 21 (1920) 132-133 [*Argia* 185 (1924) 1; "Atozkit Jesus", *Biozkadak* (1929) 65-67].
 "Biozkadak", *Zeruko Argia* 23 (1920) 157.
 "Lo-gabe", *Zeruko Argia* 16 (1920) 63-64.
 "Mendiko Artzaia", *Zeruko Argia* 19 (1920) 100.
 "Nor da?", *Zeruko Argia* 17 (1920) 68.
- 1921, "Aitonaren oitza", *Zeruko Argia* 36 (1921) 169 [*Argia* 93 (1923) 1; *Biozkadak* (1929) 4; *Aranzazu* 11 (1931) 48].
 "Alarguna", *Zeruko Argia* 33 (1921) 118-119.
 "Gaur eta biar", *Zeruko Argia* 25 (1921) 12.
 "Lourdes'ko Uso Zerutarari", *Zeruko Argia* 31 (1921) 83.
 "Maitasun-indaia", *Zeruko Argia* 27 (1921) 28 [*Argia* 82 (1922) 1; *Jaungoiko-Zale* 274 (1926) 64; *Baskonia* 1254 (1928) 473; *Biozkadak* (1929) 19-20].
 "Oroipena", *Zeruko Argia* 26 (1921) 17.
 "Umezurtza", *Zeruko Argia* 35 (1921) 145 [*Argia* 78 (1922) 1; *Euzkadi* 4720 (1927) 2; *Biozkadak* (1929) 49-50].
 "Zure gudariak", *Zeruko Argia* 32 (1921) 97.
- 1922, "Artzai-neska", *Argia* 81 (1922) 1 [*Zeruko Argia* 56 (1923) 124; *Argia* 340 (1927) 1; *Baskonia* 1212 (1927) 376; *Biozkadak* (1929) 51-52].
 "Artzaiarena", *Euzkadi* 3068 (1922) 1 [*Zeruko Argia* 45 (1922) 138].
 "Artzaitxo", *Argia* 85 (1922) 1 [*Zeruko Argia* 42 (1922) 86; *Jaungoiko-Zale* 281 (1926) 142; *Baskonia* 1222 (1927) 540; *Biozkadak* (1929) 38-39].
 "Elkano'ri", *Argia* 73 (1922) 4.
 "Enarak", *Zeruko Argia* 40 (1922) 57.
 "Eskale bat, artzai", *Zeruko Argia* 38 (1922) 26 ["Eskalea artzai (Apaiz egin nintzan egunean)", *Euskal Esnalea* 241 (1924) 4-6; "Eskalea (Apaiz egin nintzan egunean)", *Jaungoiko-Zale* 270 (1926) 6-7; *Biozkadak* (1929) 95-98].
 "Gure eria", *Argia* 80 (1922) 1 [*Zeruko Argia* 41 (1922) 79; *Euzkadi* 4373 (1926) 1; *Jaungoiko-Zale* 287 (1926) 224; *Aranzazu* 72 (1927) 147; *Biozkadak* (1929) 18].
 "Illobi elurtsuak", *Euzkadi* 3115 (1922) 1 [*Zeruko Argia* 47 (1922) 167].
- 1923, "Bidean", *Argia* 94 (1923) 1.
 "Guda-ondoren", *Euskal Esnalea* 239 (1923) 206-208 [*Biozkadak* (1929) 76-79].
 "Itxas bastelean bizitza ta eriotza", *Euskal Esnalea* 233 (1923) 86-88 [*Biozkadak* (1929) 44-45; "Itxas ertzean", *Euzkadi* 3373 (1923) 6; *Rentería* 6 (1923) 20; *Zeruko Argia* 57 (1923) 133; *Jaungoiko-Zale* 273 (1926) 46-47; *Rentería* 10 (1927) 7].
 "Umea ta loretxoa", *Argia* 97 (1923) 1 [*Zeruko Argia* 49 (1923) 12].
- 1924, "Aitonak bere ilobatxuari", *Argia* 152 (1924) 1 [*Biozkadak* (1929) 28-30; *Zeruko Argia* 275 (1968) 2].
 "Ama gaxoa", *Zeruko Argia* 62 (1924) 215.
 "Zorionak!", *Zeruko Argia* 61 (1924) 194.
- 1925, "Il-obi baterako", *Zeruko Argia* 83 (1925) 559.
 "Zergatik?", *Zeruko Argia* 82 (1925) 538 [*Rentería* 8 (1925) 45; *Euzkadi* 4586 (1927) 4; *Biozkadak* (1929) 22].

- 1926, "Antzekia", *Zeruko Argia* 93 (1926) 718 [*Biozkadak* (1929) 61-62].
 "Aralar", *Euskal Esnalea* 271 (1926) 132-134 [*Zeruko Argia* 103 (1927) 106-107; *Biozkadak* (1929) 68-71].
 "Asis'ko Eskalea", *Zeruko Argia* 95 (1926) 769-770 [*Biozkadak* (1929) 33-35].
 "Bergara'ko Jesus Gurutzetuari", *Euskal Esnalea* 274 (1926) 199 [*Biozkadak* (1929) 9; *Ariz-Ondo* 2 (1976) 87].
 "Biozkadak", *Rentería* 9 (1926) 43 [*Zeruko Argia* 89 (1926) 651; *Euzkadi* 4578 (1927) 1; *Biozkadak* (1929) 80-81].
 "Ileta-eresia", *Euskal Esnalea* 275 (1926) 210-211 [*Argia* 333 (1927) 3; *Euzkadi* 4556 (1927) 4; *Zeruko Argia* 102 (1927) 20; *Biozkadak* (1929) 88-89].
 "Itsasaldean", *Jaungoiko-Zale* 278 (1926) 110 ["Itsasaldea", *Biozkadak* (1929) 36-37].
 "Malentxu", *Euzkadi* 4322 (1926) 1 [*Jaungoiko-Zale* 283 (1926) 171; *Biozkadak* (1929) 40-41; *Euzko Deya-A* 111 (1942) 9].
 "Nere eresia", *Argia* 253 (1926) 1 [*Zeruko Argia* 87 (1926) 619; *Euzkadi* 5076 (1929) 4; *Biozkadak* (1929) 5-7].
 "Noletan?", *Zeruko Argia* 92 (1926) 697 ["Lotsagabea...!", *Euzkadi* 4549 (1927) 1; *Biozkadak* (1929) 8].
 "Poz-agurra. (Nere amari bere egunean)", *Rentería* 9 (1926) 43 [*Rentería* 10 (1927) 17; *Euzkadi* 4573 (1927) 1; *Biozkadak* (1929) 21].
- 1927, "Aizkoñoren oñetan", *Euskal Esnalea* 282 (1927) 125-128 [*Biozkadak* (1929) 57-60].
 "Amonatxoa... Eskean", *Euzkadi* 4649 (1927) 3 [*Rentería* 11 (1928) 48; *Biozkadak* (1929) 13-14; *Zeruko Argia* 1-2 (1954) 5].
 "Aurtxo batek Maria'ri", *Zeruko Argia* 101 (1927) 68 [*Biozkadak* (1929) 42-43; *Zeruko Argia* 17 (1955) 21].
 "Bai erri gaxoa...!", *Euzkadi* 4617 (1927) 1 [*Zeruko Argia* 107 (1927) 167; *Biozkadak* (1929) 17; *Laurak bat* 21 (1930) 5; *Baskonia* 1428 (1933) 4].
 "Bertso gaxoak...!", *Zeruko Argia* 104 (1927) 117 [*Argia* 331 (1927) 3; *Euzkadi* 461 (1927) 5; *Gautxori* 1 (1929) 21-22; *Biozkadak* (1929) 1-3; *Argiaren Egutegiak* 13 (1934) 42-43; *Oarso* 9 (1971) 10].
 "Jaunartze aurean", *Euzkadi* 4673 (1927) 1 ["Jaunartu aurean", *Biozkadak* (1929) 103].
 "Loreti", *Zeruko Argia* 108 (1927) 180 [*Argiaren Egutegiak* 7 (1928) 55; *Biozkadak* (1929) 86-87].
 "Nere Aurtxoa", *Zeruko Argia* 97 (1927) 2 [*Biozkadak* (1929) 63-64].
 "Ostiral Gurena", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 100 (1927) 56-57].
 "Semearen naya", *Zeruko Argia* 100 (1927) 55.
- 1928, "Aingerutxoak", *Zeruko Argia* 118 (1928) 340 [*Biozkadak* (1929) 92; *Baskonia* 1393 (1932) 388; *Realidad* 35 (1932) 15; *Oarso* 10 (1972) 51].
 "Amatxo bati", *Zeruko Argia* 119 (1928) 356 [*Biozkadak* (1929) 91].
 "Atoz, Jesus ona", *Zeruko Argia* 114 (1928) 280-281.
 "Eutsi esiarri", *Zeruko Argia* 109 (1928) 196 [*Biozkadak* (1929) 53-54].
 "Gustavo Adolfo Becquer'i", *Zeruko Argia* 117 (1928) 330 [*Biozkadak* (1929) 74-75].
 "Iziartxori", *Zeruko Argia* 119 (1928) 361 [*Baskonia* 1301 (1929) 74; "Iziartxo", *Biozkadak* (1929) 90].
 "Udabeñia", *Zeruko Argia* 114 (1928) 279 [*Biozkadak* (1929) 93-94; *Baskonia* 1443 (1934) 244; *Anaitasuna* 72 (1950) 2].

- 1929, *Biozkadak*, Iruña, Neketako Ama-Birjiñaren Irarkola [1975, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala].
 "Alai ta pakean", *Biozkadak* (1929) 106 [Aranzazu (1977) 361A].
 "Asis'tar Prantzisko Aitari", *Biozkadak* (1929) 104-105.
 "Bizitz menditara", *Biozkadak* (1929) 23-27.
 "Eperak kantatzen du", *Euzkadi* 5292 (1929) 5.
 "Erenderi, nere jaioteñari", *Rentería* 12 (1929) 19 [*Biozkadak* (1929) 46-48].
 "Gazte askorentzat", *Biozkadak* (1929) 102.
 "Legortea", *Zeruko Argia* 130 (1929) 164 [*Rentería* 13 (1930) 21; *Bertsolariya* 44 (1932) 277; *Eusko Olerkiak IV* (1933) 147-149; *Yakintza* 7 (1934) 18].
 "Mater Dolorosa", *Biozkadak* (1929) 99-101 [*Euzko Deya* 105 (1942) 11].
 "Nere lagun-zar bateri", *Zeruko Argia* 121 (1929) 4 [*Biozkadak* (1929) 72-73].
 "Ostiral Santu", *Biozkadak* (1929) 12 [*La Cruz* 80 (1930) 2].
 "Spes unica", *Zeruko Argia* 123 (1929) 36 [*Biozkadak* (1929) 55-56].
 "XI'gañen Pio Aita Santuari. Apaiz egin zaneko bere 50'gañen urtean", *Jaungoiko-Zale* 363-18 (1929) 398-399 [*Zeruko Argia* 133 (1930) 7].
- 1930, "Artzai Ona ta Bildotsak", *Zeruko Argia* 142 (1930) 148.
 "Bañen-Izketa", *Euzkadi* 5589 (1930) 5 [*Zeruko Argia* 149 (1931) 69; *Yakintza* 2 (1933) 9; *Eusko Olerkiak IV* (1933) 142-143; *Rentería* 24 (1946) 23; "Barne-izketa", *Euzko-Gogoa* 7-8 (1952) 4].
 "Dabit'en CXXXVI'garren eresia. Super flumina", *Euzkadi* 5543 (1930) 4 [*Zeruko Argia* 147 (1931) 40-41].
 "Eldu dira alabak...", *Euzkadi* 5532 (1930) 1.
 "Gurutzearen oñetan", *Euzkadi* 5435 (1930) 1 [*Zeruko Argia* 137 (1930) 70].
 "Nere olerkiak", *Zeruko Argia* 134 (1930) 20.
 "Pizkunde-eguzkia. Sol de Renacimiento", *Eusko Olerkiak I* (1930) 134-143 [*Libro de Oro* (1934) 2].
 "Saadi'co Añosak (Marceline Desbordes-Valmore)", *Rentería* 13 (1930) 21.
 "Txantxangorria", *Zeruko Argia* 136 (1930) 54 ["Txantxangorria. Aitzol, Orixe, Lauaxeta eta Lizardi'ri", *Euzkadi* 5370 (1930) 5].
 "Udazken eresia", *Euzkadi* 5384 (1930) 5 [*Zeruko Argia* 139 (1930) 102].
- 1931, "Azkeneko ostoa", *Irujarrengo Prantziskotarra* 211 (1931) 22.
 "Gaueko otoitza. Oración nocturna", *Zeruko Argia* 155 (1931) 171-172 [*Eusko Olerkiak II* (1931) 112-119].
 "Maitasun-kondairatxo", *Eusko Olerkiak II* (1931) 106-111 [*Rentería* 24 (1946) 24; *Euzko Gogoa* 5-6 (1952) 5].
 "Maite damu", *Euzkadi* 5874 (1931) 5 [*Zeruko Argia* 157 (1932) 11; *Eusko Olerkiak III* (1932) 25-27].
- 1932, "Baseñira itzulpena", *Euzkadi* 6259 (1932) 8 [*Zeruko Argia* 170 (1933) 21-22; *Egan* 2 (1950) 13-15].
 "Ekaitz-ostean", *Euzkadi* 6090 (1932) 5.
 "Euzko ikurriñari", *Euzkadi* 5989 (1932) 10 [*Euzkadi* 7131 (1935) 10].
 "Gure Buruzagi. (Agirre'tar Yoseba Andoni jaunari)", *Euzkadi* 5922 (1932) 5.
 "Jesus Gurutzetuari", *La Cruz* 186 (1932) 6.
 "Loyola", *Euzkadi* 6619 (1932) 5 [*La Cruz* 199 (1932) 4-5; *Ekin* 26 (1932) 1].

- 1933, "Agintarien baimenarekin", *Euzkadi* 6287 (1933) 8.
 "Ator, maiteño. "Lauaxeta"ri biotz-biotzez", *Zeruko Argia* 169 (1933) 4 ["Maiteño bat ba-nun...", *Euzkadi* 6466 (1933) 8; "Naigabe sakon ta ixil-une luze-ostean", *Tierra Vasca* 201 (1933) 2].
 "Deun Agate'ren eskale", *Euzkadi* 6289 (1933) 8.
 "Erenderi'ko Madalen deunaren elizatzooan", *Yakintza* 1 (1933) 28 [*Eusko Olerkiak IV* (1933) 139-141; *Oarso* 21 (1986) 42].
 "Gonzaga'tar Luis doneari", *Gure mutiñak* 51 (1933) 24.
 "Zure oroiz (Lizardi, olerkari ta adiskide zanari, maitez ta naigabez)", *Yakintza* 3 (1933) 185-186 [*Euzkadi* 6342 (1933) 8; *Tierra Vasca* 201 (1933) 8; *Eusko Olerkiak IV* (1933) 144-146].
- 1934, "Iltzen naizen egunean", *Zeruko Argia* 191 (1934) 368-369.
 "¿Noruntz jo...?", *Zeruko Argia* 187 (1934) 304-306.
- 1935, "Amonatxo eskaleak esan dit...", *Euzkadi* 7141 (1935) 12.
 "Belen'en poesia", *Zeruko Argia* 193 (1935) 12 [*Euzko-Gogoa* 5-6 (1952) 4; *Euzko-Gogoa* 7-8 (1952) 2; *Izaskun* 73 (1953) 6].
 "Belen-Jetsemani", *Euzkadi* 6963 (1935) 12.
 "Katalin", *Euzkadi* 7138 (1935) 12.
 "Maite-opari", *Argia* 739 (1935) 2 [*Euzkadi* 7000 (1935) 12; *El Día*, 1935, 5; *Yakintza* 16 (1935) 257-259; *Ekin* 152 (1935) 3; *Euzko Deya-M* 99 (1948) 3; *Euzko Deya-M* 100 (1948) 12; *Arnas* 1 (1959) 57-58; *Eguna* 177 (1987) 25; *Oarso* 31 (1996) 160-161].
 "Olerkari bati", *Euzkadi* 7075 (1935) 12 [*Argiaren Egutegiak* 15 (1936) 61-64; *Oleri* 3-4 (1962) 42-44].
 "Pekatu-zelaitik", *Yakintza* 13 (1935) 21.
 "Sabin'en il obi ondoan", *Euzkadi* 7150 (1935) 24.
- 1936, "Udara aratsaldez", *Yakintza* 20 (1936) 87-89.
- 1952, "Anai-agurra", *Euzko-Gogoa* 1-2 (1952) 10 [*Zeruko Argia* 14 (1955) 166].
 "Anai-arteko Gudate-ondorean", *Euzko-Gogoa* 1-2 (1952) 10.
 "Anai-arteko gudatean", *Euzko-Gogoa* 1-2 (1952) 9.
 "Izar zaarrak", *Euzko-Gogoa* 7-8 (1952) 1.
 "Negu-Aurrean", *Euzko-Gogoa* 5-6 (1952) 4.
 "Pedro'ri begira zion", *Euzko-Gogoa* 1-2 (1952) 11 [*Euzko-Gogoa* 7 (1952) 5; *Oleri* 2 (1960) 207].
- 1954, "Ama Sortzez Garbiari", *Aranzazu* 34 (1954) 388-389 [*Zeruko Argia* 25 (1956) 18-19].
 "Bi umetxo", *Zeruko Argia* 10 (1954) 100.
 "Zeruko nere Amari", *Zeruko Argia* 11 (1954) 120 [*Oleri* 3 (1961) 264-266].
- 1957, "Izaskun-go Andre Mariaren goramenak", *Izaskun* 127 (1957) 6 [*Euzko-Deya-M* 218 (1958) 40].
- 1958, "Xenpelar bertsolariari", *Oarso* 1 (1958) 53.
- 1959, "Mikel eta Mari Pillare'ri beren ezkontza-egunean" (eskuizkribua).

- 1960, "Anima salbatu", *Olerti* 2 (1960) 77-78.
 "Eriotza", *Olerti* 2 (1960) 207-208.
 "Gaurtik bestea", *Olerti* 2 (1960) 140.
 "Inpernua", *Olerti* 2 (1960) 18.
 "Negarrez", *Olerti* 2 (1960) 141.
 "Zurea naiz", *Olerti* 2 (1960) 77.
- 1961, "Beti zure erri (Euskal kanta Andre Maria'ri)", *Olerti* 3 (1961) 11-13.
 "Oroigai aztu-eziña", *Karmel* 3 (1961) 73.
 "Zaindari Madalen doatsuari (Urteroko prozesioan, 1961)", *Oarso* 4 (1961) 7.
- 1962, "Barne-mintzoak", *Olerti* 1-2 (1962) 14-22.
- 1966, "Jesus'lagundiko aita Migel Odriozola'ri bere meza-berri egunean", *Zeruko Argia* 180 (1966) 6.
- 1983, "Bidez-bide", *Karmel* (1983-1) 53-56.

KANTUETAKO HITZAK

- 1927, "Ostiral Gurena", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 100 (1927) 56-57.
- 1928, "Atoz Jesus ona", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 114 (1928) 280-281.
- 1931, "Dabit'en CXXXVI-gařen erersia. Super flumina", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 147 (1931) 40-41.
- 1934, "¿Noruntz jo...?", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 187 (1934) 304-306.
- 1934, "Iltzen naizen egunean", A. Elduayenen musika, *Zeruko Argia* 191 (1934) 368-369.

HITZ LAUZ

- 1923, *Egizko Edeřtasuna (ipuin luzea)*, Bermeo, Gaubeka'tar Bitor'en irarkola.
- 1924, *Ipuiak*, Donostia, Loyolako Iñaki Deuna-ren irarkola, "Argia idaztiak".
 "Ezti -tantoak I", *Zeruko Argia* 64 (1924) 244-246.
 "Ezti-tantoak II", *Zeruko Argia* 66 (1924) 282-283.
 "Ezti-tantoak III", *Zeruko Argia* 68 (1924) 312-313.
 "Oroigaiak (Errenderiko nere lagun zarrei)", *Rentería* 7 (1924) 27.
- 1928, "Zertan dagon gizonaren zoriona", *Euskal Eснаlea* 18 (1928) 181-184.
- 1932, "Euskal-Elertiaren etorkizuna dala-ta...", *Eusko Ikaskuntzaren Deia* XIV-54 (1932) 11-13 [Perez Gaztelu, 1996b].
- 1934, "Lizardiren «Itz-lauz» dala ta...", *El Día*, Donostia, 1934/05/23, 1 [*Euzkadi*, Bilbo, 1934/05/25].

- 1935, "Astibia'tar Jon Andoni. Aita Erenderi kaputxinoa, olerkari eta idazle", *El Día*, Donostia, 1935/07/12, 1.
 "Bertsolari nor zaigun:Xenpelar eredu", *Yakintza* 17 (1935) 331-339; *Yakintza* 18 (1935) 407-413.
 "Eusko Olerkiak", *El Día*, Donostia, 1935/09/15, 1.
 "Gaurko apaizak euskeraren alde" *El Día*, Donostia, 1935/12/11, 1.
 "Zubimendi ta Lauaxeta", *El Día*, Donostia, 1935/08/31, 1 [*Euzkadi*, Bilbo, 1935/09/03].
- 1936, "Gurutzea nekazari-oiuretan", *El Día*, Donostia, 1936/05/10, 1.
 "La literatura oral euskérica", *El Día*, Donostia, 1936/01/04, 1.
- 1952, "Joxepantoni'ren gora-bera illun eta alaiak", *Egan* (1952-1) 25-32 [1953, *Ipuiak*, "Andre Joxepantoni" (aldaera berritua)].
- 1953, *Ipuiak*, Zarautz, Itxaropena, "Kuliska Sorta", 4. z.
- 1958, *Xenpelar Bertsolaria. Bizitza ta bertsoak*, Zarautz, Itxaropena, "Kuliska Sorta" 25-26. z.
- 1960, "«Loramendi» Olerkaria. Bere poesia-lanaren azterketa, bera bizi izan zan garaiari buruz-buru", *Euskera* 5 (1960) 235-257.
- 1962, "«Jaungoiko-Txiki»", *Oarso* 5 (1962) 38-39.

ERDARAZ

HITZ NEURTUZ

- 1926, "Al Santo Cristo de Lezo", *Rentería* 9 (1926) 56.
 "Oda a Rentería", *Rentería* 9 (1926) 43 [*Rentería* (1953) 14-15].
- 1928, "A la memoria del historiador renteriano Don Juan Ignacio de Gamón, Pbro.", *Rentería* 11 (1928) 54.
- 1929, "La procesión de Santa María Magdalena", *Rentería* 12 (1929) 9 [*Oarso* 9 (1971) 39].

HITZ LAUZ

- 1922, "[Sobre la unificación del euskera]", *Euskera* III (1922-1) 57.
- 1924, "Sobre el progreso renteriano (Aquilatando conceptos)", *Rentería* 7 (1924) 7.
- 1925, "La enseñanza obligatoria y el analfabetismo", *Rentería* 8 (1925) 33.
- 1927, "Un gran problema renteriano", *Rentería* 10 (1927) 19.
- 1929, "Sacerdote y maestro", *Rentería* 12 (1929) 7.

- 1930, "En torno a una encuesta", *Euskal Eснаlea* 20 (1930) 73-75.
- 1931, "Cultura y educación moral", *El Día*, Donostia, 31/01/1931, 2.
 "El ateísmo comunista ante la razón humana", *El Día*, Donostia, 19/02/1931, 2.
 "El matrimonio civil", *El Día*, Donostia, 13/12/1931, 1.
 "La fiesta de la Poesía Vasca en Tolosa", *El Día*, Donostia, 29/03/1931, 3.
 "La libertad de Enseñanza y la Iglesia", *El Día*, Donostia, 21/01/1931, 2.
 "La siembra", *El Día*, Donostia, 04/07/1931, 3.
 "Las elecciones", *El Día*, Donostia, 06/05/1931, 3.
 "Libros y lectores", *El Día*, Donostia, 01/03/1931, 3.
 "O catolicismo o socialismo", *El Día*, Donostia, 20/12/1931, 1.
- 1932, "Biotz-begietan. Un gran poeta vasco", *El Día*, Donostia, 06/08/1932, 1.
 "Iturriaga" *El Día*, Donostia, 01/05/1932, 1.
 "El clero en nuestra literatura", *El Día*, Donostia, 30/11/1932, 1.
 "La Inmaculada y Escoto...", *El Día*, Donostia, 16/11/1932, 1.
 "La muerte del euskera", *El Día*, Donostia, 28/01/1932, 1.
 "Literatura religiosa", *El Día*, Donostia, 11/11/1932, 1.
 "Nuestros poetas", *El Día*, Donostia, 01/10/1932, 1.
 "Poesía vasca. A propósito de «Aberri-oyuak»", *El Día*, Donostia, 13/04/1932, 1.
 "Poesías vascas", *El Día*, Donostia, 16/09/1932, 1.
 "Rumbos nuevos", *Euzkadi*, Bilbo, 01/05/1932, 1.
 "Un libro de texto para las escuelas vascas", *El Día*, Donostia, 27/02/1932, 1.
 "Vicisitudes de nuestro teatro. ANTZERTI", *El Día*, Donostia, 14/05/1932, 1.
 "Yakintza", *El Día*, Donostia, 11/03/1932, 1.
- 1933, "De su alma y de su pluma", *El Día*, Donostia, 11/04/1933, 1.
 "El poeta Loramendi", *El Día*, Donostia, 14/06/1933, 1.
 "Lizardi. Su personalidad literaria", *El Día*, Donostia, 26/04/1933, 1.
 "Locura desgraciada", *El Día*, Donostia, 04/03/1933, 1.
 "Poesías", *El Día*, Donostia, 25/08/1933, 1.
 "Realidades y esperanzas", *El Día*, Donostia, 10/01/1933, 1.
 "Tantum ergo sacramentum...", *El Día*, Donostia, 14/04/1933, 1.
 "Un desco y un ruego", *El Día*, Donostia, 03/02/1933, 1.
- 1934, "Amal-Itz-Lauz", *El Día*, Donostia, 18/04/1934, 1.
 "El día del teatro vasco" *El Día*, Donostia, 24/01/1934, 1.
 "El patriotismo vasco y el euskera" *El Día*, Donostia, 14/01/1934, 1.
 "Irradiaciones vasquistas", *El Día*, Donostia, 27/03/1934, 1.
 "La obra póstuma del poeta Lizardi", *El Día*, Donostia, 10/06/1934, 1.
 "La poesía popular vasca", *El Día*, Donostia, 15/12/1934, 1.
 "Los vascos en México", *El Día*, Donostia, 28/11/1934, 1.
 "Txomin Agirre", *El Día*, Donostia, 12/07/1934, 1.
 "Una ruta acertada", *El Día*, Donostia, 09/03/1934, 1.
- 1935, "El bertsolari", *El Día*, Donostia, 11/01/1935, 1.
 "El Día del Bertsolari", *El Día*, Donostia, 20/01/1935, 1.
 "Garoa", *El Día*, Donostia, 06/03/1935, 1.

- 1936, "El bertsolari en acción", *El Día*, Donostia, 20/06/1936, 1.
- 1943, "Nuestra Patrona. La gran Santa del Nuevo Testamento", *Rentería* (1943) 25-26.
- 1958, "El bertsolari «Xenpelar»", *Oarso* 1 (1958) 28.

ITZULPENAK

- 1934, "Verdaguer' en olerkiak euzkeraz", *Euzkadi*, Bilbo, 1934/04/13.
- 1967, *Paskual Duarte-ren sendia* (C. J. Cela, *La familia de Pascual Duarte*), Zarautz, Ixaropena, "Kuliska Sorta", 62. z.

JAUTARKOLEN GAINEKO BIBLIOGRAFIA

Agirre, J.M. Ik. "Lizardi, X."

Agirre, T., Ik. "Barrensoero".

- "Aitzol", 1930a. "Nuestros poetas", *El Pueblo Vasco*, Donostia, 12/01/1930.
 —, 1930b, "Itzaurea", *Eusko Olerkiak I*, Donostia, Euskaltzaleak, [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 7-15].
 —, 1930c, "Itzaurea", *Otaño'tar Pedro Mari. Olerki onenak-alkar*, Donostia, Iñaki Deunaren Irarkola [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 16-24].
 —, 1931, "Itzaurea", *Eusko Olerkiak II*, Donostia, Euskaltzaleak [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 25-31].
 —, 1932, "Itzaurea", *Eusko Olerkiak III*, Donostia, Euskaltzaleak [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 37-47].
 —, 1933a, "Itzaurea", *Eusko Olerkiak IV*, Donostia, Euskaltzaleak [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 55-76].
 —, 1933b, "El poeta José María de Agirre "Xabier de Lizardi"", *Yakintza* 3 (1933) [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 131-150].
 —, 1933c, "El poeta Juan de Arana. "Bedoña'tar Jokin" ("Loramendi"), *Yakintza* 4 (1933) [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein, 151-162].
 —, 1933d, "Antziñako oituren piztutzea", *El Día*, Donostia, 1933/02/05 [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 5. Euskal kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile (I)*, Donostia, Erein, 427-429].
 —, 1935, "Fiesta humilde y campesina. (Gaur Bedoña...)", *Euzkadi*, Bilbo, 02/06/1935 [1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 6. Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile (II)*, Donostia, Erein, 247-249].

Altuna, J. Ik. "Amilgain".

Amenabar, J., 1983, *Euskal poesia kultoaren bilduma. 1880-1963*, Donostia, Elkar.

- "Amilgain", 1929, "Idazti Bañijak. *Biozkadak*", *Euzkerea* (1929) 191.
- "Añarbe", 1971, "«Jautarkol» (G.B.)", *Oarso* 9 (1971) 82-83.
- "Andoni", 1935, "Igandez Errenderi'n. Aita Astibia'ren omenez eratutako jaiak ederto ospatu ziran", *El Día*, Donostia, 1935/07/17. [Jautarkolen hitzaldia dakar].
- Ariztimuño, J. Ik. "Aitzol".
- Arteche, J. de, 1947, "El poeta de Machinventa", *Caminando*, Zarautz, Itxaropena, 57-61 [*Oarso* 9 (1971) 34-35; (eusk.) J. Etxaide, *Egan* (1954-1) 13-15].
- Auñamendi, "Luis de Jauregui (1896-1971)", *Enciclopedia General Ilustrada "Auñamendi", "Literatura" III*, 500-507.
- Bandrés, R., 1986, "Luis Jauregi «Jautarkol» euskal poeta erreteriarren mendeurrena", *Oarso* udal-aldizkaria 31 (1996, maiatza) 14.
- "Barenso", 1933, "Gure olerkariak", *Yakintza* 1 (1933) 21-25.
- Bilbao, J., 1970-1981, *Eusko bibliographia*, Donostia, Auñamendi.
- Bozas Urrutia, E., 1921, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*, San Sebastián [1976, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Erreteria kondairan eta ipuin zaharretan*, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y publicaciones, 335-337].
- Eguía Ruiz, C., 1929, "De literatura regional: *Euskeria*", *Razón y Fe*, junio (1929) 440-441.
- Eguna*, 1987/06/18, "Jauregi'tar Koldobika (1896-1971)", 25.
- El Día*, 1935/06/4, "VI Euskal Olerti Eguna", 2.
- Elhuyar, 1993, *Hiztegi Entziklopedikoa*, Usurbil, Elhuyar.
- Estornés. Ik. Auñamendi.
- Etxaide, J., 1954, "Matxinbenta'ko olerkaria", *Egan* (1954-1) 13-15.
- Etxaniz, N., 1971, "Jauregi'tar Luis apaiz jauna «Jautarkol» joan zaigu", *Zeruko Argia* 415 (1971) 7.
- G. V., J., 1957, "Los renterianos y la literatura", *Rentería* 31 (1957) 16.
- Garmendia, J. Ik. "Zeleta".
- Goñi, J., 1996, "D. Luis Jauregi Etxenagusia, Sacerdote", *Oarso* 31 (1996) 4-5.
- Haranburu (ed.), 1985, *Diccionario enciclopédico del País Vasco*, San Sebastián, Haranburu.
- Ibarzabal, E., 1977, *Koldo Mitxelena*, Donostia, Erein.

- Ibinagabeitia, A., 1954, "Ipuiak (Jautarkol)", *Euzko-Gogoa* (1954) 126.
- Inza, D., 1929, "Itzaurea", Jautarkol, *Biozkadak*, Iruña, Neketako Ama-Birjiñaren Irarkola, V-XV.
- , 1975, "Bigarren argitaldiari hitzaurrea", Jautarkol, *Biozkadak*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Izueta, P., 1991, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (V). Orixe eta bere garaia*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
- Korta, A. Ik. "Añarbe", "Andoni".
- Kortazar, J., 1986, *Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga «Lauaxeta»*, Bilbo, Desclee de Brouwer.
- , 1995, "«Euzkerea» eta «Yakintza» aldizkarietako olerkigintza", Bilbo, Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala.
- , 1996, "Luis Jauregi «Jautarkol»", *Deia* (igandeko gehigarria), 1996/07/16.
- Landa, J., 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Donostia, Elkar-AEK.
- Lafitte, P., (P. Urkizuk paratua), 1990, *Euskal literaturaz*, "Klasikoak", Donostia, Euskal Editoreen Elkarte (Erein).
- "Lauaxeta", 1929a, "Divagaciones. *Biozkadak*", *Euzkadi*, Bilbo, 08/11/1929.
- , 1929b, "Divagaciones. *Biozkadak*", *Euzkadi*, Bilbo, 16/11/1929.
- , 1934, "Uaia", *Euzkadi*, Bilbo, 1934/04/13.
- Lekuona Berasategi, J. M., 1971, "Luis Jauregi «Jautarkol», olerkari erreteriarra", *Oarso* 9 (1971) 10.
- , 1996, "Luis Jauregi «Jautarkol»-en *Biozkadak*. Testu azterketa", *Euskera* 41 (1-2) (1996) 75-88.
- Lekuona Etxabeguren, M., 1975, "Jautarkolen «Biozkadak». Bigarren argitalpena. Itzaldi" [1987, *Idazlan guztiak. 11. Azken urratsak*, Tolosa, Kardaberaz bilduma 32, 341-346].
- "Leiz", 1971, "Jautarkol Olerkaria", *Oarso* 9 (1971) 62-63.
- "Lizardi, X.", 1930, "Euskel-Olerti-Jaia. Errenderiar jatorrei deia", *Argia*, 1930/01/26 [1987, *Kazetari-lanak*, Donostia, Erein, 295-296].
- , 1933, "Gure bideko mugariak", *Argia*, 1933/02/12 [1987, *Kazetari-lanak*, Donostia, Erein, 401-404].
- Lizaso, F. Ik. "Leiz".
- Los Santos, E., 1971, "Una triste fecha", *La Voz de España*, 12/02/1971.
- Madariaga, A., 1923, "Egizko edertasuna", *Aranzazu*, abuztua, 28 (1923) 266.
- Mendiguren Elizegi, X., 1996, "Jautarkol Celaren euskaratzaile", *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/06/16, 24.

- Michelena, L., 1952, "Los renterianos y la literatura en lengua vasca", *Rentería* 31 (1952) 39.
—, 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid, Minotauro [1988, Donostia, Erein].
- Mitxelena, K., 1958a, "Xenpelar bertsolaria bizitza ta bertsoak, Jauregi'tar Luis («Jautarkol»), "Kuliska sorta", Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958", *Egan* 3-6 (1958) 240. [1988, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak* II, 106-108].
—, 1958b, "Intza begietan. Olerkiak (Poesías vascas con traducción castellana), Claudio Sagarzazu (Satarka), San Sebastián, Valverde", *Egan* 5-6 (1958) 105 [MEIG II, 102-103].
—, 1976, "Hitz bitan", E. Bozas Urrutia, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Erreneria kondairan eta ipuin zaharretan*, Donostia, 1976, XVIII-XXXI. [MEIG IX, 40-45].
- Mujika, L.M., 1979, *Historia de la literatura euskerika*, Donostia, Haranburu.
- Olaskoaga, X. ("Xabier"), 1985, "Errenderi'ko bertsolari eta olerkari zaarrak", *Oarso* 20 (1985) 81.
—, 1996, "«Maite Opari»ren xeetasun batzuek", *Oarso* 31 (1996) 160-161.
- Olaso, J., 1929, "Biozkadak. Un libro de poesías del Sr. Jáuregui", *Rentería* 12 (1929) 50.
- Onaindia, S., 1954, *Mila euskal-olerki eder*, Itxaropena [1975₂, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca].
—, 1975, *Euskal literatura (IV)*, Bilbo, Etor.
—, 1977, *Euskal literatura (V), 1915-1940*, Bilbo, Etor.
- "Orixe", 1930a, "Nuestros poetas. Suspiros del corazón (1)", *Euzkadi*, 1930/01/01 [1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 299-301].
—, 1930b, "La métrica de «Biozkadak»", *Euzkadi*, 1930/01/03 [1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 301-303].
—, 1930c, "La imitación en Jauregui", *Euzkadi*, 1930/01/21 [1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 303-305].
—, 1930d, "Los «Euskaltzaleak» en Zumaia", *Euzkadi*, 1930/03/11 [1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 305-308].
—, 1930e, "Las fiestas de Errenderi", *Euzkadi*, 1930/06/03 [1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 308-312].
—, 1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
—, 1991b, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (V). Orixe eta bere garaia*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
- Ormaetxea, N. Ik. "Orixe".
- Otaegi, L., 1994, *Lizardiren poetika Pizkundearen ingurumariaren argitan*, Donostia, Erein.
— (par.), 1987, *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*, Donostia, Erein.
- Pascual, M.J.-Sanzberro, L., 1996, "«Jautarkol» en la biblioteca de Rentería", *Oarso* 31 (1996) 134-138.

- Perez Gaztelu, E., 1996a, "Jautarkol eta Lizardi: bi bide, asmo bai", *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/06/25, 28.
—, 1996b, "Bi erreneriar egitasmogile (Jautarkolen oroimenez)", *Oarso* 31 (1996) 43-44.
—, 1996c, "Jautarkolez: aztarren bila", *Euskera* 41 (1-2) (1996) 89-118.
- San Martín, J., 1968, *Escritores euskéricos: catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
—, 1972a, "Hil berriak: Klaudio Sagartzazu Sagartzazu (1895-1971)", *Euskera* 17 (1972) 285.
—, 1972b, "Hil berriak: Jose Luis Jauregi Etxenagusia (1896-1971)", *Euskera* 17 (1972) 291.
—, 1996, "J.L. Jauregi «Jautarkol» mendeurrenean", *Oarso* 31 (1996) 82-84.
- Sarasola, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*, Donostia, Lur.
—, 1976, *Historia social de la literatura vasca*, Madrid, Akal.
- Torrealdai, J.M., 1977, *Euskal idazleak gaur*, Oñati-Arantzazu, Jakin.
- Ugalde, M., 1996, "Mendeurrenaren eskakizunak", *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/06/19, 30.
- Urkiaga, E. Ik. "Lauaxeta".
- Urkizu, P. (par.). Ik. Lafitte.
- Urteaga, L., 1973, "Un gran poeta vasco: Luis de Jáuregui", *La Voz de España*, 09/08/1973.
- Villasante, L., 1961, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao, Sendo [1979₂, Oñate, Ed. Franciscana Aránzazu].
- "Xabier" (X. Olaskoaga), 1986, ["Errenderi'ko Madalen Deunaren elizatzooan"], *Oarso* 21 (1986) 42.
—, 1996, "Jauregi'tar Koldobika «Jautarkol»", *Oarso* 31 (1996) 62-63.
- XX, 1927, "Hombres de Rentería (D. Miguel Aranguren, D. Cosme Echeverría, D. Ignacio Lecuona, D. Luis de Jáuregui)", *Rentería* 10 (1927) 37.
- Zabaleta, J. (zuz.), 1991-1994, *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, Lur.
- "Zeleta", 1958, "Idazti berriak. Jautarkol, Xenpelar", *Euzko-Gogoa* 5-6 (iraila-gabonila) (1958) 696-701 [Euzko-Gogoa 3-6 (epaila-garagarrila) (1959) 281-286].
- Zeruko Argia, 1929, "Liburu berriak. Biozkadak", 128 (1929).

HIZTEGITXOA

abenda:	arraza.
alorta:	fruitua.
alpertu:	nekazaritzako tresna den alperraz landu.
aretu:	nekazaritzako tresna den areaz landu.
auken:	zuan (hitanoz).
beazun:	isurkari berdexka, likatsua eta mingotsa, gibelari etengabe dariona.
benik:	bederenik, bederen.
edestu:	historiak nahiz istorioak kontatu.
erkin:	ahula.
eresi:	abestia, musika.
ereskin:	musika-tresna.
eriotz-izpar:	berri, heriotzaren berria.
estuntza:	katea.
eultza:	erlauntza.
galtzutar:	galtzua, lasto-hondakina.
garaitza:	garaipena.
gudaldu:	borrokatu, gudukatu.
gudate-izkillu:	arma.
gun:	mamia, muina.
irarri:	1.inprimatu; 2.bernuzatu, grabatu.
lekaro:	basamortua, desertua.
mentu:	landare batean txertatzen den beste landare baten zatia.
mitxirria:	tximeleta, pinpilinpaua.
mospel:	laiotza.
neskutz:	birjina, dontzeila.
oldoztu:	oroitu, gogoeta egin.
opaldu:	eskaini, sakrifikatu.
orril:	maiatza.
orroika:	orroka, orro eginez.
ozte:	jendea; jende-taldea.
txadon:	eliza.
txikar:	txikia.
ulu:	uhuria.
zabeszkiten:	abesten, kantatzen zituzten.
zaitu:	zaindua.
zirtzil:	balio gutxikoa, ezdeusa.

*“Artu ta gorde, adiskidea,
bidezkarriak bide-lorea
gorde oi duan bezela:
agian zure biotz-barruan
mardulduko da, gaur zure eskuan
daukazun sorta zimela”*

Errenteriako Udala
Kultura-Batzordea



Ayuntamiento de Errenteria
Comisión de Cultura